

EITBren estilo liburua

Informazioa eta Aktualitatea

3. EDIZIOA



EITBren estilo liburua

Informazioa eta Aktualitatea

*UPV/EHUK eta EITBk elkarlanean
sorturiko obra*

EITB

EITBren estilo liburua: informazioa eta aktualitatea / Rosa M. Martín Sabarís, María José Cantalapiedra, Begoña Zalbidea Bengoa ; editorea, Andoni Aranburu Iturbe ; [euskarazko bertsioa, Asier Larrinaga Larrazabal].— 3. argit.— Bilbo:

EITB, 2020

236 or.— 28 cm

Eranskinak.— Bibliogr.

ISBN 978-84-09-24799-8

1. Euskal Irrati Telebista 2. Ikus-entzunezko kazetaritza—Estilo eskuliburuak 3. Euskara—Estilo eskuliburuak 4. Gaztelania—Estilo eskuliburuak I. Martín Sabarís, Rosa M. II. Cantalapiedra González, María José III. Zalbidea Bengoa, Begoña IV. Aranburu Iturbe, Andoni, ed.

654.19:070.431.1

Erabat debekatuta dago, EITBren Zuzendaritzaren baimen idatzia izan ezean, obra hau osorik zein zatika erreproduzitzea edozein baliabidez eta edozein prozeduraz, erreprografia eta tratamendu informatikoa barne.

UPV/EHUK eta EITBk elkarlanean sorturiko obra

Jatorrizko izenburua:

EITBren Estilo Liburua – Informazioa eta Aktualitatea

Testuen egileak:

1., 2., 3., 4. atalak: Rosa M. Martín Sabarís, María José Cantalapiedra, Begoña Zalbidea eta EITBko profesional-talde bat.
5., 6. atalak: Rosa M. Martín Sabarís, María José Cantalapiedra, Begoña Zalbidea, EITBko profesional-talde bat eta EITBko Euskara Zerbitzua.

Eranskinak: EITBko profesional-talde bat, EITBko Euskara Zerbitzua, EITBko Produkzio Zuzendaritza eta EITBko Zuzendaritza Artistikoa.

Edizioa: Andoni Aranburu Iturbe.

Eskerrik beroenak:

Jaime Arrese, Galo Bilbao, *Emakunde*, Jonan Fernández, *Ihobe*, Fabián Laespada, Jon-M. Landa, Jose Luis Lizundia, Carmen López, Maite Pagazaurtundua, Txema Urkijo.

Argitalpena:

Working Paper: 2013ko urtarrila. Bigarren edizioa: 2016ko uztaila. Hirugarren edizioa: 2020ko azaroa.

Euskarazko bertsioa:

Asier Larrinaga Larrazabal

Azaleko argazkia:

Iñaki Eskubi

Diseinua eta maketazioa:

Mediaprint, S.L.

ISBN:

978-84-09-24799-8

Lege-gordailua:

Bi 01636-2020

© EITB, 2020

Helbidea: EITB –Basurtuko Kaputxinoak, 2 – 48013 Bilbo (Bizkaia)

Telefona: (00 34) 946 563 126 eitb@eitb.eus

Aurkibidea

Hitzaurrea	07
Aplikagarritasuna – Estilo liburuaren irismena eta xedea	09
1. Aurkezpena	11
1.1. EITB, komunikazio-taldea	12
1.2. Zerbitzu publikoa	12
1.3. Informazio-eskubidea	14
2. EITBren informazio-misioa	17
2.1. Oinarrizko printzipioak	18
a) Bizikidetzaren herritar-balioak defendatzea eta sustatzea	18
b) Berdintasun-printzipioa eta pluralismo politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoa errespetatzea	18
c) Euskal kultura eta euskara sustatzea	19
d) Haurrak eta gazteak babestea eta sustatzea	19
2.2. Euskal komunikabidea	20
2.3. Komunikabide elebiduna	21
2.4. Komunikabide multimedia	22
3. Etika, deontologia eta jardunbide profesionala	23
3.1. Oinarrizko printzipioak	24
a) Objektibotasuna, egiazkotasuna, inpartzialtasuna, neutraltasuna eta independentzia	24
b) Ohorea, izen ona, irudia eta intimitatea errespetatzea	24
3.2. Betebehar profesionalak	25
a) Errugabetasun-presuntzioa	25
b) Bateriaezintasunak	26
c) Informatzaile gisa identifikatzea	26
d) Eskupekoak, opariak, gonbidapenak eta sariak	27
3.3. Profesionalen eskubideak	27
a) Kontzientzia-klausula	28
b) Sekretu profesionala	28
3.4. Publikoaren eskubideak	29
a) Erantzuteko eta zuzentzeko eskubidea	29
4. Legezko erantzukizuna	31

5. Informazioa lantzeko jarraibideak	33
A1 Giza eskubideak, biktimen aitorpena eta bakea	35
A2 Gatazka armatuak eta gerrak. Terrorismoa	38
A3 Ezbeharrak, hondamendiak eta istripuak	41
A4 Suizidioa	43
A5 Laikotasuna eta pluraltasun erlijiosoa	45
A6 Genero-berdintasuna	46
A7 Indarkeria matxista	49
A8 Adingabeak eta nerabeak	52
A9 Immigrazioa, arrazakeria eta xenofobia	54
A10 Desgaitasuna eta gaixotasuna	56
A11 Droga-mendekotasuna eta bestelako adikzioak	58
A12 Kirolarekin loturiko indarkeria	61
A13 Animalien aurkako indarkeria	63
A14 Delituak, informazio poliziala eta judiziala	65
A15 Bide-segurtasuna	67
A16 Laneko istripuak, gaixotasunak eta prebentzioa	70
A17 Ingurugiroa eta jasangarritasuna	73
A18 EITBri buruzko informazioak	75
6. Jardunbide profesionalerako jarraibideak	77
B1 EITB marka eta EITBren markak	79
B2 Informazio-iturriak	81
B3 Adierazpenen hizkuntza-tratamendua	84
B4 Zuzeneko emankizunak	89
B5 Informazio politikoa	92
B6 Hauteskundeen gaineko informazioa	94
B7 Ikerketak eta inkestak	97
B8 Titularrak	99
B9 Albisteak	102
B10 Elkarriketak	105
B11 Kronikak	108
B12 Irudien eta soinuaren grabazioa, toki publikoetan eta pribatuetan	111
B13 Gertalekutik berri ematea	113
B14 Artxiboko materiala	115
B15 Besteren materiala	118
B16 Sare sozialak	120
B17 Herritarren parte-hartzea	123
B18 Autoretza eta sinadura	126
B19 Pertsonen deiturak	129
B20 Euskal Herriko toki-izenak	132
7. EITBren Erredakzio Estatutua	135
8. Eranskinak	157
I EITBren komunikazio-esparruko egiturak	159
II Glosarioa	171
III Azpidazketa bidezko itzulpenak	181
IV Arazo grafikoak euskaraz eta gaztelaniaz	187
V Lokuzio-arazoak euskaraz eta gaztelaniaz	191
VI ENG ekipoen bidez grabatzeko jarraibideak	195
VII Telebistako kredituei buruzko araudia (ETB)	203
VIII Euskal Herriko udalerrak eta jentilizioak. EITBn erabiltzeko jarraibideak	209
Erreferentzia orokorrak	231

Hitzaurrea

Kazetarien erantzukizuna informatzea da, eta hedabideena, informazio-eskubidea bermatzea

Estilo-liburu hau EITBko eta beste edozein hedabidetako profesional eta kazetariei zuzenduta dago, egunero aktualitatearen tratamenduan izaten dituzten buruhausteak gogoan. Liburua haienezako guztientzako proiektu erabilgarri bat izatea nahi da, baita gogoeta eta debate akademikorako tresna bat ere, egungo gizartean handi baitira sortzen diren dilemak, eta are handiago informazio egiazko eta arduratsuaren beharrazana.

«Egiazko kazetaritza nahitakoa da: helburu bat ezarri, eta aldaketaren bat eragiten ahalegintzen da. Kazetarien betebeharra informatzea da, gizadiari laguntzeko moduan informatzea, eta ez gorrotoa edo harropuzkeria sustatzeko moduan. Albisteak bestearen ezaupidea handitzeko bali behar du, bestearen errespetua handitzeko. Gerrak beti hasten dira lehen tiroa entzun baino askoz lehenago; hedabideetako hiztegi-aldaketarekin hasten dira». Ryszard Kapuscinskiren gogoeta horrek, aurreko edizioetan jaso, indarrean segitzen du, eta funtsezko gakoak ematen ditu zintzotasun informatiboaren ezaugarriak ulertzeko.

Esku artean duzun liburu hau lan kolektibo bat da, EITBk eta UPV/EHUK elkarlanean sortua. Hirugarren edizio eguneratu honetan, erredakzio-taldeak, bere profil eta ibilbide ezberdin eta pluraletatik, testuak berrikusi eta gai berriak erantsi ditu. Jarrera jakin bat hartu aurretik, sentsibiltate ezberdinen entzute aktiboa egin du, parte-hartzea eta hitza eskainiz UPV/EHUri, EITBri —bertako profesionalen eta Erredakzio Kontseiluaren bidez— eta gizarte-eragile ugari, informazioaren lanketarako eta jardunbide profesionalerako ikuspegiak eta jarraibideak balioztatze helburuarekin.

EITBk, komunikazio-talde publiko gisa, estilo-liburu honen bidez aldarrikatu nahi du gogoeta-gueneen premia dagoela kazetaritza-lanean kalitatez aritzeko, eta hedabideek herritarren informazio-eskubidea bermatzeko betebeharra dutela.

Aplikagarritasuna – Estilo liburuaren irismena eta xedea

Helburua: Informazioa prestatzen duten profesionalak aplikagarri zaizkien printzipio deontologikoak finkatzea, eta jarraibide adostuak ezartzea berriazko tratamendu informatiboa edo jardunbide profesionala behar duten kazetaritza-alderdiei buruz.

Irismena: EITBren sozietateen telebistako, irratiko eta Interneteko kanaletan egiten den informazio- eta aktualitate-eskaintza guztia.

Liburuan ezarritakoa, hauek guztiek bete behar dute:

- a. EITBko profesionalak, behin-behineko langileak eta praktikan ari diren ikasleak. Zehatzago esanda: kazetariak, editoreak, errealizadoreak, kamerariak, grafistak, soinu-teknikariak, produktoreak, dokumentazio-teknikariak, eta abar.
- b. Edukiak prestatzen dituzten kanpo-profesionalak.
- c. Era guzietako saioak, baldin eta aurkezlearen edo gidariaren hitzek edo iritziek liburu honetan landutako gairen bat ukitzen badute.
- d. Iritzi- eta debate-saioen gidariak, liburu honetan landutako gairen bat ukitzen badute.
- e. Publikoak eitb.eus-en duen parte-hartzea kudeatzen eta administratzen duten profesionalak.
- f. Telebistako programen azpidaketa automatizaturako sistemekin lan egiten duten profesionalak.

Metodologia: Estilo liburu hau prestatzen, pertsona hauek hartu dute parte:

- EHUko idazketa-taldea.
- EITBko idazketa-taldea.
- EITBren sozietateetako informazioaren profesionalak, testua egiaztatuz, ekarpenak eginez eta bertsioak berrikusiz. *Working paper* edizioan, kanpoko stakeholderrek eta EITBren Administrazio Kontseiluko zenbait kidek ere hartu zuten parte.

Sozializazioa eta zabalkundea:

- a. Aplikagarri zaien EITBko profesional guztiei eta kanpoko langile guztiei banatzea, eta beharrezko azalpenak ematea.
- b. Langile berriak hartzeko eta ikus-entzunezko enpresekin kontratuak egiteko orduan, Estilo Liburuaren berri ematea eta banatzea.
- c. EITBren eragin-eremuko unibertsitateei eta hedabideei aurkeztea.
- d. Tortolikan —EITBren intranetean— argitaratzea.
- e. eitb.eus-en argitaratzea.

1. Aurkezpena

1.1. EITB, komunikazio-taldea

EITB
sortzeko
legea

1. Eusko Legebiltzarrak 1982ko maiatzean onartu zuen EITB Herri Erakundea sortzeko Legea, Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernua funtsezko tresna izan zedin, besteak beste, *Euskadiko herritarren informazio eta parte-hartze politiko-rako, geure heziketa-sistemetarako elkarlanerako eta, orobat, euskal kulturaren sustapen eta zabalkunderako eta, bereziki, euskararen sustapen eta garapenerako*.
2. EITB sortzeko legeak ezartzen duenez, EITBren jardura printzipio hauetan oinarritzen da¹:
 - a. *Informazioen objektibotasuna, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna.*
 - b. *Informazioa eta iritzia banatzea eta bereiztea, eta, iritzia kasuan, eman duen pertsona identifikatzea.*
 - c. *Publizitate komertziala ere banatzea eta bereiztea.*
 - d. *Berdintasun-printzipioa eta pluralismo politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoa errespetatzea.*
 - e. *Espainiako Konstituzioan eta EAEko Autonomia-estatutuan interes orokorraren alde jasota dauden bizikidetzaren herritar-balioak defendatzea eta sustatzea.*
 - f. *Espainiako Konstituzioan eta EAEko Autonomia-estatutuan jasota dauden eskubide guztiak errespetatzea.*
 - g. *Pertsonen ohorea, izen ona, irudia eta intimitatea errespetatzea.*
 - h. *Haurrak eta gazteak babestea eta sustatzea.*
 - i. *Euskara eta euskal kultura sustatzea. Programazio-lerro nagusiak ezartzeko, euskararen erabilera aintzat hartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan orekatuta egon behar baitu irrati-telebistako edukien eskaintza osoak hizkuntzari dagokionez.*
3. Ordutik hona, ikus-entzunezko sektore publikoaren erregulazioak aldaketa garrantzitsuak izan ditu. Espainia Europar Batasunean sartu eta gero (1986), ikus-entzunezko komunikazioko enpresa publikoak nazioarteko itunen bidez arautzen dira. Aipagarri dira Amsterdameko Tratua (1997), eta Europako Parlamentuaren, Europako Kontseiluaren eta Europako Batzordearen beraren erregulazioak. Araudiok Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko legeetan jasotzen eta garatzen dira.

1.2. Zerbitzu publikoa

Zerbitzu
publikoa,
funtsezko
kontzeptua

4. Zerbitzu publikoa deritzon kontzeptua da EITBri dagokion araudiaren oinarria. Komunikazio-enpresa publiko bat den aldetik, Administrazioak eta Politikak zerbitzu publikoa emateko mandatua ezartzen diote EITBri, eta, horren ordainean, EITBren aurrekontuek finantzazio nahikoa eta proportzionatua dute.

¹ 5/1982 Legea, maiatzaren 2koa, Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeko buruzkoa; 3. art.

5. Ikus-entzunezko enpresa publikoak dituzten administrazio eta gobernuek *mandatu-marko* bat ezarri behar dute lege bidez, indarraldi jakin baterako, zerbitzu publikoa zertan datzan eta haren ezaugarriak zeintzuk diren zehaztuz.

6. 2002tik aurrera, *mandatu-marko* hori programa-kontratu gisa gauzatu da EITBn. 2016ko otsailaren 24ko programa-kontratuan jasotzen denez, euskal gizarteak, bera ordezkatzeko duten erakunde bitartez, aro digitalera egokitutako eta bideratutako misio hau ezarri dio EITBri:

*EITBren
zerbitzu
publikoaren
misioa*

- a. *Kalitatezko informazioa eskaintzea.*
- b. *Euskara eta euskal gizarte gero eta elebidunagoa sustatzea.*
- c. *Euskal kultura bultzatzea eta zabaltzea.*
- d. *Euskal kirola bultzatzea eta zabaltzea.*
- e. *Euskal Herriko ikus-entzunezko industria sustatzea.*
- f. *Gizarte-kohesioan laguntzea.*
- g. *Informazio-gizarte herritar guztientzat sustatzea.*
- h. *Euskal erakunde Bake eta Bizikidetzaren Planarekiko konpromisoarekin jardutea.*
- i. *Euskal erakunde aurrerakuntza eta normalizaziorako planak eta jarduerak aurrera eramatea.*
- j. *Herritarren parte-hartzerako espazioak eskaintzea.*
- k. *Kudeaketa aurreratuko, gobernu arduratsuko eta enpresa-gardentasuneko printzipioak aplikatzea.*

7. Misio hori betetzeko, EITBk hainbat kanal ekoizten ditu telebistan, irratan eta Interneten, komunikazio-talde publiko baten egitura hartuta, eta eskaintza osatua eginez. Talde publikoa den aldetik, EITBren eskaintzak honelakoa izan behar du:

*EITBren
zerbitzu
publikoaren
ezaugarriak*

- a. *Denentzat: herritar guztiei zuzendu behar zaie, euskarazko eta gaztelaniazko eduki multimediekin.*
- b. *Orotarikoa: askotariko programazio orekatua izan behar du, informazioan, kulturean, hezkuntzan eta entretenimenduan huts egin gabe.*
- c. *Jasangarria: aurrekontu publikoen, publizitateko diru-sarreraren eta abarren bitartez finantzazio nahikoa izan behar du, enpresa-kostuak ordaintzeko.*
- d. *Arduratsua: kudeaketa eredugarria izan behar du; gobernu-organoen eta gizartearen aurrean gardentasunez jardun behar du, eta erabilitako baliabide publikoen neurriko balioa itzuli behar dio gizarteari.*

8. EITBk gizartearen aurrean duen erantzukizuna harago eraman da, sei ardatzetan oinarrituriko gizarte-erantzukizuneko eredu baten bidez. Hauek dira sei ardatzok:

*Gizarte
erantzukizuna:
sei ardatz*

1. *Gogokidetasuna, herritarrekin eta gizarteko interes-taldeekin.*
2. *Euskararen normalizazioa eta prestigioa.*
3. *Euskadiren irudia munduan.*
4. *Lana eta familiako bizitza bateratzeko politikak, eta garapen profesionala.*

5. *Ingurugiroarekiko konpromisoa, bai enpresa barruan, bai komunikabide gisa.*
6. *Jasangarritasuna, enpresari dagokionez, eta hornitzaile eta bezeroei dagokienez.*

Gizarte-erantzukizuna gobernamentuari ere badagokio. Horrek esan nahi du zuzendaritza-organoen jarduerak egokia izan behar duela, eta *stakeholderrekin* (interes-taldeen) harreman eta komunikazio egokia eduki behar dela.

Legebiltzarren kontrola

9. Horrez gainera, indarrean dagoen legeriak agintzen duenez, organismo independente batek kontrolatu behar du zelan betetzen den zerbitzu publikoa emateko mandatua. EITBri dagokionez, organismo hori *EITBren Legebiltzar Kontrolerako Batzordea* da.

Informazioaren lider

10. EITBren plan estrategikoei funtsezkotzat jo dute informazio-eskaintzarik onena ekoizteko betebeharra, informazio-lidertza lortzearen. Lidergoa neurtzeko, audientzia-datuak ez ezik, beste ikerlan soziologiko kuantitatibo eta kualitatibo batzuen bidez aztertutako gizarte-balorazioak ere erabiltzen dira.

Herritartasun digitala

11. Zerbitzu digital berriek ere zerbitzu publikoaren misioari erantzun behar diote. Eten digitala gainditzea funtsezkoa da gizarte-kohesioari begira, eta EITBk bere eginda dauka zeregin hori, euskal gizarteari komunikazio- eta partaidetza-gune bat eskaintzeko helburuarekin.

1.3. Informazio-eskubidea

Informazioa eskubide bat da

12. Informazioa eskuragarri edukitzea funtsezko eskubide bat da, eta pertsona guztiei dagokie. Eskubide horren titularrak herritarrek dira, eta komunikabideak eskubidea gauzatzeko euskarriak dira.
13. EITB da Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio-erakunde publikoa, bertoko informazio-marka erreferentziazkoa, eta, hala den aldetik, kazetariari bere lanbidean jardutea erraztu behar dio, eta egoera kritikoetan babesa eman.

Informazioa zabaltzeko eta jasotzeko eskubideak

14. Informazio-eskubideak norabide bi dauzka —informazioa zabaltzea eta informazioa jasotzea—, eta EITB norabide bietan dago herritarren zerbitzura. Informazioaren zabalkundeak librea izan behar du, eta edukiek, egiazkoak. Aldi berean, informazioetan gertakizunak, iritzia lantzeko gakoak eta herritarren intereseko berriak bildu behar dira. Herritarren interesekoa izatea gaiaren baitan eta protagonista diren pertsonen baitan egongo da.

- | | |
|---|--|
| <p>15. Eskubide horien bermatzailea denez gero, EITBk zorrozki zainduko du albistean azaltzen diren pertsonak ez gutxiestea, haien izen ona ez kaltetzea edo haien sinesgarritasuna ez suntsitzea informazioetan zabaltzen diren mezuen edo esateko moduen bidez. Hari horretatik, zorrozki zainduko du webguneetako eta ingurune multimedietako erabiltzaileen jarduera, edukien eta iritzien sortzaile diren aldetik. Egin litekeen kaltearen balorazioan, protagonisten proiektzio publikoa hartuko da aintzat. Ez zaio ezer gailenduko egiazkoa eta herritarren interesekoa izateko betebeharrari.</p> | <p><i>EITB, eskubideen bermatzailea</i></p> |
| <p>16. Adierazpen-eskubidearen eta informazio-eskubidearen defentsan, EITBko profesionalak herritarren bitartekari izango dira, egia zabaldu eta jakin dadin. Lehenetasuna garrantzi publikoa duten gaietan ipiniko da; ahalegin guztiak egingo dira gobernuek eta erakundeek gizartearen interesekoa izan daitekeen informazio guztia eman dezaten. Independentzia profesionala kontraprestazioen aurkakoa da. Horrenbestez, inork ezin dezake exijitu hedabideek gertakari jakin batzuen jarraipena egitea. Publikagarria zer den eta zer ez den erabakitzea, Erredakzioari eta Erredakzioko organoei dagokie.</p> | <p><i>Garrantzi publikoa eta independentzia profesionala</i></p> |
| <p>17. Informazio-eskubideak ez ditu pertsonak datuak ematera edo adierazpenak egitera behartzen. Printzipio orokor gisa, errespetuz hartuko da isilik geratzea edo kazetarien galderei erantzuteari ezetz esatea. Nolanahi ere den, herritarrek erabaki horren berri izan behar dute, bereziki jarrera horren ondorioz informazioa osatu gabe iristen bazaie edo daturik ezak albistea ulertzea zailtzen badu.</p> | <p><i>Ez hitz egiteko eskubidea</i></p> |
| <p>18. Estilo Liburu honek betekizun nagusi bat du: EITBren jarduerak euskal gizartearen informazio-eskubidearekin bat egiten duela bermatzea, kalitatezko informazioa zabaltzen duela eta jarduera profesional etiko eta arduratsua sustatzen duela egiaztatuz.</p> | <p><i>Kalitatezko informazioa</i></p> |
| <p>19. Erredakzioetan egunero sortzen diren debateen aurrean, Estilo Liburuak zehazten ditu informazioaren tratamendurako eta jardunbide profesionalerako arauak eta il-doak, Deontologia profesionalari jarraiki. Horrenbestez, mailarik goreneko dokumentua da, lanbidearen erronkei aurre egiteko etengabe gaurkotzen dena.</p> | <p><i>Estilo Liburua</i></p> |

2. EITBren informazio-misioa

2.1. Oinarrizko printzipioak

a) Bizikidetzaren herritar-balioak defendatzea eta sustatzea

*Giza
Eskubideen
Adierazpena
eta herritar
balioak*

20. EITBren hedabideetan beti onartu, defendatu eta sustatu behar dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean² eta ondorengo araudietan³ jasotako eskubide guztiak, eta jarrera horrek bizikidetzaren eta herritar-balioak aldeztuko eta indarkeria aktiboki gaitzesteko helburua izan behar du.

*Parte hartze
demokratikoa*

21. EITBren hedabideek parte-hartze demokratikoa, pertsona guztienganako begirunea, herritar-taldeekiko errespetua, gizabide-heziketa, elkartasuna eta espirtu kritikoa sustatzen lagunduko dute.

*Diskriminaziorik
eza*

22. EITBren informazioek ez dute inola ere bultzatuko ez gorrotoa, ez diskriminazioa, arrazoitzat generoa, arraza edo bestelako zirkunstantzia pertsonal edo sozialen bat eman zein eman ez. EITBren informazioek begirunea izan behar diete giza duintasunari eta balio demokratikoei, batik bat emakumezkoen diskriminazioa dakarten jokabideak ezabatzeari dagokionez⁴.

b) Berdintasun-printzipioa eta pluralismo politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoa errespetatzea

*Pluraltasuna
errespetatzea*

23. EITBk gizartearen pluralismo politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoa errespetatuko du. Herritarren iritzia eta adierazpenak aintzat hartzeko, berdintasuna eta interes publikoa erabiliko dira irizpidetzat. Iritziok eta adierazpenok, nolahi ere, printzipio demokratikoak eta bizikidetzako printzipioak errespetatu beharko dituzte beti.

*Akonfesio-
naltasuna*

24. Erlijio-egitatearekin loturiko albiste berri emateko, eragin kultural eta soziala, konfesio bakoitzaren tradizioa eta interes informatiboa erabiliko dira irizpidetzat. Erabakiak irizpide profesionalen arabera hartuko dira, eta ez irizpide konfesionalen arabera. EITBk ez du pertsonarik edo talderik diskriminatuko sinesmen erlijiosoengatik.

25. Laneko zereginetan, EITBko profesionalek ez dute sinbologia erlijiosorik erakutsiko; aukera politiko edo ideologikoei lotutako sinbologiarik ere ez dute erakutsiko. Informazio-zereginetan, ez dituzte euren sinesmenak edo ideiak adieraziko.

*Kultura
aniztasuna*

26. Kultura-aniztasuna aberastasun-faktore positibotzat joko da. Albistegai diren beste errealitate guztien kasuan bezala, dagozkion parametro informatiboak interesa eta egokitasuna dira.

² Hona hemen adierazpen osoa: <http://www.un.org/es/documents/udhr/>

³ Zentzu honetan, EITBk kontuan hartzen ditu UNESCOk landutako Kazetaritzako etika profesionalaren nazioarteko printzipioak.

⁴ 7/2010 Legea, martxoaren 31koa, Ikus-entzunezko komunikazioari buruzkoa; 5. art.

27. Hizkuntza bat baino gehiago daukan komunitate batentzat lan egiteko konpromisoak behartuta, EITBk hizkuntza ofizialak zuzen eta errespetuz erabiltzea sustatuko du.

*Hizkuntza
zuzen eta
errespetuz
erabiltzea*

c) Euskal kultura eta euskara sustatzea

28. EITBk bere plataforma eta hedabide guztietan egingo du euskararen sustapena, eta guztietan emango die zabalkundea gure inguru honetan euskaraz zein gaztelaniaz sortzen diren kultur agerpenei. EITBk aintzat hartuko du euskararen eta, oro har, euskal kulturaren alde ari diren erakunde eta organismoen lana. Horretarako, babesa eta zabalkundea emango die euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko ekimen eta proiektuei, bai eta euskararekin lotutako kultur tradizioei ere.

*Euskararen
eta euskal
kulturaren
alde*

29. EITBko Zuzendaritzak eta profesionalek hizkuntzaren kalitatea bermatuko dute zerbitzu eta saio guztietan. Konpromiso hori betetzeko, EITBk beharrezko hizkuntza-gaitasuna exijituko die langileei euren lana egiteko, eta prestakuntza-ikastaroetara eta eguneratze profesionaleko ikastaroetara joateko aukera emango die.

d) Haurrak eta gazteak babestea eta sustatzea

30. EITBk arduraz landuko du adingabe eta gazteekin lotutako informazioa, bai eurei zuzentzen zaiena, bai eurak protagonistatzat dituenak. Adingabeek eta gazteek informazio egiazkoa, plurala eta euren garapen-mailara egokituia jasotzeko eskubidea dute, eta EITBk bermatu egingo die eskubide hori.

*Gazteak eta
adingabeak
defendatzea*

31. Adingabe edo gazteren bat auziren batean agertzen denean, dela biktima gisa, dela lekuko gisa, dela akusatu gisa, batik bat albisteak gizarte-oihartzuna duenean, EITBk ez du haren identitatea zabalduko. Informazioa emateko orduan, intimitatea eta konfidentziasuna babestuko dira, eta kalterik ez egitea eta errepresaliarik ez eragitea zainduko da. Albisteetan guztiz baztertzeak dira galdera, iritzi eta kontakizun iraingarriak edo umiliagarriak, adingabearen edo gaztearen autoestimua kaltetzen dutenak, beraren saminaz pizten dutenak, eta beraren sinesmenak edo kultur balioak gutxiesten dituztenak.

32. Adingabe eta gazteentzako informazioek gainditze pertsonala —bereziki, prestakuntzan oinarritutakoa—, berdintasuna, elkartasuna eta errespetua sustatuko dituzte. Adingabe eta gazteentzako informazioetan baztertzeak dira indarkeria jasotzen duten irudiak, pertsonen arteko harremanetan esplotazioa erakusten dutenak, eta tratatu umiliagarria edo sexista agertzen dutenak.

*Balioetan
heztea*

2.2. Euskal komunikabidea

Berezko komunikazio eremua	33. Komunikazio-enpresa baten testuingurua enpresa horrek zerbitzatzen duen gizartea da. Gure gizartean diren hedabideen eskaintza ugariak eta interes ugariak eratzen duten mosaikoan, hauexek dira EITBren bereizgarriak: euskal komunikazio-taldea, publikoa eta multimedia.
Agenda eta iturriak	34. EITBk berezko komunikazio-eremu batean jarduten du. Eremu horretako liderra den aldetik, berezko agenda eta informazio-iturririk onenak izan behar ditu. 35. EITBk berezko ikuspegi informatiboa du herrialdeari buruz eta munduan izaten diren jazoerei buruz, eta gai izan behar du ikuspegi hori gure gizartearen interesak presente dauden eremu guztietan txertatzeko. Hortik abiatu behar du EITBren ekoizpen informatiboak: gertakari guztien berri ematea, herritarren ikusmoldetik eta interes orokorretik. Ostean, euskal errealtatearekiko hurbiltasunak gidatu behar ditu bai informazioa bera, bai iritzi- eta analisi-saioak. Era berean, Euskadiren irudia munduan proiektatzen lagundu behar du EITBk. 36. EITBren erreferentzia kultural, ekonomiko, sozial eta instituzionala, lehen-lehenik, euskal herritarren eremu kultural, ekonomiko, sozial eta instituzional bera da. Horren berri ematen duenean, EITBk arduraz zaindu behar du hitzak, adierazpideak eta izendapenak zuzen eta errealtate sozial eta politikora egokiturik erabiltzen direla, eta aintzat hartzen direla tradizioa eta erakunde akademikoek balioztaturiko hizkuntza-erabilerrak.
Gizarte kohesioa eta parte hartze aktiboa	37. EITBk gizarte-kohesiorako tresna izan nahi du, eta, hala, gizarte osoaren parte-hartze aktiboa bultzatuko du, giza eskubideen, biktimen arretaren eta bakearen aldeko iritzi publikoa eratzeko. Helburu horri begira, EITBk ekarri garrantzitsu bat egin du: <i>Giza eskubideei, biktimen arretari eta bakeari dagokien gaiaren tratamendu informatiboa</i> deritzon dokumentu profesionala (2009.04.22ko Kontseilu Editoriala). Orain, EITBk bizikidetza baketsua eraikitze lanetan sakontzeko konpromisoa hartzen du bere gain, biktimei eragindako mina aitortzetik eta gizartearen birsorkuntza etikotik abiatuta.
Hizkera eraikitzailea eta komuna	38. Euskal erakundeek, bai politikoez, bai akademikoek, lan handia egin dute euskal gizartean hizkera normalizatu bat errotzen, halakoa behar baita bakezko garai berri honetan. <i>Euskaltzaindiak</i> emandako arau eta izendapenetan eta <i>Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak</i> ikuskatutako ikasliburuetan asko dira kontsentsuak, gizarte-hedabideetan ere normalizatu behar direnak, hizkuntzaren erabileraren bitartez gizarte-espazio komun bat sor dadin.

2.3. Komunikabide elebiduna

- 39.** EITB kasu bakanetako bat da komunikazio-enpresa elebidunetan, eskaintza bikoitza baitu: euskaraz eta gaztelaniaz. Eskaintza osoa eta banandua du telebistan, irratan eta Interneten, euskaraz eta gaztelaniaz. Eskaintza bikoitzeko ereduak guztiz berezi egiten du EITB hainbat hizkuntza ofizial dituzten gainerako hedabide publikoen aldean.
- 40.** Euskarazko kanaletan erabili beharreko eredu euskara estandarra⁵ da (*euskara batua*), Euskaltzaindiak araututakoarekin bat etorrita. EITBko kazetariak, aurkezleak, gidariak, esatariak eta musika-animatzaileak euskara batuan jardungo dute, oro har.
- Euskara batuari erabilera*
- 41.** Euskalkiek ere badute lekua EITBn:
- Euskalkien erabilera*
1. Programa, saio edo atal batean modu adierazgarri edo errealistan gaur egungo gaiak nahiz gai historikoak erakutsi nahi direnean.
 2. EITBz kanpoko kolaboratzaileak modu partikularrean jarduten dutenean eta euren herriko hizkeran berba egin nahi dutenean.
 3. Gidoi bati jarraitzen dioten pertsonaiak irudikatzen direnean.
- 42.** Euskarazko kanaletan edukiak edo zerbitzuak ematen dituzten EITBko profesional guztiek euskara zuzen eta normalizatua ezagutzeko eta erabiltzeko betebeharra dute, Euskaltzaindiak eta EITBko Euskara Zerbitzuak emandako jarraibideekin bat etorrita; izan ere, EITBko Euskara Zerbitzuak zenbait jarraibide eta estilo-eskuliburu prestatu ditu EITBren informazioan euskara zuzen erabiltzeko⁶.
- 43.** Komunikabideak audientzia masiboei zuzentzen zaizkie. Hartara, komunikatzaileak eta kazetariak gai izan behar dute audientzia zabal eta heterogeneo batekin eraginkortasunez eta egokiro komunikatzeko eta konektatzeko. Horrek euskararen normalizazioari laguntzen dio.
- 44.** Gaztelaniazko kanaletako kazetari, aurkezle, gidari eta esatariak ikusgai egingo dute euskara, modu naturalean. Ohikoa izango da agurrak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egitea. Egoki izango dira kolaboratzaileen euskarazko jardun puntual eta laburrak, baldin eta jardunaren testuinguruan zentzua badute eta ikus-entzuleak erraz uler baditzakete.
- Gaztelaniazko kanaletan, euskara ikusgai*
- 45.** Gaztelaniazko kanaletan edukiak edo zerbitzuak ematen dituzten EITBko profesional guztiek gaztelania zuzen eta normalizatua ezagutzeko eta erabiltzeko betebeharra dute. Gai izan behar dute audientzia zabal eta heterogeneo batekin eraginkortasunez eta egokiro komunikatzeko eta konektatzeko.

⁵ "EITBrako hizkuntza-funtsak" (2020).

⁶ Manu Arrasate Mugerza "Euskarazko Albistegietarako Esku-Liburua" (EITB, 1992); Asier Larrinaga Larrazabal "Albiste testu bikainak" (EITB, 2012). Eskuliburu horiez gain, EITBk kazetaritzako euskararen gaineko kontsulta-sistema dauka (HIKEA aplikazioa). Horra sartzeko, Tortolika intranet korporatiboa eta eitb.eus erabil daitezke.

*Deiturak eta
toki izenak*

- 46.** Estilo liburu honen kapituluetan eta eranskinetan⁷ araututakoari jarraitu behar diote egitura politiko-administratiboen eta toponimoen erabilerak, euskararen eta hirugarren hizkuntzen gaztelaniazko kanaletako agerpenak, eta erdararen euskarazko kanaletako agerpenak.

2.4. Komunikabide multimedia

*Herritar
digital
berriekiko
interakzioa*

- 47.** Erredakzio multimedietan, sare sozialetan aktiboak diren kazetariekin sortutako paradigma eta lan-molde berriak sekulako erronka dira erredakzio, kazetari eta zuzendari guztientzat. EITBk erreferentziazko hedabidea izan behar du eskaintzen dituen informazio-produktuetan eta informazioa ekoizteko prozesuan.
- 48.** Internetek eta edukiak kudeatzeko aplikazio informatikoek goitik behera aldatu dituzte lan egiteko sistemak eta tresnak. Informazioa neurritz gain ugaritu da, eta audientziak informazio-ekoizpenaren prozesuan parte hartzen du. Ondorioz, EITBk berritu egin behar du kalitatezko kazetaritzarekin daukan konpromisoa, herritar digital berriekiko interakzioan oinarrituta.

⁷ EITBren estilo liburuan jarduera profesionalerako eskaini diren jarraibideak: B3 Adierazpenen hizkuntza-tratamendua, B19 Pertsonen deiturak, B20 Euskal Herriko toki-izenak. Horrez gainera: I. eranskina – EITBren komunikazio-esparruko egiturak, VIII. eranskina – Euskal Herriko udalerrak eta jentilizioak.

3. Etika, deontologia eta jardunbide profesionala

3.1. Oinarrizko printzipioak

a) Objektibotasuna, egiazkotasuna, inpartzialtasuna, neutraltasuna eta independentzia

<i>Informazioaren eta iritziaren artean bereiztea</i>	49. EITBk argi eta garbi bereiziko ditu informazioa eta iritzia. Informazioa gertakarien kontakizun objektiboan oinarrituko da. Informazioan ez dira sartuko kazetariaren iritzia. Interes informatiboak, orekak eta pluralismoak gidatuko dituzte iritzi-saioak. Kronikak, kritikak eta beste genero batzuek interpretazioa edo iritzi justifikatua onartzen dituzte.
<i>Egiatzkotasuna</i>	50. Egiatzkotasunak iritzi publikoari ezagutzera emango zaizkion gertakariak egiaztatzea eskatzen du. Gertakariak iturri desberdinen bidez kontrastatu behar dira; iturriok jorratuko den errealitatearen jakinaren gainean egon behar dute, edo horren lekukoak izan behar dute.
<i>Informazio oreka</i>	51. Kazetariak beharrezko ikuspegi guztiak ezagutu eta zabaldu behar dituzte, herritarrei informaziorik osoena eta fidagarriena helarazteko.
<i>Inpartzialtasuna</i>	52. Gertakari baten berri emateko orduan, EITBko berriemaileak inpartzialak izango dira azalpen, deskripzio eta kontakizunean. Jardun profesionalean ezin daiteke egon ez desorekarik, ez joerarik. Ez titularrek, ez testuek, ez dute interpretazio faltsurik edo okerrik eragin behar.
<i>Neutraltasuna</i>	53. EITBko profesionalek neutraltasunez jokatu dute, eta ez dira albiste-iturri den gertaerari inplikatu. Alde batera utzi beharko dituzte euren ideiak eta zaletasun pertsonalak.
<i>Independentzia</i>	54. EITBren informazio-lana independentziaz egingo da. Hori dela eta, uko egingo zaie balio informatiborik ez duten berriak emateko presio politiko eta komertzialei. Zabal-tzen diren gertakariak errealitateari lotuko zaizkio, eta argi eta zehatz adieraziko dira.
<i>Sinesgarritasuna</i>	55. EITBn, sinesgarritasuna izango da lehentasunezko helburu iraunkorra. Espekulazioa eta uste edo susmoen zabalkundea baztertu egingo dira. Akatsak berehala zuzen-duko dira, ardura handiz.

b) Ohorea, izen ona, irudia eta intimitatea errespetatzea

<i>Ohorea, ospea eta intimitatea errespetatzea</i>	56. EITBk pertsona guztiei bermatuko die ohorea, izen ona, irudia eta norberaren eta fa-miliaren intimitatea zaintzeko eskubidea ⁸ . Arreta berezia jarriko da adingabeei ⁹ eta bestelako kolektibo ahulei dagozkien kasuetan.
--	---

^{8/9} Hurrengo orrialdean.

57. Debekaturik dago irudiak eta soinuak toki pribatuetan grabatzea aldez aurretiko baimenik gabe. Eginez gero, debekaturik dago zabaltzea edo gordetzea.
58. EITBk ez ditu zabalduko pertsona edo familia baten bizitza pribatuarekin zerikusia duten gertakariak, datuak, irudiak edo dokumentuak, baldin eta haren ospeari edo izen onari eragiten badiote, edo haren intimitatean sartzen badira.
59. Aurreko paragrafoan zehaztutako babesak ez du eraginik izango interes publiko, historiko, zientifiko edo kulturala garrantzitsuagoa bada.
60. EITBren telebistetan eta kanal multimedietan pertsona publikoen edo nabarmentasun eta ospe handiko profesionalen karikaturak ager daitezke, gizartean onartzen denarekin bat badatoz.
61. EITBko kazetariak ez diote inori gertakaririk leporatuko, eta ez dute inoren gaineko iritzirik adieraziko hitzez edo egitez, baldin eta horrek nola edo hala pertsonaren duintasunari kalte egiten badio, haren ospea gutxien badu edo haren izen onaren kontra egiten badu.

A priori

3.2. Betebehar profesionalak

62. Aurreneko betebehar profesionala egia errespetatzea da, intimitaterako eta pertsonen ohore eta irudirako eskubideak eta errugabetasun-presuntzioa bermatuta; horrez gainera, adierazpenak, dokumentuak eta irudiak metodo zilegiekin lortuko dira.

a) Errugabetasun-presuntzioa

63. Errugabetasun-presuntzioa bermatzeko, *a priori*-ko kondenak baztertu egingo dira, eta informazioak ez du horretarako biderik emango. Horretarako, gisa honetako terminoak erabili beharko dira: «ustezkoa», «inputatua», «atxilotua» edo «auzipetua». Itxaron egin beharko da, harik eta auzipetuaren erantzukizun- edo partaidetza-maila egiaztatzen duen epai judizial irmoa egon arte.

⁸1/1982 Legea, maiatzaren 5koa, Ohore-eskubidearen, norbere intimitaterako eskubidearen, famili intimitaterako eskubidearen eta irudi-eskubidearen babes zibilari buruzkoa. 5/2010 Lege organikoak, ekainaren 22koak, ezarritako aldaketak. 2/1984 Lege organikoa, martxoaren 26koa, Zuzenketak-eskubideari buruzkoa.

⁹1/1982 Lege organikoa, maiatzaren 5koa. 1/1996 Legeak, urtarrilaren 15ekoak, Adingabeen babes juridikoari buruzkoa denak eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzeari buruzkoa ere badenak, Zioen azalpenean eta 4. eta 5. artikuluetan dioena. 5/2000 Lege organikoak, urtarrilaren 12koak, Adingabeen erantzukizun penala arautzeari buruzkoak, 35. artikuluan dioena.

*Inplikatu-
en
pribatutasuna
babestea*

- 64.** Ahal dela, ez da emango ekintza edo delitu batean inplikaturik egon daitezkeen per-
tsonen daturik eta irudirik. Horri buruzko erabakia hartu aurretik, kalterik sortuko
den eta kaltea konponezina izango den baloratu beharko da.
- 65.** Egia ager dadin, herritarrek gertaerak ahalik eta zehatzen ezagut ditzaten, eta
pertsonek eskubideak babestuta egon daitezzen, informazioetan azaltzen diren atxi-
lotuak zein egoera juridikotan (baldintzapeko kartzelan, kargu gabe aske, edo kar-
guekin aske) geratzen diren jakinarazi behar zaie ikus-entzuleei.
- 66.** Berria ulertzeko ezinbestekoak ez badira, informazioetan ez dira akusatu edo konde-
natuen senideen edo adiskideen izen-abizenak emango, ez eta beharrezkoak ez diren
bestelako datuak ere, hala nola jaioterria, etnia, e. a. Halaber, ez dira delituaren bikti-
mak izendatuko, eta ez da argitara emango biktimak identifikatzen lagun dezakeen
bestelako materialik ere.

b) Bateriaezintasunak

*Intereses
pertsonalak
eta jardun
profesionala*

- 67.** EITBko profesionalek arduraz zainduko dute euren interes pertsonalak ez izatea herri-
tarrei zerbitzua emateko konpromisoaren kaltetan. Profesionalen ekintzak ez dira inoiz
izango zerbitzu publikoaren konpromisoaren aurkakoak. Era berean, Zuzendaritzak
araututa, profesionalen jarduera eta estatua ezin daitezke etekina ateratzeko edo hiru-
garrenei mesede egiteko erabili.

*Kanpoko
kolaborazioak*

- 68.** EITBko profesionalek, bereziki euren irudia edo/eta ahotsa agertzeagatik proiektzio
publiko handiagoa dutenek, enpresako zuzendaritzaren alde aurretiko baimena be-
harko dute ekitaldietan eta publizitate-kanpainetan parte hartu ahal izateko.
- 69.** EITBko profesionalek eguneroko zereginaz kanpo oihartzun publikoko beste zere-
ginen batean jarduten badute, zeregin hori ezin daiteke izan irudi korporatiboaren
kontrakoa, ez eta zerbitzu publikoaren betekizunaren kontrakoa ere.

c) Informatzaile gisa identifikatzea

*Informazioaren
profesional
gisa
identifikatzea*

- 70.** EITBko profesionalak, lan egin bitartean, EITBko profesional gisa identifikatuko dira,
eta informatzaileak direla emango dute ezagutzera. Beharrezkoa denean, ageriko
edo begi-bistako lekuren batean jarriko dute hori ziurtatzen duen identifikazio-txar-
tela. Halaber, beharrezkoa denean, dagokion agintaritzari eskatuko diote informatze-
ko eta informatuak izateko eskubidea bermatuko dien bereizgarria.

- 71.** Euren zeregina betetzean, segurtasun arauak errespetatu eta beteko dituzte babes pertsonala beharrezkoa den instalazioetan eta tokietan. Horren xedea, segurtasuna babesteaz eta legeak exijitzen duena betetzeaz gainera, jantzi eta elementu horien erabilera normalizatzea eta herritarrak horri buruz kontzientziaztea da.

*Lan
segurtasuneko
arauak
errespetatzea*

d) Eskupekoak, opariak, gonbidapenak eta sariak

- 72.** EITBren langile-zerrendako inork ezin dezake eskupekorik edo oparirik onartu bere jarduerari dagozkion gaitan aritzeagatik edota parte hartzeagatik, eta ezin dezake EITBren komunikabideek antolatutako lehiaketetan eta zozketetan parte hartu.
- 73.** Ez dira oparizat hartuko merkatu-baliorik ez dutenak edo kazetaritza-lanen bat egi-teko beharrezkoak direnak. Zentzu horretan, onargarria izango da liburuak, musika, filmak edota kultura-ekitaldietara nahiz kirol-ikuskizunetara joateko gonbidapenak jasotzea.
- 74.** Zuzendaritzak erabaki beharko du gonbita onartzea egoki den, erakunde batek edo ohiko informazio-iturri batek promoziozko informazio-bidaia batera gonbidatuz gero.
- 75.** Materialak edo promozio-bidaia onartzeak ez du inolaz ere balioko ikerlanak oztopatzeko edo saihesteko, ez eta informazioa gidatzeko edo baldintzatzeko ere.
- 76.** Albisteak zein programazioaren beste eduki batzuk talde-lanean lantzen eta ekoizten dira. Talde-lan horren ondorioz, ezin daiteke norberaren izenean parte hartu lehiaketetan, sariketetan edo jaialdietan, eta onirizpenak eta sariak —diruzkoak izan zein izan ez— partekatu egin beharko dira. Nolanahi ere, Zuzendaritzari dagokio EITB Taldeari lotutako lanak lehiaketa edo sari horietara aurkeztea.

*Promozio
bidaia:
baldintzarik
gabeko
informazioa*

Talde lana

3.3. Profesionalen eskubideak

- 77.** EITBko profesionalek askatasun- eta independentzia-bermeekin beteko dute euren lana. Kontzientzia-klausula eta sekretu profesionala izango dira berriemaile-betekizunari heltzeko beharrezko duten adierazpen-askatasunaren erreferente eta euskarri.

*Askatasuna
eta
independentzia*

a) Kontzientzia-klausula

Kontzientzia
klausula

- 78.** Kontzientzia-klausula eskubide bat da, informazioaren profesionalak euren enpresaren aurrean babesten dituenena. Kontzientzia-klausula arautzen duen legearen babespean, eskubide hori dagokion EITBko profesionalak bere kontratua desegiteko eska dezake, baldin eta lan egiten duen hedabidean *informazioaren orientazioan edo ildo ideologikoan funtsezko aldaketa gertatzen bada, edo baldin eta talde bereko beste hedabide batera lekualdatzen badute eta horren ondorioz —hedabide berriaren generoagatik edo ildoagatik— profesionalaren lan-ibilbidean haustura nabarmena gertatzen bada*¹⁰.
- 79.** EITBko kazetariak uko egin diezaioke —*modu arrazoituan*— *komunikazioaren printzipio etikoaren kontra doazen informazioak prestatzeari, eta horrek ez die zigorrik edo kalterik ekarriko*¹¹.
- 80.** EITBko langileek modu arrazoituan eta idatziz eskatuko dute kontzientzia-klausula baliatzea. Eskaerari erantzun behar dion nagusiak ere modu arrazoituan eta idatziz egingo du. Legaltasunaren barruan jokatu da, bi alderdien aldetik inolako abusurik egon gabe.

b) Sekretu profesionala

Konfiden-
tzialtasuna

- 81.** Sekretu profesionala eskubide eta betebeharrak bat da, informazio-iturriak isilpean gordetzea bermatzen duena iturriok hala eskatzen dutenean¹². Eskubide gisa, eskatzen duenari ematen dio babesa. Betebeharrak gisa, hala jokatzeko onartu eta hitzartu duen kazetaria lotzen du.

Kazetaria
babestea

- 82.** Sekretu profesionalak enpresako zuzendaritzaren eta aginte publikoen aurrean babesten du kazetaria, baita aginte judizialaren beraren aurrean ere. Kazetariari ezin dakioke isunik edo zigorrik ezarri sekretu profesionala baliatzeagatik.

Delituak ez
dira
babesten

- 83.** Kasu jakinetan, sekretu profesionala eraitsi daiteke: frogatutzat uzten bada iturriak informazio faltsua eman duela nahita, edo bide bakarra bada inoren segurtasunaren, osasunaren eta askatasunaren kontrako delitu bat eragozteko.

Sekretu
profesionalaren
irismena

- 84.** Sekretu profesionala, kazetariak ez ezik, kazetariarekin harremana edukitzeagatik iturriak identifikatzeko datuak ezagut ditzaketen pertsonak ere gorde behar dute. Sekretu profesionalak, iturriaren izena ez ezik, beraren identitatearen berri eman dezaketen oharra, dokumentuak eta bestelako euskarriak ere babesten ditu.

¹⁰ 2/1997 Lege organikoa, ekainaren 19koa, Informazioaren profesionalen kontzientzia-klausula arautzen duena; 2. art.

¹¹ 2/1997 Lege organikoaren 3. art.

¹² Sekretu profesionala eskubide konstituzionala da, 20.d artikulua jasotzen duena, eta ez dago araudi batean garatuta.

3.4. Publikoaren eskubideak

- | | |
|---|--|
| <p>85. Publikoak informazio independentea, plurala eta egiazkoa jasotzeko eskubidea du, eta informazio horrek gizarteko aniztasun ideologiko, politiko, linguistiko, kultural eta soziala erakutsi beharko du. EITBko langileek eskubide hori bermatzeko ardura izango dute, eta gorabeherak euren nagusiei jakinaraziko dizkiete edo, hala badagokio, EITBko Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoari.</p> | <p><i>Informazio independentea, plurala eta egiazkoa jasotzeko eskubidea</i></p> |
| <p>86. EITBk parte hartzeko plataformak jarriko ditu herritarren esku, eta emandako iritzia errespetatzea bermatuko du. Errespetu hori hirugarrenentzat ere izango da, eta, horregatik, ez die tokirik egingo beste pertsona, talde edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuk irain ditzaketen iritziei edo adierazpenei.</p> | <p><i>Iritzi aniztasuna errespetatzea</i></p> |
| <p>87. Pertsona bati EITBren hedabide baterako iritzia edo adierazpenak eskatzen bazaizkio, garbi azaldu beharko zaio bere hitzak zelan eta zertarako erabiliko diren, eta beren-beregi jakinaraziko zaio zein saiotan, egunetan eta ordutan emitituko diren. Hitzok bestelako saio eta tarteetan erabil daitezke, horretarako baimena jasotzen bada. Audientziak galdetuta edo inkestaren batean parte hartzen badu, emaitzak non eta zertarako erabiliko diren jakinaraziko zaio.</p> | <p><i>Iritziak eta adierazpenak zelan erabili</i></p> |
| <p>88. Informaziorako eskubidearen kasuan zehaztu den bezala, printzipio orokor gisa, adierazpenak egiteko eta informazioa emateko ukoa errespetatu egingo da.</p> | <p><i>Adierazpenik ez egiteko eskubidea</i></p> |
| <p>89. Parte-hartzeren baterako herritar batek bere datu pertsonal guztiak eman behar baditu, EITBk datu horien konfidentzialtasuna gorde beharko du. Datu horiek, gainera, ezin izango dizkio beste talde, enpresa edo erakunde bati transferitu, EITBren barrukoak zein kanpokoak izan. Halaber, EITBk datuok ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko aukera eman behar du. Oroz gain, nahitaez errespetatu beharko du Datuen babesari buruzko Lege organikoak, lege hori garatzeko xedapen eta araudiek eta etorkizunean gaiari buruz atera daitezkeen gainerako arauak ezartzen dutena¹³.</p> | <p><i>Datuak babestea</i></p> |

a) Erantzuteko eta zuzentzeko eskubidea

- | | |
|---|-------------------------------------|
| <p>90. Erantzuteko eskubidea Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeko Legean¹⁴ dago jasota, eta informazio batek bidegabe kalte egin diela uste duten pertsona natural edo juridiko guztiak babesten ditu¹⁵. EITBko Zerbitzu Juridikoari dagokio eskubide horren aplikazioa interpretatzea eta baloratzea.</p> | <p><i>Erantzuteko eskubidea</i></p> |
|---|-------------------------------------|

¹³ 15/1999 Lege organikoa, abenduaren 13koa, Datuen babesari buruzkoa (DBLO). 1720/2007 Errege-dekretua, abenduaren 21koa, DBLO garatzeko araudia onartzen duena. 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia iraunkorri buruzkoa, 56. azken xedapenaren bidez DBLO aldatzen duena.

¹⁴ 5/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeko buruzkoa; 26 - 34 art.

¹⁵ 5/1982 Legea; 27. art. eta hurrengoak.

	91. Eskubidearen irismenak murriztapenak ditu, 27. artikulua honela baitio: <i>ezin dezakete euren burua bidegabe kaltetutzat jo literaturagileek, artetgileek, zientzialariek, bestelako lanen egileek edo ikuskizun publikoetan diharduten profesionalek euren lanei edo saioei buruzko kritika batean aipatzen dituztenean, baldin eta kritika hori:</i> • <i>Aipatzen den pertsonaren jardura publikoari, artistikoari edo zientifikoari lotzen bazaio.</i> • <i>Lege honek onartzen dituen printzipio eta eskubideekin bat badator.</i>
	92. Adierazpen-askatasunaren bermeei dagokienez, ezin dezakete euren burua bidegabe kaltetutzat jo edozelako jardura publikoa egiten duten pertsonak jardura horri buruzko iruzkin batean aipatzen dituztenean, baldin eta iruzkinean legeak onartzen dituen printzipio eta eskubideak errespetatzen badira.
Erantzuteko prozedura	93. Erantzuna informazioan esandakoari lotu beharko zaio, eta beraren zabalkundea doakoa izango da. Hedabideko zuzendaritzari helaraziko zaizkio ihardespenaren idatzia eta dagozkion agiriak, eta zuzendaritzaren ardura da emisioa bermatzea. Ihardespena, idatzia jaso eta biharamunean emitituko da, baldin eta dagokion informazioa edo iritzia eguneroko programa batean zabaltu bada, edo zazpi eguneko epearen barruan emitituko da, programa egunerokoa ez bada. 94. Erantzuna, dagokion informazioa edo iritzia zabaltu zen saio berean emitituko da, saio hori emisio erregularrekota bada. Gainerako kasuetan, informazioa edo iritzia zabaltu zen saioaren izaera bereko beste baten emanaldiaren aurretik emitituko da. 95. Hedabideko zuzendaritzak uko egin diezaioke erantzuna emititzeari. Halakoetan, arrazoiak azaldu behar ditu, betiere legeriak ezarritakoari loturik¹⁶.
Akatsak zuzentzeko eskubidea	96. Zuzenketa da herritarrak babesten dituen beste eskubideetariko bat. Zuzentzea komunikabideari dagokio, pertsona edo talde bati kalte egiten dion akats edo errakuntzaren bat egiten edo zabaltzen denean. 97. Zuzenketa ahalik eta arinen egingo da, ulertzeko moduko mezu argi eta erraz baten bidez. EITBren Zerbitzu Juridikoari dagokio eskubide horren aplikazioa interpretatzea eta baloratzea. Erantzunaren kasuan bezala, zuzenkizunaren idatzia hedabideko zuzendaritzari helaraziko zaio, dagokion informazioa zabaltu zenetik zazpi eguneko epearen barruan¹⁷.

¹⁶ 5/1982 Legea, maiatzaren 2koa, Euskal Irrati Telebista Herri Erakundea sortzeari buruzkoa; 33. art.

¹⁷ 2/1984 Lege organikoa, martxoaren 26koa, Zuzenketa-eskubideari buruzkoa; 1. eta 2. art.

4. Legezko erantzukizuna

	98. EITBk aintzat hartuko du antolamendu juridikoa, eta beharrezko neurriak hartuko ditu enpresa-arloan eta arlo profesionalean legeak ezarri bezala jardun dadin. Era berean, men egingo die bere hedabideetan eta jarduera-arloan aplikatu behar diren jarraibide, gomendio eta epai guztiei.
<i>Irainak eta kalumniak</i>	99. Iraina eta kalumnia gaitzesgarriak dira, eta legez zigorturik daude. EITBko profesionalek honela ulertuko dute kalumnia: salaketa faltsu bat, maltzurki egina kaltea sortzeko asmoz. Halaber, honela ulertuko dute iraina: pertsona bati gertakari edo ezau-garriren bat egozte, haren ospea edo estimazioa kaltetzeko asmoz.
<i>Plagioa</i>	100. Plagioa eta jabetza intelektualaren aitortpenik eza ¹⁸ ezin daitezke jardun profesiona-larekin bateratu. Jokabide egokiaren kontrakoak dira, eta legeak zigortu egiten ditu.
<i>Indarkeria eta mehatxuak</i>	101. Jardun profesionalean, EITBk ez du indarkeriarik edo mehatxurik onartuko, ez informazioa eskuratzeko, ez informazioa zabaltzea lortzeko.

¹⁸ 1/1996 Legegintzazko dekretua, apirilaren 12koa, Jabetza intelektualari buruzko legearen testu bategina onesten duena.

5. Informazioa lantzeko jarraibideak

A1. Giza eskubideak, biktimen aitorpena eta bakea

Giza eskubideekiko, biktimen aitorpen eta arretarekiko eta bizikidetza baketsuarekiko konpromisoa, EITBrentzat, ildo editorialaren ardatz nagusietariko bat da. Horren haritik, kazetaritza independenteak ekarpen konstruktiboa egiten dio bizikidetzaren normalizazioari.

Testuingurua

- 1.1. Kazetaritzaren betekizun sozialaren oinarri-oinarrian dago mehatxuei, presioei eta interferentziei aurre egitea, eta eskubideen urraketak ikertzea, salatzea, eta ahots propioz jakinaraztea.
- 1.2. Giza eskubideen urraketaren erreparazio-prozesua dela eta, biktimek egiarako, justiziarako eta izandako kaltearen ordain proportzionalerako eskubidea dute, 2005eko abenduaren 16an Nazio Batuen Batzar Orokorrak onartutakoaren arabera.

**"Bidegabekeria
salatzea,
bizikidetza
eraikitzea"**

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Arreta berezia jarriko da **giza eskubideak urratu** direla jakiten denean. **Erantzukizunez eta zehaztasunez** informatuko da diskriminazio-egoerez, atzean dagoen arrazoia ideologia, erlijioa, generoa, sexu-orientazioa, arraza, gizarte-jatorria, kultura-maila edo beste edozein delarik ere.
- 2.2. Giza eskubideen, biktimen aitorpenaren eta bizikidetza baketsuaren aldeko ekimenei **jarraipena** egingo die EITBren informazioak. Ekimenon garrantzia agerian jartzeko, zuzeneko emaldiak, elkarrietzak sakonak, informazio osagarria, analisi-piezak eta abar erabil daitezke.
- 2.3. Indarkeriazko hainbat gatazkaren konponketan, gizarte-adostasun zabala bildu du **memoriaren aldarrikapenak**. Halako nazioarteko esperientziak nabarmendu egingo dira.
- 2.4. Kontakizun informatiboak **testuinguru** sozial, kultural, politiko edo ekonomiko zabalago baten barruan kokatu beharko du jazoera. Historia ulertzeko, beharrezkoak dira jazoera horren xehetasunak eta zehaztasunak, baina ezin dute albistea isolatu eta gertaeren kronikara zokoratu.
- 2.5. Bakea eraikitzeko helburuz, albisteen eta adierazpenen aukeraketak **desberdintasunak** eta pluralismo politikoa islatu behar ditu, eta, aldi berean, adostasun-puntuak eta **kontziliazio-proposamenak** nabarmendu behar ditu. Ez da bazter utziko iraganeko indarkeriarik edo gertaera traumatikorik, eta biktima batzuk ez dira beste batzuekin ez orekatuko, ez parekatuko.

- 2.6. Biktimen hitzek bi alderdi izan ditzakete, bereziak. Batetik, zuzenean **kaltetutako gizabanako** modura, lehenengo pertsonan hitz egin dezakete gertatutakoaz, eta euren mina azaldu. Bestetik, adierazpen politiko edo sozial bat egin dezakete, kritikekin, eskariekin edo **aldarrikapenekin**. Nahitaezkoa da informazioan biktimek **ahots propioa** izan dezaten, baina haien pluralismo politiko eta soziala aintzat hartuta, gizarte plural batean logikoa eta naturala baita biktimen artean ere aniztasuna agertzea.
- 2.7. **Biktimen identitatea** isilpean gordeko da, harik eta baieztapen ofiziala lortu eta, bereziki, se-nitartekoak eta lagunak informatuak izan arte. Biktimek **anonimotasunean** egon nahi badute, errespetatu egin beharko da. Kontu handiz jokatu beharko da haien identifikazioa ahalbidetu dezaketen datuak edo irudiak zabaldu aurretik: ibilgailua, helbidea, eta abar.
- 2.8. EITBko kazetariak aintzat hartuko dituzte biktimen mina, larritasuna eta atsekabea. Elkarrizketa batean, galderek ez dituzte erantzunak bakezko eta demokrazia-ko **bizikidetzaren kontrako diskurtsorantz** bideratu behar.
- 2.9. **Biktima-kopuruaren** kalkuluak oso desberdinak direnean, zifra desberdin horien berri emango da, iturriak zehaztuta; bestela, ez da datua aipatuko egiaztatua izan arte. Nahasteak jarraituz gero, iturri-rik kualifikatuenera joko da, eta haren kalkuluaren berri emango da.
- 2.10. **Bake-prozesuei** buruzko informazioak tratatzen direnean, agerian jarri beharko dira biktimei era-gindako **min bidegabea** eta min hori gainditzeko proposamen zehatzak, betiere berdintasuna zaintzeko eta biktimak ez bereizteko printzipioa errespetatuta.
- 2.11. Albistea berreskuratu behar bada —urteurrenean, kronologietan, antzeko gertaerak jazotzen direnean—, tratamendu informatibo egokia bilatu behar da, biktimei eraso berrirori ere ez bi-ziarazteko helburuarekin. **Oroitzeko eskubide kolektiboak** eta **biktima bakoitzaren ahazteko es-kubideak** bizikidetzari lagunduko dion tratamendu informatiboan egin behar dute bat.
- 2.12. **Hizkera** eta terminoak eraikitzaileak izango dira, eta pluraltasunari, bakeari eta bizikidetzari la-gunduko diete.
- 2.13. Orekak eta pluraltasunak arautuko dute **iturrien erabilera**, eta erabilera horrek presentzia eman-go die biktimei, giza eskubideen aldeko elkarteei, eta gizarte ireki eta tolerantea eraikitzen la-guntzen duten gainerako ahotsei.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Informazioek ez dute indarkeria, gorrotoa edo diskriminazioa bultzatuko, eta ez dute horien **apologiarik** egingo. Giza eskubideen urraketak eta indarkeriaren erabilera, mendeko posiziotik irteteko edo beste edozer lortzeko helburua badute ere, ez dira testuinguruaren gaineko infor-mazioaren bidez legitimatu edo justifikatu behar.

- 3.2. Giza eskubideen urraketari edo defentsari buruzko informazioak ez du alderdikeriazko **esku-hartze-rik** edo **inposiziorik** onartuko.
- 3.3. EITBren informazioak ez ditu biktimak helburu politikoen **tresna bihurtuko**. Era berean, biktimen **estigmatizazioa** edo **bigarren biktimizazioa** eragin dezaketen tratamenduak baztertu egingo dira.
- 3.4. Eskubide-urraketen eta halakoen biktimen irudiak eta soinuak **informazio-lekukotza** emateko baizik ez dira erabiliko.
- 3.5. Ez da zabalduko **audientziaren sentsibilitateari** min eman diezaiokeen irudi edo soinu gordinik.
- 3.6. Guztiz baztertzekoa da biktimen nahiz senitartekoen mina **ikuskizun** bihurtzea, eta min horren eta intimitate-eskubidearen ikus-entzunezko tratamendua errespetuzkoa izango da.
- 3.7. Behar-beharrezkoa da biktimak iraindu edo mindu dezaketen okerrak, gaizki-ulertuak eta nahas-menduak ekiditea. Informazioak ez ditu **biolentzia desberdinak** berdinduko, eta, era berean, ez ditu **biktima-mota desberdinak** konparatuko edo hierarkizatuko.
- 3.8. **Bizikidetza baketsua eraikitzea** zailtzen duten liskarrei edo eztabaidei buruzko informazioetan, albistea ulertzeko funtsezkoak direnean bakarrik nabarmenduko dira alderdirik asaldagarrienak.
- 3.9. Bakearen eraikuntza eta giza eskubideen errespetua direla eta, kontu handiz jokatu da kontrako neuririk zabal ez dadin **sare sozialetan**, dela *WhatsAppean*, dela *sms* bidezko zuzeneko iruzkinetan, e. a.

A2. Gatazka armatuak eta gerrak. Terrorismoa

Gerrak, gatazka armatuak eta terrorismoa gertaera konplexuak dira, eta, ondorioz, behar bezala aztertzeke eta ulertzeke, informazio sakona eta zehatza behar da. EITBk giza eskubideen alde egiteko eta gatazken konponbide gisa biolentzia ez legitimatzeko jarrera editorial aktiboa bermatzen du tratamendu informatiboan, hain zuzen, balio demokratikoekin konprometiturik dagoen zerbitzu publiko bati dagokionez.

Testuingurua

- 1.1. Gatazka armatuen, gerren eta terrorismoaren gainean informatzeko irizpidea interes publikoa izango da beti. Irudiez eta kazetarien lekukotzaz baliatuz, ikus-entzuleak informatu egiten dira, eta errealitatearen berri ematen da.
- 1.2. Gai labain eta korapilatsua denez, arretarik handiena ipini behar da eguneroko jardun profesionalean. Kazetariak erronka ugariri egin behar diete aurre: inpartzialtasunari eustea; biktimen duintasuna eta intimitatea errespetatzea, biktimekin eta egindako mina-rekin adeitsuki jokatzera, eta indarkeria bultzatzen edo legitimatzen duten jarrerak baztertzea.
- 1.3. Horiexek dira dilema nagusiak gerren, gatazka armatuen eta terrorismoaren berri ematean. Haien tratamendu informatiboan hizkera zehatza erabili behar da, iturriak orekatu, informazioa kontrastatu, eta inpaktu bisuala eta interes informatiboa uztartu egin behar dira.

“Zorroztasuna eta erantzukizuna”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Kontakizun informatiboak zorroztasuna, zehaztasuna eta erantzukizuna ditu zutarritzat. Ezinbestekoa da informazioa **kontrastatzea** eta iturriak **zehaztea**. Kazetariaren iritziak ez dauka lekurik kontakizun informatiboan.
- 2.2. Terrorismoarekin, gatazka armatuekin eta gerrekin zerikusia duen informazioak **oso**a izan behar du: gertakarien kontakizunean ikuspegi desberdinak sartuko dira, azterketa inpartzialak ere bai, eta zergatiak eta ondorioak zehaztuko dira; horrez gainera, askotariko iritziak jasoko dira, gertaerak **interpretatzen** laguntzeko.
- 2.3. Terrorismoaren eta gatazka armatuen tratamendu informatiboak agerian jarri behar du halako ekintzen **erantzukizuna egileena** dela, komunitate etniko, politiko, kultural edo geografiko oso bat inplikatu barik.
- 2.4. **Errugabetasun-presuntzioak** agerian egon behar du informazio hauetan; gauzak horrela, pertsona guztien intimitate-, ohore- eta irudi-eskubidea **informazio-eskubidearekin** uztartu behar da.

- 2.5. **Interes informatiboak** gidatuko ditu **irudi eta soinuen** grabazioa, hautaketa eta edizioa. Emaitzak imitazio-efektua edo legitimazio-efektua eragiten ote duen aztertu beharko da.
- 2.6. Audientziari **lehergailu-abisuen** edo bestelako **mehatxuen** berri eman baino lehen, aintzat hartu beharko da **alarma soziala** sortzeko arriskua.
- 2.7. Talde terrorista bateko kide bati edo gerren delituengatik auzipetutako bati **elkarrizketa** egiteko eta **komunikatuen** emisio osoa edo partziala egiteko, EITBko Zuzendaritzak **aldez aurretik onetsi** beharko du.
- 2.8. **Ahalik eta azkarren** informatuko da **larrialdiez** (setioak, gatibuak hartzea, hegazkinak edo pertsonak bahitzea...). Hala ere, gomendagarria da emisioa behar den denbora atzeratzea, nahi ez diren irudiak eta soinuak ez zabaltzeko, batez ere amaiera zein izango den aurreikusi ezin daitekeen.
- 2.9. Aldi berean, egoera horietan, informazioa **egiaztatzeko** denborarik egoten ez denez, **zuhurtziaz** informatu beharko da, daturik ez zabaltzeko, hipotesirik ez aurreratzeko, eta arrazoen, eskaeren edo exigentzien gainean ez espekulatzen. Berdin jokatu beharko da eitb.eus webguneko iruzkinekin eta sare sozialetako edukiekin.
- 2.10. Kontuan hartu beharra dago ekintza hauen ondorioak deskribatzen dituzten eszenen **ikusizko eta/edo entzunezko inpaktua**. Irudiek zehatz erakutsi behar dituzte gertaerak, eta minaren eta sufrimenduaren berri eman behar dute, baina horretan atsegin hartu gabe.
- 2.11. Kontuan hartu beharra dago irudi eta soinu berberak behin eta berriz errepikatzeak erre-fusatze-efektua eta **intsentsibilizazioa** eragin ditzakeela.
- 2.12. Kontakizuna **ikuskizun** bihurtzeak ez du gertaera ulertzen laguntzen: plano ertainak eta orokorrak lehenetsiko dira aurrez aurreko planoen aldean; kamera objektiboa lehenetsiko da kamera subjektiboaren aldean; eta azterketa lehenetsiko da sentsazionalismoaren aldean.
- 2.13. EITBk jarraipena egingo die **gatazkak konpontzeko bide gisa indarkeria** deslegitimatzea helburu duten ekintzei; halaber, jarraipena egingo die giza eskubideen errespetuan oinarrituriko bizikidetza baketsua eraikitzea helburu duten proposamenei.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Indarkeriazko ekintza baten **testuinguruari** buruzko informazioak **ezin dezake justifikatu** edo legitimatu ekintza hori.
- 3.2. Oro har, ez da zabalduko **mehatxatutako** pertsonen **identitatearen** berri, horretarako baimena eduki ezean.

- 3.3. Halaber, ez da ezagutzera emango atentatuak edo erasoak egiteko erabil daitekeen daturik edo pertsonen **segurtasuna** arriskuan jar dezakeen xehetasunik. Zuhurtzearik handienaz jokatu da errepresio-, jazarpen- edo heriotza-arriskua dagoenean.
- 3.4. **Interes informatiboak** soilik justifikatzen du exekuzio, sarraski edo hilketen irudiak ematea. Hildako pertsonen duintasuna errespetatuko da betiere. **Oso eduki bortitza** duten irudiei dagokie-nez, audientziari horren berri emango zaio aldezturik.  
- 3.5. **Ekintza bortitzen** grabazioak **Internet** bidez argitaratzea eta zabaltzea hain erraza dela aintzat harturik, arreta handiz jokatu beharko da talde terroristen edo gerra-taldeen komunikazio-estrategien pean ez erortzeko. Halakoetan, egiaztapena are beharrezkoagoa izango da.
- 3.6. Baztertzekoa izango da **eufemismoak** erabiltzea, eta kontakizunak bere egitea gatazkan dauden aldean edo terroristen lexikoa eta argudioak. Ez da erabiliko iritzia edo balorazioa isla dezakeen terminorik. **Deskripzio objektiboa** lehenetsiko da kalifikazioaren eta adjektibazioaren aurrean. Hizkuntzaren erabileran islatzen da EITBren ildo editoriala, bizikidetzaren balioekin konprometitua.
- 3.7. Gerren jarraipena egiteko, desegokia da **kazetari txertatuak** baino ez baliatzea. Oreka bilatzeko, beste iturri batzuekin **kontrastatu** beharko da informazioa.
- 3.8. EITBko profesionalek ez dute euren segurtasuna arriskuan jarriko informazioa lortzeko, eta ez dira harro agertuko arrisku-egoerak bizitzeagatik. Kazetariak edo **berriemaileak** ez du inoiz ere **nabarmentasunik** bilatuko.

Erreferentziak

- Nathanson, Stephen (2010). *Terrorism and the Ethics of War*. Cambridge University Press, New York.
- White, Aidan eta Hayes, Ben (2005). *Periodismo, Libertades Civiles y la Guerra contra el Terrorismo*. Kazetarien Nazioarteko Federazioa: www.ifj.org/pdfs/IFJFullReportTerrorismES.pdf

A3. Ezbeharrak, hondamendiak eta istripuak

EITBk, talde multimedia bat den aldetik, ezbehar, hondamendi eta istripuei buruz informatzen duenean, berehalakotasuna, egiazkotasuna, zorrozatasuna eta sentiberatasuna izan behar ditu oinarri. EITBren he-
dabideak elkarren osagarri dira, ahalik eta informaziorik gehien ematea eta hurbileko ikuspuntutik in-
formatzea helburu direla.

Testuingurua

- 1.1. Ezbehar, hondamendi eta istripuei buruzko informazioak nahitaez bateratu behar ditu informazio-eskubidea, bikti-
men intimitate-eskubidea eta ikus-entzuleek inpaktu bi-
sual eta emozionalen aurrean babestuta egoteko duten
eskubidea. Gainera, presaren ondorioz, hausnar-tzeko
denborarik gabe hartu behar dira erabakiak; hori dela
eta, profesionalek barneraturik izan behar dute zein muga zehazten dituen tratamendu informa-
tiboak. Berehala informatu beharrak ezin justifika dezake kausen, identitatearen eta bestelako
zirkunstantzien gaineko espekulazioa.

“Berehalakotasuna
eta
sentsibiltatea”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Ezbehar, hondamendi eta istripuekin zerikusia duten informazioek biktimen eta biktimen senitar-
tekoen sufrimendua, mina eta sentimendua **errespetatzea** dute **mugatzat**. Haien intimitatea eta
pribatutasuna informazio-eskubidearen gainetik egongo dira.
- 2.2. Albisteetan informazio hauek lehenetsiko dira: **gertakariak zer ukitu duen**; zenbat diren bikti-
mak, kaltetunak eta arriskuan dauden pertsonak; kalte materialak; arrazoiak eta erantzukizu-
nak, eta larrialdi-zerbitzuen lana.
- 2.3. Biktimen eta desagertutakoen **identitatea** ezagutzera eman baino lehen, senitartekoek eta la-
gunek izan beharko dute horren berri. Ez da eskainiko biktimak nahigabe identifika dezakeen
irudirik (biktimen gauzak, ibilgailu-matrikulak...).
- 2.4. Kontu handiz jokatu beharko da gertaerako biktimen edo **desagertuen zerrendan** bestelako arra-
zoiengatik desagerturik egon daitezkeen pertsonak ez sartzeko. Ezbeharraren ondorengo mo-
mentuetan, ezin direnez informazioak ziurtatu nahastearen eta kaosaren eraginez, ez da argitara
emango desagertuen zerrendarik, harik eta baieztapen ofiziala izan arte.
- 2.5. **Giza intereseko istorioak** geroago kontatuko dira, morboan, minean eta sentsazionalismoan atse-
gin hartu gabe.
- 2.6. Iraganean izandako **antzeko gertaerekin** alderatuz gero, zorroztasunez jokatu da, ezbeharraren
dimentsioa puztu gabe («inoizko istripurik...»).

- 2.7. Oso **irudi gogor edo odoltsuak** zabaltzeko orduan, interes informatiboa izango da gidari; aintzat hartuko da, gainera, sentsibilitateak mintzeko eta larritasun zein izu-ikara soziala sorrarazteko arriskua. Are kontu handiagoz jokatu beharko da zuzeneko emanaldietan. Irudi-mota hauek ematea erabakitzen bada, ikusleak aldeztatik ohartarazi behar dira.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. **Audientziari** zenbait irudik sorraraz diezaioketen inpaktu edo *shockaren* aurrean **babesa emateko**, gomendagarria da gertatutakoa ulertzen laguntzen ez duen lehen planorik ez ematea. Minaren berri emateko, ez da beharrezkoa xehetasun lasgarritz betetako kontakizun gordina egitea.
- 3.2. Halaber, saihestu beharrezkoa da shock edo sufrimendu handi-handiko egoeran dauden **biktimgana hurbiltzea** kamera. Mina errespetatzeko, gutxienezko distantzia zaindu behar da.
- 3.3. Jarraipena denbora errealean egiteko beharrak –bereziki zuzeneko emanaldietan– egiaztapena zailtzen du, baina horrek ez du **espekulazioak edo zurrumurruak zabaltzea** eragin behar.
- 3.4. Kontu handiz jokatu beharko da errua botatzea, susmoak zabaltzea edo erantzukizunak leporatzea saihesteko. Lekukotzak jaso beharko dira, baina betiere **aldez aurreko kondenan** jausi barik.
- 3.5. Ezbeharren eta hondamendien gaineko informazioaren **soinu-tratamenduak** ez du saminean sarakonduko. Zuhurtziaz aukeratu behar dira kontakizunari laguntzen dioten girotze-musika eta gainerako soinu-elementuak: hitz kolokialek eta gertaerak berak baino dramatismo handiagoa eragiten duten soinuek areagotu egin ditzakete larritasuna eta samina.
- 3.6. Kazetariak ez diete jazarriko hondamendi edo istripu batek zauritu edo kalteetako pertsonak, elkarriketak lortzeko helburuz. Kontuan hartu beharra dago biktima nahastu bat ez dagoela **baimena** askatasunez emateko moduan.
- 3.7. Jazoera bat hedabidearen zabalkunde-eremutik hurbilago edo urrunago egoteak tratamendu informatiboa baldintzatu egiten du, baina, horregatik, **distantzia geografikoak** ez die garrantzia edo dimentsio tragikoa murriztu edo hutsaldu behar urruneko hondamendiei.
- 3.8. Kazetarien lanak ez du inola ere oztopatu behar **biktimak sorosteko**, laguntzeko edo erreskatatzeko **lana**, ez eta ikerketa polizial edo judizialaren zeregina ere.

Erreferentziak

- EITBren Estilo Liburua — V. eranskina: ENG ekipoen bidez grabatzeko jarraibideak.

A4. Suizidioa

Suizidioa osasun publikoari dagokion arazo bat da, bereziki labaina, eta, horrenbestez, zuhurtzian oinarrituriko tratamendu informatiboa behar du. Pertsona baten suizidioa, berez, ez da albiste-gai bat. Gaiari heldu behar bazaio, zuhurtziak gidatuko ditu erabaki guztiak, eta azken hitza arduradun editorialek izango dute.

Testuingurua

- 1.1. Urteetan, suizidioa gai tabua izan da, zeharo estigmatizatua, tratamendu informatiboak batzuetan gertaera ikusezin eta beste batzuetan albiste hori bihurtu duena.
- 1.2. Gizarte-ikuspegi berriak suizidioa agenda mediatikoan txertatzera behartzen du, eta errespetua, prebentzioa eta gizarte-erantzukizuna oinarri dituen jarraipen informatiboa ematera.
- 1.3. Sare sozialek arazoa ikusgai egiten laguntzen dute baina, era berean, areagotu egiten dute banalizazioaren eta imitaziozko jokabideen arriskua, batik bat kolektiborik zaurgarrienetan.

**“Informatzeko
orduan, zuhurtzia”**

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Maiz buru-**osasuna**ren eta **suizidioa**ren artean izaten den erlazioa dela eta, komenigarria da sin-tomez, oharpen-seinaleez, egon litezkeen tratamenduez eta baliabide profesionalez informatzea.
- 2.2. Ikusgai egin behar dira suizidioak arlo guztietan dituen ondorio guztiak: legalak, sanitarioak, psikologikoak e. a. Bereziki beharrezkoa da bizidunei (bere buruaz beste egin duen pertsona ba-ten heriotza pairatu dutenei) **ez** eragitea euren **dolua isilpean** gorde dezaten.
- 2.3. Arreta handiz jokatu da **sektorerik zaurgarrienak** babesteko: haurrak, nerabeak, gaixo menta-lak, e. a. Gai honi buruzko informazioa kolektibo horietan zabaltzeak izan dezakeen eragina ezin daiteke aurrez ikusi.
- 2.4. Tratamendu informatiboan, aintzat hartu behar dira biktimen senitartekoak eta lagunak. Garran-tzitsuagoa da **intimitate-eskubidea** eta haien mina eta sufrimendu psikologikoa errespetatzea, informazio-eskubidea errespetatzea baino.
- 2.5. Suizidioen gaineko datuak eta estatistikak **zorroztasun** eta arduraz erabili behar dira.
- 2.6. Egoki da informazio **erabilgarria** eskaintzea: laguntzeko eta prebenitzeko zerbitzuak eta telefo-noak, bizidunentzako laguntza-taldeak, e. a.
- 2.7. Era berean, gomendagarria da alternatibei buruzko mezu positiboak bidal ditzaketan pertsonen lekukotza izatea, eta eredutzat har daitezkeen **erresilientzia**-adibideak eskaintzea.

- 2.8. Autolesioei edo suizidio-saiakerei dagokienez, ardura handiz **babestuko da biktimaren identitatea**, gure informazioaren gizarte-oihartzunak ez dezan baldintzatu pertsona horren etorkizuna.
- 2.9. Suizidioari buruzko informazioan, biktimaren **zirkunstantzia** ezagunak jaso daitezke, betiere garbi utziz **fenomeno konplexu eta multifaktorial** bat dela.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Suizidioari buruzko informazioan bazter utzi behar dira **sentsazionalismoa**, ikuskizuna eta morboa.
- 3.2. **Suizidio-metodoari** buruz informa daiteke, baina bakarrik interes informatiboa duenean edo eremu publikoan inpaktua eragin duenean. Edozelan ere, ez da funtsik gabeko xehetasunik plazaratuko, ez biktimaren argazkirik edo irudirik, ez, are gutxiago, suizidio-oharrik.
- 3.3. Suizidioa ez da jokabide loriatsu eta ausart gisa aurkeztu behar, ez eta arazoei aurre egiteko metodo gisa ere. Ildo horri jarraituz, ez da **erlazio zuzenik** ezarri behar **biktimaren zirkunstantzia ezagunen eta suizidioaren artean**, gertaera konplexu hau sinplifika ez dadin.
- 3.4. **Pertsona nabarmen edo ospetsu** (kantari, idazle, antzezle...) baten suizidioari buruz informatzean, aintzat hartu beharra dago haren jarraitzaileek segitu beharreko jokabide-eredutzat har dezaketela.
- 3.5. Ez da aipatuko **zenbait lekutan** (zubietan, eraikin altuetan, eta abarretan) izaten diren suizidioen maiztasuna. Frogaturik dago horrek “*dei-efektu*” garrantzitsua daukala.
- 3.6. Baztertzekoa da suizidio baten gaineko informazioa **eskaleta** edo gidoiaren leku garrantzitsuan jartzea (irekieran, titularretan...) eta **gehiegizko tratamendu** luze edo sakona ematea.
- 3.7. Beste gai batzuetan bezala, ez da **estereotipo** sozial, erlijioso, kultural edo antzekoetan jausiko.
- 3.8. Baztertzekoa da lekukoen edo auzokideen adierazpenek suizidioaren arrazoiak **sinplifikatzea** edo adierazpen horien bidez estereotipoak sortzea. Adibidez: «ez dago ulertzerik zergatik gertatu den; familia bikainekoa zen, maila onekoa; maitagarria zen, seme-alabentzat ama ezin hobea...».
- 3.9. Suizidioei buruzko informazioetan ez dira **iruzkinak** aktibatuko. @

Erreferentziak

- Euskal Suizidiologia Elkarte/Asociación Vasca de Suicidiología AIDATU. <https://aidatu.org/>

A5. Laikotasuna eta pluraltasun erlijiosoa

EITBk akonfesionaltasunetik landuko ditu beti erlijioekin zerikusia duten gaiak. Erlijio-askatasuna kasu guztietan errespetatuko da, erlijio baten edo beste baten fededun direla diotenen kasuan zein euren burua ateo edo agnostikotzat jotzen dutenen kasuan.

Testuingurua

- 1.1. Pluraltasun erlijiosoa EITB sortzeko Legeak jasotzen dituen printzipio orokorretariko bat da. Horren ondorioz, EITBko programazioak herritarren aniztasun erlijiosoa hartuko du kontuan, bai albigotzietan, bai debate-, iritzi- eta dibulgazio-saioetan.

“Akonfesionaltasuna eta tolerantzia”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Informazioetan, gertaerak ulertzeko guztiz garrantzitsua izanez gero baino ez da aipatuko **norbanako baten fede erlijiosoa**. Oso garrantzitsua da hori kontuan hartzea, erlijio minoritarioen edo gure inguruan tradizio txikia dutenen gaineko estereotipoak zabaltzea saihesteko.
- 2.2. Erlijio-ohiturak, **ospakizunak eta erritualak** albiste bihurtzeko, kulturaren eta tradizioen parte izan beharko dute, edo gizartearen zati garrantzitsu baten bizitza-erritmoa markatu beharko dute. Haien tratamendua ikuspegi akonfesional batetik egingo da.
- 2.3. Errito erlijiosoa folklore edo ikuskizun bihurtzeak ez du esan nahi **gizarte-eraginik edo kultur izaerarik** dutenik, alegia, albiste bihurtzeko justifikaziorik dutenik.
- 2.4. **Hizkuntzaren erabileran**, funtsezkoa da **zehaztasuna**, nahasketak edo interpretazio okerrak saihesteko. Izan ere, badira termino batzuk, adiera hurbila dutenak baina sinonimoak ez direnak. Hala, garbi bereizi behar dira erlijioarekin loturikoak (judua, musulmana / islamikoa, hinduista...) eta kultura, hizkuntza, etnia, geopolitika edo lurraldearekin loturikoak (israeldarra, arabiarra, indiarra...). Halako errakuntzek aurreiritziak sortzen dituzte, eta ez dute kazetaritza-zehaztasunaren printzipioa betetzen.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. **EITBren irudi publikoak** ez du loturarik edo adskripziorik erakutsiko inolako fede erlijiosorekin.
- 3.2. EITBko profesionalek ez dute jardun profesionala erabiliko gai erlijiosoen aldeko edo kontrako **iritziak zabaltzeko**.
- 3.3. **Iraingarriak** izan daitezkeen edo estereotipoak zabaltzen dituzten **jardunak** baztertu egingo dira.
- 3.4. Baztertzekoa da **kliseak erabiltzea**, zabalen dabilzanak izanda ere, ikus-entzuleak konplize bihurtzeko ez baitago inor mespretxatu eta lotsarazi beharrik.

A6. Genero-berdintasuna

EITBk funtsezko eginkizuna betetzen du genero-berdintasuna eraikitzeko beharrezkoa den gizarte-eraldaketan.

Testuingurua

- 1.1. Aukera-berdintasunarekiko konpromisoa hartuz gero, tratamendu informatiboak genero-estereotipoak zalantzan jarri behar ditu, eta desberdintasun-egoerak salatu eta agerira atera behar ditu. Kalitatezko kazetaritza egiteko, tratamendu informatibo eta hizkera ez-sexistak erabiltzeaz gainera, jazoeren jarraipen inklusiboa egin behar da. Genero-ikuspegia jazoeren kontakizun inpartzialean oinarritzen da, eta, horrenbestez, informazioa du euskarri, iritzia baino gehiago.

“Genero
berdintasunarekin
konpromisoa duen
informazioa”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Informazioan **emakume-eredu desberdinak** erakusteko ahalegina egingo da, errealitatearekin eta gizartea eraldatzeko konpromisoarekin bat eginez. Horrek esan nahi du oreka zaindu behar dela adinean, arrazan, estatusen eta gaitasun fisikoan.
- 2.2. **Genero-orekaren alde** egin behar da **informazio-iturriak** bilatzen direnean. Emakumeak era guztietako estatusetan eta era guztietako edukietan egin behar dira ikusgai, eta estereotipoak alde batera utzi behar dira: emakumezko ikaslea/gizonezko irakaslea, emakumezko erizaina/gizonezko medikua, emakumezko idazkaria/gizonezko zuzendaria, eta abar.
- 2.3. Tradizionalki emakumezkoei egokitutako gaiek (pertsonak zaintzea, artisautza, moda, e. a.) **ikus-puntu positiboa** izango dute, haien garrantzia agerian jarritz eta haien dimentsiorik hutsalena bazter utziz.
- 2.4. **Gizartea** genero-berdintasunerantz **aldatuz doala** erakusten duten egintzek, arlo publikokoak zein pribatukoak izan, gizonenak zein emakumeenak izan, jarraipen informatiboa izango dute EITBn. Ildo horretatik, baliagarria da egintza horien adibide zehatzak ematea («X den lehen emakumezkoa», «X ardura hartu duen lehen gizonezkoa»).
- 2.5. Informazioak lehentasunez jorratuko ditu **berdintasun-legeria** betetzen ez duten egoerak eta gertakariak.
- 2.6. Gizon-emakumeen arteko berdintasunean izan daitezkeen **aldaketek eta proposamenek** (bereiziki legegintza- eta hezkuntza-eremukoak) toki nabarmena izango dute EITBren gai-agendan.

- 2.7. EITBk landutako informazioak **berdintasunezko hizkeraren gomendioei** jarraituko die. Hala, errotik ezabatu behar dira emakumeak ikusezin egiten dituzten hizkuntza-erabilerak, adibidez, gaztelaniaz maskulino generikoaz abusatzea («los padres» esatea, «las madres y los padres» esan ordez), edo euskaraz jakintzat ematea «17 urteko gazte bat» esapidea gizonezko bati dagokiola («17 urteko mutil bat» esan ordez, «17 urteko neska bat» esapidearen aurrez aurre). Errotik ezabatu behar dira emakumea modu distortsionatuan ikusgai egiten duten hizkuntza-erabilerak. Ez da gizona hartu behar munduaren ardatz edo erreferentziazat (ez genuke «sufragio unibertsala» esan behar emakumearen eskubidea jasota egon ezean).
- 2.8. EITBk gizon-emakumezkoen **presentzia orekatua** sustatuko du albistegietako eta saioetako komunikatzaile, laguntzaile eta solaskideen artean.
- 2.9. Informazioari agintea eta sinesgarritasuna eman nahi zaionean, berdin-berdin erabiliko dira **gizonezko ahotsak** zein **emakumezko ahotsak**.
- 2.10. Gizonak eta emakumeak berdin-berdin agertuko dira **ekintzaren subjektu gisa**. Horrenbestez, hitz egiteko modu asimetrikoak baztertu egingo dira: «izendatu dute» emakume batez ari garela; «kargua hartu du» gizon batez ari garela.
- 2.11. Baliabideak, heziketa, erabakimena, aukerak eta espektatibak eskuratzeko orduan **desberdintasuna** erakusten duten errealitateak albistegai egin behar dira, inpartzialtasunetik.
- 2.12. Albistegietan, beharrezkoa da desberdintasuna iraunarazten eta ugaritzen duten **egiturak** identifikatzea eta erakustea: legeria —batik bat, jabetza-eskubideari eta oinordetza-eskubideari dagozkiona—, justizia edukitzeko aukera, politikan sartzeko bidea, e. a.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. **Genero-ikuspegia** ez da emakumezkoen dagozkien gaiekin bakarrik lotuko.
- 3.2. Genero-berdintasunari buruzko diskurtsoei dagozkien informazioetan ez dira matxismoa eta feminismoa **parekatuko**. Aitzitik, pentsamendu feministak emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat eskubide berberak nahi dituela nabarmenduko da.
- 3.3. **Aukera-berdintasunari buruzko debatea** ez da etxeko lanen banaketara eta pertsonen zainketara mugatuko. Izan ere, debatea arlo horretara mugatzen bada, txikiagotu egiten da aukera-berdintasunaren gaiak gizartean eta ekonomian duen garrantzia.

- 3.4. Ez da iritzirik emango emakumezko batek bizitza pribatuari eta profesionalari eskainitako denboraz edo biak **bateratzeko** ahaleginaz, bereziki proiektzio publikoa duten emakumezkoen kasuan.
- 3.5. **Amatasunarekin** zerikusia duten gaiei buruz informatzean, ez da bultzatuko gizarte-eraldaketaren kontrako eredu zorrotz eta manikeorik.
- 3.6. Emakumezkoak deskribatzeko ez da **itxura** kontuan hartuko, ez eta **egoera zibila**, **egoera sentimental**, amatasuna eta abar ere, gertaerak ulertzeko behar-beharrezkoa ez bada.
- 3.7. Informazioak ez dio tokirik egingo arrakasta profesionala eta feminitatea baztertzaille gisa aurkezten dituen inongo ereduri. Era berean, **emakumezkoen arrakasta** ez da edertasunarekin edo sentsualitatearekin lotuko.
- 3.8. EITBko albistegietan baztertzekoa da jarduera profesionala (gaien jarraipena, berriemaileen esleipena, tratamendu informatiboa eta abar) **genero-estereotipoetan** oinarritzea.

Erreferentziak

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea (2008). *Euskararen erabilera ez-sexista*: www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/.../eusk_gida_eu.pdf
- Bengoechea, Mercedes (2002). «Orientaciones para una representación femenina no discriminatoria en la textualización de la noticia», J.G. Antuñano (arg.), *Mujeres, Hombres y Medios de Comunicación*. Valladolid: Lex Nova eta Gaztela eta Leoneko Gobernua.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea (2008). *Emakumeka eta komunikabideak*. http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/sen_revista/es_emakunde/adjuntos/emakunde71.pdf

A7. Indarkeria matxista

Indarkeria matxista gizarte-arazo bat da, egiturazko kausa konplexuak eta sakonak dituena. Ez da gertakari bat eta, hortaz, ez dagokio gertakariei egiten zaien jarraipen-mota. Giza eskubideen urraketei eta pertsonen askatasunaren eta duintasunaren aurkako atentatuei egiten zaien jarraipen-mota dagokio. Ildo horretatik, EITBk lerro koherente bat izango du albistegietan zein taldearen programazio osoan. 'Indarkeria matxista'ren baliokide modura, 'genero-indarkeria' eta 'indarkeria sexista' erabil daitezke.

Testuingurua

- 1.1. Indarkeria matxista ez da agresio bat jazotzen denean bakarrik agertuko albistegietan; gaiarekin zerikusia duten ekimen guztien berri eman behar da: erakundeen kanpainak, prestakuntza-egitasmoak, publizitate-kanpainak, poliziaren edo epaileen jarduerak e. a.
- 1.2. Indarkeria sexista, sarritan, esparru publikotik kanpo gertatzen da. Jarraipen informatiboa egiten denean, guztiz beharrezkoa da indarkeriaren kontrako jarrera sendoa eta pertsonen intimitatearen errespetua uztartzea.
- 1.3. Tratamendu informatiboak aintzat hartuko du genero-indarkeria esaten denean sexu- eta/edo genero-identitateagatik eta sexu-orientazio eta/edo -jokabideagatik gauzatzen den biolentzia oro biltzen dela.
- 1.4. Agresioaren prozedura edo egindako mina azaltzeak imitazio-jokabideak ekar ditzake. Horregatik, komenigarria da informazio disuasiboa gehitzea, esate baterako, halako delituek izaten dituzten ondorio judizial eta penalak.

“EITBk indarkeria matxistaren aurka informatzen du”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Tratamendu informatiboak **eragile estrukturalen** azterketa lehenetsiko du, gertakariari dagozkion xehetasun eta gorabeheren aldean.
- 2.2. Agresio sexisten eraginpean dauden **adin txikikoak** halako biolentziaren **biktima** zuzentzat jo, eta horren araberako tratamendua emango zaie.
- 2.3. **Errugabetasun-presuntzioa**¹⁹ errespetatu egin behar da. Gizaseme bat ere ez da agresio-egiletzat utzi behar, ez badago horren gaineko ziurtasunik edo epairik.
- 2.4. Biktimen intimitatea eta mina zaindu, haien **anonimotasuna** gorde, eta kalte egin diezaieketen datuak isildu egin behar dira. Haien aurpegia ezkutatu egingo da, biktimak berak edo beraren senideek gertatutakoa ikusgai egiteko eta hedabideetan ateratzeko nahia azaldu ezean.  

¹⁹ Ikus 21. oin-oharra, errugabetasun-presuntzioari buruzkoa, A14. fitxan, 65. or.

- 2.5. **Gainditze pertsonalaren adibideak** eta lekukotzak eskainiko dira, beste biktima batzuentzat lagun-
garriak eta mezu positibo eta esperantzagarriak izan daitezen.
- 2.6. Gertaeraren gaineko **iruzkinak eta partaidetza-foroak** moderatu egin beharko dira, adierazpide
iraingarririk edo jokabide bortitzen aldeko hitzik azal ez dadin. @
- 2.7. Agresio sexista baten gainean informatzen denean, **aditu** eta **iturri baimenduetara** joko da.
- 2.8. **Senitartekoen, auzokideen eta lagunen** adierazpenak informazio-balio argia dutenean bakarrik
txertatuko dira.
- 2.9. EITBko profesionalek aintzat hartuko dituzte biolentzia matxistarekin loturiko **terminoak erabilt-
zeko** ematen diren gomendioak: 'indarkeria matxista', 'genero-indarkeria', 'indarkeria sexista'
'emakumeen aurkako indarkeria'. Baztertzekoak dira 'etxeko indarkeria', 'familia barruko indarke-
ria' eta 'bikote-indarkeria' terminoak.
- 2.10. Albisteetan, **informazio praktikoa** emango da, esate baterako *Genero indarkeriaren biktimentzako
arreta-zerbitzuaren telefonoa* (900 840 111)²⁰, erakundeek eskaintzen dituzten diru-laguntzak es-
katzeko epeak, informazio-puntuen kokapena, e. a.
- 2.11. **Kondena-epaiei** zabalkundea emango zaie, eta, hala, ikusgai egingo dira indarkeria matxistaren
ondore penalak, eta baita tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen aldeko babes instituzionala,
judiziala eta soziala ere.
- 2.12. Agresio baten gaineko informazioarekin batera, **Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako
gida** estekatuko da. @
- 2.13. Agresioa testuinguruan jartzeko, **informazio osagarria** emango da. Zentzu horretan, hauek izan
daitezke iturri baliagarriak:
- Azterlan akademiko eta/edo profesionalak.
 - Indarkeriaren kontrako kanpainak.
 - Arduradun politikoak eta polizialak.
 - Kasuarekin zuzeneko zerikusia ez duten bestelako iturriak (proiektzio publikoa duten pertsonak, e. a.).
 - Artxiboko materiala

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Baztertzekoa da **emakumezkoari**, subjektu aktibo gisa duen paperaren gainetik, **biktima irudia**
eranstean dion tratamendu informatiboa.

²⁰ EAEEn, telefonozko arretaren zenbakia 900 840 111 da. Estatuan, 016 da.

- 3.2. Ez da erabiliko «*berriro ere ... kasu bat*», «*beste ... kasu bat*» edo antzeko esapiderik, indarkeriazko gertakariei garrantzia kentzen dien **efektu sorgortzailea** ekiditeko.
- 3.3. Baztertzekoa da biktimak indarkeria sexista jasateagatik **errudun edo erantzule egiten dituen tratamendu informatiboa**. Halaber, ez dira erantzule gisa agertuko tratatu txarrak ez salatzeagatik.
- 3.4. Ez da egingo kolektibo baten **estigmatizazioa** ekar dezakeen deskripziorik. Alde batera utziko dira marjinazio-estereotipoak, hala nola, nazionalitatea, sinesmenak, kultura edo inguruabar sozioekonomikoak aipatzen dituztenak.
- 3.5. Halaber, ez da emango biktima edo erasotzailea **identifikatzea** edo **kokatzea** ahalbidetzen duen daturik: adibidez, etxebizitzaren kanpoaldea, lantokia, e. a. Interes informatiboa edo gertakarian parte diren pertsonen entzutea arrazoi nahiko izan daitezke haien izenak emateko, arduradun editorialen baimenarekin.
- 3.6. Indarkeria sexistari buruzko informazioaren ezaugarriak ezin daitezke izan **ikuskizuna**, sentsazionalismoa edo morboa. Horrenbestez, gertaeren dramatizazioa eta sorberritzea, edo irudi eta testimonio bereziki gordinak, salbuespen modura erabiliko dira. Gertatutakoa ulertzeko informazio osagarria ematen dutenean baino ez da halakoetara joko.
- 3.7. Muga jarri behar zaie agresioaren lekukoekin eta/edo biktimaren edo susmagarriaren lagunekin eginiko elkarrizketei. Betegarrietan errepikatzen diren **topikoek** ez dute inola ere laguntzen gertakariak ulertzen. Era berean, alde batera utziko dira agresio-egilearen izaera nabarmentzen duten testimonioak («*oso jatorra zen*», «*auzoko ona zen*», e. a.).
- 3.8. Ez da agresioaren **zergatien** gainean **espekulatu** behar: itxura fisikoa, jelsia edo bestelako arrazoi emozionalak, agresio-egilearen edo biktimaren izaera, alkoholaren edo drogen kontsumoa, arazo ekonomikoak, e. a.
- 3.9. Genero-indarkeriaz informatzen denean, kasuak ez dira **harreman sentimentalen** esparruan kokatu behar. Halakoetan, harremanak menderakuntzazkoak dira, ez maitasunezkoak.
- 3.10. Ez da erabiliko **agresioa justifikatzen duen adierazpiderik**, ez justifikazioa agerikoa denean, ez hitz-erdika egina denean.
- 3.11. **Gizarte-alarma** sortzea saihestuko da, horrek emakumeak euren barnera biltzera eta bakartzera bultzatzen ditzake eta.

Erreferentziak

- <http://www.emakunde.euskadi.eus/indarkeria/-/indarkeria/>
- https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/7168/Codigo_Deontologico_eu.pdf?1446207170
- http://www.feministas.org/IMG/pdf/debate_intrafeminista__vg_en_mmcc.pdf

A8. Adingabeak eta nerabeak

EITBren informazio-lanak erantzukizun estrategikoa dauka adingabe eta nerabeen aurrean, balioen, gizarte-ereduen eta gizalegezko jokabideen transmisioan.

Testuingurua

- 1.1. Tratamendu informatiboak adingabeen eta nerabeen eskubideak babestu behar ditu, batez ere haurrenak. Horrekin batera, ikuspegi eraikitzailea erantsi behar dio informazioari, gaur egungo mundua ulertzen lagundu diezaien.
- 1.2. Adingabe eta nerabeentzako informazioak gainditze pertsonala —bereziki, prestakuntzan oinarritutakoa—, berdintasuna, elkartasuna eta errespetua sustatuko ditu.
- 1.3. Kontuan hartu behar da adin-talde horietan, nortasuna eraikitzen den garaia izanda, garrantzi handia dutela imitazio-jokabideek. Haur eta nerabeek erraz xurgatzen dituzte mezu mediatiko guztiak. Horrek bide bat ematen dio EITBri bere heziketa-eginbeharra betetzeko, baina, aldi berean, ahulago bihurtzen ditu haurrak eta nerabeak *publicityaren* eta irudi-kanpainen aurrean.

“Adingabe
babestuak,
gazte
informatuak”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Tratamendu informatiboan nahitaezkoa da haurren, nerabeen eta gazteen **eskubideak babestea**, haien jatorria, gizarte-egoera edo sinesmen erlijiosoa dena dela.
- 2.2. **Kontu handiz** jokatu beharko da adin txikiko **babesgabeekin**, esaterako familiaren zaintza ez dutenekin, edo beste herrialde batzuetako gertaeren gaineko informazioetan azaltzen direnekin.
- 2.3. Aintzat hartuko da zein diren EITB Taldearen barruan adingabeek eta gazteek gehien kontsumitzen dituzten informazio-motak, -formatuak eta -kanalak, **eskaintza haien interesen arabera egokitze-ko**. Adibidez, babesa areagotu egingo da gai zailetan, eta gehiago sakonduko da eragiten dieten balioen transmisioan.
- 2.4. Informazioan **gizarte-ekintzako subjektu aktibotzat** hartu behar dira gazteak, eta aktualitatearen kontsumora bultzatuko dituzten komunikazio-estrategiak bilatu behar dira. Baztertzekoak dira gazteak motibaziorik gabe eta gai publikoetatik aparte erakusten dituzten kliseak.
- 2.5. Zaila da arau baten bidez zehaztea pertsonak noiz arte diren gazteak. Hori dela eta, testuinguruak argituko du zelan erabili *haur*, *nerabe* eta *gazte terminoak*. Nolanahi ere, jokabide negatiboa deskribatzen denean, ahaleginak egin beharko dira informazioaren subjektua ez zahartzeko («17 urteko gazte batek norbait hil du»), eta, jokabidea positiboa denean, subjektua ez gaztetzeko («17 urteko nerabe batek saria lortu du»).

- 2.6. Tratamendu informatiboak kontuan izango ditu haur, nerabe eta gazteen **berezitasunak**, baina estereotipo eta sinplifikazioetan jausi barik.
- 2.7. Adingabeak babesteko, arreta osoz jokatu behar da, eta inpaktua neurtu, bereziki gai **korapilatsuak** eta **gizarte-alarma** edo **izua** eragin dezaketenak lantzen direnean: adin txikikoen desagerpena, sexu-erasoak, tratu txarrak eta jazarpena, eta abar. Halako gaiak jasotzen dituzten berriek ez dute morboan edo orokortzean jausi behar errealitatea erakusteko.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Baztertzekoak dira **infantilizazioa** eta informazio-estilo gazte ustekoa, adingabeei eta nerabeei dagozkien gaiez informatzeko (adibidez, Gabonetako opariez, sare sozialen erabileraz edo ikasketen gorabeheraz). Enpatizatze asmoz, elkarriketetan batik bat, kazetariak ez du konplizitatera edo tratu informalera joko.
- 3.2. Gazteei buruzko informazioan ez da ezarri behar **ikuspegi** instituzionala eta **heldu ustekoa**, jarraitu beharreko jokabideak eta ereduak ematen dituenak. Horrek ez du esan nahi informatzaileak gazteei egotzen zaizkien bizi-estiloak, lexikoa edo itxura bere egin behar dituenik.
- 3.3. Gazteen babesak ez du berekin ekarri behar informazioaren aldetik ere babestea, edo **jokabide bidegabeak** edo **okerrak** justifikatzea, adina aitzakia dela. Gazteek erabilitako indarkeriaren edo egindako delituen tamaina ez da txikiago aurkeztu behar informazioan.
- 3.4. Irudiak edo elkarriketak graba edo zabal daitezkeen erabakitzeko, ez da aski izango gurasoen baimena. Senitartekoek **oihartzun mediatikoa** nahi dutenean, zorrotz zaindu beharko dira adingabeen eskubideak. Kazetariak du tratamendu informatiboaren gaineko erabakia eta erantzukizuna.
- 3.5. Kazetariak ez diete **topiko eta estereotipo sexista, klasista eta arrazistetan** oinarritutako galderarik egingo adin txikikoei, ez eta egokiro erantzuteko gai izango ez diren galderarik ere. «Zein panpina eskatuko diozu Olentzerori?» edo «nola imajinatzen duzu zeure ezkontza-eguna?», adibidez, aurreiritzietan oinarritutako galderak dira.
- 3.6. **Portaera arriskutsuak edo arduragabekeria** ez dira gazteen jokabide erakargarri eta berezko gisa azalduko.
- 3.7. Informazioak ez die **errealitatearen** kontakizuna ukatuko adingabe eta gazteei. Adingabeei zuzendutako informazio-diskurtsoan ez da errealitatea eztituko; horrek ez du esan nahi larritasuna edo beldurra transmititu behar denik.

A9. Immigrazioa, arrazakeria eta xenofobia

EITBk bere gain hartuko du kulturartekotasuna gizarte osoaren helburu bihurtzeko eta harremanak eta bizikidetza normalizatzeko lanean laguntzea. EITBren informazioek berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde egingo dute, eta arrazakeriaren eta xenofobiaren kontra.

Testuingurua

- 1.1. Informazioak argi utzi behar du migrazioaren gaia konplexua dela, era askotako kausak dituen: politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak. Albisteei heltzeko ikuspegiak integrazioa, bizikidetza eta arrazan, etnien edo jatorrian oinarrituriko diskriminaziorik eza izango ditu helburu.
- 1.2. Etorkinak ikusgai egiteko, haien arazo eta bizi-baldintzen berri eman behar da, eta haiek gizarteari eskaintzen dizkioten balio sozial, kultural eta ekonomikoak nabarmendu behar dira.

“Integrazioa eta bizikidetza”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Informazioa ulertzeko ezinbestekoa ez baldin bada, ez da erabiliko «**etorkin**» terminoa, eta ez zaio arraza-jatorriari edo sorterriari aipamenik egingo.
- 2.2. Informazioa **egiaztatu** ahal izateko, **hainbat iturritako** datuak erkatu behar dira: iturri instituzionalak ez ezik, immigrazioari lotutakoetara ere jo behar da, hala nola etorkinen elkarteetara, adituengana eta gobernu kanpoko erakundeetara.
- 2.3. Kolektibo ahul edo babesgabeen gainean informatzen denean, arreta handiz jardun beharko da, duintasuna, pribatutasuna, ohorea, intimitatea eta irudi ona zaintzeko **eskubidea** babestuta dagoela garantizatzeko.
- 2.4. **Herriarrei** sare sozial, telefono, foro edo blogen bitartez **parte hartzeko bidea** irekitzen zaienean, kulturarteko gizartearen ideia sustatu beharko da. Beharrezkoa da bide horiek moderatzea, adierazpen arrazistak edo xenofoboak ekiditeko.
- 2.5. Informazioak gizarte-kohesioa bultzatuko du, bai eta immigrazioa nahiz talde kultural eta etniko guztiak modu positiboan ikusgai egitea ere. Euren nortasunari eusten laguntzen dieten gertakarien berri emango da, baina, horrez gainera, talde horiek **presentzia normalizatzailea** izango dute bestelako informazioetan.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Etorkinak protagonistak diren informazioetan ez da jatorria, talde etnikoa, larruazalaren kolorea, erlijioa, kultura, hizkuntza edo ideologia aipatuko, baldin eta albistea ulertzeko guztiz beharrezkoa ez bada. Ezaugarri horietariko batzuk azpimarratzeak bereizkeria eragin dezake, edo herriarrengan **sentimendu negatiboak edo xenofoboak** piztu.

- 3.2. Etorkinak ez dira talde homogeneoa. Ez da **orokortu** behar, eta, batik bat, etorkinak ez dira jokabide susmagarriekin lotu behar. Delituei buruzko berrietan, adibidez, ez da aipatuko susmagarriak, atxilotuak edo akusatuak talde etniko edo kultural bateko edo besteko kideak direla.
- 3.3. Euren jarduera profesionalean lekukoak bilatzen dituztenean, kazetariak ez diete **estereotipo** murriztailei jarraituko. Lanbide edo jarduera batzuetan presentzia handiagoa izanagatik ere, ez dira nazionalitate jakin bateko pertsonak bilatu behar gai jakin bat ilustratzeko.
- 3.4. Beste herri batzuen kulturen gainean informatzeko orduan, negatiboak dira **sentsazionalismoa** eta gaia **ikuskizun bihurtzea**. Inoren ohituren gaitzespen moralak, esplizitua nahiz inplizitua izan, ez dauka lekurik informazioan, betiere ohiturok larriki urratzen ez badituzte Giza Eskubideak.
- 3.5. Ez da immigrazioa **bazterkeriarekin** erlazionatu behar. Hori ez da oztopo izango kazetarien **ikerlanak** immigrazioari lotutako esplotazio- edo diskriminazio-egoerak salatzeke balio izan dezan.
- 3.6. Gure hedabideek ez dute zabaldu behar immigrazioarekin kontzeptu negatiboak (ilegaltasuna, delinkuentzia, kriminalitatea edo terrorismoa) lotuta daudelako ideia. Termino horiek elkarrekin lotzen badira, errazago sendotuko dira **aurreiritziak**.
- 3.7. Sekula ez da erabili behar errakuntza eragin dezakeen hitzik edo komunitate batentzat iraingarria izan daitekeenik. Terminoak **zehaztasunez** erabili behar dira, etniari, kulturari, erlijioari, nazionalitateari, jatorriari eta abarri dagozkien kontzeptuak nahastu gabe. Hala, ondo bereizi behar dira 'arabiarra' (hizkuntza bati edo herrialde bati dagokiona) eta 'musulmana' edo 'islamikoa' (erlijio bati dagokiona). Era berean, 'judua' esaten dugunean, erlijioaz ari gara, eta 'israeldarra' diogunean, ostera, nazionalitateaz. 'Israeldarra' antzinaroko herri bateko kidea ere bada. 'Hebrear' terminoak, berriz, adiera historikoa edo erlijiosoa izan dezake.
- 3.8. Desegokia da 'ilegal', 'klandestino', 'papergabe' edo antzeko **adierazpideak** erabiltzea. Zuzenak hauek dira: 'egoera irregularrean dauden etorkinak' edo 'egoitza-baimenik gabeko etorkinak'.
- 3.9. Guztiz baztertzekoa da arriskua aditzera ematen duten **metaforak** edo **similak** erabiltzea. Etorkinen etorrera aipatzeko, adibidez, ez dira gomendagarriak «oldea» eta horrelako terminoak, **jarrera defentsiboa** eragin dezakete-eta.
- 3.10. Egiatzko informazioa eskaini beharrak ez du esan nahi immigrazioaren gaineko berriak **ikuspegi utilitarista** hutsera mugatuko direnik, alegia, eskulana falta duten sektoreetan, Gizarte Segurantzako kotizazioetan, biztanleriaren adin-banaketan eta abarretan egiten duten ekarria ez da izango argumentu bakarra.
- 3.11. Beste kultura, arraza edo sinesmen batzuei buruzko informazioa ez da **jarrera etnozentristatik** landuko.

Erreferentziak

- «Mitjans de comunicació i immigració». Quaderns del CAC, 12, 2002ko urtarrila-apirila: http://www.cac.cat/pfw_files/cma/recerca/quaderns_cac/Q12.pdf

A10. Desgaitasuna eta gaixotasuna

EITBren kezka informatiboetako bat *kazetaritza soziala* da. Arlo horretan, desgaitasuna eta gaixotasuna dira kontuzko ildoetako bi, eta berorien tratamendua ezin da topikoetan erori. Informazioetan, pertsona desgaitu eta gaixoen ezagutza sustatuko da, eta pertsonon garapenaren, gainditze pertsonalaren eta integrazioaren berri emango da. Zentzu horretan, albistegietako azpidatziek eta eitb.eus-eko albiste idatzia entzuteko aukerak informazioaren eskurapena bermatzen diete pertsona gorrei edo pertsona itsuei.

Testuingurua

- 1.1. Desgaitasunarekin eta gaixotasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioak zorrotza, sakona, adeitsua eta eraginkorra izan behar du.
- 1.2. Informazio objektiboa eta ikuspegi eraikitzailea dira aurreiritziak eta estereotipoak bazterreratzeko gakoak, baina integrazioa zaildu dezakeen jarrera hiperbabesleetan jausi barik. Ohitura osasungarrien garrantziaz jabetuta dagoen iritzi publikoa eratzea da kazetari-lanaren betebeharrak, eta presio-talde handien aurrean independentziari eustea, beste bat.

“Osasunerako informatu”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Desgaitasunen edo gaixotasunen bat duten pertsonak aipatzean, **terminologia egokia** erabili behar da, enfasia pertsonarengan ipinita. EITBren hedabideetan, ‘gorreria duen pertsona’, ‘alzheimerria duen pertsona’, ‘autismoa duen haurra’ eta halako esapideak erabiltzea gomendatzen dugu, eta gaitza azpimarratzen duten etiketa generikoak baztertzea (‘gorrak’, ‘eskizofrenikoak, e. a.).
- 2.2. Printzipio orokor gisa, pertsona guztiek, oihartzun publikoa dutenek barne, gaixotasunak edo gaitz fisiko nahiz psikikoak ezagutzera ez emateko eskubidea dute. Pertsonak baimentzen duenean edo **interes publikoak** justifikatzen duenean baino ezin daiteke informazio medikoa argitaratu. Gainerako kasuetan, intimitatea gailentzen zaio informatzeko eskubideari.
- 2.3. Informazioa guztiz lagungarria izan daiteke gorputz-dismorfiaren nahasmenduarekin lotutako gaixotasunen kontrako borrokan, hau da, **gorputz-irudiaz** eta edertasun-estandarrez gehiegi kezkatzeagatik sortzen diren gaitzei aurre egiteko borrokan: anorexia, bulimia, tanorexia, bigorexia... Arduraz jokatu, eta bizimodu osasungarriak sustatu behar dira.
- 2.4. Aurrerakuntza terapeutiko eta farmakologikoez eta aurkikuntza zientifikoez informatu baino lehen, **sinesgarritasuna** egiaztatu behar da. Albistean, garapenaren eta aplikazioaren zein fasetan dauden zehaztuko da, eta ustez zer onura ekarriko dieten zientziari eta herritarrei. EITBn ez da informaziorik emango **produktu miragarriez** edo **terapia pseudozientifiko**ez, baldin eta ez bada ohartarazten osasunerako ekar dezaketen kalteaz, arriskuaz edo eraginik ezaz.

- 2.5. Gaixorik edo osasun-etxeetan dauden pertsonen **irudiak** edo adierazpenak jasotzeko eta zabaltzeko orduan, **zorrotz errespetatuko** zaizkie duintasuna, intimitatea eta pribatutasuna. Pertsona horien baimena beharko da aldez aurretik. Halaber, gomendagarria da sendagileen iritzia kontuan hartzea. Eskubideok berdin errespetatu beharko dira pertsona horiek kalean edo anbulantzian artatzen dituzten kasuetan ere
- 2.6. Erakundeek edo gaixo-elkarteek sustatutako **osasun-kanpainei** jarraipena egingo zaie.
- 2.7. Sendabide eta terapien berri emateko, **ikuspegi-aniztasuna** bilatuko da, zehaztasunean eta gaixoen onuran oinarritua.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Ez da inoren **desgaitasuna** edo **gaixotasuna** aipatu behar, albisteak ulertzeko ezinbestekoa ez bada.
- 3.2. Osasunarekin zerikusia duten informazioetan lekuz kanpo daude **alarmismoa**, **sentsazionalismoa**, **errukia**, **desilusioak** edo **mirarizko sendaketak**.
- 3.3. Froga zientifikorik ezean, ezin da **uztatu** gaixotasun edo nahasmendu jakin bat sexu, sektore edo kolektibo jakin batekin.
- 3.4. Desgaitasunak izendatzeko terminologian bazter utziko dira **hitz gutxiesgarriak**, alferrikako **eufemismoak** eta esamolde mingarriak ('ezindua', 'elbarria', 'gutxitua', 'urritua', 'lisiatua', 'atzeratua', e. a.).
- 3.5. Ez dira elkarrekin lotu behar **indarkeria** eta **osasun mentala**. Era berean, eraso baten benetako arrazoiak ez dira ezerezeroa murriztu behar arazo psikiatrikoen aitzakian.
- 3.6. Guztiz baztertzekoak dira **irudi negatiboak** edo behar bezain normalizatzaileak ez direnak. Informazioak egiazkoa eta errealitatearen ispilu izan behar du, baina horrek ez du esan nahi gaixotasunaren alderdirik mingotsena edo topikoena bakarrik aipatu behar duenik.
- 3.7. Ez dira isilduko gaixotasunekin zerikusia duen interes publikoko informazioak. Osasunari eta gaixotasunari buruzko informazioak ematean, kontu handiz jokatu behar da, sasiko interesak dituzten lobbyen **presioei** edo **interferentziei** men egin gabe. Horrek garrantzi berezia du epidemia edo pandemieta, herritarrek kalteberagoak izaten baitira.

A11. Droga-mendekotasuna eta bestelako adikzioak

EITBk objektiboki, zorrozki eta egiazki informatzeko gizarte-erantzukizuna hartzen du bere gain; horretarako, bizimodu osasungarriak sustatuko ditu, eta substantzia eta jokabide adiktiboen arriskuen berri emango du; aldi berean, gizabanakoaren askatasuna errespetatuko du, eta estereotipoak baztertuko.

Testuingurua

- 1.1. Droga-mendekotasunaren eta bestelako adikzioen konplexutasuna dela-eta, kazetarientzat diziplinartekotasuna da tratamendu informatiboaren gakoa. Askotariko iturriak erabiltzeak helburu bikoitza du: errealitatea erakustea, eta prebentziorako hezteak.

“Bizimodu
osasungarriak
sustatu”

- 1.2. Informazioan kontuan hartu behar da adikzio batzuen objektua substantzia kimikoak direla –kokaina, marihuana, tabakoa, alkohola, zenbait medikamentu– eta beste batzuenak, portaerak –ludopatia, bigorexia, erosketa konpulsiboa, ziberadikzioa eta bestelako mendekotasun teknologikoak–.

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Gomendagarria da, gaiari buruz informatzen den bakoitzean, **prebentzio-proposamenen** edo irtenbideen gaineko informazioa ematea (telefonoak, laguntza-zentroak eta -zerbitzuak, komunitate terapeutikoak, e. a.).
- 2.2. Beharrezkoa da, berri negatiboak ematen direnean (esaterako, mendekotasunen ondorio kaltegarriak), oreka edo kontrapisua bilatzea **ikuspegi eraikitzailea** duten albisteekin, arazoari irtenbideak aurkitzen laguntzeko.
- 2.3. Informazioak **kontsumo-mota desberdinak** daudela agertu behar du (noizbehinkakoa, arazotsua eta mendekotasunezkoa), eta adikzioaren fenomenoak gizarte-ingurune guztietan azaltzen dela.
- 2.4. **Irudi oso esplizituak** zabaltzea erabaki aurretik, inpaktua, interes informatiboa eta prebentzio-balioa ebaluatu behar dira.
- 2.5. Kontu handiz jokatu da kolektibo bereziki sentiberak (pertsonek bergizarteratuak, droga-mendekoen senide eta adiskideak, adingabeak...) **mindu** ditzaketen informazioak edo irudiak ematen direnean.
- 2.6. Droga-mendekotasuna edota bestelako adikzioak dituzten pertsonen irudiek duintasuna errespetatu behar dute, eta **anonimotasun-eskubidea** zaindu.

- 2.7. **Drogen eraginpean** dauden pertsonak **elkarrizketatzeko**, funtsezko justifikazioa behar da. Elkar-rizketa emititzeko, elkarrizketatuaren adostasuna eta Albistegi Zuzendaritzaren baimena be-harko dira.
- 2.8. **Iturrien erabilerak** agerian jarri behar du gertaera konplexu bat dela. Iturriek askotarikoak eta ego-kiak izan behar dute.
- 2.9. **Informazio-estiloa** audientzia-motaren arabera egokituko da. Gehiegikerietan edo planteamendu sin-plistetan erori gabe, kontuan hartuko da mezua nori zuzentzen zaion: gazteei edo helduei, adituei...
- 2.10. Adin-talde, kolektibo, udalerri edo auzo jakinak **kriminalizatu edo estigmatizatzeko arriskua** mu-rritzeko, gomendagarria da kolektibo horietan drogatik edo beste edozein adikzioetatik urrun bizi diren kideen lekukotasuna jasotzea.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Informazioan ez da «droga» **modu orokorrean** aipatu behar. Ezinbestekoa da zehaztasuna.
- 3.2. «**Droga gogorrak**» eta «**droga bigunak**» bereizteak, bestalde, nahasmena eragin dezake kontsumo adikzioaren ondorioei buruz.
- 3.3. Ez da «**diseinuzko drogak**» adierazpidea erabiliko laborategian sortutako droga sintetikoak aipa-tzeko. Izan ere, diseinu terminoa erakargarria izan daiteke zenbait pertsonarentzat.
- 3.4. Tratamendu informatiboak **ez du** inplizituki **legitimatuko**, ez droga legalen kontsumoa, ez gizar-tean onartuta dauden kontsumoa, ez adikzio-jokabidea. Debate-saioetan, iritzi-askatasuna ez da erabili behar, ez drogen ondorioei buruzko **nahasmena** eragiteko, ez adikzio-jokabidea erakargarri bihurtzeko.
- 3.5. Tratamendu informatiboak ez du **estereotiporik** sortu behar droga-mendekotasunaren edo bes-telako adikzioen inguruan. Hala, arazoa talde jakin batzuei lotuta azaltzen bada, informazioak prebentzio-eragina galtzen du: arriskua beti da besterena.
- 3.6. Guztiz baztertzea da gauza ezezagunek eragiten duten jakin-minarekin, problemen edo aldarte baxuen ihesbidearekin, edo ospe eta onarpen sozialarekin lotzea edo **justifikatzea droga-kontsu-moa**.
- 3.7. Kontu handiz jokatu behar da, eta ez zaie sinesgarritasunik edo **itxura zientifikorik** eman behar portaera jakin batzuk legitimatzea edo kontsumo zehatz batzuk sustatzea beste helbururik ez du-ten diskurtsoei, adibidez, «*ikerketa batek erakutsi du alkoholak sexu-harremanak hobe ditzakeela*» erakoei. Halako informazioak ematean, ikerketaren izena eta egilea zehaztu behar dira.

- 3.8. Drogen salerosketari edo kontsumoari buruzko albisteetan, guztiz baztertzeak dira **hutsalkeria** eta **arinkeria**, eta ez dira pasadizoak nabarmenduko.
- 3.9. Hizkuntza erabiltzean, baztertzeak dira **termino gutxiesgarriak**, zenbait kolektibo estigmatizatzen edo zokoratzen dituztenak.
- 3.10. Baztertzea da drogekin zerikusia duten esamolde **kolokialak** eta **argotikoak** erabiltzea entzuleei mezua hurbiltzeko aitzakian.
- 3.11. Ihes egin behar zaio droga-mendekotasunaren arazoa **herritarren segurtasunarekin** bakarrik uztartzen duen tratamendu informatiboari. Informazio-iturri bakartzat polizia eta segurtasun-indarrak erabiltzeak horretara eraman dezake.
- 3.12. **Artxiboko materialak** eta irudien errepikapena kontu handiz baliatuko dira, pertsona jakin baten gaineko pertzepzio okerrik ez eragiteko. Adibidez, hordituta grabatu zuten pertsona baten irudia ezin daiteke eman alkoholismoaz hitz egiten den bakoitzean.  
- 3.13. Kontsumoa ez da **delituekin** erlazionatu behar, hala nola lapurretekin, diru-zuriketarekin, e. a., lotura hori erakusten duen frogarik ez badago.
- 3.14. Kontuz saihestu behar da **substantzia-mota** bat **estereotipo** jakin batekin uztartzea: heroina/marginalitatea, kokaina/gizarte-arrakasta, kanabisa/aurrerakoitasuna, kale-zurruta/gaztetasuna...

Erreferentziak

- www.drogomedia.com

A12. Kirolarekin loturiko indarkeria

Kirolari lotutako indarkeriaren aurkako kanpainak ugaritu izanak agerian jartzen du kirol-le-gearen kontrako jokabideak orokortu eta legitimatu egin direla. EITB Taldeko komunikabideek gizarte-erantzukizun argia dute joko garbiaren eta kiroltasunaren sustapenean.

Testuingurua

- 1.1. Sarritan pasioa da kirol-ikuskitzen ezaugarria, eta irabaztearen edo galtzearen zirrarak erakartzen ditu ikus-entzuleak. Hain zuzen, horregatik, garrantzi handikoa da kazetaritzako profesionalak ez ematea ez biderik, ez aukerarik, aurkariak kirolek kanpoko gaien bidez txarretsi nahi dituzten hitzei.
- 1.2. Gaur egun jokalarien edo ikusleen jarraipena egiteko erabiltzen diren tekniken bitartez, erraz graba daitezke jokabide bortitzak, eta berehala izaten dute oihartzuna hedabideetan. Keinu lizun bat, probokazio bat edo irain bat behin eta berriz errepikatuz gero, den-dena indarkeria delako ideia zabaltzen da.

**“EITBk garbi
jokatzen du
kirol-informazioan”**

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Albistegi batean jasotako kirol-edukiek une oro bete beharko dituzte, gainerako blokeek bezala, **objektibotasun-**, neutraltasun-, inpartzialtasun- eta oreka-irizpideak. Etxeko talde edo kirolariek jokatzen dutenean, onargarria da profesionalak hurbiltasuna adieraztea eta garaipenak edo porrotak nabarmentzea. **Komunitate bat kohesionatzeko elementu gisa** kirolak betetzen duen zeregina modu erakitzailean ulertu behar da, betiere aurkariaren eta haren komunitatearen errespetutik abiatuta.
- 2.2. **Inpartzialtasunez** aritzeak esan nahi du profesionalak ezin dezakeela talde baten edo beste baten zale dela erakutsi, bereziki aurkariak EITBrekiko hurbiltasun- edo kidetasun-maila bera dutenean (adibidez, Real Sociedad vs. Athletic Club).
- 2.3. **Indarkeriazko jokabideen** aurrean, EITBko profesionalak argi eta garbi adierazi beharko dute halako portaerak desagokiak direla, kiroltasunaren aurkakoak. Horretarako, baliagarriak izan daitezke lekukotasunak edo ostean etorri diren zigorren gaineko datuak.
- 2.4. Sarean jasotzen diren **iruzkinen** moderatzaileek indarkeriaren gaitzespena izango dute arau. Kirol-le-gearen kontrako jokaera bultzatzen edo justifikatzen duten iruzkinak ezabatu egingo dira. @
- 2.5. Eskola-kirolean ari diren umeek eredutzat hartzen dute kirolari buruzko informazioa. Hori dela eta, Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordearen gomendioak hartuko dira aintzat, bereziki **eskola-kirolari** dagozkionak, *Kirolarien dekalogoan* eta *Eskola-kirolaren ikusle onen dekalogoan* jasorik daudenak.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Ez dira inola ere justifikatu behar **indarkeriazko jokabideak**, ezta haien garrantzia gutxietsi ere, esate baterako, defentsarako direla edo gutxi batzuen jokabideak direla esanez.
- 3.2. Norgehiagokaren aurretiko "giroari" buruzko kontakizunean honelako adierazpideak erabili ohi dira: «zelaia kanpoaldean istiluak aurreikusten dira...», «mila agente zabaldu dituzte...», e. a. Kontuan hartu beharra dago horrelako esamoldeek **borroka giroan** koka dezaketela kirol-lehiaketa, norgehiagoka bortitza azpimarra dezaketela, lehiaren ordeztasuna susta dezaketela, eta norberaren identitatea eraikitze aurrarenganako gorrotoaz balia daitezkeela.
- 3.3. Kirolean, **hitzeko indarkeria** maiz izan ohi da indarkeria fisikoaren atariko. Zentzu horretan, **hizke-ra militar** eta belizista –gerra baten berri emateko berezkoa dena, baina kirol-espirtuaren guztiz kontrakoa dena– audientzia erakartzeko amua baino zerbait gehiago da. Ikus-entzuleekiko konplizitatea bilatzeko baliabide-mota horiek sentsazionalismo bidea zabaltzen dute. Hala, kirolaren alderdi emozionala dela medio, azkenean indarkeriazko jarrerak implizituki justifikatzera irits daiteke.
- 3.4. Ikus-entzule **gehienaren interesekin** identifikatzeko ahaleginek ez dute inola ere talde aurkaria gutxietsi ekarri behar, ez eta inolako indarkeriarik bultzatzea ere, ahozkoa barne.
- 3.5. Liskarren berri emateko, ez da **umorea** erabili behar, edo irudi eta adierazpen bortitzak **tonu arinean** erakutsi.

Erreferentziak

- Kirolarien dekalogo: https://www6.euskadi.net/r46-kirolald/eu/contenidos/informacion/kirolalde/eu_kirolald/dekalogoak_kirolariak.html
- Eskola-kirolaren ikusle onen dekalogo: http://www.bizkaia.net/kultura/kirolak/informazioa/form_depescolar.asp?iddepescolarkirolak=3&Tem_Codigo=2952

A13. Animalien aurkako indarkeria

EITBk eginkizun hezitzailea betetzen du animalien tratuari dagokionez. Hori dela eta, animaliei tratatu txarra edo bortitza ematen dieten jokabideak gaitzetsi egiten ditu. Informazioa gidatzeko, aintzat hartuko dira interes publikoa eta animaliekiko harremanetan errespetua ardatz duen ereduaren sustapena.

Testuingurua

- 1.1. Animalien errespetuari eta babesari dagokionez, gero eta zabalduago dago kontzientziazio soziala. Hala ikusten da bai gizarte-mugimenduetan, bai animalien babesari, ehi-zari, arrantzari, zezenketei eta animaliekiko saiakuntzari dagozkien legeen orientazioan eta edukian ere.
- 1.2. Batzuetan, albiste izan daitezke animaliekin egiten diren legez kontrako jarduerak (oilar-jokoak, txakur-borrokak, e. a.), animaliak sufriarazten dituzten tradizioak, tratatu txarrak, eta abar.
- 1.3. Tratamendu informatiboan, kontuan hartu beharrekoa da horrelako irudiek ikus-entzuleen larritasuna eta shocka eragin ditzaketela, baina, aldi berean, morboa eta sentsazionalismoa pizteko arriskua ere badutela.

“Animalien tratatu txarren kontrako albisteak”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Ez da **animalien kontrako indarkeria edo tratatu txarrak** erakusten dituen irudirik emango, baldin eta albistea ulertzeko ezinbesteko informazioa eskaintzen ez bada, edo —heziketa helburu— krudelkeria agerian jartzen edo salatzen ez bada.  
- 2.2. Irudi horiek ematea beharrezkoa denean, **inpaktu bisuala** gutxitzeko baliabideak erabiliko dira (plano orokorrak, fokatzeko lausoa, irudi gordinenak kentzea, e. a.), betiere erasoari garrantzirik kendu gabe. Irudi bortitzak erakusteko erabakia hartzen bada, ikus-entzuleei aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaie.  
- 2.3. EITBk animalienaganako tratatu txarren kontrako **kanpainen** jarraipena egingo du, antolatzaileak erakunde publikoak direnean nahiz bestelako talde edo elkarteak direnean.
- 2.4. Informazioan, animalien kontrako **tratatu txarren** edo indarkeriaren **kausak** aztertze ahaleginak egingo dira. Era berean, egoera hobetzeko edo tratatu txar horien kontra egiteko **proposamenak** jasoko dira.
- 2.5. Animalien trataerarekin lotutako polemika edo eztabaidei dagokienez, EITBk **testuinguruko informazioa** eskainiko du, eta ahotsa emango die jarrera desberdinei. Adibidez, sanferminetan entzierroa tratatu txar gisa salatzen duten ekimenen berri ere emango da.
- 2.6. Albistean **animalien abandonua** eta bestelako tratatu txarrak kontatzen direnean, testuak alternatibak aipatu beharko lituzke (harrera-kanpainak, adibidez).

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Ehizaren, arrantzaren, ukuiluko hazkuntzaren edo abere-hilketaren gaineko informazioetan, baztertzeak dira **irudirik odoltsuenak**, baina horregatik animalien sufrimendua erakusteari uko egin gabe.
- 3.2. Animaliak erabiltzen dituzten **ikuskitunak** (zezenketak, zirkua, entzierroak, Erdi Aroko azokak e. a.) aipagai dituzten albisteetan, ahal den neurrian, ez dira gozamenez erakutsiko indarkeriazko irudiak.
- 3.3. **Haurrentzako** babes bereziko tartetan, ez da animalien kontrako indarkeria ageri duen informaziorik eskainiko.
- 3.4. Ikus-entzuleetako batzuen atsegina, josteta edo dibertsioa ez dira aitzakia izango animaliei tratu lotsagarria emateko denbora-pasako saioetan. Hala, saio horietan animalien arreta egokia eta **tratu duina** bermatuko dira.
- 3.5. Ez da **alarma sozialik** eragin behar, animaliak edukitzeari dagokionez. Txakurren erasoak, arriskutsuak izan daitezkeen arrazak, animalien bidezko gaixotasun-transmisioak eta antzeko gaiak lantzen direnean, tratamendu informatibo zorrotz eta sentibera behar da, animalien eta jabeen kontrako ezinikusirik ez sorrarazteko.
- 3.6. Gaurkotasuneko gainerako gaietan bezala, ez da zabalduko ez **zurrumurrurik**, ez egiaztatu gabeko informaziorik, ez datu gabeko **hiri-kondairarik**.

Erreferentziak

- 6/1993 Legea, urriaren 29koa, Animalien babesari buruzkoa; 7. art.: «Komunikazio-euskarri batean animaliei zuzendutako ankerkeriaren, tratu txarren edo oinazearen irudiak filmatzeko, fotografiatzeko edo grabatzeko, aldez aurretik administrazio autonomikoaren organo eskudunari jakinarazi beharko zaio, animaliei itxuraz eragin zaien kaltea simulatua izan dela egiaztatu dezan».

A14. Delituak, informazio poliziala eta judiziala

EITBk badaki delituen eta auzien gaineko informazioak eragina duela iritzi publikoan. Errugabetasun-presuntzioak neutraltasuna eskatzen du, eta tratamendu informatiboak ez dezala kondena soziala edo mediatikoa ekar.

Testuingurua

- 1.1. Ikuspegi egokitik informatu nahi bada, errugabetasun-presuntzioa errespetatu behar da, bai eta biktimen duintasuna eta intimitatea ere, epaiketa paraleloak saihestu behar dira, eta beldurra, mesfidantza eta gizarte-alarma ez dira sustatu behar. Informazio-eskubideak ezin dezake justifikatu tratamendu sentsazionalista, audientzia handitzeko helburuz morboa elikatzen duena.
- 1.2. Delinkuentziari buruzko berriak gertaeren kronikarekin lotzen dira sarritan, baina, egiatan, informazio-bloke guztietan azaltzen dira. Berri horiek, delitu edo epaiketa bati buruz informatzeko ez ezik, gizartean portaera jakin batzuei buruzko debata pizteko ere balio dute. Imitazio-jokabiderik ez sustatzeko, informatzaileak erabateko arduraz aritu behar du.

"Morboa baztertu eta gizarte-alarma kontrolatu"

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Delitu eta prozesu judizial baten jarraipena egiten den erabakitzeke, aintzat hartu beharko dira **interes informatiboa**, albistearen **garrantzia**, eta gaiak **debate publikoa** sustatzeko izan dezakeen indarra.
- 2.2. **Errugabetasun-presuntzioak**²¹ gidatuko du albiste polizial edo judizial orori buruzko tratamendu informatiboa.
- 2.3. **Zehaztasun terminologikoa** bereziki garrantzitsua da era honetako informazioetan. Terminoak ondo bereizi behar dira: inputatua/susmagarria/prozesatua/akusatua/auzipetua; kondena/erabakia/epaia/berediktua; homizidioa/hilketa, e. a.
- 2.4. Informazioa egiaztatzeke, **iturri ofizialak** (polizia, epaitegiak eta ospitaleak) eta **lehen mailako beste iturri ez-ofizial batzuk** (inplikatuak, lekukoak eta abar) erabili behar dira. Salaketen gainean informatzen denean, ezinbestekoa da iturriak aipatzea.
- 2.5. Auzipeturik, poliziak erreklamaturik edo espetxeraturik dauden pertsonen **elkarriketak** edo **grabazioak** egin ahal izateko, aldeztu behar dira editorearen baimena beharko da.

²¹ Errugabetasun-presuntzioa delitu batez akusatutako pertsona guztiek duten eskubide bat da, pertsonok aurrez errugabetzat edukitzean datzana. Presuntzioaz ari garenean, eginbide judizialik hasi den jakin behar da. Hasita egon ezean, *ustezko egilea* esan beharrean, *egilea izan litekeena* esango dugu.

Kasua epaitu eta epai bat egon arte, honelako terminoak erabiliko dira: *akusatua*, *ikertua*, *auzipetua*, *prozesatua*, [hain kasurekin loturik / hain kasurengatik] *atxilotua*, [gertakariaren] *ustezko egilea*, [gertakariaren] *ustezko erruduna*.

Gauza jakina bada pertsonak epailearen aurrean onartu duela gertakarietan parte hartu duela, orduan, *egile aitortua* esan daiteke.

Eskubide honek ematen duen babesak eragotzi egiten du atxilotuak identifikatzea, haien irudia zabaltzea, eta haien bizitza pribatuari buruzko datuak jakinaraztea.

- 2.6. Kazetaritzako ikerketa batean **legez kontrako jardueraren bat grabatzea** edo horren lekuko izatea beharrezkotzat jotzen bada, aldeztu aurretik Zuzendaritzaren baimena beharko da.
- 2.7. **Delituzko jokabideak azaltzen dituzten irudiak** zabaltzeko, interes informatiboa hartuko da kontuan beti. Aintzat hartuko da imitazio-jokamoldeak sortzeko arriskua.
- 2.8. Gertakari eta prozesu judizial garrantzitsuak **gogora ekartzean**, kontuan hartuko da inplikatuak min eman dakiekeela.
- 2.9. Kontu handiz jokatu beharko da alderen baten **filtrazio** interesatuen bozgorailu gisa ez jarduteko.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Ez da atxiloketa edo prozesu judizial batean inplikaturako pertsonen **identifikazioa** eman behar, datu hori zabaltzea justifika dezakeen entzute edo proiektio publikoa dutenean izan ezik. Egokitzen jotzen bada, informazioa testuinguruan kokatzen lagunduko duten inizialak edo datuak eman daitezke, baina horrek ez du kolektibo jakin bat estigmatizatzeko balio behar.
- 3.2. Prozesu judizial bati buruzko informazioak ez du oinarririk eman behar **epaiketa paraleloak** egiteko.
- 3.3. Tratamendu informatiboak **sentsazionalismoa** eta **morboa** baztertuko ditu. Albistean ez dute lekuri xehetasun gordinek, balio-epaiek, datu hutsalek edo ikus-entzuleen arreta desbidera dezakeen beste ezerk.
- 3.4. Ez da eskainiko **delituak egitea errazten edo horretara bultzatzen duen informaziorik** (esate baterako, *modus operandiaren* deskripzio zehatza, delitua erakargarri edo bideragarri bihurtzeko).
- 3.5. Delituak edo egintza zigorgarriak aurkezten direnean, ez da erabiliko biztanleria-sektorearen baten-tzat **erakargarri** bihurtzeko estilorik.
- 3.6. Lekukotasunak edo bestelako informazioak lortzearen, ez zaie **ordain ekonomikorik** eskainiko delituak egin dituztenei edo haien senitarteko edo adiskideei.
- 3.7. Prozesu judizialean inplikaturako **adingabeak** ez dira identifikatu edo elkarriketatu behar, biktima izan, akusatatu izan, nahiz lekuko izan.
- 3.8. Delituzko jardura batean inplikaturakoen **senitarteko eta adiskideei buruz** ez da informaziorik eman-go, baldin eta gertaerak ulertzeko guztiz beharrezkoa ez bada.
- 3.9. Kazetariaren lanak **ez ditu polizia-ikerketak oztokatuko**, ez eta prozesu judizialak ere.
- 3.10. Oso kontuz jokatu behar da **oroimena nahastu edo baldintzatu dezakeen informaziorik** ez zabaltzeko. Lekukoen eta inplikaturaren adierazpenen berri ematen denean, «oroitzapen faltsuak» edo «oroitzapen berpiztuak» sor daitezke. Horrelakoetan, lekukoek errealtatean bizi izandakoa eta komunikabideetan ikusitakoa nahasteko arriskua dute. Halaber, kontu handiz jokatu beharko da lekukoen adierazpenek kargurik egotz ez dezaten.
- 3.11. Egoitza judizialean, akusatuen eta lekukoen grabazioaren muga errugabetasun-presuntzioa izango da. Auzipetuak grabatzeko orduan, kontuan hartuko da **akusatuen aulkiko zigorra** deritzonaren kaltea, bai bailiteke gerora errugabetzat jotzea.

A15. Bide-segurtasuna

EITBk eginkizun hezitzailea betetzen du bide-segurtasunari dagokionez. Istripu asko ekidin litezke, zirkulazio-kodea zorrotz beteko balitz. Bide-segurtasunari buruzko heziketak istripu-kopurua murrizten du, eta hori oso gogoan eduki behar dute EITBko profesionalek informazioa zabaltzen dutenean.

Testuingurua

- 1.1. Bide-segurtasunaren gaia ez da istripuei edo errepi-deen egoerari buruzko informazioan bakarrik landu behar. Beharrezkoa da albisteak euren testuinguruan kokatzea, prebentzio-kanpainez informatzea, biktimen elkarteekin harremanetan jartzea, zirkulazio-kodean izandako aldaketen berri ematea, eta eremu askotan (bereziki hezkuntzan) gauzatzen diren ekimenen nondik norakoak jakinaraztea.

“EITBk
bide-segurtasunaren
alde informatzen du”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Bide-indarkeriaren ondorioak erakustea kontzientziatzeko modu bat da, baina ez da iritsi behar alderdirik odoltsuenetan atsegin hartzeraino edo morboa eta sentsazionalismoa erabiltzeraino. Sarritan eraginkorragoa izan daiteke **epe ertain eta luzeko ondorioak** erakustea (adibidez, istripuek eragindako desgaitasunak).
- 2.2. Arduragabekeriak eragindako istripuak **indarkeria** modura tratatuko dira, eta/edo delitu gisa tipifikatuta dauden jokabide modura.
- 2.3. Zenbaitetan, komunikabideek **irudi ikusgarriak** izaten dituzte eskura, zirkulazio-arauak errespetatzen ez dituzten gidariak eragindako trafiko-istripuak erakusten dituztenak. Kasu horietan bereziki, komunikabidearen eginkizun hezitzailea gogorarazi behar da, eta halako jokabideak (autobideetan kontrako noranzkoan gidatzea, semaforo gorriak pasatzea, baimendutako abiadura gainditzea, biraketak toki debekatuetan egitea, e. a.) bide-indarkeriatzat jo behar dira, irudien alderdi ikusgarrian atsegin hartu ordez.  
- 2.4. Istripu-arrisku handia dagoen egun batean, albistegiko azken agurra egitean, aurkezleak zuhur eta adi gidatu behar dela edo **segurtasun-neurriak** bete behar direla gogoraraz dezake.
- 2.5. Era berean, eguraldiak edo kirol-ekintza handi batek arriskua areagotzen dutenean, informazio hori aurkeztu behar duen esatariak **arretaz gidatzeko mezuak** azpimarratuko ditu.
- 2.6. Gidatzeko orduan izan beharreko **arretaren inguruko mezuak** zabaltzeko, pertsona ospetsuak erabil daitezke –esaterako, lasterketa-pilotuak–. Baliabide eraginkorra izan daiteke bide-segurtasuna sustatzeari begira.

- 2.7. eitb.eus webgunean eta irratietan **informazio gaurkotua** eskainiko da, gidarientzat **zerbitzu** erabilgarria izan dadin. Hala, obren, matxuren, luizien edo auto-ilaren berri emango da. @ 
- 2.8. Gainera, eitb.eus-en **trafiko-informazioak** errepideen egoeraren *webcameko* irudiak zabalduko ditu **denbora errealean**, eta istripuen ondorioak erakusten dituzten bideoak erantsiko ditu. Halaber, radarren kokapenari buruzko informazioa jasoko da, bai eta trafiko-argibideak emateko telefonoei eta bide-segurtasunarekin zerikusia duten bestelako zerbitzuei buruzkoa ere. @ 
- 2.9. Motor-kirolei buruzko informazioa oraingo eta etorkizuneko **gidarientzako eredia** da. Horrenbestez, agerian jarri behar da erabateko aldea dagoela araututako lehiaketa horien eta eguneroko gidatze arruntaren artean.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Trafiko-istripuei eta haien ondorioei buruzko albisteetan ez da tonu **hunkibera** eta **moralizatzailea** erabili behar.
- 3.2. Gainerako programazioan bezala, informazioak ez du **abiaduraren eta gidatze arduragabearen apolo-giarik** egingo. Jokabide horiek ez dira lotu behar gazteak bereziki erakartzen dituzten bizimolde eta balioekin (ausardia, arriskua, abentura, emozioa eta abar).
- 3.3. Biktimak eragin dituzten istripuen gaineko albisteetan, biktimak **identifika** ditzaketen elementuak saihestu egin behar dira (plano itxiak, autoen matrikulak, gauza pertsonalak, eta abar). Biktimen senitartekoek edo lagunek ez dute hedabideen bitartez jaso behar ezbeharraren berri.
- 3.4. **Motor-kirolen** tratamendu informatiboak ez du gidarien arduragabekeria edo ausarkeria goratu behar, edo bide-indarkeria toleratzea bultzatu behar.
- 3.5. Lanbideko zereginak betetzean, EITBko kazetariak bide-segurtasuneko arau guztiak beteko dituzte. Euren **informatzaile-lanaz** hitz egiten dutenean, ez dute aditzera emango nahita sortzen dituztenik bide-arriskua dakarten egoerak (adibidez, ausarkeriaz gidatzea erreportaje bat lortzearren, mugikoretik hitz egitea, edo segurtasun-uhalik ez erabiltzea).
- 3.6. Ez da txikiagotuko **pertsona ospetsuek** eragindako istripuengatik izan dezaketen erantzukizuna.
- 3.7. Bide-segurtasunari eta trafiko-istripuei buruzko albisteetan, ez da istripuaren kausez eta erantzukizunez **espekulatuko**. Gainera, ez da kolektibo oso bat (motorzaleak edo auto-gidariak) errudun modura aurkeztu behar, beste erabiltzaile (txirrindulari edo patinatzaile) babesgabeago batzuen aldean. Ez da istripuaren erantzuletzat joko kalterik gutxien jasan duena; gauza bat da biktima izatea, eta beste bat, errurik edo erantzukizunik ez edukitzea.

- 3.8. Ez dute lekurik **balio-epaiek** eta biktimen kopuruaren inguruko adjektiboek; ez litzateke erabili behar «zoritxarrez», «tamalez», «zorionez» eta horrelako terminorik.
- 3.9. Ez dira **arinkeriaz** edo txantxaz aurkeztuko bide-segurtasunaren kontrako arau-haustea eta portaera.
- 3.10. Interes informatiboak justifikatu ezean, ez da zabalduko istripuaren ondorioak gordinki erakutsi eta ikus-entzuleen **sentsibilitatea** **mindu** dezakeen irudi edo soinurik. Kontuan hartuko da ikus-entzuleen artean kolektibo ahulak izan daitezkeela, hala nola adingabeak, biktimak edo horien senide eta lagunak.

A16. Laneko istripuak, gaixotasunak eta prebentzioa

EITBk ematen duen informazioak zeregin garrantzitsua bete dezake kontzientziazioan, bai langileei dagokienez, bai eragile ekonomiko eta sozialei dagokienez, bai prebentzio-arduradunei dagokienez, laneko istripuen eta gaixotasunen tasak gutxitze aldera.

Testuingurua

- 1.1. Komunikabideetara lan-istripuei buruz heltzen den informazioak, sarritan, ondorio latzen berri ematen du, edo biktima-kopuru handia aipatzen du, edo bestelako arrazoiengatik bihurtzen da albistegai. Oso gutxi dira laneko arriskuak prebenitzeko neurriei buruzko informazioak, eta istripu txikiak eta gaixotasun isilak behin ere ez dira aipatzen albisteetan. Horren guztiaren ondorioz, ez da aditzera ematen arazo hau guztioi dagokigula, eta aurre egin ahal eta behar zaiola.
- 1.2. Gai hau lantzean, informazioa egiaztatzea, iturri ugaritara jotzea, eta biktimen pribatutasuna eta irudia errespetatzea dira gakoak.

“Laneko
prebentziorako
hezi”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Tratamendu informatibo erazko eta sakon bati begira, gomendagarria da kazetariak **espezializatzea**, prestakuntzaren bidez, birziklapen profesionalaren bidez, edo/eta gai honi loturiko informazioaren jarraipena egitea egokituz.
- 2.2. Arreta berezia jarri behar da ezbehar edo istripu bat zoriarekin ez lotzeko, egiatan lan-istripua izan baldin bada. Albistea **testuinguruan** jartzeko, istripuaren kausak, aurrekariak eta prebentzio-neurriak aztertu beharko dira.
- 2.3. Ezinbestekoa da **hainbat iturri** erabiltzea. Lehen unean polizia edo larrialdi-zerbitzuak izan daitezke informazio-iturri, baina beharrezkoa da istripua prebentzioarekin lotzea, beste iturri eskudun batzuk erabiliz: Osalan, sindikatuak, enpresaburuak, zerbitzu medikoak, adituak, e. a.
- 2.4. Ikuspegi eraikitzailea sustatu behar da. Jardunbide egokiak, gomendioak, araudiak eta arauak betetzearen ondorio positiboak jakinarazten badira, **prebentzioaren kultura** zabaltzen lagunduko da.
- 2.5. Lehentasunezko jarraipena egin behar zaie **lan-osasunarekin** eta arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten **ekimenei**: azokak, jardunaldiak, prestakuntza-tailerrak, aldarrikapen-ekintzak, eta abar.

- 2.6. Informazioak garbi utzi behar ditu laneko istripu eta gaixotasunen **ondorio pertsonalak**, betiere sentsazionalismoaz eta morboaz baliatu gabe.
- 2.7. Aberasgarri izan daiteke albistea produkzio-sektoreari, enpresari edo ingurune geografikoari buruzko **txosten** baten bidez osatzea. Horretarako, komenigarri da **iturri espezializatuetara** jo-tzea, hala nola Osalan laneko segurtasun eta osasunerako erakundea, sindikatuak, lan-agintari-tza, edo lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutuak.
- 2.8. Iturri desberdinetatik datozen **datuak egiaztatzeko** orduan, arretaz jokatu da. Izan ere, sarri-tan, sektoreko sindikatuak eta enpresariak egindako estatistikak ez datoz bat. Iturriei buruzko argibideak emateaz batera, datuak bat ez etortzeko arrazoiak azalduko dira.
- 2.9. Lan-prebentzioaren arloan ezartzen diren **zehapenen** berri eman behar da, nahiz eta zigorra ekarri duen gertakaria aspaldikoa izan. Gomendagarri da, etorkizuneko informazioei begira, tes-tuinguru gisa balio dezaketen datuak biltzen joatea.
- 2.10. Tratamendu informatiboak bi esparru bereizi behar ditu: a) istripuaren edo gaixotasunaren **zer-gatikoak**, eta hartu beharreko zuzenketa- eta prebentzio-**neurriak**, eta b) **erantzukizun** adminis-tratiboa, zibila edo penala.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Istripuren bat izan duen enpresaren edo lan-ingurunearen irudi onaren babesak ez du esan nahi **informazioa ezkutatzea**, egiaztatutako informazioa baldin bada.
- 3.2. Laneko istripuak edo gaixotasunak ezin dira hartu **esparru pribatuko gertaeratzat**.
- 3.3. Sektore bateko lan-istripuen edo gaixotasun profesionalen berri ematen denean, albistearen ikuspegia ez da **inplikazio ekonomikoetara** bakarrik lerratuko.
- 3.4. Lehen unean ezinbesteko iturriak dira polizia eta larrialdi-zerbitzuak, baina horrek ez du esan nahi **gertaeren kronikan** aurkeztu behar denik berez lan-istripua izan dena.
- 3.5. Gaixotasun profesionalei buruzko informazioetan ez da inongo kolektibo profesionalik **estigma-tizatu** behar.
- 3.6. **Iturrien erabilera** dela eta, ez da sindikatueta eta administrazioa bakarrik joko, enpresa-elkar-te eta -ordezkariei jaramonik egin gabe, azken horiek baitute euren beharginen osasuna eta segurtasuna bermatzeko legezko ardura lan-jardueraren esparruan.

- 3.7. Lan-segurtasuneko arau-hausteei buruzko informazioa biltzeko **lantoki** batera joan eta **grabazioak** egiten direnean, beti errespetatuko da pertsonen irudi-eskubidea.  
- 3.8. Informazio egiaztatua bildu bitartean, ez da lan-istripu baten kausei buruz **espekulatuko**. **Erantzukizunei** buruz mintzatzeko orduan, errugabetasun-presuntzioa izango da abiapuntua, ondorio penalak etor balitezke ere.

A17. Ingurugiroa eta jasangarritasuna

Gizarte-erantzukizunaren arloan, EITBk lehentasunezko ildotzat jo ditu ingurugiroaren errespetua eta jasangarritasuna. EITBren informazioa baliabide egokia da ingurugiroarekin loturiko gaien dibulgazioa egiteko, eta euskal gizartean kontzientziazioa eta jardunbide onak hedatzea du helburutzat.

Testuingurua

1.1. Ingurugiroari buruzko informazioak herritar arduratsuak prestatzen lagundu behar du. Horrek esan nahi du oraingo premiak asetzen eta etorkizuneko ahalmen eta baliabideak arriskuan jartzen ez dituen garapen-eredu bat aurkeztu behar zaiela, egiazko informazioa emanaz, eta ingurugiro-gaie-tan iritzi propioa eratzen laguntzeko elementuak eta oinarriak eskainiz.

“Ingurugiro
informaziorako
eskubidea”

1.2. Informazio horrek hainbat alderdi ditu.

- Ingurugiroaren egoerari buruzko ezagutza zientifikoak eta proposamen teknikoak aipatzen ditu.
- Ingurugiroari kalte egiten dioten egoerak ikertzen eta salatzen ditu.
- Ikuspegi etikotik, balio- eta erantzukizun-kultura bat sustatzen du, eta jarduteko ildoak iradokitzen ditu.
- Gaiaren jarraipena egiten du, eta proposamen sozial eta politikoak eskaintzen ditu.

1.3. Eskura dagoen informazioa hainbeste izanda, kazetariak gai bakoitzaren garrantzia seinalatzeko betebeharra dute, iturri fidagarriak bilatu behar dituzte, zorrotasunez eta audientzia zabal eta heterogeneo batek ulertzeko moduan informatu behar dute, presioen aurrean independentziari eutsi behar diote, eta jasangarritasunarekin konprometitutako jarrerak proposatu behar dituzte.

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Tratamendu informatiboa diziplinartekoa eta orokorra izango da, eta ikuspegi guztiak uztartuko ditu: **ikuspegi soziokulturala** (giza eskubideak, gobernamendu globala, aniztasuna eta kulturarte-kotasuna...), **ingurugiro-ikuspegia** (natur baliabideak, ura, energia, nekazaritza, biodibertsitatea, klima-aldaketa...) eta **ikuspegi ekonomikoa** (enpresa-erantzukizuna, pobrezia, bazterkeria...). Agerian jarri behar da zeharkako gaia dela, jakintza-arlo askotatik heltzeko modukoa, eta eragin globala duela.
- 2.2. **Ingurugiroaren egoerari buruzko txostenek** lehentasunezko jarraipena izango dute, iturri fidagarrietatik etorritako gero (erakundeak, unibertsitateak, enpresak, elkarteak eta abar).

- 2.3. **Giza osasunaren edo ingurugiroaren kontrako mehatxurik** azalduz gero, EITBk larrialdi-zerbitzu eta erakundeekin elkarlanean jardungo du eskuragarri dagoen informazio guztia berehala eta atzerapenik gabe zabaltzen, era horretara herritarrek ondorio eta kalte posibleak prebenitzeko eta murrizteko neurriak hartu ahal izan ditzaten.
- 2.4. Erakundeek eta ingurugiroaren aldeko elkarte eta taldeek antolatzen dituzten **kanpainak** EITBren gai-agendan sartuko dira. Ikusmolde positiboa hartuta, baliabideen erabilera eraginkor eta arduratsuekin loturiko ekimenak eta **jarduera egokiak** nabarmendu behar dira informazioetan.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Egiazkotasunak eta ingurugiroaren errespetuak tratamendu orekatua eskatzen dute. Alde bate-tik, baztertzekoa da ingurugiro-arriskuen **ikuspegi alarmista eta apokaliptikoa**, iturri fidagarrie-tan baieztatu eta egiaztatu ezina dena. Beste aldetik, **ez dira gutxietsiko** ingurugiroaren narria-durari eta horren ondorioei lotutako **datu negatiboak eta arriskuak**.
- 3.2. EITBren informazioetan ez dira erakargarri agertuko **garapen jasangarriko ereduaren** kontrako jarrerak (kontsumismoa, baliabideen erabilera arduragabea, e. a.), eta ez dira tradizioak ba-liatuko jarrera horien (neurritz gaineko arrantzaren eta abarren) inpaktua justifikatzeko edo gutxiesteko.
- 3.3. EITBko profesionalek ez diete amore emango **presioei eta interferitzeko ahaleginei**, datozen al-detik datozela (tokiko, nazioko edo nazioarteko gobernuak, erakundeak, talde ekonomikoak, korporazio handiak, elkarteak eta beste). Kontu handiz jokatu da, horrelako iturrietatik dato-zen kanpaina komertzialei eta marketin- eta irudi-estrategiei men ez egiteko.

Erreferentziak

- 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, Ingurugiro-arloan informazioa eskuratzeko, parte-hartze pu-blikorako eta justizia izateko eskubideak arautzen dituen (2003/4/CE eta 2003/35/CE zuzenta-rauak jasotzen ditu).
- EITBren atxikimendua du "Komunikabideen adierazpena klima-aldaketaren aurrean" dokumen-tuak, Ecología y Desarrollo (ECODES) fundazioak eta Universidad Complutenseko Mediación Dia-léctica de la Comunicación Social (MDCS) ikerketa-taldeak landua "Change the Change" Klima Aldaketari buruzko Nazioarteko Konferentzian (Donostia, 2019).

A18. EITBri buruzko informazioak

EITBri buruzko informazioek eta adierazpenek merezi duten tratamendu informatiboa baloratzeko eta erabakitzeko orduan, Zuzendaritzak eta Taldeko profesionalek aintzat hartu behar dituzte haien balio informatiboa, pizten duten interes orokorra, gertaeren testuingurua eta, era berean, zer eragin duten EITBren zerbitzu publikoaren sinesgarritasunean eta ospean.

Testuingurua

- 1.1. Informaziorako eskubidea, kudeaketaren gardentasuna, erantzukizun korporatiboa eta erakundearen ospea dira EITBri berari dagokion politika informatiboa gidatu behar duten kontzeptuak. Zerbitzu publikoa bete behar duten aldetik, informazioek euskal gizartearen pluraltasun eta aniztasun bera islatuko dute.

“Informaziorako eskubidea eta erakundearen ospea”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Kudeaketa-organoek (Administrazio Kontseiluak, Zuzendaritza Kontseiluak, Kontseilu Editoriak eta bestek) edo organo kolegiatuak (Erredakzio Kontseiluak eta bestek) hartzen dituzten erabakiak albiste izan daitezke, baina bakar-bakarrik **interes publikokoak** direnean.
- 2.2. Aurrekontuen eta kontu-balantzeen aurkezpena, legebiltzarreko agerraldiak, kargudun garrantzitsuen (zuzendari nagusiaren eta besteren) izendapena albiste izan daitezke EITBn, betiere **kudeaketan gardentasuna** bete behar duen **erakunde publiko** bati dagozkion informazioak diren aldetik.
- 2.3. Era berean, albiste izango dira euskal irrati-telebista publikoaren **ereduari buruzko debate konstruktiboa** susta dezaketen ekimenak legebiltzar-taldean edo beste erakunde batzuen aldetik datozenean.
- 2.4. EITBk albiste modura emango ditu berak emitituriko edukiei edo bera ukitzen duten edozelako gatazkei buruzko **ebazpen judizialak**, betiere gertaeraren garrantziak hala eskatzen badu.
- 2.5. **Zerbitzu publikoaren sinesgarritasunari edo ospeari** kalte nabarmena egin dakiokenean, EITBk neutraltasunez, egiatasunez eta independentziatzat informatuko du **modu erratuan edo faltsuan** bere programazioari, edukiei edo profesionalei egozten zaizkien datuez edo gertaerez, horrela errealitatea zein den ezagutaraziz.
- 2.6. EITBk albiste modura emango ditu bere **profesionalek** informatzeko eginkizunean edo eginkizun horren ondorioz jasaten dituzten **erasoak**, bai eta bere instalazio eta bitarteko materialetan eragiten diren kalteak ere.

- 2.7. **Programazioaren promozioa** eduki informatiboen parte izango da.
- 2.8. EITBk albiste modura emango ditu berak hartu eta **herritarren interesekoak** izan daitezkeen **akordioak eta erabakiak**, hala nola programazioaren etenak, grebak, lan-eskaintza publikoak, e. a.
- 2.9. EITBren albistegietan, lekua egingo zaie **gizarte-erantzukizun korporatiboarekin** loturiko ekintzei, diren dimentsiokoak direla: herritarrak, euskara, Euskadi munduan, pertsonak, ingurugiroa eta enpresa-kudeaketa.
- 2.10. EITBko edo berari lotutako produkzio-etxe eta enpresetako **profesionalen heriotza** albiste izan daitezke, baina bakarrik proiektio publikoa duten pertsonak direnean, edo heriotza **albiste izan daitezkeen zirkunstantzietan** gertatzen denean (istripu erraldoi batean, hondamendi batean, e. a.). Edozelan ere, heriotzak barne-komunikaziorako kanalen bitartez jakinaraz daitezke.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. EITBk ez du argitara emango ez bere sozietateei ez bere jarduerari buruzko informaziorik, baldin eduki horiek **alderdi** baten edo **presio-talde** baten interesen zerbitzura jartzeko badira.
- 3.2. EITBri buruzko berriak ez dira ez **helburu pertsonalekin** erabiliko, ez alderdietako batek barne-gatazkak **instrumentalizatzeko** elementu gisa ere.
- 3.3. EITBko profesionalak ez dira albiste izango enpresa barruan duten **zereginetik haragoko arloetan** (literaturan, musikan, antzerkian, dibulgazioan e. a.) egiten dituzten **jarduerengatik**, baldin eta gertaeraren garrantziak edo nabarmentasunak justifikatzen ez badu.
- 3.4. **Gizarte-erantzukizun korporatiboarekin** loturiko ekintzei buruzko berriek ez dute aktualitate informatiboari eskaini beharreko tartea murriztuko.
- 3.5. Albiste Zerbitzuak ez dira **modu propagandistikoan** erabiliko EITBren lorpenak (sariak, aitortpenak e. a.) nabarmentzeko. Emaizta onak albiste izan daitezke, betiere objektibotasunetik eta kazetaritza-zorroztasunetik.
- 3.6. **Ez da izango berez albiste** EITBko edo berari lotutako produkzio-etxe edo enpresetako **profesionalen heriotza**.

6. Jardunbide profesionalerako jarraibideak

B1. EITB marka eta EITBren markak

Euskal Irrati Telebistan sortzen den dokumentazioan, prentsa-oharretan, programetan eta abarretan sarri aipatu behar izaten dira EITB eta EITBren kanal eta programak. Bakoitzak bere izena dauka, bere marka. Marka direnez gero, izenok erabiltzeko orduan irizpide-mota bi hartu behar dira aintzat: hizkuntza-irizpideak eta irizpide tipografikoak.

Testuingurua

- 1.1. EITBren izenak eta markak era askotako testu, euskarri eta inguruneetan ager daitezke, oso formaletatik oso mediatikoetara: agiri administratiboak, ikus-entzunezko aurkezpenak, prentsa-oharrak, programazio-laburpenak, pantailako euliak, publizitatea, eta abar.
- 1.2. Estilo-liburu honek izen eta marka horien idatzizko erabileraz eta ahozko aipamenaz baino ez dihardu. Marka-logoen sorkuntzak eta erabilerak beste helburu eta betekizun batzuk dituzte, ez diete arau ortotipografiko berei jarraitzen, eta diseinu-, marketin- eta komunikazio-irizpideetan oinarritzen dira. Esaterako, EITBren logotipoak letra xeheko tipografia du.

“EITB marka da. Gure telebista, irrati eta Internet kanalen izenak ere markak dira”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio-talde publikoaren **izena** Euskal Irrati Telebista da. Erabileran arruntean, **‘EITB’ marka lehenetsiko da**. Kontuan izan letra guztiak maiuskulaz idazten ditugula²².
- 2.2. EITB herri-erakundea **‘EITB Media S.A.U.’** sozietate anonimo unipertsonalaren titularra da, eta berorren bidez kudeatzen dira EITBren hedabideak. **EITB Media** izena testu administratiboetan azalduko da gehien bat.
- 2.3. Testu administratiboetan, ohikoa da **EITB Taldearen** sozietate-egitura zehaztu eta ‘EITB herri-erakundea’-k eta ‘EITB Media S.A.U.’-k osatzen dutela argitzea. Testu ez hain formaletan, interesgarriagoa da **komunikazio-talde multimedia** bat dela adieraztea: ‘EITB komunikazio-taldea’, EITB Taldea’ soilik, edo are ‘EITB eta beraren filiala’ ere.
- 2.4. EITB Taldeak **hiru hedabidetan** jarduten du: telebistan (LTDko lau kanal eta nazioarteko bat), irratian (lau kanal arrunt eta onlineko bat) eta Interneten (www.eitb.eus, app-ak eta sare sozialetako kontuak).
- 2.5. EITBk zenbait telebista-kanal ekoizten ditu: **ETB1, ETB2, ETB3, ETB4** eta **EITB Basque**²³ nazioarteko seinalea. Deitura horiek markak direnez gero, izen berezien paradigmari jarraituz deklinatu behar dira: ‘ETB1ek’, ‘ETB1i’, ‘ETB2ren’, ‘ETB2n’... LTDko kanalak batera aipatzeko, ETB deitura erabil daiteke («*ETBren audientziak*»).

²² 2000. urtetik, EITB grafia erabiltzen zen, ‘i’ txikiz, nabarmen egitearren komunikazio-taldea, telebistaz gainera, irrati- eta Interneteko eskaintza ere osatuta zegoela. 2020ko sozietate-integrazioaren ondorenez, EITB talde multimedia bat da, EITB Mediaren bitartez telebistako, irrati- eta Interneteko kanalak eta edukiak ekoizten dituena.

²³ 2020. urtean, nazioarteko kanalak ‘EITB Basque’ marka hartu du. Amerikarako banatze plataformetako menuan (EPG) onargarria da Canal Vasco gisa identifikatzea.

- 2.6. EITBk hainbat irrati-kanal ditu: **Euskadi Irratia**, **Radio Euskadi**, **Radio Vitoria**, **Gaztea**, **EITB Musika** eta, online, **Euskal Kantak**. Denak batera aipatu nahi izanez gero, '**EITB Irratia**' esan daiteke.
- 2.7. Telebistako eta irrati **programen izenak** ere marka dira, eta markak dira, era berean, haurrentzako online eskaintza eta fidelizazio-kluba, biak '**3 Kluba**' izenekoak.
- 2.8. Interneteko eskaintzan, EITB logoari emango zaio nabarmentasuna. Irratian edo telebistan egi-ten diren aipamenetan, '**www.eitb.eus**' erabiliko da idatziz (dekoratuetan, atzeko irudietan, e. a.), eta '**eitb.eus**' ahoz.



Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. EITBren kanalak ez dira ez enpresa gisa ez marka gisa aipatu behar. EITBren kanal guztiak enpresa bakar batek ekoizten ditu, EITB Mediak. **Euskal Telebista (ETB)**, **EITBnet** eta **Eusko Irratia** izenak EITB Median integratu aurreko enpresei dagozkie eta, egun, beraien **marko historikoan** erabiltzen direnean bakarrik dute zentzua.
- 3.2. Jarraibide hauetan jasota dauden izenak **ez dira itzuli behar**, ezta birformulatu behar ere. Radio Vitoria ez da Gasteiz Irratia, eta ETB2 ez da Euskal Telebistaren bigarren kanala. Dena dela, **Euskal Herritik kanpo** zabaldu beharreko testuetan, argibide ona izan daiteke izenaren ondoan ordain bat ematea, parentesi artean, dagokion hizkuntzan: «Euskal Irrati Telebista (*Basque Broadcasting Corporation*)», «Euskadi Irratia (*la radio pública en euskera*)», «ETB1 (*télévision publique en langue basque*)», eta abar.

B2. Informazio-iturriak

Informazio-iturrien erabilerak kazetaritza-irizpideei jarraituko die, eta aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren isla izango da.

Testuingurua

- 1.1. EITBren eta bertako profesionalen sinesgarritasuna egunez egun eraikitzen da. Informazioa nola bilatzen dugun eta informazio-iturriekin zer-nolako harremanak ditugun, halakoa izango da informazioaren kalitatea.
- 1.2. Informazioz gainezka dagoen mundu konplexu batean bizi gara. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da EITBk independentziari eta berezko ahotsari eustea; ildo beretik, kalitatea eta hurbiltasuna bereizgarri dituen informazioa ekoitzi behar du.
- 1.3. EITBk herritarrekin daukan konpromisoa betetzeko, enpresa honetako profesionalak gure komunikazio-esparruko informazio-iturri fidagarrien agendarik onena eduki behar dute.
- 1.4. Kazetariak eta arduradun editorialek informazio sasizientifikoa (esoterismoa, produktu miragarriak, astrologia...) eta zientifikoa bereizi egin behar dituzte. EITBk ez du praktika zalantzagarririk sustatuko, batik bat pertsonen osasunean eta ongizatean kalteak eragiteko arriskua egonez gero. Era berean, akademiko, zientzialari eta profesional independenteekin egiaztatu beharko du informazioa, eszeptizismo zientifikoa jarrita.

“Sinesgarritasuna,
fidagarritasuna
eta oreka”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. **Zintzotasuna** eta **begirunea** izango dira arau informazio-iturri guztiekiko harremanetan.
- 2.2. Ahal den guztietan, **lehen eskuko informazio-iturriak** baliatuko dira.
- 2.3. EITBk **askotariko iturrietara** joko du, eta jasotako informazioak **egiaztatu egingo ditu**.
- 2.4. **Informazio-iturrien** aipamena ahalik eta zehatzena izango da: iturriaren izena, kargua eta ibilbideari buruzko beste datu batzuk emango dira, ikus-entzuleek iturriaren itzala ebaluatu ahal izan dezaten. Ikus-entzunezko komunikabideetan ohikoa den hizkuntza-ekonomiak, ordea, bide ematen du informazio-iturriaren identifikazioa laburtzeko, batik bat, oso pertsona ezagunez ari bagara. Dena dela, informazioa iturri jakin bati egotzita ere, albistearen egileak ez du erantzukizun gutxiago izango.
- 2.5. Beti zehaztuko da informazioaren **jatorria** zein den. Informazio-iturri propio bat babesteko beharra egotekotan, «EITBk jakin ahal izan duenez» esapidea erabil daiteke.
- 2.6. Informazioa **txosten, inkesta, ikerlan** eta abarretan oinarritzen bada, egileak aipatuko dira, eta testuinguru egokian interpretatzeko behar beste xehetasun azalduko dira.

- 2.7. Ahal den guztietan, **jatorrizko iturrietara jotzeko** aukera emango da, **esteken** bitartez. @
- 2.8. **Sekretu profesionala** zaintzearen iturria identifikatzerik ez badago, aipa daitekeen beste iturri bat bilatzeko ahalegina egin behar da, informazioa egiaztatze aldera.
- 2.9. Informazioaren profesionalek **off the record** esandakoa errespetatu egin behar dute, iturriek berriaz hala eskatzen badiete, eta iruzurrik, manipulaziorik edo filtrazio interesaturik ez dagoela ziurtatzen badute.
- 2.10. **Adierazpen anonimoak** egin nahi dituzten pertsonak salbuespenezko egoeretan soilik grabatuko dira, betiere editoreak gainbegiratuta.
- 2.11. Anonimotasun hori **irudia eta soinua egoki manipulatu**z bermatuko da. Arduraz zainduko da irudiaren edo soinuaren xehetasunen batek informazio-iturria identifikatzeko biderik ez ematea.
- 2.12. Anonimotasuna behar duten **informazio-iturriak** (esate baterako, lekuko babestuak) agerian ez uzteko, ez da gordeko haiek identifikatzen lagundu dezakeen inolako materialik.
- 2.13. Informazio-iturria **beste komunikabide bat izanez gero**, hura aipatu behar da, eta haren esteka eman, bai informazioa bestelako daturik erantsi gabe ematen denean, bai norberaren informazioak gehitzen direnean. Nolanahi ere, taldeko gainerako kanalak lehenetsi behar dira beti informazio-iturri gisa. @
- 2.14. Lekukotasun edo adierazpenen bila ari direnean, kazetariak **emanaldiaren hizkuntzan** (euskaraz / gaztelaniaz) mintzatuko diren informazio-iturriak bilatzen saiatuko dira, baina irizpide hori ez zaio nagusitu behar informazio-iturriaren egokitasunari. Gogoan izan behar da, hala ere, irizpide hori ez dela sekula erabiliko euskararen erabileraren sustapenaren kaltetan, sustapen hori EITBren sorrerako helburua baita.
- 2.15. Kazetaritzan, ohiko praktika da **albiste-enbargoa** —elkarrenganako konfiantzan oinarrituz iturrien, agentzien eta hedabideen eguneroko lana errazteko helburua duen praktika—. Hala, EITBren hedabideek beti errespetatuko dute informazio-iturriak edo albiste-agentziak ezarritako epea. Enbargoa beste hedabideren batek hautsiz gero, ildo editorialaren arduradunek erabakiko dute informazioa zabaldu ala ez.
- 2.16. Pertsona guztiei errespetatuko zaie **informazio-iturri ez bihurtzeko eskubidea**.
- 2.17. **EITBko profesionalek halakotzat aurkeztuko dute euren burua** informazioa lortzeko prozesuan, hala giteak haien osotasun fisikoa arriskuan jar dezakeenean izan ezik.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. EITBk **ez du informaziorik zabalduko iturria aipatu barik**. Baztertzeoak dira esamolde ilunak, hala nola «ondo informatutako iturriak», edo «sinesgarritasun osoa duten iturriak». Horrelakoak esanez gero, beste inoiz erabilitako iturriak oso onak edo oso fidagarriak ez direla ematen da aditzera.
- 3.2. Inoiz albistearen garrantziagatik eta interes publikoagatik informazioa iturririk aipatu gabe ematen bada, iturriaren **ingurunea edo ezaugarriak ahalik eta gehien zehaztuko dira**. Honelako esamoldeak erabil daitezke: «sindikatueta iturriak», «polizia-iturriak», «X-ren inguruko iturriak» eta abar.
- 3.3. Baztertzeoak dira **kolektiboen edo erakundeen aipamen zehaztugabeak** (esate baterako, «Kultura Ministerioa», «Eusko Jaurlaritza», «ekologistak», «adituak»...). Hitzez hitzeko adierazpenak jasotzen direnean, nahitaezkoa da aipamen zehaztugabeak baztertzea; informazio-iturria oso-osorik identifikatu behar da.
- 3.4. Ez da **infografiarik** argitaratuko informazio-iturria aipatu gabe.
- 3.5. EITBk bere informazio-hizkera erabili behar du, informazio-iturriek darabilten **terminologia**, komunikazio-moldea edo argota **kopiatu** gabe.  
- 3.6. EITBren informazioak kontuz zaindu behar du hirugarrenen **marketin-, irudi- eta publicity-estrategiek** euren edukiak albiste-saioetan ez kokatzea. Informazio batean adierazpenak txertatzen direnean, ez zaie iturrien komunikazio-estrategiei jarraitu behar, kazetaritza-irizpideei baino.
- 3.7. Albistegietan guztiz saihestekoa da eduki **sasizientifikoei** edo ikertzaile eta profesional adituen bermerik ez dutenei zabalkundea ematea.

B3. Adierazpenen hizkuntza-tratamendua

Euskal Irrati Telebistak kanal bereziak ekoizten ditu euskaraz eta gaztelaniaz, eta euskal herritar bakoitzaren esku uzten du hizkuntza bata edo bestea aukeratzea. EITBko profesionalaren ardura izango da edukia emitituko den kanalari dagokion hizkuntzako adierazpenak lortzea, elkarriketatuen borondatea errespetatuta.

Testuingurua

- 1.1. Hizkuntza bat baino gehiago dituen gure gizarte honetan, EITBrentzat ildo estrategiko bat da hedabideetan euskara kontsumitzeko jarrera sustatzea eta normalizatzea.
- 1.2. Normalizazio horretan, urrats garrantzitsua da euskarari gaztelaniazko kanaletan ere toki bat egitea. Helburua da euskal gizartearen errealitate elebiduna ikusgai egitea eta euskara prestigiatzea, betiere interes informatiboaren eta audientzien kaltetan izan gabe.

**Hizkuntza bietan
egingo dugu
elkarriketa?**

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. EITBk **beti errespetatzen du** adierazpenak egitekoa den pertsonaren **hizkuntza-hautua**. Albisteak euskaraz eta gaztelaniaz lantzen diren informazio-saioetan (telebistako eta irratiko albistegietan e. a.), kazetariak hizkuntza bietan mintzatzerako gonbidatuko du elkarriketatua: «*Hizkuntza bietan egingo dugu elkarriketa?*». Elkarriketatuak hizkuntza bakarrean egitea aukeratzen badu, EITBk errespetatu egingo du erabaki hori.

Kale-inkestak

- 2.2. **Haur**, **nerabe** eta **gazte**en kasuan, euskarazko testimonioei emango zaie lehentasuna EITBren hedabideetan. **Heldu**en kasuan, berdin jokatuko da euskaraz jario erraza eta gaztelaniaz, ordea, komunikazio-ahalmen murrizta dutenean.
- 2.3. **Euskara nagusi** den herrien kasuan, herriko bizitza ukitzen duten gaietan, euskarazko testimonioei emango zaie lehentasuna EITBren hedabideetan (ikus 2. erreferentzia).

Prentsaurrekoak, agerraldiak, parlamentua

- 2.4. EITBko kazetariak sortzen den material guztia jasoko du, dagoen hizkuntzan dagoela, eta, albisteak lantzeko unean, **interes informatiboaren arabera** erabiliko du, editoreak edo arloburuak markatzen duen ildoari jarraituz.

- 2.5. Informazio-ekitaldia amaitutakoan, EITBko kazetariak **adierazpen gehigarriak** eskatuko dizkio prentsaren aurrean azaldu den pertsonari euskarazko/gaztelaniazko albistegietarako, ekitaldian aukerarik izan ez bada.

Protagonistak, adituak eta lekukoak

- 2.6. EITBren euskara-planean jaso bezala, euskara lehenetsiko da **aurretiko kontaktuan**, batik bat solaskidea Euskal Herriko erakunde batekoa denean.
- 2.7. Politikari, artista, kirolari, aditu eta gainerako aurpegi ezagunak hedabideetan euskaraz hitz egiten ateratzeak **hizkuntzari prestigioa** eman diezaioke, interes informatiboari iruzur egin ezean, behintzat.

Materialaren tratamendua

- 2.8. **Printzipio orokor** modura, emisioko hizkuntzan ez dagoen materiala azalpen bidez txertatuko da. **Nabarmentasun bereziko** pertsonak eta/edo adierazpenak, telebistan, azpidatzi egingo dira, eta irratan, testuinguratu. Gainerako kasuetan, kazetariak editorearekin edo arloburuarekin kontsultatu beharko du.
- 2.9. Azpiko tauletan laburbildu da zer **teknika** erabili behar den emisioko hizkuntzan ez dagoen material-mota bakoitza eskaintzeko. Aukera bat baino gehiago daudenean, **lehentasunaren arabera** ordenatu dira. Tekniken deskribapena taulen ostean dator.

Kanala	Materiala	Tratamendua ¹
ETB1 - eitb.eus/eu	Kaleko testimonioak erdaraz / 3-4"-tik behera	1. bere horretan
	Kaleko testimonioak erdaraz / 3-4"-tik gora	1. azalpena 2. azpidazketa
	Adituak edo lekukoak erdaraz	1. azalpena 2. bikoizketa
	Protagonistak grabatuta erdaraz	1. azalpena 2. azpidazketa 3. bikoizketa
	Protagonistak zuzenean erdaraz	1. azalpena 2. interpretazioa

¹ Aukeran dauden teknikak lehentasunaren arabera ordenatu dira.

Kanala	Materiala	Tratamendua ²
ETB2 - eitb.eus/eu	Kaleko testimoioak euskaraz edo hirugarren hizkuntza batean / 3-4"-tik behera	1. bere horretan
	Kaleko testimoioak euskaraz edo hirugarren hizkuntza batean / 3-4"-tik gora	1. azalpena 2. azpidazketa
	Adituak edo lekukoak euskaraz edo hirugarren hizkuntza batean	1. azalpena 2. azpidazketa
	Protagonistak grabatuta, euskaraz edo hirugarren hizkuntza batean	1. azalpena 2. azpidazketa
	Zuzeneko parte-hartzea (telefonoz...) euskaraz	1. azalpena [aurkezleak]

² Aukeran dauden teknikak lehentasunaren arabera ordenatu dira.

Kanala	Materiala	Tratamendua ³
EUSKADI IRRATIA	Testimoioak, adituak edo lekukoak erdaraz / 3-4"-tik behera	1. bere horretan
	Testimoioak, adituak edo lekukoak erdaraz / 3-4"-tik gora	1. azalpena 2. bikoizketa
	Protagonistak grabatuta erdaraz / 10"-tik behera	1. azalpena 2. testuinguratzea
	Protagonistak grabatuta erdaraz / 10"-tik gora	1. azalpena 2. bikoizketa
	Protagonistak zuzenean erdaraz	1. azalpena 2. interpretazioa

³ Aukeran dauden teknikak lehentasunaren arabera ordenatu dira.

Kanala	Materiala	Tratamendua
GAZTEA	Protagonistak zuzenean erdaraz ⁴	1. azalpena

⁴ Interes informatiboak justifikatzen badu, protagonistei erdaraz egin dakieke zuzeneko elkarrizketa. Kazetariak izango du hizkuntzak kudeatzeko ardura: elkarrizketatuari euskarazko galderak ulertaraztea, entzuleei erantzunen azalpena ematea, eta abar.

Kanala	Materiala	Tratamendua ⁵
RADIO EUSKADI - RADIO VITORIA	Testimonioak, adituak edo lekukoak euskaraz edo hirugarren hizkuntza batean / 3-4"-tik behera	1. bere horretan
	Testimonioak, adituak edo lekukoak euskaraz / 3-4"-tik gora	1. azalpena ⁶
	Testimonioak, adituak edo lekukoak hirugarren hizkuntza batean / 3-4"-tik gora	1. azalpena ⁶
	Protagonistak euskaraz / 10"-tik behera	1. testuinguratzea
	Protagonistak hirugarren hizkuntza batean / 10"-tik behera	1. azalpena 2. testuinguratzea
	Protagonistak euskaraz edo hirugarren hizkuntza batean / 10"-tik gora	1. azalpena 2. bikoizketa
	Zuzeneko parte-hartzea (telefonoz, seinale instituzionalean...) euskaraz edo hirugarren hizkuntza batean	1. azalpena [aurkezleak]

⁵ Aukeran dauden teknikak lehentasunaren arabera ordenatu dira.

⁶ Irakurri 2.10. puntuan (beherago) zer tratamendu ezberdin ematen zaien euskarari eta hirugarren hizkuntzei.

- 2.10. **Azalpena:** inork esandakoaren mamia kazetariak adieraztea bere testuan bere hitzekin. Hau izango da emisioko hizkuntzan ez dauden materialen ohiko tratamendua. Orokorrean, kazetariak 3 edo 4 segundoz utziko du jatorrizko audioa, eta gainerakoa bere **azalpenarekin zapalduko** du; Radio Eus-kadin eta Radio Vitorian, euskarazko adierazpenen kasuan, jatorrizko audioa 10 segundoz ere utz daiteke bere horretan, eta gainerakoa azalpenarekin zapalduko da. Ikus-entzuleei ez zaie inoiz sor-tu behar jatorrizko adierazpenetan dagoen informazioa galdu duten sentsazioa. Horren aurrean, lagungarri izan daitezke honelako formulak: «jokalaria dio», «jokalaria ren arabera», «jokalaria ren hitzetan entzun dugunez», e. a.
- 2.11. **Azpidazketa:** itzulpena pantailaren behe-aldean idaztea. **Nabarmentasun** bereziko pertsonak eta/edo adierazpenak eskaintzeko, funtsezko teknika da azpidazketa telebistan. Ez datza itzulpen hutsean: testua egokitu egin behar da, hizkuntza-ekonomia zorroztu, ortografia zaindu, eta puntuazioa modu-rik argienean erabili, EITBren Estilo Liburuko II. eranskinean jaso bezala ("Azpidazketa bidezko itzul-pena", 169. or.).
- 2.12. **Testuinguratzea:** adierazpenak testuinguruz hornitzea. Nabarmentasun bereziko pertsonak eta/edo adierazpenak eskaintzeko, funtsezko teknika da testuinguratzea irratian. Protagonistaren esa-nak **zapaldu gabe** txertatuko dira eta, aurretik, atzetik, edo aurretik eta atzetik, kazetariak bere hitzen bitartez azalduko du mezua.
- 2.13. **Bikoizketa:** itzulpena beste ahots batek ematea. Bikoizketarako, **ahots gainjarria** ren teknika erabiliko da, alegia, jatorrizko ahotsaren gainetik bikoizketako ahotsa ezartzea. Teknika hori oso malgua da:
- Ez dago zertan hitzez hitz bikoiztu. Bikoizketako testua jatorrizkoaren **laburbilpena** izan daiteke.

- Bikoizketako ahotsak ez du jatorrizkoa guztiz zapaldu behar. Oso gomendagarria da **hasiera eta amaiera** bere horretan entzuten uztea.
- Oso gomendagarria da bikoizketak ez zapaltzea jatorrizko ahotsa **giltzarri** edo funtsezko diren hitzetan.

2.14. **Interpretazioa:** protagonista mintzatu ahala, **ahozko itzulpena** eskaintzea. Antolaketa konplexua behar du: denboraz planifikatzea, interprete profesional bat edo gehiago, eta edizio-arduradun bat jatorrizko hitzak noiz eten edo noiz zapaldu erabakitzeko.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. ETB1en eta Euskadi Irratiaren eginkizuna errealitatea euskaraz kontatzea da. Interes informatibo nabarmeneko jazoeretan (hondamendi naturaletan, istripu larrietan, atentatuetan, kirol-probetan, ekitaldi politiko, sozial eta kultural garrantzitsuetan), badu lekua gaztelaniazko adierazpenen zuzeneko emisioak. Pieza editatuetan, EITBren Estilo Liburuan jasotako irizpideei jarraitu behar zaie. Adierazpenen tratamendurako **irizpideok** aukera ematen dute errealitatea euskaraz kontatzeko, **denbora guztian itzultzen** ibili beharrik gabe eta gaztelaniaren **etengabeko presentziari** bide eman gabe.
- 3.2. Beste hizkuntza bateko materialaren aurrean, arretagune bakarra ez da ekintza informatiboa. **Entzuleak eta ikusleak erakarri** egin behar ditugu, bai gure hedabideetara, bai gure hizkuntzetara, alderdi estetikoa zainduz, itzulpen egokiak eskainiz, pertsona esanguratsuen testimonio eta adierazpenak aukeratuz, e. a.

Erreferentziak

- EITBrako hizkuntza-funtsak (2020). (www.eitb.eus/gardentasuna)
- EITBren Estilo Liburua: III. eranskina - Azpidazketa bidezko itzulpenak
- Euskararen arnaguneak - UEMako udalerriak (<http://www.uma.eus/udalerriak/>)
- Erdararen erabilera Euskadi Irratian

B4. Zuzeneko emankizunak

EITBren zuzeneko emankizunek berehalakotasuna, aldiberekotasuna eta gaurkotasuna dute ezaugarri modura. Zuzeneko emankizunek gure informazio-zerbitzuen indarra erakusten dute, eta herritarrek «azken orduarekin» lotzen dituzte, iturri propioen bitartez eta plataforma guztietan.

Testuingurua

- 1.1. Gure garai honetan, aurrerapen teknikoek asko merkatu eta dibertsifikatu dituzte zuzeneko emankizunak, konexio-kopurua biderkatu egin da, eta bat-batekotasuna bilakatu da telebistaren, irratiazen eta Interneten ezaugarri nabar-menetakoa.
- 1.2. Zuzeneko emankizuna da hedabide batek *mundura irekitako leihoa* dela eta errealitateari begi-ra jartzen gaituela erakusteko baliabiderik garrantzitsuenak. Dena dela, zuzeneko emankizunaren egiazko balioa unean bertan gertatzen ari diren ekitaldien transmisioa egiten duenean igartzen da.
- 1.3. Zuzeneko emankizunei dagokienez, bi eremu handi bereiz ditzakegu:
 - Kirol-emankizunak, kultur ekitaldiak eta abar. Halakoetan, zuzeneko saioaren errealizazioak ikuskizunen errealizazio-arauei jarraitu behar die: kamera anitz, plangintza landua...
 - Gertalekutik bertatik egiten den kontakizuna.

**“EITBn zuzeneko
«gertatzen ari da,
ikusten ari zara»”**

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Agertokian dauden pertsona guztiek dute saioa zuzenean ematen ari dela **jakiteko eskubidea**, baita konexioa noiz hasi eta noiz amaitzen den jakiteko eskubidea ere.
- 2.2. Zuzeneko emankizunetan, kazetaria gertakizunen lekuan kokatu behar da eta, beraz, plano amerikarra edo orokorra erabiltzea lehenetsiko da. **Ikusizko distantzia** eta **entzunezko distantzia** bat etortzea zaindu beharko da. Zuzeneko, horrez gainera, albisteen sarrera egiteko baliabide bat ere bada; kasu horretan, plano ertaina erabiliko da, *statement*etan bezala (EITBren Estilo Liburuko V. eranskina, 183. or.).
- 2.3. Kazetariak aurretiaz aztertu behar du **eszenaratzea**, ezustekoei aurrea hartzeko: atzeko planoan agurka ari diren pertsonak, edo komunikazioa eragozten duten zaratak.  
- 2.4. Zuzeneko emankizunetan, **emisioa atzeratuta** ematea erabaki daiteke, baldin eta antenaratzeke egoki ez diren irudiak sor daitezkeela pentsatzen bada (esate baterako, ustekabeen indarkeriazko amaiera izan dezaketen gertakarien kasuan). 

- 2.5. Zuzeneko emankizunean, hasi baino lehenagoko eta amaitu osteko uneetan, arretaz jokatu behar da, pantailan ageri diren pertsonen zuzenean ari direla ez jakiteak sor ditzakeen **egoera deserosoak** saihestearren. Jarraibide hori bereziki garrantzitsua da ekitaldia zuzenean ematen denean, bai telebista bidez, bai bideo-jario *–streaming–* bidez.  
- 2.6. Zuzenekoan gogoeta egiteko eta erabakiak patxadaz hartzeko denbora nahikorik ez dagoenez, arreta bereziz jokatu behar da, kontrol txikiagoaren ondorioz ez dadin **errakuntzarik**, nahi ez den gauzarik edo Estilo Liburu honetako gomendioen aurkako edukirik emititu. Halakorik gertatuko balitz, **zuzenekoan bertan konponduko da**, ahalik eta lasterren.
- 2.7. Konexioaren hasieran, zuzeneko emankizuna eragin duen informazioak zer garrantzi eta zer berezitasun dituen azalduko da. Oro har, **espazioari eta denborari buruzko erreferentziak** eman behar dira, hala nola «minutu gutxi barru hasiko da plaza honetan bertan...», «une honetan euria ari du hipodromoan...», eta abar.
- 2.8. Kazetariak eta teknikari-taldeak aurretiaz koordinatuko dute kameraren aurrean egin behar diren **mugimendu eta ekintzen plangintza**. Batzuetan, gomendagarri da espazioa seinaleztatzea, nahi gabeko interferentziarik gerta ez dadin.
- 2.9. Albistegaia eta emisio-ordutegia bateraezinak direnean, **“zuzeneko faltsua”** erabil daiteke, berriz produktuen interesak horrela ematea justifikatzen badu.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Ez da egokia kazetariak gertaeretan parte hartzea edo **bere iritzi eta gustuak azaltzea**, salbu eta informazioa eta denbora-pasa nahasten dituzten saioetan, edo ikus-entzule gehienek atxikipen emozionala pizten duten ekitaldi handietan (adibidez, zenbait kirol-gertakarietan).
- 3.2. Emisio- edo produkzio-beharrengatik justifikatuta ez dagoenean, “zuzeneko faltsua” **artifizio hutsa** da, diskurtsoa **sinesgarritasunez** janzteko aitzakian ikus-entzuleenganako errespetua ahaztu egiten duena. Kazetari-langintzari zor zaizkion zorrozatasuna eta informazio-kalitatea hobeto berma daitezke etenik gabeko emisio geroratu baten bidez. Nahikoa da alde aurretik hala dela iragartzea: «oraintxe eskainiko dizuegu hain egunetan eta hain tokitan grabaturiko elkarrizketa...».
- 3.3. Jazoeren zuzeneko emankizunetarako, EITBko profesionalek edo EITBrekin akordioa duen organismo batekoek (FORTA, agentziak, ekoizpen-etxeak, erakundeak, e. a.) errealizatzen dituzten irudiak pantailaratzea hobetsiko da. Alderdi politikoek, kirol-taldeek, enpresek edo bestek eskainitako **pool seinalea** erabiltzen bada, **«X-ren irudiak»** edo **«X-k utzitako irudiak»** gaininprimatuko da pantailan konexioak irauten duen bitartean.  

- 3.4. Zuzenean informatzen ari den **kazetaria** ez da **albistegai** bihurtu behar. Janzkera eta itxura egokiak izango ditu, albistearen tokira egokituak. 
- 3.5. Ez da zilegi, zuzeneko konexioaren aitzakian, pertsonengana gerturatzea eta pantailan agerraraztea, egiazko **baimenik** eskatu barik eta uko egiteko aukera eman barik.

Erreferentziak

- EITBren estilo liburua — VI. eranskina: ENG ekipoen bidez grabatzeko jarraibideak

B5. Informazio politikoa

Euskal Irrati Telebistak funtsezko konpromisoa du herritar kritiko eta arduratsuak heztearekin, eta adierazpen-askatasunerako eta informaziorako eskubidea aldeztearekin. Konpromiso horri lotu behar zaio EITBk ematen duen informazio politikoa.

Testuingurua

- 1.1. Politikari buruzko informazioan batik bat, ondoko printzipio hauek bete behar dira: aniztasun politikoaren errespetua; informazioaren objektibotasuna, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna; bizikidetzari dagozkion gizarte-balioen babesa eta bultzada, eta euskal kulturaren eta euskararen sustapena. He-dabide publikoetan antena-eskubidea ordezkagarritasun txikiagoko politika-, gizarte- eta kultura-taldeentzat ere bermatuko da (Euskal Irrati Telebista sortzeko Legearen 21. art.).
- 1.2. Alderdi politiko askok Internet bidezko telebista-kanalak jarri dituzte abian, eta, hartara, inoiz baino beharrezkoagoa da irrati-telebista publikoa neutraltasunaren, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren bermatzaile izan dadin informazio politikoan.

“Aniztasuna eta independentzia, herritartasuna eraikitzeko”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Independentziak eta **informazioa eta iritzia bereizteak** gidatu behar dute informazio politikoaren tratamendua.
- 2.2. Alderdi politikoek eskaintzen duten informazioa baino zerbait gehiago izan behar du informazio politikoak. Gainera, komeni da beste informazio-iturri batzuk ere erabiltzea, esaterako, politika-adituak, herritar-elkarteak, kalte-dunen elkarteak... Antenako denboraren banaketa parrakea ez da nahikoa **informazioaren aniztasuna bermatzeko**.
- 2.3. Legebiltzarreko debateen emankizun grabatuetan edo haien gaineko informazioetan talde bakoitzari eman beharreko **antena-denbora**, bestalde, bakoitzak Eusko Legebiltzarrean duen ordezkari-kopuruaren arabera izango da (Euskal Irrati Telebista sortzeko Legearen 22. art.).
- 2.4. Alderdi politikoetako buruzagiei egiten zaizkien elkarrizketen editatzean **informazio-irizpide hutsak** hartuko dira aintzat. Informazioa lantzen duten profesionalek hartu behar dute erabakia, ez beste inork, eta aske jardun behar dute, buruzagien komunikazio-aholkularien balizko interferentziei uko eginez.
- 2.5. EITBk eskaintzen duen informazioak begirunea izango die erakunde guztiei, erakundeok nork ordezkatzan dituen eta nork kudeatzen dituen albo batera utzita. **Erakundeen begirunea** izango da tratamendu informatiboaren giltzarria, inolako salbuespenik gabe. Hori ez da oztopo kazetarietako erakundeen jardueraz informa dezaten modu arduratsuan.

- 2.6. Prentsaurreko batean **galderarik** onartzen ez bada, jokabide **horren berri** emango zaie ikus-entzuleei.
- 2.7. Era berean, **alderdi politikoek landutako** irudiak edo adierazpenak emititzen direnean, hala dela jakinaraziko zaie ikus-entzuleei.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Gai batean ere ez da **itzalketa informatibora** jo behar, hori ez baita ildo editoriala ezartzeko modu egokia.
- 3.2. Komunikazio-kabineteen garrantzia gero eta handiagoa da, eta marketin politikoa profesionalizatu egin da. Ondorioz, informazio politikoa lantzen duten kazetariak identitatea galtzeko arriskua dago. EITBko profesionalek ahaleginak egingo dituzte alderdi politikoen, sindikatuen edo bestelako presio-taldeen **transmisio-uhala** ez izateko.
- 3.3. Politikariak arlo politikotik kanpoko saioetan parte-hartzea ez da alderdi politikoen **marketin-es-
trategien** ondorio izan behar; halaber, parte-hartze horrek ez die politikariei abantailarik ekarri behar antena-eskubideari dagokionez.
- 3.4. Ez da onargarria **elkarrizketa** bateko galderak **hitzartzea**. Kazetariak galdetzeko askatasun osoa izan behar du, politikariak ere galderei ez erantzuteko askatasuna duen bezala.
- 3.5. Kazetariak berak hautatu behar ditu elkarrizketa-zatiak. Beraz, ez dio **orientabiderik** onartuko, ez **elkarrizketatuari**, ez haren **irudi-aholkulari edo komunikazio-kabineteari**.
- 3.6. Alderdi politiko bateko barne-debateen, batzarren edo hautagai-aukeraketen berri ematen direnean, **inpartzialtasuna** muturreraino eramango da, aukera bati ere mesederik ez egiteko. Sai-hestekoak dira aukera batzuk «ofizial» eta beste batzuk «alternatibo» gisa aurkeztera eraman dezaketen terminoak.
- 3.7. Baztertzea da, ahal dela, elkarren segidako **adierazpen eta kontradierazpenetan** oinarritutako kazetaritza.
- 3.8. Guztiz baztertzeak dira debate publikoaren orde **polemika artifiziala** pizteko helburuz konfrontazio politikoa eragiten duten galderak.

B6. Hauteskundeen gaineko informazioa

EITBk eskaintzen duen hauteskunde-informazioak ideien debate publikorako aukera bat izan behar du. Komunikabideek, euren gizarte-eginkizunari helduta, beharrezko informazio guztia helarazi behar diete ikus-entzuleei, boto-eskubidea askatasun osoz gauza dezaten.

Testuingurua

- 1.1. Hauteskunde-garaian alderdi politikoek neurritz gaineko agerpen mediatikoa izaten dute, eta zorrotz zela-tatzen dituzte kazetariak. Gauzak horrela, EITBko profesionalek Hauteskunde Batzordearen erabakiei men egin behar diete, eta loturarik gabe eta inpartzialtasunez jardun behar dute.

**“Independentzia
eta
inpartzialtasuna”**

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. **Kazetaritza-irizpideak** baino ez dira erabiliko hauteskundeetako informazioa jaso, hautatu eta lantzeko, kanpaina bertan, kanpainaurrean zein bozketen osteko aldian. Kanpaina, gainera, EITBren Administrazio Kontseiluak eta, hala dagokionean, Hauteskunde Batzordeak onarturiko irizpideak hartuko dira aintzat.
- 2.2. Hauteskunde-blokea, hautagaien elkarriketak, debateak eta gainerako hauteskunde-saioak ego-kiro banatuko dira, **proportzionaltasunaren irizpideari jarraiki**, talde politikoek aurreko hauteskun-de baliokideetan lortutako emaitzak aintzat hartuta²⁴.
- 2.3. Hauteskunde Batzordeak erabakiko du hauteskunde-publizitaterako **doako tarteak** nola banatu, iraupenari dagokionez nahiz tarte emateko egun eta orduei dagokienez.
- 2.4. Gogoan hartu behar da **hauteskunde-blokeaz kanpoko informazio politikoaren garrantzia**. Informazio horren oinarriak, beti bezala, inpartzialtasuna, neutraltasuna, objektibotasuna eta zorrozta-suna izango dira.
- 2.5. **Beste herrialde batzuetako** hauteskundeen gaineko informazioaren printzipioak, era berean, inpar-tzialtasuna, neutraltasuna, objektibotasuna eta zorroztasuna izango dira.
- 2.6. Hauteskunde-eguneko emaitzak erakusten dituzten **grafikoetan eta infografiatan**, informazioa, analisia eta ulergarritasuna lehenetsi behar dira. Tratamendu estetiko egokiak nabarmen areago-tzen du hauteskundeen gaineko informazio grafikoaren eraginkortasun komunikatiboa. 📺 @
- 2.7. Hauteskunde-gauean zehar, **www.eitb.eus-ek** ahalik eta arinen eguneratuko ditu datuak, eta sare sozialen bitartez zabalduko ditu. Gero, EITBren webguneak eskuragarri edukiko ditu hauteskun-deetako emaitza guztiak. @

²⁴ Hauteskunde Batzordearen 2011.04.07ko erabakia. http://www.juntaelectoralcentral.es/portal/page/portal/JuntaElectoralCentral/JuntaElectoralCentral/DocJEC?_piref53_1181251_53_1181246_1181246.next_page=jec/detalleDoctrina&idDoctrina=10987

- 2.8. **Hauteskunde-egunean** zehar ematen den informazioan, gai orokorrak bakarrik aipatuko dira, esate baterako, hauteskundeetarako mekanismoak eta prozedurak, mahaien eraketa, herritarren parte-hartzea... Egun horretan zabaltzen diren informazioek ez dute biderik eman behar aukera politiko baten alde edo kontra bozkatzeko gonbit modura uler daitezen.
- 2.9. **Hauteskunde-gaueko saioetan** parte hartzen duten adituak **kazetaritza-irizpideei** jarraiki hautatu behar dira, inola ere ez ideologiaren edo alderdien banaketari jarraiki.
- 2.10. **Sare sozialen** erabilera ere independentziaren, inpartzialtasunaren eta informazio-orekaren irizpideei lotuko zaie. @
- 2.11. EITBk herritarren parte-hartzea sustatuko du, sare sozialen bidez hautagaiekin debatitzea bultzatuko du, eta **ikus-entzuleekiko interakzioa** ahalbidetzen duten formatuak lehenetsiko ditu. @

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Hauteskunde-kanpainetan, EITBk ez du hauteskundeetan aurkezten diren alderdi, federazio, koalizio edo taldeen **publizitaterik** ekoitziko edo emitituko, legez dagokien doako publizitatea izan ezik²⁵.
- 3.2. EITBk **bere baliabideak** lehenetsiko ditu hauteskundearen jarraipena egiteko. Alderdi politikoek ematen duten **pool/ seinalea** erabili behar den guztietan, pantailan idatzi bat jarri ohararaziko da: «X-k bidalitako irudiak» edo «X-ren irudiak». @
- 3.3. Jardunean direla, EITBko kazetariak ezingo dute **hautagaitza jakin baten aldeko hauturik adierazi** jendaurrean; profesionalen jarrera politikoa arlo pribatuko kontua da, eta horretan geratu behar da.
- 3.4. Hautagaiek eta alderdi politikoek ezin dute kolaboratu EITBren webgunean. Hala, eitb.eus-ek ez du **alderdi politikoaren blog edo web-orriak** estatutuko. Hauteskundearen gaineko informazioa lantzen duten beste blog batzuei dagokienez, argi bereizi behar dira EITBren edukiak eta erabiltzaileek edo beste informazio-iturri batzuek sortutako edukiak. @
- 3.5. **Hauteskunde-gauean**, alderdi bakoitzak bere egoitzan egiten duen balorazio-agerraldiaren jarraipenean, kronikak ez du hauteskunde-giroaz kutsatu behar. Emaizak eragindako poztasunak edo abaildurak ezin dezake inola ere informazioaren tonua aldarazi.
- 3.6. Ez da aldeko edo aurkako baloraziorik egin behar **parte-hartze mailari buruz**. Bai botoa ematea, bai botorik ez ematea, eskubide demokratikoak dira.

²⁵ 5/1985 Lege organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde-araubide orokorrari buruzkoa; 60. art.

- 3.7. Hautagaien hitzak ez dira hauteskunderen gaineko informazioaren ardatz bilakatu behar. Hauteskunderen gaineko informazioak alderdi politikoetako komunikazio-kabineteen eta aholkularien **agendetatik libre** ibili behar du. Interes publikoak izan behar du kazetarien gidaria, hauteskunde-kanpainako albisteen bila dabiltzanean.
- 3.8. **Hauteskunde-bloketik kanpoko informazioa** ez da antena-denbora luzatzeko erabiliko, ezta hautagaitza jakin baten alde egiteko ere.

B7. Ikerketak eta inkestak

EITBk hainbat eratako ikerketak eta inkestak erabiltzen ditu herritarren eta ikus-entzuleen iritzia bilatzeko, unean uneko helburu eta interesen arabera:

- Ikerketa eta inkesta zientifikoak, enpresa espezializatuei eskatzen zaizkienak.
- Ikus-entzuleen parte-hartzea eta interakzioa sustatzeko helburua duten ikerketak eta inkestak.
- Kale-inkestak deiturikoak, gizartean puri-purian dauden gaiei buruzko iritzia kalean bertan jasotzen dituztenak.

Tratamendu informatiboan berariaz bereiziko dira inkesta-mota horiek.

Testuingurua

- 1.1. Ikerketak eta inkestak zehaztasunezko kazetaritzaren tresnak dira, ikus-entzuleei iritzi publikoaren unean uneko egoeraren berri emateko baliagarriak. Hala ere, esan behar da marketin politikorako tresna garrantzi-tsu ere bihurtu direla, ikus-entzuleen iritzian eragiteko erabiltzen baitira. Horregatik, EITBko kazetariak independentzia eta zorrotzasun handiz jardun-go dute ikerketen eta inkesten datuez informatzean, bereziki hauteskunde-garaian edo garrantzi handiko gaian.

“EITBk iritzi
publikoa
aztertzen du”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Inkesta baten emaitzen gaineko informazioan, beti azaldu behar da **fitxa teknikoa** (unibertsoa, metodologia, errore-marjina...), *teleprinterra* edo ahotsa erabiliz. Ikerketa egin duen enpresaren izena eta lana eskatu duen erakundearena ere aipatu behar da.
- 2.2. Telebistan edo irratan ikerketen eta inkesten berri ematen denean, EITBren **webgunera** jotzeko eta bertan datuen **bertsio osoagoa** ikusteko gonbita egingo da.
- 2.3. Inkesten emaitzak direla eta, EITBko kazetariak euren irakurketa eta interpretazioa egiten ahalginduko dira, ikerketa egin duen enpresak edo hura eskatu duen erakundeak emandako titularrak erreproduzitu barik. Horretarako, behar-beharrezkoa da kazetariak oinarritzko **prestatuntza** izatea **estatistikan eta demoskopian**.
- 2.4. EITBk saioaren baten **webgunean** edo **sare sozialetan** antolatutako **bozketen** berri ematen denean, argi geratu behar da erabiltzaileen zaletasun edo portaeren gaineko datuak jasotzeko eta parte-hartzea eta interakzioa bultzatzeko helburua baino ez duela ekimen horrek. Agerian jarriko da horrela lortutako emaitzek **ez dutela estatistika-baliorik**.

- 2.5. **Kale-inkestak** tresna egokiak izan daitezke bizikidetzaren balioak sustatzeko. Hala, kale-inkesten bitartez, ildo editorialean lehentasunezko zat jotzen diren hainbat alderdi indartu daitezke: tolerantzia, biktimen arreta, kolektibo behartsuen babesa, eta beste.
- 2.6. Ikerketa desberdinen **emaitzak alderatzen** direnean, objektibotasunaren, neutraltasunaren eta informatzeko zorroztasunaren printzipioei jarraituko zaie beti.
- 2.7. Kale-inkestarako aukeratzen den **tokiak edo inguruneak** asko baldintza dezake zer iritzi jasotzen den. Aintzat hartuko dute hori EITBko kazetariak, horrelako informazio-materiala grabatzeko lekuak hautatzerakoan.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Kale-inkestak ez dira, berez, herritarren iritzia ikertzeko tresnak. Inkesta horiek **iritzi hedatuak** jasotzeko balio dute, baina kontu handiz ibili behar da topiko edo estereotipo desagokirik edo bizikidetzaren aurkako baliorik ez transmititzeko.
- 3.2. Kale-inkestetan, kazetariak ez du inoiz elkarriketatua lotsagarri uztea bilatuko, eta ez du erantzuna baldintzatzeko moduko galderarik egingo. Herritarrek eskubidea dute **inkestarik ez egi-teko**. Gainera, elkarriketatuek esandakoak editatzen direnean, ez da haien esangura aldarazi beharko.
- 3.3. Kale-inkestetan ez dago hizketan ari dena **identifikatu** beharrik. Adierazpenak behar bezala ulertzeko beharrezkoak diren datu guztiak erantsiko dira, esate baterako, inkesta egin den lekua edo eguna.
- 3.4. Metodologikoki, **guztiz baliogabeak** dira *straw poll* deritzenak (saio bateko ikus-entzuleei eginiko galdeketak, ekitaldi bateko parte-hartzaileei eginiko itaunketak, Internet bidezko inkestak...). Horrelakoen emaitzak ez dira aurkeztuko egiazko iritzi-ikerketa baten emaitzak bailiran.
- 3.5. Kale-inkestetan edo *straw poll* horietan jasotako iritziak ez dira **estrapolatuko**.
- 3.6. Galderak **hainbat aditu edo pertsona inplikaturi** egiten bazaizkie, erantzunak aurkezten direnean ez zaie ikus-entzuleei pentsaraziko benetako inkesta egin denik. Benetako laginketarik egin ezean, ez da esan behar «galdetutako adituen erdiak», «galdetutako informazio-iturri gehienak» edo antzekorik.
- 3.7. **Denbora-pasako saioekin** zerikusia duten **bozketei** ez zaie ikerketa edo inkesta deituko.
- 3.8. **Inkestetako emaitzen** eta bestelako datu estatistikoen **adierazpen grafikoa** ez da erabiliko datu horien pertzepzioa aldarazteko.

B8. Titularrak

Titularrek EITBren informazio-ildoak adierazten dute, eta kalitatezko kazetaritzarekin duen konpromisoa erakusten dute. Titularretan hurbileko kazetaritza eta nazioarteko gertakarien ikuspegi propioa uztartu behar dira. EITBk titularren bitartez agertzen du bere mundu-ikuskera.

Testuingurua

- 1.1. Titularrek hiru eginkizun betetzen dituzte: identifikatzea, informatzea eta arreta deitzea. Albisteak banakatzen eta hierarkizatzen laguntzen dute, informazioaren datu esanguratsuak nabarmentzen dituzte, eta amuarena egiten dute ikus-entzuleen arreta erakartzeko.
- 1.2. Titularren gaiak hautatzeko, informazioaren interesa eta gaurkotasuna lehenetsiko dira, politika, nazioartea, kultura, kirolak eta bestelako blokeak orekatzeko tentazioaren gainetik.
- 1.3. Berariazko arreta jarri behar da titularren blokean, ildo editorialen eta tratamendu informatiboaren aplikazioari dagokionez.

"Datu
esanguratsuenetara
bideratu arreta"

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Titularrak informazioaren **oinarrizko datuak** bildu behar ditu.
- 2.2. **Laburra, argia, zehatza** eta publiko-mota guztiek **ulertzeko modukoa** izan behar du.
- 2.3. **Euskaraz, aditz jokatu** baten inguruan egindako esaldiak lehenetsiko dira. **Gaztelaniaz**, berriz, **subjektua-aditza-predikatua** egitura hobetsiko da titularra idazteko.
- 2.4. Titularrak **koherentzia eta estilo-batasuna** izan behar du albiste berari buruzko beste informazio guztiekin.
- 2.5. Titularrek eguneko informazioan **nabarmenena dena** erakusten dute; nabarmenena, bai edukia-
ren aldetik, bai inpaktu bisualaren aldetik. 
- 2.6. Ikus-entzuleen **arreta pizteko**, aski dira **erredakzio zuzena**, **irudien editatze egokia**, errealizazioko baliabideak eta titularrekin batera entzuten den musika; ez dago zertan jo sentsazionalismora, anbiguotasunera edo morbora. 
- 2.7. Gairik garrantzitsuenen edukia aurreratzen duen blokean —**portadan, laburpenean**—, oso pieza egokia da *atarikoa*, hau da, titular bat eta ondotik azalpen labur batzuk edo protagonistaren adierazpenak biltzen dituen pieza. 

- 2.8. Laburpen horiek berezko estiloa lantzeko aukera ematen dute. **Interpretazio- eta balorazio-elementuak** eransteko aukera ere ematen dute, betiere inpartzialtasunari eutsita. 
- 2.9. Informazio bakoitzerako, **bi titular** prestatuko dira eitb.eus-en. Bata albisteari, audioei, bideoei eta galeriei erantsiko zaie, eta informazioaren muina deskribatu beharko du, arakatzaileretan (Google) agertzea errazteko. Bestea portadan azalduko da, eta internautaren arreta informazio-ra zuzentzeko helburua izango du. 
- 2.10. Titularrak **bi xede ditu**: ikus-entzuleak informatzea, eta albistea bilatzaileetan agerraraztea. 
- 2.11. **Kazetaritzako titularra** osatzen duten **elementuak** –zinta, gaintitulua, titulua, azpitulua, leada– oso erabilgarriak dira eitb.eus-en. 
- **Zinta** garrantzi handikoa da, Interneten berezkoa delako informazioaren zatiketa. Zinta titularraren osagai bat da, elkarrekin erlazionatuta dauden zenbait informazio identifikatzeko eta taldekatzeko balio duena. Informazio horiek denbora-tarte batean irauten duen albistegai berari buruzkoak izategatik daude erlazionatuta. Zinta laburra izango da, tratamendu tipografikoaren bitartez argi bereiziko da titularraren beste osagaietatik, eta titularraren goialdean kokatuko da.
 - **Gaintituluak** tituluak jasotako albistegaia azaldu edo jorratu egiten du. Interneten, albistea kokatzea du helburu, dela paperezko edizioetako atalen gisan, dela telebistan gaia edo lekua agertzen duten idazkuneren gisan.
 - **Azpitululuak** sarrera labur baten funtzioa betetzen du, eta, askotan, gertaeraren nondik norako nagusiak nabarmentzen dituzten hainbat *lead*en segida gisa antolatzen da.
- 2.12. Interneten, titularrak osagai berriak hartu ditu. Albisteei, testuinguruaren berri ematen duten **estekak** erantsi behar zaizkie. Esteken eta **ikono** eta epigrafeen bidez, erabiltzailea interakziorako aukeren jakitun eta informazioa osatzen duten idatzizko zein ikus-entzunezko piezen jakitun ipintzen da. 
- 2.13. Eskuragarri dagoen informazioaren erritmo berean **eguneratu** behar da titularra. Ohikoa da egunean zehar aldatzea, albisteari buruzko datu gehiago ezagutu ahala. 

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Ez da **lagunarteko hizkerarik** edo **argotik** erabili behar albistegietako titularretan. **Hitz-jokoak** ere baztertu egin behar dira.
- 3.2. Titularrak ez du **informazio-espektatibarik** sortu behar, gero albiste-kontakizunean betetzen ez badira.
- 3.3. Titularretan ez dute lekurik **zalantza adierazteko lokuzioek**: «itxuraz», «litekeena da», eta beste.
- 3.4. Ahal dela, ez da **siglarik** erabiliko, eta, erabiltzekotan, oso-oso ezagunak izan behar dute. Beharrezkoa bada, siglen esanahia azalduko da.

- 3.5. Ez da **pertsona-izen, leku-izen edo sigla ezezagunik** aipatuko. Era berean, ez da zifra gehiegi erabiliko, testua iluntzen baitute. 
- 3.6. Ez da hizkuntza-ekonomiaren aurkako **perifrasirik, mendeko perpausik** edo **itzulingururik** erabiliko. 
- 3.7. Arreta handiz prestatu behar dira elkarren segidako titularrak, **berez ez dagoen loturarik** ez sortzeko, edo kolektiboren baten estigmatizazioa ez sustatzeko.  
- 3.8. Titularren bideoetan **ez da sinadurarik agertuko**. 
- 3.9. Ahal dela, ez da **puntuazio-zeinurik** erabiliko titularretan. 
- 3.10. **Ulergarria izateko**, titularrak ez du beste informazio-elementu baten beharrik izango. Beste alde batetik, aintzat hartu behar da informazio baten titularra hainbat kanaletatik eta euskarri teknologikotatik zabaltzen eta kontsumitzen dela, eta titular horren atzipena **era askotako testuinguruetan** gerta daitekeela. 

B9. Albisteak

EITBren izaera multimediak eskatuta, hainbat hedabidetan, kanaletan eta hizkuntzatan argitaratzeko pres-tatu behar dira albisteak. Kasu guztietan, albistearen ezaugarri nagusiak berehalakotasuna eta laburtasuna dira, eta galdera hauei erantzun behar zaie: *zer, nork, noiz, non, nola eta zergatik*.

Testuingurua

- 1.1. Hizkuntza ekonomiaren printzipioa funtsezkoa da, infor-mazioz gainezka bizi baikara. Albisteak idazteko kontuan eduki beharreko irizpide nagusiak zehaztasuna, laburta-suna eta sintesia dira.
- 1.2. EITBren albisteetan nagusi izan behar dira bizkortasuna, hurbiltasuna, sinesgarritasuna eta estilo propioa. Kazetariak ezin dituzte inolaz ere islatu euren iritzia.

**“Berehalakotasuna,
laburtasuna,
hurbiltasuna”**

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Albisteak **edonork ulertzeko modukoa izan behar da**. Ezohiko hitzak justifikatuta dagonean bai-no ez dira erabiliko, eta, orduan, azaldu egin beharko dira. Ez da eufemismorik erabiliko, infor-mazioa ez iluntzeko.
- 2.2. **Hurbiltasuna adierazten duten esapideak** erabili behar dira. Adibidez, ahal den guztietan, adi-tza orainaldian jarri. Esapide batzuek bertatik bertara ari garela azpimarratzen dute: «oraintxe erabakitzeak dira...», «duela gutxi sartu da...» edo «ikusten duzuen bezala...».
- 2.3. Ahaleginak egin behar dira **gertatutakoaren bertsio guztiak** biltzeko. Edozelako gatazka bat dagoenean eta, beraz, jarrera bi edo gehiago daudenean, oso garrantzitsua da hala jokatzeko. Auzian diren alderdietako batekin harremanetan jartzerik ez badago, horren berri eman behar zaie ikus-entzuleei.
- 2.4. Albistearen sarreran, titularreko informazioa jaso eta osatu egin behar da. Eskuragarri dagoen in-formazioaren erritmo berean aldatu behar da sarrera. Beti erantsi behar da **eguneratze-ordua**. @
- 2.5. Albistearen **sarrera**, jarraipena egin duen kazetariak idatzi behar du. **Aurkezlearekin koordinatu** beharko du, informazioa ez errepikatzeko. Sarrerak arreta erakartzeko eta jakin-mina pizteko balio behar du. Albiste osoaren laburpena eskain dezake; edo albistearen parte bat baino ez, gainerako guztia ondoren eman dadin. 📺
- 2.6. Telebistan, albiste bakoitza minutubete ingurukoa izaten da. Kazetaria editoreak **ezarritako denborari** lotu behar zaio, helburua albistegia orekatzea izaten da eta. Hala ere, gomendagarri da malguago jokatzeko denboraren banaketan, formula berritzaileak probatu ahal izateko **kali-tatezko kazetaritzaren ildotik**. 📺

- 2.7. Albistearen **testua informatiboa** izan behar da. Ez da usterik edo iritzirik adierazi behar kontakizunean bildutako gertakariei buruz. Nolanahi ere, batzuetan, **esteka** bat ezar daiteke (testua, bideoa zein audioa), pertsona ospetsu batek gaiaz uste duenaren berri jakiteko. Aukera hori iritzi-generoen barruan baino ez da erabiliko, eta balio informatiboa, alegia, albistearen ulerpena handitu egiten duenean baino ez. @
- 2.8. Orain arteko gomendioek berdin balio dute eitb.eus-en: ideia bat bakarrik azaltzea paragrafo bakoitzean, esaldi laburrak erabiltzea, datua lehenestea izenondoen eta aditzondoen aldean, **piramide irauliaren** egitura erabiltzea (informazio garrantzizkoena lehen paragrafoan jarrita). Gainera, kontakizuna alferrik luzatzen duten digresioak baztertu egin behar dira. @
- 2.9. Albiste batzuetan, gaia dela eta, **beste narrazio estilo batzuk** erabil daitezke, erreportajeetan eta kroniketan ohi direnen modukoak. Hala egiten da albiste *arinetan*, aktualitatearekin hain loturik ez dauden gaiak lantzen baitituzte: gizarte-arazoak, giza intereseko edukiak, gertaera harrigarriak.
- 2.10. eitb.eus-ek **iturri irekiko kazetaritza** landuko du. Ahal den heinean, albistean aipatzen diren dokumentuen, idazkien eta ikus-entzunezkoen estekak jarriko dira. Gainera, hipertextuaren bidez, erabilitako informazio-iturriekin harremanetan jarriko ditu ikus-entzuleak. @
- 2.11. Denboran luzatzen diren informazioen kasuan, albistearen amaieran beti erantsi beharko da lehenago argitaratu diren albisteen titularren **estekak**. Esteka bakoitzaren xehetasunetan, argitaratze-data azaldu beharko da. @
- 2.12. Ikusizko elementuek ez dute informazioa azkar irakurtzea eragotzi behar. Testuko **irudiek, argazkiek eta baliabide tipografikoek** gertaeraren daturik garrantzitsuenetara gidatu behar dute ikus-entzuleen begirada. @

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Ezin bazaie galdera guztiei –zer, nork, noiz, non, nola eta zergatik– erantzun, ez da inolako **espekulaziorik** egin behar, batez ere gertaeraren kausei dagokienez. Halako kasuetan, galdera oraindino erantzun barik dagoela azalduko da.
- 3.2. **Sarrerak** informazio-unitate bat izan behar du. Sarreraren ulerpena inolaz ere ezin daiteke utzi titularren mende, ez albistearen testu nagusiaren mende, ez beste elementuren baten pen-tzudan. @
- 3.3. **Albistearen freskotasuna** azpimarratzeko, ezin daiteke erabili «erredakziora iritsi berri da...» edo antzeko esapiderik, guztiz egia izan ezean. Izan ere, ikus-entzuleek beste hedabide batzue-tara ere jotzen dute, eta albistea diogun bezain berria ez dela antzematen badute, sinesgarritasuna galduko dugu. @ @

- 3.4. Telebistako kontakizunaren abiapuntua **irudia** da, baina informazioa ez da irudien arabera **hautatu** behar. 
- 3.5. **Aipamenak, testualak** zein **ikus-entzunezkoak**, ez dira izan behar kazetariak esandakoaren errepikapena. Gainera, aipamenek ez dute aldatu behar iturriak aditzera emandakoa; mezua ezin daiteke izan zentzu bikoia edo okerreko interpretazioa eragiteko modukoa.
- 3.6. **Elementu multimedialak** baliabideak dira; ez dago nahitaez erabili beharrik. Albistean bideoak, irudiak, audioak, grafikoak eta beste elementu batzuk zentzurik gabe pilatzea, zer gertatu den ulertzeko lagungarria izan beharrean, oztopoa izan daiteke. 

Erreferentziak

- EITBren estilo liburua — VI. eranskina: ENG ekipoen bidez grabatzeko jarraibideak

B10. Elkarrizketak

Elkarrizketetan, EITB gertaeretako protagonistekin mintzatzen da, eta aktualitateko pertsonarik esanguratsuenak eta interesgarrienak aurkezten dizkie ikus-entzuleei. Elkarrizketa da generorik egokiena plataformen arteko sinergiarako.

Testuingurua

- 1.1. Elkarrizketan, elkarrizketatua da kontakizunaren protagonista. Kontakizun hori osatzeko, kazetariak ihes egin behar dio protagonismoari. Elkarrizketaren formatua aukeratzea, nor elkarrizketatuko duen, zer galdetuko dion, nola arituko den berarekin, eta elkarrizketak nondik nora joko duen, informazioaren profesionalari dagokio. Hortik aurrera, elkarrizketatuak erakarri behar du ikus-entzuleen arreta.

“Elkarrizketatua, protagonista”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Kazetariak elkarrizketaren inguruko xehetasun guztiak azaldu behar dizkio **elkarrizketatuari** (formatua, tonua edo erregistroa, aurreikusitako iraupena...), eta zer gai jorratuko diren ere aurreratuko dio, baina ez dauka zertan eman galderak aldezturik, eta ez du onartu behar debekurik edo mugarik gaien inguruan.
- 2.2. **Kazetariak askatasun osoa** du nahi dituen galderak egiteko albistearen inguruan. Era berean, elkarrizketatuak askatasun osoa du galderi erantzun edo ez erantzun erabakitzeke, eta, erantzutekotan, nahi duena esan dezake.
- 2.3. **Kazetariak bideratu behar du elkarrizketa**, ez elkarrizketatuak.
- 2.4. Elkarrizketatuari **begirunea** zor zaio. Kazetariak **interes informatiboa** duten gai guztiei buruz galdetu behar du, elkarrizketatuaren lehentasunak gorabehera. Hala ere, egin behar horrek ez du oldarkor edo mespretxuz aritzera eraman behar. Ildo beretik, kazetariak ez du lausenguetara jo behar, sinesgarritasuna galduko luke eta.
- 2.5. Oro har, kazetariaren lana inork ez erreparatzeko modukoa izan behar da, eta elkarrizketatuak eduki behar du **protagonismoa**. Horrek ez du esan nahi kazetariak **estilo pertsonala** landu ezin dezakeenik.
- 2.6. Kazetariak kameraren alboan jarri behar du, elkarrizketatuak **objektibotik hurbileko toki batera begira** dezan. Inondik inora ere ez dio begiratu behar kamerari zuzenean, ikus-entzuleei zuzenean hitz egitea bezalakoa izango litzateke eta. 
- 2.7. Pantailan kazetaria eta elkarrizketatua agertzen badira, biak egon behar dira **kameraren aurrean**. Elkarrizketatuaren anonimotasuna gorde behar izanez gero, arreta handiagoa emango zaio kazetariaren irudiari. 

- 2.8. **Elkarriketak** egitera **kalera** irtenez gero, solaskide bat baino gehiago dagoenean, ondo planifikatu behar dira planoak eta soinu-hartzea: zenbat mikrofono erabiliko diren, non egongo den kazetaria, norekin hitz egingo den lehenengo... 
- 2.9. Kontu handiarekin hautatu behar da elkarriketa **egiteko tokia**. Soinua, argiak, pertsonen igarotzea eta gainerako guztiak behar bezala atontzeaz gainera, kontuan eduki behar da tokia ondo egokitzen ote zaien gaiari eta zabaldu nahi den mezuari. 
- 2.10. Komenigarri da kazetariaren eta elkarriketatuaren **baliabide-planoak** grabatzea. Oso baliagarri dira editatzea egitean, *raccordari* begira. 
- 2.11. Idatzizko elkarriketetan, **hizketaldia grabatu egin behar da**, beti, nahasterik eta gaizki-ulerturik ez gertatzeko. Elkarriketa posta elektronikoz edo idatzizko beste euskarri batean egiten bada, oso-osorik gorde behar da. Garrantzikoa da elkarriketa zelan egin den azaltzea: aurrez aurre, telefonoz, posta elektronikoz edo beste modu batean. 
- 2.12. **Irakurleek eurek elkarriketak egitea** oso aukera ona da audientziak puri-purian dauden gaitan parte hartzeko. Halako elkarriketetan moderatzaile bat behar da, edukiarekin, formarekin edo tonuarekin bat ez datozen galdera eta iritzi desagokiak zentsuratzeko. 
- 2.13. Elkarriketatuaren aurpegia kasu batean bakarrik **estaliko da**: lekukotzak balio informatibo garbia edukirik lekukoaren segurtasuna arriskuan egon daitekeenean.  

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Ez da onargarria elkarriketako galderak **hitzartzea**.
- 3.2. Kazetariak ez du inolako **jarraibiderik** onartuko, ez gaiei buruz, ez elkarriketaren editatzeari buruz, ez elkarriketatuarengandik, ez haren irudi-aholkulariengandik, ez komunikazio-arduradunengandik. Halaber, ez die jaramonik egingo editatutako materiala **gainbegiratzeko eskakizunei**.
- 3.3. Ez da **galdera lausorik** egin behar, ezta orokorregirik ere. Izan ere, halako galderek elkarriketa bideratzeko eta, beraz, informazioa kontrolatzeko aukera ematen diote elkarriketatuari.
- 3.4. Ahal den neurrian, baztertzekoak dira ikus-entzuleentzat **erantzun ezaguna edo igartzeko modukoa** duten galderak.
- 3.5. Guztiz baztertzekoak dira **galdera topikoak** edo/eta **diskriminazio-ereduak** erreproduzitzen dituztenak («Nola moldatzen zara aldi berean Mahaiko presidentea eta hiru seme-alabaren ama izateko?»).

- 3.6. **Ikus-entzuleei keinu bat** egiteko aitzakian, kazetariak ez die kalterik egin behar elkarriketatua-
ren **duintasunari eta irudiari**. Saioaren tonuak eta kazetariaren estiloak markatuko dute nolakoa
den elkarriketa: edo galdeketa, edo hizketaldia, edo lagunarteko solasaldia.
- 3.7. Elkarriketaren **agertokia** edo elkarriketatua-
ren hondoko planoak ezin da ausaz hautatu, baina,
aukeraketa egiteko, ez da **sentsazionalismora** jo behar, eta ez da **helburu propagandistiko edo**
komertzialik erabili behar. Goi-agintari batekin edo interes nazionalerako gai bati buruz egin beha-
rreko elkarriketa ezin daiteke agertoki hutsal edo eguneroko batean eszenaratu.

Erreferentziak

- EITBren estilo liburua — VI. eranskina: ENG ekipoen bidez grabatzeko jarraibideak

B11. Kronikak

Kronika informatzeko berezko molde bat da. Generoaren ezaugarriak eta kronikariaren estiloa EITBren kutsuarekin bat eginda, informazioari gertutasuna, espezializazioa eta nortasuna eransten zaizkio.

EITBk kronika lokalaren eta nazioarteko kronikaren alde egin du. Albisteak jazo den lekuan egoteak eta ingurunea ondo ezagutzeak sinesgarritasuna ematen diote kontakizunari, eta errealitatea agertzeko ikuspegi berezia eskaintzen diete ikus-entzuleei.

Testuingurua

- 1.1. Kronika deritzon informazio-generoan gertaerak kontatu ez ezik, interpretatu ere egiten dira. Kronikak egiteko, kazetari adituak behar dira, ikus-entzuleekin konfiantzazko eta konplizitatezko harremanak ezartzeko gauza direnak. Kronikak egoera eta gertaera konplexuak ulertzen laguntzea du helburutzat.
- 1.2. Interpretazioa eta iritzia ez dira nahastu behar. Kroniketan iritziak albo batera utzi behar dira; zer gertatu den kontatzeari eman behar zaio lehentasuna.
- 1.3. Kroniken bitartez zer gai landuko den hautatzea EITBren informazio-eskaintzaren funtsezko ardatza da: gai lokalak edo nazioartekoak, politika, gizartea, kirolak edo kultura. Kronika oso moldakorra da, eta ibilbide luzeko albisteetan zein azken ordukoetan erabil daiteke, gai garrantzitsuetan zein giza intereseko istorioetan.
- 1.4. EITBren gai-agendan, kronikariak dira erreferentzia informatiboa.

“EITB, bertatik bertara”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Kronikan, uneko **giroaren** erakusgarri bat hartzen da kontakizunaren ardatz modura, eta bere **testuinguruan** txertaturik aurkezten da. Horrek esan nahi du ondo deskribatu behar direla lekuak, ingurunea, egoerak, espektatibak, eta izan litezkeen ondorioak.
- 2.2. **Kronikariak bere estiloa** landu behar du, euskarria gorabehera.
- 2.3. **Estiloari** erreparatuta, kronika beste informazio-genero batzuk baino **askeagoa** da. Kronika idatzietan, literaturako teknikak erabil daitezke. Bestalde, gaia zein den, ezohiko baliabideak edo adierazpen-elementuak erabil daitezke ikus-entzunezko kronikan: irudia geldotzea edo azkartzea, zuri-beltzeko irudiak, musika, e. a.

- 2.4. Kronikari ekiten zaionean, **tokiaz**, **denboraz** eta gertaera aipagarri egin duten inguruabarrez informatu behar da.
- 2.5. Kronikaren kontakizuna nika zein hirugarren pertsonan egin daiteke, edo, bestela, guka jardun daiteke, **ikus-entzuleak erakartzeko**.
- 2.6. Kronikariak, zer gertatzen ari den azaltzeaz gain, hitz egiteko aukera eman behar die **protagonistei** eta **lekukoei**.
- 2.7. Gertaeren kronikan, oso garrantzitsua da datuak **ikertzea eta informazioa egiaztatzea**, sentsazionalismoa eta morboa ekiditeko.
- 2.8. **Kirol-kroniketan**, iritziak eta emozioak bat egin dezakete informazio hutsarekin.
- 2.9. Kronika kokatzen duten **erreferenteak** behin baino gehiago aipatu behar lirateke: adibidez, pertsonen izenak, gertaera non izan den, eta gaia. 
- 2.10. Interneteko kronikei esker, generoaren **berehalakotasuna** eta **hurbiltasuna** hipertestuaren testuinguratze-ahalmenarekin uztar daitezke. 
- 2.11. **Bloga** pertsonala izaten da, eta aldizka eguneratzen da; horregatik guztiagatik, oso egokia da EITBko kronikarientzat. 
- 2.12. Oro har, idatzizko kroniken **titularra** informatiboa izan behar da, ez interpretatiboa. 
- 2.13. Kronikan kazetariaren ahotsa eta testuinguruaren eta giroaren gaineko informazioa elkartzen direnez, baliabide egokia da **pantaila zatitzea**, hots, aldi berean erakustea pantailan kazetaria eta gertaeraren edo tokiaren irudiak. 
- 2.14. Kazetaria gertaera izan den lekuan bertan dagoela azpimarratzeko, gomendagarri da hasieran **statement** edo **stand up** bat egitea, kazetariak atzean informazio edo erreferentzia moduan bali dezakeen hondo bat duela. 
- 2.15. Gertakizun garrantzitsuei buruzko zuzeneko kronika **minutuz minutuko formatua** erabiliz egin daiteke. Esaldi laburrei eta etengabeko eguneratzeari esker, informazioa bertatik bertara eman daiteke, bai eitb.eus-en, bai sare sozialetan. 

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Adi: norberaren estiloa lantzea eta interpretazioa ez dira **iritziarekin** nahastu behar; genero honetan, iritzia onartezina da.

- 3.2. Kronikariak profesional adituak izaten dira, baina kronikak ez dira ikus-entzule espezializatuentzat egiten. Aitzitik, kronikak edonork **ulertzeko modukoak** izan behar dira.
- 3.3. Gainera, kontakizuna norberaren estiloan egiteak ez du esan nahi kazetaria informazioaren **protagonista** bihur daitekeenik.
- 3.4. Kronikan, **kazetaria** da **ardatza**, eta, beraz, kronikari ekiteko edo amaiera emateko, ez da komeni inoren adierazpenak erabiltzea. Irratian, adierazpen batzuk txertatu aurretik, hizlaria identifikatu egin behar da.  
- 3.5. Kronikak ez dira **luzeegiak** izan behar. Monotonia hausteko, funtsezkoa da kontakizuna zatika ematea, baina jarraitutasuna bermatuta. Gaurkotasun-gai batek kronika luzea behar badu, hainbat formula baliatuko dira, hala nola aurkezleak egitea adierazpenen sarrera, edo kronikaren barruan azaltzea galderak egiten. Erritmoari eusteko, ahotsak txandakatu egin behar dira.  
- 3.6. Gertaeren kronikan, oso garrantzitsua da inolako **iritzirik** ez ematea eta **espekulaziorik** ez egitea protagonisten asmoez edo gertakariaren zergatiez. Lekukoen, kaltetunen eta senitartekoen adierazpenetatik, balio informatiboa edo, kasu berezietan, emotiboa dutenak hautatuko dira.

Erreferentziak

- EITBren estilo liburua — VI. eranskina: ENG ekipoen bidez grabatzeko jarraibideak

B12. Irudien eta soinuaren grabazioa, toki publikoetan eta pribatuetan

Irudiak eta soinuak grabatzen direnean, zorrotz errespetatu behar da indarrean dagoen legeria; besteak beste, jasota dauzkan funtsezko eskubideak: ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea, eta norberaren irudia.

Irudiak kopiatzea eta zabaltzea hain erraza izanda, ia ezinezko egiten da pertsona bati anonimotasuna itzultzea.

Testuingurua

- 1.1. Gaur egun, esparru publikoaren eta esparru pribatuaren arteko muga guztiz lausotuta dago, eta horrek zail egiten die kazetariei, eguneroko lanean, gorago aipaturiko eskubideak urratzen ari diren ala ez jakitea.
- 1.2. Nolanahi ere den, pertsonak kasu hauetan grabatzea baimentzen du legeak:
 - Kargu publiko batean edo ospe handiko lanbide batean ari direnean, baldin eta irudiak ekitaldi edo toki publiko batean grabatzen badira.
 - Pertsonaren irudia osagarria baino ez denean.
- 1.3. Zalantzarik izanez gero, EITBko profesionalek ez dute egingo inoren irudi-eskubidea urra dezakeen grabaziorik.

"Informazioa jasotzeko eskubidea. Norberaren irudirako eskubidea"

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Ezinbestean, **baimena** beharko da toki pribatuetan grabatzeko, eta toki publikoetan grabatzeko ere bai, intimitate-eskubidea urratzeko arriskua egonez gero. Esaterako, erlijio-esparruak, ikastetxeak, merkataritza-guneak, aireportuak, ospitaleak eta antzekoak publikoak dira, baina toki horietan egiten diren jarduerak pertsonen pribatutasunari edo intimitateari atxikita daude. Horrelako tokietan grabatzeko, lehenbizi **informazio-eskubidearen** eta **intimitate- eta irudi-eskubideen** arteko **balantzea** aztertu behar da.
- 2.2. Arreta bereziarekin jokatu behar da adingabeak, segurtasun-indarretako kideak, mehatxatutako pertsonak edo dena delako arrazoiatatik izena **isilpean** gorde behar zaien pertsonak grabatzean. Editoreak neurtu beharko du grabazio horren balio informatiboa, eta berak erabakiko du emititu ala ez. Emititzekotan, beharrezko baliabide teknikoak erabiliko dira (pixelatzea, lausotzea...), anonimotasuna bermatzeko.
- 2.3. Baimenduta dago bide publikotik **eraikinen kanpoaldea** grabatzea. Hala ere, segurtasunari eta militarren instalazioei lotutako eraikinak grabatu nahi direnean, hobe da **idatzizko baimena** eskatzea.
- 2.4. Prentsaurrekoetan, elkarrizketetan, erakunde-zeremonietan eta antzeko ekitaldietan agertzen diren **segurtasun-indarretako** kideak mugarik gabe graba daitezke. Gainerakoan, irudiak pixelatu barik emitituko dira, betiere segurtasun-indarren aldetik bestela egiteko eskakizuna etortzen ez bada.  

- 2.5. **Poliziaren hesia** errespetatu egin behar da –bide batez esanda, hesiak bakarra behar luke komunikabide guztientzat–. Informazioa jaso beharra dela eta, gerta liteke poliziak hesitutako esparrutik bertatik grabatu behar izatea. Halakoetan, aurretik polizia-arduradunaren baimena eskuratu behar litzateke.
- 2.6. **Zigilu judizialak** ezinbestean errespetatu behar dira, beti.
- 2.7. Informazio-ekitaldietan, esate baterako, prentsaurrekoetan edo platoko elkarrizketetan, pertsonaren bati **oharkabeaz zerbait grabatzen** bazaio, grabazioa interes publikoaren arabera erabiliko da.
- 2.8. Baldin eta EITBren eskuetara iristen bada **baimenik gabe grabatutako ikus-entzunezko materiala**, berorren emisioak Zuzendaritzaren berariazko baimena beharko du.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. EITBk ez du emitituko **iruzurren edo gezurren bidez** lortutako irudirik edo soinurik.
- 3.2. Bizitza pribatuari lotutako irudiak grabatzeko **baimena** lortze aldera, ez dira pertsonaren **ahultasuna, kalteberatasuna** edo **babesgabetasuna** baliatu behar.
- 3.3. **Ezkutuko kameraz** grabatzea mutur-muturreko baliabidea da, kasu berezietarako baino ez. Ikerketa-kazetaritzan bakarrik egon daiteke justifikatuta. Izan ere, horrelako kasuetan, informazio-eskubideak eta albistearen interes publikoak dute lehentasuna, beste gauza guztien aldean. Ezkutuko kamera erabiltzeko, Albiste Zuzendaritzaren baimena lortu behar da, EITBko Zerbitzu Juridikoaren aholkuan oinarrituta.
- 3.4. **Teknologiak** ez du **intimitatea urratzeko** biderik eman behar, ezta toki publikoetan ere. EITBko profesionalak ezin dezakete teleobjektiborik edo irismen luzeko mikrofonorik erabili, irudi eta soinu pribatuak grabatzeko. Esaterako, telefono bidezko hizketaldiak eta mugikor bidezko SMSak pribatuak dira.
- 3.5. Gainera, EITBk ez du **pertsona ospetsuen bizitza pribatuko irudirik** zabalduko, nahiz eta toki publikoetan grabatuak izan. Adibidez, agintari politikoak ez dira grabatuko hondartzan familia-rekin daudela.
- 3.6. Informazio orokorra ilustratzeko bide publikoan dabilzan pertsonak grabatzen direnean (**baliabide-planoak**), pertsonok ez ezagutzeko moduan egin behar da grabazioa, batez ere albisteak beroriekin zerikusirik ez badauka, edo gizarteak gaitzesten dituen jokaerak edo egoerak azaltzen badira.
- 3.7. Telefono bidezko edo bideo-atezain bidezko hizketaldia grabatzen denean, emititu aurretik **baimena** lortu behar da; bestela, ahotsa distorsionatu egin behar da.
- 3.8. Ez da **sare sozialetan** jasotako informaziorik zabaldu behar, foro publikoetan azaldu ez bada.

B13. Gertalekutik berri ematea

EITBko profesionalak albistea gertatzen den lekuan bertan egoteak berrindartu egiten ditu sinesgarritasuna eta hurbiltasuna. Aldi berean, profesional horiek euskal irrati-telebista publikoaren markairudia bilakatzen dira.

Testuingurua

- 1.1. Kazetari batek eta grabazio-talde batek albistearen berri gertalekutik bertatik ematen dutenean, informazioa sinesgarriago egiten da, eta ikus-entzuleek informazio gehiago eta hobeago jasotzen dutela sentitzen dute. Horregatik, gomendagarri da kazetaria pantailan agertzea, gertaeren lekuko izan dela, albistea jazo den tokia ezagutzen duela, edo/eta lehen eskuko informazioa duela adierazteko.

“EITB albistearen muinean”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Profesionalek, albistea gertatu den lekuan bertan daudenean, gogoan izan behar dute EITB markaren irudi bihurtzen direla, eta lan egiten duten **hedabidearen ordezkariak** direla. Beraz, kazetarien jokabideak bat etorri behar du Estilo Liburu honetan jasotako printzipio orokorrekin eta balioekin.
- 2.2. **Segurtasun-neurriak** behar diren lekuetara doazen kazetariak argi erakutsi behar dute neurriak aplikatzen ari direla. Esaterako, nahitaezkoa da autoan segurtasun-uhala erabiltzea, eta motoz, bizikletetan eta obretan kaskoa janztea, indarrean dagoen legeriak hala agintzen duelako, eta kazetariak ereduak portaera erakutsi behar duelako.
- 2.3. EITBko profesionalak EITBko profesional gisa **identifikatuko dira beti**, euren segurtasuna arriskuan jar daitekeen egoeretan izan ezik. Identifikatzeko, erakundearen logoa daramaten mikrofonoak erabiliko dira, edo, behar izanez gero, kazetari-txartela erakutsiko da.
- 2.4. EITBko profesionalak **garaiz** agertu behar dira informazio-ekitaldietara eta informazio-iturriekin adostutako hitzorduetara. Berandu iristeak arriskuan jartzen du berriaren jarraipena, eta, gainera, zalantzan jar dezake EITB markaren irudia.
- 2.5. Kazetariaren **statement** edo **stand up** bat grabatzeko (kazetaria albistearen gertalekuan bertan grabatzeko), VI. eranskineko gomendioak bete behar dira: ENG ekipoen bidez grabatzeko jarraibideak, 195. or. 
- 2.6. Albistegietako aurkezleen **jantziek** soilak izan behar dute, ezaugarri hori, tradizioz, sinesgarritasunari lotzen zaio eta. Gogoan eduki behar da neutraltasuna eta inpartzialtasuna direla kazetaritzaren oinarritzeko printzipioak, eta, beraz, janzkeran ere zaindu behar direla. Edonola ere, estilista-taldeak hautatzen duen jantziak bat etorri behar du pantailan ageri den profesionalaren **estilo pertsonalarekin; naturaltasuna** eragotzi barik, betiere. 

- 2.7. Albistegietan, kazetaria ez da sekula albistearen protagonista izango; beraz, kazetariaren **itxuraren** eta **janzkeraren** ezaugarri nagusia **diskrezioa** izango da, eta bata zein bestea **egokiak izan behar dira gertakarien lekurako**. Ezin da berdin jokatu bulego ofizial bateko elkarrizketa batean, elurpean egiten den zuzeneko konexio batean, edo herriko jaietako pregoia irakurtzeko konexioan. Hala ere, horrek ez du esan nahi kazetariak gertaerarekin guztiz bat jantzi behar duenik, edo mozorrotuta joan behar duenik. Hauteskunde-gauak edo zinema-sariak banatzeko ekitaldiak ere ez dute janzkera bera eskatzen.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Gertatutakoaren irudirik ez badago, beharrezko baliabidea izan daiteke gertalekuan bertan egitako **dramatizazioa**. Hala ere, dramatizazioaren bidez ez da **tratamendu ikusgarriagoa** bilatu behar, aukera soil eta zorrotzagoen aldean. Era berean, dramatizazioa oinarritzeko, ez da ikertu edo epaitu beharreko gertaerei buruzko hipotesirik erabiliko. Horrela, bahiketa edo lapurreta bati buruzko irudirik ez dagoenean, albistea lantzen ari den kazetariak ezin dezake egiazkotzat jo gertaeren bertsio jakin bat, eta, horretan oinarrituta, lekukoak edo iritzi publikoa nahastu. 
- 3.2. Informazioa lortzeko, guztiz baztergarriak dira **portaera oldarkorrek edo iraingarriak**, bai informazio-iturriekiko harremanetan, bai beste hedabide batzuetako profesionalekiko harremanetan.
- 3.3. **Gertaerak jazo diren lekutik**, kalte-dunengandik edo lekukoengandik **hurbil egoteak** ez du gure neutraltasuna arriskuan jarri behar. Kazetariak ez dute gertaeretan parte hartu behar, eta ez dute iritzirik edo uste pertsonalik eman behar. Infotemimendutzat jotzen diren saioetan soilik har dezakete parte kazetariak gertaeretan.
- 3.4. Ez da **EITBko kide izatea** baliatuko gertakizunen lekuan onurarik edo **pribilegiarik** lortzeko: lehenentasuneko sarbidea, opariak, e. a.
- 3.5. EITBko kazetariak –batik bat indarkeria nagusi den lekuetan lan egiten dutenek– ez dute euren eta inguruko **segurtasuna** arriskuan jarri behar irudi eksklusiboak lortzeko.
- 3.6. **Zuzeneko konexioetan**, arreta handiz jokatu behar da inguruko elementuen eraginez **nahi ez den irudirik ez emateko**.

Erreferentziak

- EITBren estilo liburua — VI. eranskina: ENG ekipoen bidez grabatzeko jarraibideak

B14. Artxiboko materiala

EITBren Dokumentazio eta Artxibo Zerbitzuak berebiziko lana egiten du Euskal Herriko ikus-entzunezko ondarea dokumentatzen eta zaintzen.

Sistema digitalek oso eskuragarri egin dituzte ikus-entzunezko materialak, eta, horren ondorioz, gero eta gehiago erabiltzen dira. Horregatik, behar-beharrezkoa da artxiboko materialen erabilera arautzea, bai kazetaritza-kalitatearen aldetik, bai lege-arazoen aldetik, batik bat emisio-eskubideei eta beste ustiapen-eskubide batzuei dagokienez.

Testuingurua

- 1.1. Artxiboa ezinbesteko baliabidea da albistegiak prestatzeko eta ikus-entzunezko memoria historikoa osatzeko.
- 1.2. Horregatik, albiste-saioetan erabiltzen diren material nagusiak erregistratu eta dokumentatu egiten dira, noizbait berriro beharko balira ere, eta komunikazio-profesionalen esku jartzen dira.

**“Informazioaren
testuingurua eta
ikus-entzunezko
ondarea”**

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Artxiboko materiala erabiliz gero, argi eta garbi azaldu behar da **teleprinter bidez edo ahoz**, batez ere nahasteko arriskua badago.
- 2.2. Gainera, **artxiboko materiala ondo ulertzeko** behar diren datu guztiak adierazi behar dira, *teleprinter bidez edo ahoz*: data, lekua, e. a.
- 2.3. Materiala EITBtik kanpoko iturri batetik lortu bada, **jatorria** zehaztu behar da. Hala gertatzen da poliziek eta beste erakunde batzuek ematen dituzten irudien kasuan.
- 2.4. Arretaz erabili behar da **inpaktu handiko materiala**, hots, oinazea edo indarkeria islatzen duena. Beraz, albistegi batean ezbehar baten urteurrena oroitzen denean, nahikoa izango da plano orokorrak eta neutroak ematea. Dokumentaletan eta erreportaje landuetan, oster, baliteke dagoen material guztia erabili behar izatea. Nolanahi ere, ahaleginak egin behar dira pertsonak identifika ditzakeen elementurik ez pantailaratzeko.
- 2.5. Artxiboko materialaren erabilerak Estilo Liburu honetan ezarri diren **ildo editorialak** bete behar ditu, batik bat indarkeriari, adingabeen babesari eta intimitate-, ohore- eta irudi-eskubideei dagokienez.

- 2.6. Artxiboko materiala **helburu satirikoarekin** erabiliz gero, hedabidearen tratamendu informatiborako jarraibideak eta ildo editoriala errespetatu egin behar dira. Ez dago «Artxiboko irudiak» idazkuna ipini beharrik, baina, edozelan ere, saioaren testuinguruak argi utzi behar du materiala infotenimendurako erabiltzen dela, arduradun editorial batek ikuskatuta.
- 2.7. eitb.eus-en artxibo digitalak **testuingurua** eman diezaioke aktualitateari. Ahal den neurrian, albiste bakoitzari gai beraren gaineko albiste zaharragoen **estekak** erantsiko zaizkio. Bakoitzak bere data izango du, edukia irekitzean xehetasunen artean ikusiko dena. @
- 2.8. Gaur egungo gertaeren berri emateko **irratiko eta telebistako edukiak** erabiltzen direnean, datu hauek zehaztu behar dira: edukiok hartu diren saioaren izenburua, noiz eman zen, eta informazioa ondo ulertzeko behar diren beste guztiak. @
- 2.9. Artxiboko edukiak ezin daitezke eraldatu edo ezabatu, baldin eta **legezko arrazoirik** ez badago, pertsona baten edo talde baten osotasun fisikoa arriskuan ez badago, edo EITB Taldearen printzipio editorialekin kontraesanik ez badago. Edukia ezabatu baino, hobe da aldatzea. Nolanahi ere, eduki-aldaketen eta ezabaketen berri emango zaio audientziari. @
- 2.10. Aparteko kasuak dira **berremanaldia** –ez multidifusioa– eta amaitutako piezak berriz erabiltzea saio berriak osatzeko. Horrelakoetan, edukia lehen aldiz noiz eman zen adierazi behar da, edo, bestela, informazioa ondo ulertzeko behar diren datu guztiak zehaztu behar dira. Iragana ironiaz edo umorez erakusten duten saioek maiz baliatzen dute artxiboko materiala, baina *ikus-entzunezkoen egungo kulturari* jarraiki egin behar dute; adibidez, irudi odoltsuen gordintasunaren aurreko tolerantzia-maila nabarmen aldatu da azken hamarkadetan.
- 2.11. Aintzat hartu beharrekoak dira artxiboko materiala **babesteko eta zaintzeko** gomendio juridiko, administratibo eta tekniko guztiak.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Ahal den neurrian, ez da artxiboko materialetara jo behar irudi berriak **grabatzea saihesteko**. Kaletik dabilen jendearen, jolastokian ari diren umeen, errepidetik doazen txirrindularien edo abarren baliabide-planoak behar badira, hobe da kalera irten eta irudi berriak grabatu, horrelako irudi neutroak artxiboan eskatu baino, irudi berberak **behin eta berriro** erabiltzeko arriskua dago eta. @ @
- 3.2. Gai orokor bat ilustratzeko, irudi berak behin eta berriro erabiltzea ez da batere erakargarria eta, gainera, gaiaren inguruko **ideia desitxuratuak** edo estereotipo desagokiak sor ditzake. @ @

- 3.3. **Titularretan** ezin daiteke artxiboko materialik erabili, pisuzko arrazoiak daudenean izan ezik.  
- 3.4. Gai orokorrean dihardugunean, baztertzekoak dira **konnotazioz beteriko** edo **nabarmentasun handiko** gertakarien irudiak. Adibidez, gazteriaren heriotza-tasaz aritzeko, guztiz desegoki da motor-gidari ospetsu bat lasterketa batean hil zeneko irudiak erabiltzea.  
- 3.5. Era berean, gai orokorrean aritzeko, baztertzekoak dira **erraz ezagutzeko moduko** erabiltzaile, marka, enpresa, toki, ingurune eta abarren irudiak, baldin eta pantailara ateratzeagatik haien irudia faltsutzen bada —onerako zein txarrerako—.  
- 3.6. Halaber, kontuan eduki behar da balitekeela pertsona batek, behin **bere irudia grabatzeko baimena** eman arren, grabatutakoa berriro agertzeko eragozpena izatea, batik bat, gai jakin batzuei dagokienez (gaixotasunen bat, adikzioen bat).  
- 3.7. Portaera marjinal batean, **jokamolde estigmatizatu batean** edo **gizarteak gaitzetsitako jokabide batean** ari diren pertsonak identifikatzeko moduan erakusten dituzten artxiboko materialak ez dira emititu behar.  

Erreferentziak

- *Irudi mugikorrak herrien kultur nortasunaren adierazpideak dira, eta nazioaren kultur ondarearen parte dira hezkuntzan, kulturean, artean, zientzian eta historian duten balioagatik* (Irudi mugikorrak babestu eta zaintzeari buruzko gomendioa - UNESCO)
- Gehiago jakiteko: <http://www.fiatifta.org>

B15. Besteren materiala

EITBren informazio-eskaintzaren barruan beste batzuek grabaturiko edo prestaturiko saioak edo materialak eskainiz gero, kalte egin dakioke EITB markaren sinesgarritasunari.

Testuingurua

- 1.1. Kasu batzuetan, justifikatuta egon daiteke besteren material informatiboa erabiltzea, baina jakitun egon behar dugu horren ondorioz profesionalek autonomia eta independentzia gal dezaketela. EITBn kanpoko materiala erosten eta programa-tzen duten profesionalek berorren egiazkotasuna eta fidagarritasuna kontrastatu eta bermatu behar dituzte.
- 1.2. Komunikazio-kabinete eta -bulegoek banatzen dituzten grabazioak haien komunikazio-planaren parte dira, eta ez dute zertan bat egin, ez EITBren beharrianekin, ez EITBren ildo editoria-larekin.

“Jatorriaren
fidagarritasuna eta
aipamena”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Hirugarrenek grabatu edo landutako irudiek, soinuek eta infografiek, **jarraibide editorial** orokor-rrak bete behar dituzte EITBn emititu ahal izateko. Besteak beste, intimitatearen babesa, erruga-betasun-presuntzioa, inpartzialtasuna eta neutraltasuna bermatu behar dira.
- 2.2. Beti eman behar da irudien **jatorriaren** berri, ahoz edo idazkunez («X-k utzitako irudiak»).  
- 2.3. Ez dago eragozpenik **besteren material hauek** erabiltzeko:
 - Beste baliabide batzuen bidez lortu ezin diren **zientzia-irudiak**, kazetaritza-interesa badute.
 - Segurtasun-indarrek, **segurtasun-kamerek**, **larrialdi-zerbitzuek** edo **segurtasun-zerbitzu pribatuek** grabatutako irudiak, EITBko profesionalek edo beste hedabide batzuetako profesionalek grabatzerik izan ez badute.
 - Ezusteko gertakizunen **lekuko** direnek grabatutako irudiak, edo kamerari profesionalek grabatu ezin izan dituzten irudiak.
 - Ikastetxe, gizarte-elkarte edo **beste informazio-iturri batek** grabatutako irudiak, beroriei esker kalitatezko informazioa landu ahal bada.
 - **Kultur ekitaldiak** (zinema-estreinaldiak, erakusketak...) jasotzen dituzten irudiak, kultur ekitaldiok albiste bihurtzeko modukoak badira.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Besteren irudiak edo soinu-materialak erabili ahal izatea ez da edukiak **doan lortzeko** bide bihurtu behar.
- 3.2. Besteren materiala ez da **salerosiko**.
- 3.3. Publizitate- eta irudi-kanpainetan ohiko praktika izaten da ikus-entzunezko edukiak doan lagatzea. EITBko profesionalek, horrenbestez, arreta handiz jokatu behar dute eduki horien tratamendu informatiboa ez dadin geratu helburu **promozional, propagandistiko** edo **komertzialen** menpe.
- 3.4. Gero eta ohikoagoak diren **bideokomunikatuak** ez dira inoiz osorik emango; zenbait irudi hartzeko erabil daitezke, baina ikus-entzuleei horren berri jakinarazita.
- 3.5. **Internet bidez eskuratutako besteren edukiak** emititzeko, eskubideetatik libre daudela egiaztatu behar da. Irudi batzuk sarean libre ibiltzeak ez du esan nahi EITBn beste barik emiti daitezkeenik. Kazetariak informazio-iturriaren fidagarritasuna egiaztatu beharko du, eta edukiok publikagarri diren argitu beharko du, Estilo Liburu honetan jasotako gomendioak aintzat hartuta.
- 3.6. Segurtasun-indarrek bidalitako irudietan, komenigarri da haien logo korporatiboaren ordeztatzeko hau jartzea: «**X-k utzitako irudiak**». Bestela, pentsa daiteke albisteak bi edo hiru sinadura dauzkala.  

B16. Sare sozialak

EITB sare sozialetan egonda, erabiltzaileak fidelizatzea, marka-irudia promozionatzea, eta Internetetik Taldearen beste hedabideetara igarotzeko bidea erraztea lortu nahi da. Horretarako, komunikazio-zerbitzu publiko integrala, profesionala eta bikaina eskaini behar da.

Testuingurua

- 1.1. Sare sozialen funtzionamendu-printzipioak komunikazioa, komunitatea eta kooperazioa dira. Sare sozialek komunikabideetatik euren foroetara lekualdatu dituzte agenda mediatikoa eta iritzi publikoan eragiteko gaitasuna. Kazetaritzak darabiltzan hautapen- eta hierarkizazio-irizpideen ordez, informazioaren iragazpen kooperatiboaz baliatzen dira.

“Sare sozialak:
komunikazioa,
komunitatea”

- 1.2. Hala izanda, hedabideek gogoeta sakona egin behar dute sare sozialetara daramaten komunikazio-estrategiaz, batzuen eta besteen antolamenduak oinarritzen dituzten kontzeptuak ezberdinak baitira, eta, batzuetan, kontrakoak. Hedabideekin lotzen diren kontzeptuak: lehia, informazio-iturri itxia, bat-asko komunikazioa, interes publikoa, eta sinesgarritasuna. Sare sozialekin lotzen direnak: kooperazioa, informazio-iturri irekiak, bat-bat komunikazioa, publikoaren interesa, eta eragina.

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Taldeko profesionalak, sare sozialetan **EITBko marken** izenean jarduten dutenean, zerbitzu publikoaren eta gizarte-erantzukizunaren printzipio orokorre egingo diete men. Era berean, Estilo Liburu honetan jarduera profesionalerako jaso diren jarraibideak bete behar dituzte.
- 2.2. EITBko informazio-profesionalak jaramon egingo diete EITBren **Hedabide Sozialetarako Planean**²⁶ jasotzen diren gidalerroei eta talde arduradunak ematen dituen gomendio eta jarraibideei.
- 2.3. EITBk **sare sozialetan** dauzkan **kontuak** edukien, interakzio aktiboaren eta elkarrekiko hizketaren promozioan erabiliko dira, markaren irudia indartzeko eta **audientzia handitzeko** helburuarekin.
- 2.4. EITBk sortuko ditu EITBren marka/produktu (programa, ekimen...) baten izenean sare sozialetan zabaltzen diren kontu guztiak, eta *Hedabide Sozialetarako Planean* jasotako irizpideei jarraituz kudeatuko dira. **Interneteko presentzia integrala** izango da, eta sare sozialetan ez da inolako konturik zabalduko, markak edo produktuak eitb.eus-en lekuri ez badauka.
- 2.5. EITBko kazetarien **kontu profesionalak** eta **kontu pertsonalak** argi eta garbi bereizi behar dira.

²⁶ Dokumentua Tortolikan, EITBren intranetean, eskura daiteke.

- 2.6. EITBk kudeatzen dituen kontuetan, [eitb.eus-en argitaratutako edukietarako estekak](#) jarriko dira. Taldetik kanpoko komunikabideetarako estekak ere jar daitezke, dena delako edukia EITBren webgunean ez badago.
- 2.7. EITBtik kanpoko esteka bat jarri behar dutenean, EITBko profesionalak informazioetan erabiltzen dituzten [egokitasun informatiboko](#) printzipio berberak erabiliko dituzte.
- 2.8. Sare sozial batean argitaratutako edukiak informazio-iturri gisa erabiltzen badira, [pantaila-kaptura](#) baliatuko da, gerora ezaba daitezkeen iruzkinak edo beste eduki batzuk dokumentatzeko. Kapturak argitaratzean, Interneteko pribatutasun-arauak bete behar dira.
- 2.9. Komunikabideen eta sare sozialen arteko harremanak [noranzko bietan](#) gertatu behar dira: irratian, telebistan eta webgunean sare sozialetako jardueren berri eman behar da, eta sare sozialek EITBren edukiak sustatu behar dituzte. Albistegietako idazkUNETAN, aukeran dago Taldearen webgunearen helbidea ipintzea, edo hedabidearena, edo programarena.
- 2.10. Sare sozialen bitartez [ikus-entzuleekin](#) egiten den [elkarrizketak](#) berezko hizkuntza-erregistroa dauka, eta horretara egokitu behar du.
- 2.11. Sare sozialak toki egokia dira gertaeren jarraipena zelan egiten den azaltzeko, eta ikus-entzuleak EITBren lan-moldearen jakitun ipintzeko. Era horretako informazioek gardentasuna transmititzen dute, eta [hedabidearen nahiz bertako profesionalen konplize](#) egiten dituzte ikus-entzuleak.
- 2.12. Salbuespen modura, gertaera baten lekuko diren kazetariak [zuzenean informa dezakete sare sozialen bitartez](#), aurretiaz editoreak horretarako baimena emanaz gero.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Sare sozialen [berehalakotasuna](#) dela eta, ez da informaziorik emango [aurretiaz egiaztatu eta ziurtatu ezean](#).
- 3.2. EITBk sare sozialetan irekitako kontuetan ez da albisterik argitaratuko, harik eta eitb.eus-en edo Taldeko beste hedabide batzuetan argitaratu arte. Hala ere, [informazio-alertak](#) zabal daitezke sare sozialen bidez, edukiak sustatzeko helburuarekin eta EITBren marka-irudia zerbitzu publiko eraginkor eta berehalako modura erakusteko helburuarekin.
- 3.3. EITBren kontuetan, profesionalak ez dute [euren bizitza pribatua](#) aipatuko. Era berean, ez dute emango lantzen dituzten informazioei buruzko iritzirik. Izan ere, sare sozialetan egiten denak ez ditu zalantzan jarri behar profesionalen neutraltasuna, independentzia eta sinesgarritasuna.

- 3.4. EITBko profesionalek, **euren kontu pertsonaletan, ez dute erabiliko** EITBk artean aireratu ez duen edukirik.
- 3.5. Sare sozialetan parte hartzen denean, uko egin behar zaio kritikei erantzuteari, baldin eta erantzuteak EITBren oinarrizko jarraibideen aurkako **polemikak edo eztabaidak** pizten baditu. Nolanahi ere, sare sozialak tresna egokiak izan daitezke gaizki esandakoak zuzentzeko. Profesionalek **entzute aktiboa** egingo dute, kontsultei erantzuteko, zalantzak argitzeko, eta iritziak edo kritikak monitorizatzeko.

Erreferentziak

- EITBren Hedabide Sozialetarako Plana (*Social Media Plan*). "Tortolika" EITB Taldearen intranetean eskuragarri: Tortolika > Taldeko informazioa > Proiektuak eta planak

B17. Herritarren parte-hartzea

Parte-hartzeko tresnen bitartez, EITBk ikus-entzuleen konfiantza sendotu, audientziarekiko lotura indartu, entzute aktiboa ahalbidetu, eta herritarrekiko interakzioa sustatu nahi du. Parte-hartzea bultzatzeko konpromiso hau interes publikoko gaien debatearekin eta EITBren gizarte-erantzukizunarekin dago lotuta.

Testuingurua

- 1.1. Komunikabide baten eskaintza interaktiboak audientziaz zer kontzeptu duen erakusten du: edo ikusleak/entzuleak/zibernautak, edo kontsumitzaileak, edo herritarrak. Audientziarekin zer harreman duen ere agertzen du, alegia, parte-hartzea arrazoi zibiko, ludiko, intelektual, emozional edo ekonomiko batengatik bultzatzen duen.
- 1.2. EITBk helburu hauekin bultzatzen du herritarren parte-hartzea: erabiltzaileak informazioa bidaltzera animatzeko, aktualitateko gaien gainean duten iritzia biltzeko, agenda informatiboa ikus-entzuleekin batera lantzeko, eta *komunitatea* sortzeko.
- 1.3. Herritarren parte-hartzea era askotara bidera daiteke: sare sozialak, entzulearen telefonoa, iradokizunak, blogak, irudiak edo bideoak bidaltzea, informazio-piezak bidaltzea (adib. *Zu Kazetari*), lankidetzaproiektu batean parte hartzea (adib. *world kafea*), aktualitateko gaiei buruzko inkestak, elkartasun-kanpainak, gaien jarraipena egiteko iradokizunak bidaltzea, pertsona eza-gunei egin nahi zaizkien galderak bidaltzea, telefono-deiak, *smsak*, eta abar.

“Komunitate aktiboa”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Herritarren parte-hartzeak **pluraltasun** politiko, erlijioso, kultural eta linguistikoa **errespetatu** behar du.
- 2.2. **Parte-hartzailearen identitatea** nahitaez argitaratu behar da parte-hartzeko era guztietan, iruzkinetan eta inkestetan izan ezik.
- 2.3. Gaurkotasuneko albiste bati buruzko eztabaidagunea antolatzen denean, **moderatzaileak** hautatu eta antolatuko ditu erabiltzaileen ekarpenak, interes publikoaren, garrantzi informatiboaren eta EITBko audientzia ordezkatzeko gaitasunaren arabera.
- 2.4. Parte hartzeko gune guztietan agertuko dira **EITBren irudia eta marka**. Sare sozialetan eta mugikor bidezko SMSetan erabiltzen diren akronimoek argi eta garbi adierazi behar dute zein saio, hedabide edo arlori dagozkion.

- 2.5. Argi bereizita aurkeztu behar dira **EITBk landutako edukiak** eta **ikus-entzuleek bidalitako edukiak**.
- 2.6. Edukiak **interes informatiboari** jarraiki argitaratuko dira, eta moderatzaile batek aztertuko ditu aurretik edo ondoren. Ideien debatea edo informazio egokiaren ekarpena sustatu nahi denean, onuragarria izan daiteke **parte-hartzea modu aktiboan dinamizatzea**.
- 2.7. Herritarren parte-hartzeak sortzen dituen edukiak argitaratzea erabaki behar denean, aintzat hartu behar da EITBk konpromiso bat duela *iturri irekiko* eta **noranzko biko kazetaritzarekin**. Konpromiso horri esker, bermaturik dago herritarren parte-hartzeak sortzen dituen edukiak argitaratu egingo direla.
- 2.8. EITBk etengabeko jarraipena egiten dio **ikus-entzuleekiko elkarrizketari**. Herritarrek erreklama-zioen bat egiten badute, gairen bat proposatzen badute, edo EITBren irudi publikoarekin lotu-tako zerbait aipatzen badute, beti emango da erantzun bat.
- 2.9. Parte hartzeko moduak **kostu ekonomikoa** badauka, argi eta garbi jakinarazi behar zaie ikus-entzu-leei.
- 2.10. EITBk ez du inolako erantzukizunik izango **blogetan** agertzen diren iritziengatik, ez eta erabil-tzaileek txertatzen duten informazioaren zehaztasunagatik, kalitateagatik, fidagarritasunaga-tik, edo zuzentasunagatik ere. EITBk beretzat gordetzen du Estilo Liburu honetan tratamendu informatiboari buruz ezarritako **jarraibide editorialak** eta parte hartzeko arauak hausten dituz-ten iruzkinak eta ekarpenak **kentzeko eskubidea**. @
- 2.11. EITBren webguneak ageriko toki batean adieraziko ditu blog, eztabaidagune eta abarretan **parte hartzeko arauak**. @
- 2.12. **Erabiltzaile** batek, eitb.eus-en parte hartzeko kanaletan sartu nahi badu, bere burua **identifikatu** behar du. @

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. EITBk ez ditu bere egingo ikus-entzuleek parte hartzeko kanalen bitartez adierazten dituzten iri-tziak. Beste alde batetik, parte-hartzea **moderatzeko tresnak** ezarriko ditu, erabiltzaileen ekar-penek Estilo Liburu honetan jasotako jarraibide editorialak urratu ez ditzaten.
- 3.2. Herritarrek parte hartzearen helburua ez da **informazio-materiala biltzeak** daukan kostua mu-riztea.
- 3.3. Era berean, parte hartzearen helburua ez da EITBk dauzkan helburuez bestelakoa izan behar. Hau da, ikusleek, entzuleek eta erabiltzaileek ez dituzte **helburu pertsonal, komertzial, edo pu-blizitarioetarako** baliatu behar parte hartzeko mekanismoak.

- 3.4. Sufrimendua edo samina sorraraz dezaketen albisteetan (esaterako, suizidioetan), **iruzkinen aukera** desaktibatuta egongo da. @
- 3.5. **Edukiak** parte hartzeko kanalen bitartez zabaltzen direnean, EITBk arretaz eragotziko du: @
- Bidegabe edo **legearen kontra**, fede onaren aurka, edo ordena publikoaren aurka aritzea.
 - **Matxismoari**, **arrazakeriari**, **xenofobiari** edo **pornografiari** zabalkundea ematea, **terrorismoa** goraipatzea, eta giza eskubideei erasotzea.
 - **Jabetza intelektualaren** eta industrialaren eskubideak urratzea.
 - **Hirugarrenen irudiari** erasotzea.
 - **Birus informatikoak** edo **sistematan kalteak** sorraraz ditzaketen bestelako sistema fisiko edo logikoak sartzea edo zabaltzea.
 - Beste erabiltzaile batzuen **posta elektronikoko** kontuak erabiltzea.

B18. Autoretza eta sinadura

EITB ezagutzeak esan nahi du EITBko profesionalak ezagutzea: haien izenak, haien ahotsak, haien aurpegiak eta bakoitzaren lan egiteko modua. EITBk zabaltzen duen informazioa inoiz ez da anonimoa. Sinadurak berezko nortasuna ematen dio, eta erantzukizunaren garantia da.

Testuingurua

- 1.1. EITBk ikus-entzuleei eskaintzen dien informazioa talde-lanaren emaitza da. Informazioa prestatzeko, zuzentzeko eta zabaltzeko behar-beharrezkoa da profesional askoren arteko lankidetzak. Profesional horiek hedabidearen esku jartzen dute euren sinadura.

“EITBk beti
sinatzen ditu bere
albisteak”

- 1.2. Sinadurak hiru helburu dauzka: a) informazio baten autoretzaren berri ematea; b) kazetariari bere lana aitortzen zaiola jakinaraztea; c) egileak edukiaren erantzule direla adieraztea. Hiru ardatz horiek bideratuko dituzte gai honen inguruan hartu beharreko erabakiak.

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Sinadura informazio guztietan agertuko da, eta arloko arduradunek **errotulazioaz, diseinu grafikoaz eta agerpenaz** ematen dituzten jarraibideak errespetatuko ditu.
- 2.2. Sinaduraren bidez jakinarazten da kazetaria dela **informazioaren egilea**. Sinatzeak **erantzulea** nor den **zehaztea** dakarrenez, kazetaria ez dago izenpetzera behartuta –ez grafikoki, ez ahotsaren bidez– bere baimenik gabe zentzua aldatu zaion informazioa.
- 2.3. EITBko profesional batek edo gehiagok egindako **ikerketa** batetik lortu den informazioak sinadura behar du beti.

Irratia

- 2.4. **Irrati-kroniketan**, berriemailearen eta korrespontsal bereziaren ahotsa da sinadura. Aurkezleak, hitza ematen dionean, berriemailearen izen-abizenak esango ditu.

Telebista

- 2.5. Albistegietan, **lokuzioa daukaten bideoetan**, teleprinter bidez sinatuko dute kazetariak.
- 2.6. **Teleprinter** bidezko sinaduretan, izen-abizen osoak edo izenaren inisiala(k) eta abizen osoa(k) ipin daitezke.

- 2.7. **Berriemaileen eta korrespontsal berezien** kroniketan, *statementa*, hots, kazetaria gertalekuan bertan azaltzea da sinadura. Horrez gainera, izen-abizenak eta tokiaren izena idatziz ematen dira.

Internet @

- 2.8. Informazio propioa, informazio-agentziak, hemeroteka eta bestelako iturriak erabiliz **EITB Mediantik lantzen diren piezak** autorearen izenarekin sinatuko dira (izen osoarekin zein inzialekin), letra larriz eta jarraian 'EITB Media' ipiniz: 'AMAIA IBARRA | EITB Media', 'A. I. | EITB Media'.
- 2.9. **Informazio-agentzia** batek landutako eskusiba bat argitaratzen denean, agentzia horren izena agertu beharko da. Adibidez: 'EFE | EITB Media'.
- 2.10. Iturri nagusi modura **irratiko edo telebistako eskaletak** erabiltzen direnean, albistea jatorrizko egilearen izenarekin sinatuko da, jarraian 'EITB Media' ipiniz. 'EITB Media' soilarekin ere sinadun daiteke. Adibidez: 'MIKEL ETXEBERRIA | EITB Media', 'EITB Media'.
- 2.11. Bai **kronika pertsonalak** bai **analisi-albisteak**, jatorrizkoak zein itzuliak, egilearen izenarekin sinatuko dira, jarraian 'EITB Media' ipiniz. Adibidez: 'JOSEBA AYESTARAN | EITB Media'.

Itzulpenen kasuan, ez da hala direla adieraziko, kronistak edo analistak berariaz eskatu ezean. Berariaz eskatzen badu, testuaren oinean 'Erredakzioan itzulia' / 'Traducido en Redacción' adieraziko da.

- 2.12. **www.eitb.eus**-en argitaratzen diren **ikus-entzunezko piezek** egilearen izena agertuko dute beti. Adibidez: 'JULEN SANZ | EITB Media' edo 'EITB Media'. Baliozkoa da, era berean, telebistako albiste-gietan eta programetan ohi den sinatze-modua.
- 2.13. **Argazkiek** eta **argazki-galeriek** beti agertu behar dute autoretza (izen-abizenak, sare sozialetako nika, agentzia, hedabidea...).
- 2.14. **Blogetan**, nahitaezkoa da izenpea jartzea, eta egilearen edo egileen aurkezpena eduki behar dute. Bloga kolektiboa bada, **post bakoitza norena den** zehaztu behar da.
- 2.15. eitb.eus-en, **infografiak** izenpeturik argitaratuko dira.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Informazio izenpetu bat aireratzen denean, **ezin daiteke aldatu**, sinatzaileek baimena eman ezean. Edizio-arrazoiengatik edukia aldatu beharra egonez gero, informazioa sinatu gabe eman-go da.
- 3.2. Irratian egiten diren orduz **orduko albistegiek edo albiste-aurrerapenek** ez daukate sinadurarik. 
- 3.3. **Titularren bideoek, offen bideoek** (platotik zuzenean irakurtzen diren testuei dagozkienek) eta testurik gabeko irudi-editatzeek ez daukate sinadurarik. 
- 3.4. Albistearen protagonisten **adierazpenak bakarrik** biltzen dituzten bideoek ere ez daukate sinadurarik. Halakoetan, kazetariari egin duen ikerketa-lana edo informazio-bilketa aitortu nahi zaionean, aukera egokia da aurkezleak berak ematea horren berri: «gure lankide X-k egindako elkarrizketa batean...». 
- 3.5. *Teleprinter* bidezko sinaduran **ez da ezizenik, izengoitirik edo forma hipokoristikorik** erabiliko, arduradun editorialek berariazko baimenik eman ezean. 
- 3.6. Informazioa zer kazetarik landu duen **isilpean** gorde behar izanez gero, sinaduran ez dira agertuko haren inzialak, baizik eta **«EITB Media»**. Izan ere, inzialak gertakarien kronikan behar den anonimotasunarekin lotzen dira. Kazetariaren anonimotasuna zaindu behar denean, aurkezlearen ahotsa entzuten jarraituko da. 

Erreferentziak

- EITBren estilo liburua: VII. eranskina – Telebistako kredituei buruzko araudia (ETB)

B19. Pertsonen deiturak

Informazioetan azaltzen diren pertsonak identifikatzeko, kazetariak kargua / lanbidea adieraz dezake, edo izen-abizenak, edo datu biak. Izen-abizenak ematen dituenean, kazetariak pertsonaren eta horren irizpidearen eta hizkuntzaren errespetuz jardun behar du.

Testuingurua

- 1.1. Euskarazko deituren kasuan —euskal grafia oraintsu arte estandarizatu eta ofizial egin gabe egon baita—, gure artean errotuta dauden ohitura asko inertzia hutsa dira, eta ez datoz bat ez izendunaren nahiekin, ez hizkuntza-normalizazioko xedekin.

“Beti errespetatuko dugu abizendunaren irizpidea”

- 1.2. Halaber, inertziak sumatzen dira beste hizkuntza batzuetako izen-abizenen erabileran, batik bat alfabetoa ezberdina bada. Izan ere, gure inguruko hizkuntza bakoitzak bere irizpideak erabiltzen ditu latindar alfabetora aldatzeko beste alfabeto bat darabilten hizkuntzetako izenak.

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Euskal Irrati Telebistan **euskal abizenak** euskal grafiarekin idatzi behar dira, hau da, idazkera akademikoaren arauak betez. Hartara, <c>, <ç>, <qu>, <gu>, <v> eta <y> letrak eta multzoak ez dira erabiliko.  

Otegui	→	Otegi
Michelena	→	Mitxelena
Alcain	→	Alkain

Horrez gainera, ahoz ia automatikoki egiten diren <tz> afrikariak idatzian ere jaso daitezke.

Lizarza	→	Lizartza
Iranzuaga	→	Irantzuaga
Iturrioz	→	Iturriotz

- 2.2. Euskarazko mintzaldietan, euskal abizenak ahoz erabiltzeko orduan, **euskararen hotsak** eta moldeak erabili behar dira.  

Zabala	ez da [zapatero] bezala ahoskatu behar
Mutilloa	[y] eta [ll] ez dira gauza bera
Indurain	hiru silaba: [in - dú - rain]. Traketsa da [ra - ín] ahoskera

Aitzat hartu behar da, gainera, batzuetan **kode idatzia** txarto interpretatzeko arriskua dagoela. Izan ere, letra baten atzean pentsatzen ez den hotsa egon daiteke —idazkera akademikoa erabili zein bestelakoa erabili—.

Urkiyo	desegokia litzateke [urkiyo] ahoskatzea Euskaltzaindiaren izendegian «Urkixo» dator
Celaá	desegokia litzateke [zapatero] bezala ahoskatzea Jatorriz «Zelaia» omen da
Mugika	desegokia litzateke [mugika] ahoskatzea Euskaltzaindiaren izendegian «Muxika» dator
Begino	ez bide da egokia [begino] ahoskatzea Dirudienez, jatorrian «vecino» hitzarekin dago lotuta

2.3. Latindar alfabetoa erabiltzen ez duten hizkuntzetako izen-abizenak idazteko, jatorrizko hizkuntza-
ren arabera jokatu da.  

- a) Nazioartean bezala, **txinerazko izen-abizenak** *pinyin* sistema erabiliz ekarriko ditugu euskarazko eta gaztelaniazko testuetara.
- b) Nazioartean bezala, **japonierazko izen-abizenak** Hepburn sistema erabiliz ekarriko ditugu euskarazko eta gaztelaniazko testuetara.
- c) **Indiako subkontinentetik** datozen izen-abizenak ingelesaren bitartez ekarriko ditugu euskarazko eta gaztelaniazko testuetara.
- d) Jatorriz alfabeto greziar, ziriliko, georgiar, armeniar edo arabiarrean idazten diren izen-abizenak **Euskaltzaindiak** onarturiko arauak erabiliz ekarriko ditugu euskarazko testuetara.
- e) Jatorriz alfabeto greziar, ziriliko, georgiar, armeniar edo arabiarrean idazten diren izen-abizenak **Fundación del Español Urgentek** landutako sistemak erabiliz ekarriko ditugu gaztelaniazko testuetara.

2.4. Gainerako **kultur erreferenteak** bezala, errege-erreginen izenak, aita santuen izenak eta santu-santen izenak testuaren hizkuntza berean eman behar dira, ez jatorrizko hizkuntzan.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Euskal abizenak euskal grafiarekin erabiltzeko irizpide orokorra euskal herritarrei bakarrik dagokie. **Euskal Herritik kanpo** zabaldu diren euskal deiturak bere horretan utziko dira.  

Esperanza Aguirre
Cesar Gaviria
Jose Maria Ybarra

Madrilgo presidente ohia
Kolonbiako presidente izandakoa
Bilbotar enpresaria, XIX. mendean Sevillan kokatua

- 3.2. Euskal Irrati Telebistak ezin dezake ezarri bere **irizpidea** abizendunaren irizpidearen gainetik. Pertsona batek garbi utzi badu —modu batez edo bestez— bere abizena grafia jakin batekin idaztea nahi duela, euskarazkoa izan zein gaztelaniazkoa izan, EITBn **errespetatu** egingo dugu. Kirolariek, esate baterako, elastikoan agertzen dute euren hautua.  

Carlos Iturgaiz
Begoña Ameztoy
Karlos Arguiñano
Paula Kasares
Xabier Mikel Errekondo
Pedro Txillida Belzunce

PPko eurodiputatu, santurtziarra
Idazle donostiarra
Sukaldari mediatikoa, beasaindarra
Nafar foru-parlamentari ohia
Usurbilgo alkate zenean, «Rekondo»
Eduardo Chillida eskultorearen semea

Erreferentziak

- Euskaltzaindiaren 76. araua: Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia.
- Euskaltzaindiaren 156. araua: Alfabeto ziriliko idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema.
- Euskaltzaindiaren 163. araua: Georgieraren eta armenieraren alfabetoetan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemak.
- Euskaltzaindiaren 165. araua: Arabieraren alfabetoan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema
- EFE: Manual del español urgente.

B20. Euskal Herriko toki-izenak

EITBko kazetariak sarri aipatu behar izaten dituzte Euskal Herriko hiriak, herriak, auzoak, mendiak, mendateak, ibaiak eta bestelako lekuak euren informazioetan. EITBk eredugarri izan behar du Euskal Herriko toponimoak erabiltzean, eta, horrenbestez, kazetariak beti egiaztatu behar dute zuzenak ote diren.

Testuingurua

- 1.1. Euskarak —salbuespentxoak albuespen— ez du XX. mendaren azken laurdenera arte ezagutu ofizialtasuna, eta, horren ondorioz, euskarazko toki-izenak finkatu barik egon dira oraintsu arte. Leku batzuek, gainera, izen bat dute euskaraz, eta beste bat erromantzez. Beste leku batzuek erromantzez dute izen bakarra. Hori gutxi ez, eta euskarazko izen berriak sortu dira erromantzezkoak ordezkatzeko.
- 1.2. Arazoa are nahasiagoa da, administrazio-organo eskudunek ez baitute beti irizpide berbera erabiltzen izen ofizialak erabakitzeko orduan.

“Toponimo bakoitzak forma bakarra du EITB osoan”

Jarraitu beharreko jokabideak

- 2.1. Euskal Irrati Telebistan toponimoak **forma bakarrean** erabiltzera joko da. Toponimoa euskarazkoa bada, euskal forman. Toponimoa erromantzezkoa bada, dagokion forman. Udalerrien izenak eta dagozkien jentilizioak EITBren Estilo Liburuko VIII. eranskinean (211. or.) jaso bezala erabiliko dira
- 2.2. **Izen ofizial bi** dituzten lekuen kasuan, ETBren euskarazko emisioetan, Euskadi Irratian, Gaztean eta eitb.eus-en euskal bertsioan euskarazko izena erabiliko da. ETBren gaztelaniazko emisioetan, Radio Euskadin, Radio Vitorian eta eitb.eus-en gaztelaniazko bertsioan izen erromantzea erabiliko da. eitb.eus-en gainerako bertsioetan izen biak erabiliko dira batera, marra makur batez banatuta. Aukeran, ETB2n ere hala erabil daitezke pantailako idazkUNETAN.
- 2.3. Euskal Herriko toki-izenen euskarazko formaz, **Euskaltzaindiak** du azken hitza.

Baztertu beharreko jokabideak

- 3.1. Kazetariak ez du erreferentzia fidagarritzat jo behar teletipoa edo prentsa-oharra, erakunde ofizial batetik etorri arren. Toponimoaz erabat ziur egon ezean, beti **egiaztatu** behar du zelan idatzi eta zelan ahoskatu.

- 3.2. Kazetariak ez die zabalkunderik eman behar **tradiziorik** eta zentzuzko oinarririk gabeko toki-izenak. Surflariek, adibidez, tokiko tradizioaren jakitun egon gabe, hainbat izen ustel asmatu dituzte.
- 3.3. Euskal Herriko toki-izenak ez dira erabili behar **erreferentzia arrotzak** izango balira bezala. Ikus-entzu-leentzat ernegagarria izan daiteke «Bilboko Deustu auzoa» eta antzeko itzulinguruak entzun eta gero «Jinhua» soila entzutea nazioarteko kronika batean.

Erreferentziak

- EITBren estilo liburua: I. eranskina – EITBren komunikazio-esparruko egiturak
- EITBren estilo liburua: VIII. eranskina – Euskal Herriko udalerriak eta jentilizioak
- HIKEA Tortolikan: http://tortolika/euskarazerbitzua/euskara_zerbitzua.asp?opcion=248
- HIKEA eitb.eus-en: <http://www.eitb.eus/eu/kultura/euskara/kontsultak/>

7. EITBren Erredakzio Estatutua

7. EITBren Erredakzio Estatutua¹

EUSKAL IRRATI TELEBISTAREN ETA EITBREN SOZietateen ERREDAKZIO ESTATUTUA

ATARIKOA

Euskal Irrati Telebista (EITB) titulartasun publikoko komunikabide bat da. EITBri dagokion araudiak zuzenbidezko estatu demokratikoaren prozedurei jarraitzen die, eta adierazpen-askatasunerako eskubidea eta egiazko informazioa jasotzeko eskubidea errespetatzen ditu, NBERen Giza Eskubideen Agirian eta indarrean dagoen legerian –Espainiako Konstituzioan eta Euskadiko Autonomia Estatutuan– jaso bezala.

EITB Herri Erakundea sortzeko 5/1982 Legeak dioenez, gizarte-komunikabide publikoak funtsezko tresna dira, besteak beste, «herriarren informazio eta parte-hartze politikorako tresna», eta lege berak, EITBren jarduera oinarritzeko printzipioak ezartzen dituenean, «pluralismo politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoaren eta berdintasun-printzipioaren errespetua» bermatzea dauka helburu modura.

EITBn, informazioaren profesionalak eskubide horiek garatzeko agindu inplizitua jaso dute gizartearen aldetik, eta euren lanean horren jakitun jokatu behar dute, alegia, euren betekizun profesional nagusia askatasunez, independentziaz, zorrotzasunez eta objektibotasunez informatzea da, printzipio editorialak eta Estatutu honen edukia errespetatuz.

Informazio-zerbitzu publikoa den aldetik, Euskal Irrati Telebistak herritarrei eskaintzen dien informazioak oinarri hauek izan behar ditu: gertaerak egiazko izatea, iturri guztiak kontsultatzea, edozelako manipulaziorik ez onartzea, eta UNESCOk, Europako Kontseiluak eta Kazetarien Nazioarteko Federazioak landutako Kazetaritzako etika profesionalaren printzipioak errespetatzea.

Xede horiek gogoan, Erredakzio Estatutu hau onetsi da, behin EITBko informazioaren profesionalak, Zuzendaritzak eta Administrazio Kontseiluak landu eta hitzartu ondoren. Estatutu honek elkarrizketako bide erraz eta iraunkorrak ezartzea du asmo nagusi modura, eta, halaber, ahalik eta ondoen uztartu nahi ditu, alde batetik, informatzeko lanaren independentziarik handiena eta, beste aldetik, komunikazio-enpresa publiko batek dituen kudeaketa- eta antolaketa-beharrianak, betiere EITB sortzeko Legeak enpresaren gobernu-organoei aitortzen dizkien eskumenetan eta une honetara arte Administrazio Kontseiluak hartu dituen erabakietan kalterik eragin gabe.

¹ 2012-10-30eko EITBren Administrazio Kontseiluan onetsia.

Erredakzio Estatutu honek EITBn eta EITBren sozietateetan ikus-entzunezko informazioan ari diren profesionalen jardura arautzen du. Gizartearekiko konpromiso bat ere bada. Halaber, alde batetik, Zuzendaritzak antolakuntza-eginkizunetan daukan erabakitze eskumena eta, beste aldetik, informatzeko lanak beharrezko duen autonomia harmonizatzen ditu.

Erredakzio Estatutu honetan, erredakzio-kontseiluen osaera eta eginkizunak ezartzen dira. Erredakzio-kontseiluak informazioaren profesionalak aukeratuko dituzte zuzeneko botoz, eta Estatutu honetan jasota dauden jarraibideak zelan gauzatzen diren zaintzeko eginbeharra izango dute. Erredakzio Kontseiluek Zuzendaritzaren edo kanpoko elementuen balizko presioetatik babesten dituzte EITBko profesionalak.

Estatutua barne-arau bat da, nahitaez bete beharrekoa. Erredakzioko eta Zuzendaritzako ki-deek eremu honetara ekarriko dituzte euren arteko arazo profesionalak, eta bertan ebazten ahaleginduko dira, auzitara jotzeko eskubideari uko egin gabe.

ERAGIN EREMUAZ

1. art. EITBko Erredakzio Kontseilua 5 ordezkari osatuko dute, eta bi urtez beteko dituzte euren zereginak. Radio Vitoriako, Eusko Irratiko irratietako eta EITBneteko erredakzio-kontseiluak hiruna kide osatuko dituzte, eta horiek ere bi urtez beteko dituzte euren zereginak. EITBko Zuzendaritzak edo kontseiluek eurek eskatuta, osaera berriz aztertu daiteke (ikus Erredakzio Estatutuaren 93. artikulua).
2. art. Estatutu honetan, erredakzio-kontseiluak sortzea jaso da, prozesu informatiboan diharduten profesionalen parte-hartzea eta babesa bideratzeko organoak izan daitezten.
3. art. Lan-harremanak eta erlazio sindikalak Estatutu honetatik kanpo daude.

INFORMAZIOAREN PROFESIONALEZ

4. art. Ikus-entzunezko informazioaren profesional deituko dira, eta, beraz, Estatutu honen artikuluen eraginpean egongo dira langile hauek guztiak: kazetaritzako, irudi-arloko eta soinu-arloko profesionalak, EITBren hedabideetako informazio-saioetan eta albistegietan zuzenean informazioa lantzen eta zabaltzen dihardutenak, bai plataforma tradizionaletan –irratian eta telebistan–, bai plataforma multimedia eta interaktiboetan, bai EITBk etorkizunean teknologia berrien garapenaren ondorioz ezar ditzakeen bestelako plataformetan. *Horrenbestez, EITB Taldeko erredaktore eta erredakzio-laguntzaile guztiak, Euskal Telebistako errealizadore eta errealizazio-laguntzaile guztiak, eta Euskal Telebistako albiste- eta kirol-saioetara loturiko ENG operadore eta kamerari guztiak informazioaren profesionalak dira.*

5. art. Estatutu hau onetsitakoan, EITBren hedabideetako erredakzio bakoitzak bere erredakzio-kontseilua sortuko du, eta bere barne-araudia prestatuko du, betiere Estatutu honetan ezartzen eta esaten denari jarraiki.
6. art. Erredakzio-kontseiluetako buruek EITBko Erredakzio Kontseilua osatuko dute. EITBko Erredakzio Kontseilua EITBko ikus-entzunezko profesional guztien ordezkaritza-organo gorena izango da denei eragiten dieten gaietarako, eta, hartara, EITBko Zuzendaritza Nagusiaren aurrean eta Administrazio Kontseiluaren aurrean solaskide modura agertuko da arazo profesional batengatik hala eskatzen zaionean.
7. art. Erredakzio-kontseiluek, EITBko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Giza Baliabideen Sailarekin batera, EITBren sozietate bakoitzean Estatutu honi atxikita dauden profesionalen zerrenda osatuko dute. Zerrendaren aurka aurkezten diren erreklamazioak ebazteko, batzorde paritario bat eratuko dute Erredakzio Kontseiluak eta Zuzendaritzak.
8. art. Norbait informazioaren profesionaltzat jotzeak ez du inolako ondoriorik izango beraren lan- edo soldata-araubidean.

IKUS-ENTZUNEZKO INFORMAZIOAREN PROFESIONALEN ESKUBIDEEZ ETA BETEBEHARREZ

9. art. Ikus-entzunezko informazioaren profesionalak gizarteari garrantzi publikoa duen informazioa egiazkotasunez, objektibotasunez eta inpartzialtasunez eskaintzeko betebeharra dute. Profesionalok, euren lanean, zerbitzu publikoari, lan-harremanei eta EITB Sortzeko Legearen printzipioei datxekien betebeharrak bete beharko dituzte, bai eta EITBren Administrazio Kontseiluak onartutako erabakiak eta jarraibideak ere. Profesionalok informazioa eta iritzia bereizi eta banandu beharko dituzte; berdintasunaren, askatasunaren, aniztasunaren eta tolerantziaren balioak sustatu beharko dituzte, eta debate demokratikoari eta iritziz guztien adierazpen libreari bide egin beharko diete.

PRINTZIPIO DEONTOLOGIKOEZ

10. art. Ikus-entzunezko informazioaren profesionalak nahi eta nahi ez errespetatu behar dituzte ondoren azaltzen diren printzipio eta arau deontologikoak. Arauok, EITBko zuzendariek eta arduradun editorialek ere bete beharko dituzte, bai eta edozelako lankide direnek edo informazio-edukiak ekartzen dituztenek ere. Enpresek eta arduradun editorialek ez dute inola ere eskatuko betebeharrak horiek urra ditzakeen lanik. Printzipio horiek betetzen ez direnean, salaketa jar daiteke erredakzio-kontseiluaren aurrean, edo erredakzio-kontseiluek eurek jar dezakete.

11. art. Garbi bereiziko dira beti egitateak eta iritziak; biak nahastea eragotziko da, eta ez da uste edo zurrumurrurik zabalduko, horixe baino ez direla argi zehaztu gabe.
12. art. Behar bezalako funtsa duten informazioak baino ez dira zabalduko. Informazioak egiaztatze-ko, behar beste iturri erabiliko dira. Guztiz baztertzekoak dira baieztapen edo datu zehaztu-gabeak eta oinarririk gabeak, batik bat pertsonen duintasuna eta irudi-eskubidea urratu edo gutxietsi dezaketenak, eta erakunde publikoetan nahiz pribatuetan bidegabeko kaltea edo ospe-galera eragin dezaketenak. Guztiz baztertzekoak dira adierazpen eta kalifikazio iraingarriak.
13. art. Gertaeren kausak eta ondorioak testuinguruan jarriko dira, eta, horretarako, protagonista, lekuko, aditu eta agintari eskudunen iritziak erabiliko dira, ahalik eta ikuspegi gehienei toki eginez.
14. art. Iturriak argi identifikatuko dira, batik bat albistea sinesgarri egiteak hala eskatzen duenean edo gaia polemikoa edo eztabaidatua denean.
15. art. Informazioak lantzeko, batik bat iturri propioak erabiliko dira. Guztiz baztertzekoak dira plagioa eta inoren albisteak kopiatzea iturriak aipatu gabe. Gertakari baten berri emateko aukera bakarra kanpoko informazio-iturri batek editaturiko ikus-entzunezko materiala denean, garbi jakinaraziko da jatorria.
16. art. Informazioaren bat gezurrezkoa edo okerra dela agertuz gero, bizkor eta zirkunstantziek eskatu bezala zuzenduko da. Zuzenketaz indarrean dagoen legeriari jarraituta zirkunstantzia horietan barka-eskea ere egin behar bada, ez da saihestuko.
17. art. "Off the record" esandakoa isilpean gordetzeko eskatzen denean, errespetatu egingo da, halako kasuetan egiten den bezala. Informazio-iturrien anonimotasun-eskubidea errespetatu egingo da, hala hitzartuz gero.
18. art. Pertsonak informaziorik ez emateko eta galderei ez erantzuteko eskubidea dute, eta errespetatu egingo da, baina hori ezin daiteke informatzailearentzako oztopo izan herritarrei interes publikoko informazioa emateko betebeharrean.
19. art. Albiste-saioetan, profesionalak ezin daitezke publizitatea edo babes-kanpainak egitera derri-gortu. Salbuespen dira EITBko hedabideen programazioaren promozioak, betiere dagokion pertsonaren oniritziarekin eta gainerako informazioek izaten dituzten berme berberekin. Ez da hirugarrenen ordainsari, eskupeko edo oparirik onartuko, horren helburua informazio edo iritzi jakin bat sustatzea, bideratzea, moldatzea edo zabaltzea izan badaiteke.

20. art. Uko egingo zaie informazioa euren interesen zerbitzuan jartzeko edo berri-emate lana oztopatzeko asmoa dutenen presioei, bortxakeriei, larderiei eta mehatxuei. Halakorik jasaten duten profesionalak erredakzio-kontseiluen babesa eskatu ahaliko dute.
21. art. Ez da onartuko informazio-iturriek ordaindutako bidaiarik, onartzearen ondorioa informazioaren inpartzialtasuna kolokan jartzea bada, edo bidaia justifikatzeko irizpide informatibo sendorik ez badago. EITBko informatzaileen lana ezin daiteke bateratu kanpoko irudi-kabinteei, harreman publikoei edo publizitate-agentziei loturiko lanekin.
22. art. Uko egingo zaio enpresa, gizabanako edo erakunde batek zinezko informazio modura aurkez dezakeen publizitate ezkutuari, eta arreta berezia jarriko da osasun publikoarekin lotutako kasuetan.
23. art. Kazetaritza-lanetan isilpean jasotzen diren informazio pribilegiatuak ez dira inoiz norberaren mesederako erabiliko. Ez da parterik hartuko norberaren edo hurbileko ahaideen interesak ukitzen dituzten informazioen lanketan.
24. art. Pertsonen intimitate-eskubidea eta irudi-eskubidea errespetatu egingo dira, batez ere nahi-gabea eta samina dakarten egoeretan eta gertaeretan. EITBko informatzailea bertaratzen denean, muturluzekeria saihestu behar du, eta, informazioaren jarraipena egiteko, errespetua eta adeitasuna izango die pertsonari.
25. art. Irekita dauden auzi eta prozedura judizialen gaineko informazioak eta iritziak ematen direnean, zorrozki beteko da errugabetasun-presuntzioaren printzipioa. Halaber, zigor-prozeduraren batean akusatu edo kondenatu duten pertsonaren senitartekoak eta lagunak ezin daitezke identifikatu, nahi ez badute, eta ez da pertsona horien irudirik edo soinurik zabalduko.
26. art. Adingabeei dagozkien informazioak arreta bereziz landuko dira. Adingabe bat zigor-auzi batego biktima, lekukoa edo inputatua denean, ez da haren izenik edo irudirik zabalduko.
27. art. Arreta, errespetu eta sentiberatasun berezia izango zaie ekintza terroristen biktimei, ekintza-ren egilea dena dela, bai eta giza eskubideen urratzea eta bortxatzea jasan dutenei ere.
28. art. Arreta berezia jarriko da ikus-entzuleen sentiberatasuna mindu dezaketen irudi edo soinu gordinak erabili behar direnean. Ikus-entzuleak aldeztu aurretik ipini behar dira irudien edo edukien gordintasunaren jakitun. Halako irudi eta soinuak morboagatik erabiltzea eta testuingurutik kanpo baliatzea saihestu egingo da, baina hori ez da aitzakia izango gerra, atentatu, istripu eta antzeko albistegaien funtsezko alderdiak ezkutatzeke.

29. art. EITBko profesionalek arduratsu eta zorrotz jardungo dute, klixeetan edo estereotipoetan jau-si barik, bereziki diskriminazioa eragin dezaketenean, berdin dio diskriminazioaren oinarria sexua, sexu-joera, arraza, ideologia, erlijio-sinesmenak edo jatorri soziokulturala den. EITBko profesionalek ez dituzte bere egin behar kazetaritzan edo gizartean diskriminazioa desenku-satzen edo minimizatzen duten jokabideak. Era berean, indarkeriara bultza dezaketen hitzak eta pertsonen duintasuna eta osotasun fisiko eta morala iraindu edo kaltetu ditzaketen adie-razpenak baztertu egingo dituzte.
30. art. Emakumeen ekintzak eta gizonezkoen ekintzak irizpide berarekin baloratuko dira albistegaitzat jotzeko orduan, eta behar bezala islatuko da emakumeak gizarte-bizitzako arlo guztietan daukan lekua. Ez da aipamen sexistarik eta estereotipo gutxiesgarririk erabiliko.
31. art. EITBko profesionalek euren lanaren emaitzaren autoretza aitortua izateko eskubidea dute. Enpresarekin daukaten soldata-loturaren bidez, beraren esku lagatzen dute euren lanaren erreprodukzio eta komunikazio publikoko eskubidea. Enpresak beste hedabide batekin sal-menta- edo lagapen-akordioa sinatuz gero, beste hedabide horretan ere egin ahal izango da esandako lanaren erreprodukzioa eta komunikazio publikoa. Produktuan parte-hartze zuzena izan duten EITBko profesionalak jakitun ipini beharko dira, eta haien izenak derrigorrez agertu beharko dira.

KONTZIENTZIA KLAUSULAZ / KONTZIENTZIA ERAGOZPENAZ

32. art. Estatutu honen eraginpean dauden profesionalak kontzientzia klausulaz baliatu ahal izango dira, 2/1997 Lege organikoak ezarritako baldintzetan.
33. art. Eskubide horretaz baliatuta, informazioaren profesionalak uko egin diezaioke, modu arrazoi-tuan, informazioa lortzen, prestatzen edo hedatzen parte hartzeari, baldin eta prozesu ho-rretan Estatutu honek babesten dituen komunikazioaren printzipio etiko eta deontologikoen kontrako baliabideak, jokabideak edo edukiak erabiltzen direla irizten badio.
34. art. Profesionala bere lanean ordezkatzeari ezinezkoa bada, ez da inola ere behartuko lan hori sinatze-ra, irakurtzera edo bere irudia lan horretarako uztera. Gauza bera aplikatuko da kontrol edi-torialean, beste esku baten lanketan edo berremisio-prozesuan lana errotik aldatzen denean.
35. art. Kontzientzia klausulaz baliatzen den profesionalaren eta enpresaren artean adostasunik ez bada, bi aldeek idatziz agertuko dituzte hartutako erabakien arrazoiak.
36. art. Profesionalek Erredakzio Kontseiluak esku hartzeko eskatu ahalko dute; Kontseiluko kideen artean adostasunik ez bada, bi hereneko gehiengoz ebatziko da eskatzaileari babesa ematen zaion.

37. art. Kontzientzia klausulaz baliatzeak ez du inolako zehapenik edo lan-kalterik ekarriko. Hala eta guztiz ere, azalduriko prozesua bete ondoren profesionalak enpresarekin daukan kontratua bere aldetik deuseztatzea erabakiko balu, hitzarmen kolektiboan ezarritako kalte-ordaina jaso beharko luke; horrelakorik ezean, bidegabeko kaleratzeei dagokiena.

SEKRETU PROFESIONALAZ

38. art. Zuzendaritzaren, gizabanako baten edo aginte publiko baten eskakizunen aurrean, informazioaren profesionalak euren informazio-iturrien identitatea sekretupean gordetzeko eskubidea eta betebeharra dute, ebazpen judizial bat dagoenean izan ezik.
39. art. EITBko Zuzendaritzak eskura dituen baliabide guztiekin babestuko du eskubide hori. Nolanahi ere den, profesionalak bere iturriak isilpean gorde nahi baditu, Zuzendaritzak bere aldetik baloratu beharko du informazioaren fidagarritasuna, betiere aipatutako eskubidea urratu gabe.
40. art. Profesionalak ez dute sekretu profesionalaren lotura izango pertsonen bizitzaren eta askatasunaren aurka zalantza barik gertatzekoa den delitu bat eragotz dezaketenean.
41. art. Sekretu-eskubide horren bitartez, albistea lantzeko prozesu osoan erabilitako material, ohar, ikus-entzunezko grabazio eta euskarri grafiko guztien isilpekotasuna ere babestuta dago.
42. art. Eskubide horretaz baliatzen diren profesionalak ezin dakieke errepresalia edo zehapenik ezarri.
43. art. Sinatu gabeko informazioak direla eta, Zuzendaritzak epailearen aginduz baino ez du argituko egilearen izena, profesionala aldezturik jakitun ipinita.

DEFENTSA JURIDIKOAZ

44. art. EITBn zabalduko informazioaren batengatik ikus-entzunezko informazioaren profesional baten aurka prozedura judizial bat irekitzen bada, enpresak defentsa juridiko egokia eskainiko dio profesionalari, baldin eta informazio hori kazetaritzako jardunbidearen printzipio nagusiei jarraituz egin bada.

SORTZEKO ASKATASUNAZ

45. art. Ikus-entzunezko informazioaren profesionalak askatasunez eta zorroztasunez landuko dituzte edukiak, betiere Estatutu honetan jasotako printzipio deontologikoei, estilo-liburuei, praktika onen eskuliburuei eta arduradun editorialen argibideei jarraiturik. Zuzenketa editorialaren prozesuan, informazioaren edukia errespetatu egingo da.

46. art. Profesionalek lantzen dituzten informazioetan euren izena agertzeko eskubidea dute.
47. art. Enpresako zuzendaritzak autoretza aitortzen ez badio edo sinatzen uzten ez badio, profesionalak babesa eska diezaioke Erredakzio Kontseiluari.
48. art. EITBn sortutako materiala erakusketa edo lehiaketa batean aurkezten bada, Zuzendaritzak jakitun ipini behar ditu material hori landu duten profesionalak. Material horrek egilearen sinadura eduki beharko du. Lehiaketetan lortzen diren sari nominalak saritutako profesionalei dagozkie.

ALDAKETEN AURREKO ESKUBIDEAZ

49. art. Profesionalek euren lanetan egiten diren aldaketen jakitun egoteko eskubidea dute; ahal bada, lana argitaratu edo emititu aurretik.
50. art. Aldaketarekin ados ez badago, profesionalak Erredakzio Kontseilura jo dezake. Erredakzio Kontseiluak astebeteko epea du txosten bat emateko.

KARRERA PROFESIONALAZ

51. art. Profesionalen eskubidea eta betebeharra denez gero, enpresak etengabeko prestakuntza sustatu beharko du.
52. art. Informazio-zerbitzuetan lan egiten duten profesionalak, nagusiki, arloka banatuko dira zerbitzuon egituraren barruan, kalitate handiagoko informazioa ekar dezakeen espezializazio-maila lortzeko helburuarekin. Horrek ez du eragotziko enpresari dagokion antolaketa-eskumena.
53. art. Profesionalari lanpostua egokitzeko eta arduradun-lan edo zuzendaritza-kargu baterako izendatzeko, gaitasuna, espezializazioa, ibilbide profesionala eta programazio-premiak izango dira aintzat hartu beharreko irizpideak.
54. art. Egokitzen dieten lanak, unitateak edo programak justifikaziorik ez duela uste badute, egoera berriak euren ibilbide profesionalean eten nabarmena edo galera dakarrela uste badute, edo zeregin jakin batzuk behin eta berriro ukatzen zaizkienean euren duintasun profesionalari erasotzen zaiola uste badute, profesionalak Erredakzio Kontseiluaren babesa eska dezakete.
55. art. Era berean, euren zereginetan aldaketa gertatu dela eta horretarako arrazoi informatibo edo profesionalik ez dagoela uste badute, profesionalak Erredakzio Kontseiluaren babesa eska dezakete.

ERREDAKZIO KONTSEILUETAN PARTE HARTZEAZ

56. art. Erredakzioko taldearen eskubide profesionalak babesteko eta independentzia profesionala defendatzeko, ikus-entzunezko informazioaren profesionalek erredakzio-kontseiluetan hartzen dute parte, euren ordezkarien bitartez, eta kontseiluoi dagozkien eskumenen indarrez, besteak beste, EITBren sozietateetako ildo editorialari, programazioari eta arduradunen izendapenari buruzko informazioa jasotzeko eskumenaren indarrez.

ALBISTEGI ZUZENDARITZAZ

57. art. Albistegi zuzendariak ospe handiko profesionala izan behar du, esperientzia egiaztatua duena, eta, nagusiki, hedabidea ondo ezagutzen duena.
58. art. Albistegi zuzendaria eta EITBren sozietateetako gainerako arduradun editorialak Estatutu honetan jasotako printzipioei lotuko zaizkie.
59. art. Albistegi zuzendariak erredakzioko lana zuzentzen, antolatzen eta koordinatzen du, eta, zuzendariordeen, arduradun editorialen eta arloburuen laguntzaz, lehentasun informatiboak ezartzen ditu.
60. art. Kanpoko zein barruko interferentzien aurrean, Zuzendaritzak informazioaren profesionalen independentzia defendatu behar du, eta zuzentzeko eskubidea ahalbidetuko du albiste batek egiaren kontra huts eginez gero.
61. art. Informazio egiaztatu eta zinezko bat lantzearen ondorioz kazetari bati akusazio publikoak egi-ten bazaizkio, Zuzendaritzak arin eta zehatz erantzun beharko du.
62. art. Zuzendaritzak ezin diezaieke inola ere jakinarazi hirugarrenei informazio-iturrien identitatea edo ebazpen judizialen babespean dauden pertsonen identitatea.
63. art. Organizazio publiko edo pribaturen batekin hitzarmena edo kontratu komertziala sinatuz gero, Zuzendaritzari dagokio interes informatiboaz haragoko kontraprestaziorik ez dagoela bermatzea.
64. art. EITBko zuzendariak edo telebistako, irratiko edo Interneteko albistegi-zuzendari eta programa-zuzendariak –emanaldietako edukien arduradun nagusiak diren aldetik– informazioaren bat atzeratzea edo eragozteak erabakitzen badute, edo informazioaren baten edukia zuzentzea edo aldatzea erabakitzen badute, erabakiaren arrazoiak argitu beharko dizkiete erredakzio-kontseiluei, kontseiluok hala eskatuz gero.

IZENDAPENEZ ETA ENTZUNALDI ESKUBIDEAZ

65. art. Administrazio Kontseilua jakitun jarri aurretik, Zuzendaritzak dagokion erredakzio-kontseiluari jakinaraziko dio, modu konfidentzian, Albistegi zuzendaria edo burua izendatzeko proposamena.
66. art. Erredakzio-kontseiluak zazpi eguneko epea du proposamenari buruz txosten ez-loteslea emateko. Txostenak dioena izendapenari buruzko informazioarekin batera zabalduko da.
67. art. Txosten hori egiteko, erredakzio-kontseiluak kontsulta bat antola dezake izendapenak ukitzen dituen profesionalen artean. Izendapen horretarako proposaturiko pertsonak bere proiektuaren, gidalerroen eta antolaketaren berri emateko eskubidea du. Kontsulta ez da loteslea izango.
68. art. Izendapen berriaren aurrean eroldaren hiru bosten aurka agertuko balira, Zuzendaritzak erredakzio-kontseiluarekin batera aztertuko luke iritzia hori. Zuzendaritzak, gainera, erredakzio-kontseiluaren iritzia erantsiko dio EITBko Administrazio Kontseiluarentzat prestatu beharreko informazioari.
69. art. Era berean, Administrazio Kontseilua jakitun jarri aurretik, Zuzendaritzak dagokion erredakzio-kontseiluari jakinaraziko dio, modu konfidentzian, arduradun editorialak izendatzeko proposamena.
70. art. Lanaren antolaketa profesionalean funtsezko aldaketak egin baino lehen, Zuzendaritzak erredakzio-kontseiluari jakinaraziko dizkio, eta iritzia eskatuko dio. Horrek ez ditu eragotziko Zuzendaritzari legez dagozkion ahalmenak.
71. art. Profesionalek prozesu informatiboan eta, orokorrean, erredakzio-prozesuan inplikazio handiagoa izateko helburuarekin eta erredakzioaren antolakuntza eraginkorrago bihurtzeko helburuarekin, erredakzio-kontseilua hilean behin bilduko da, kasuan-kasuan, Albistegi zuzendariarekin, Eduki arduradunarekin edo Programa zuzendariarekin, edo izendatutako ordezkariarekin. Alderdiren batek hala eskatuta, bilera gehiago egin daitezke. Horrek guztiak produktuen kalitate handiagoa ekarriko du, bai eta Estatutu honi dagozkion arazo profesionali buruz gogoeta egiteko aukera hobe ere.
72. art. Presako kasuetan, bi alderdiek ezohiko bilera antola dezakete.

ERREDAKZIO KONTSEILUEN ESKUMENEZ

73. art. Erredakzio-kontseiluek Erredakzio Estatutu hau eta beronek oinarri dituen printzipio orokorrak betetzen direla zaindu behar dute.
74. art. Informazioaren profesionali aholkua eta laguntza eman behar diete dagozkien eskubide eta betebeharren inguruko arazoetan.

75. art. Gatazka edo desadostasunen bat gertatzen denean, bitartekari moduan aritu behar dute Zuzendaritzaren aurrean, arazoa dagokion profesionalak hala eskatuz gero.
76. art. EITBko informazioaren profesionalak ordezkatzeko dituzte Estatutu honi dagozkion arazoetan.
77. art. Erredakzioetan Estatutu honi dagozkion arazoen gainean sorturiko eskakizunak, proposamenak eta iradokizunak, Zuzendaritzari helarazi behar dizkiote. Horrek ez du eragozten profesional batek bere kabuz jotzea goragoko instantzietara.
78. art. Zuzendaritzaren eta informazioaren profesionalen arteko komunikaziorako, elkarriketarako eta kontsultarako instantzia gisa jarduten dute.
79. art. Kazetariak informazio egiaztatu eta zinezko bat lantzearen ondorioz izan ditzaketen akusazio publikoei arin eta zehatz erantzuten diete.
80. art. Erredakzio-kontseiluek estilo-liburuak egiteko edo/eta eguneratzeko debateetan hartuko dute parte. Debate horietarako, informazioaren profesional guztiei eskatuko zaie iritzia zuzenean. Erredakzio-kontseiluek, era berean, praktika onen katalogoak egiteko lanetan hartuko dute parte, dela zuzenean, dela EITBko beste profesional batzuek ordezkaturik.
81. art. Politika informatiboari eta erredakzioaren antolaketari dagozkion erabakiak hartzen direnean, erredakzio-kontseiluak jakitun ipintzen dira.
82. art. Kazetaritzako etikaren urraketa gertatuz gero, esate baterako, manipulazioa, jardunbide informatibo txarrak, edo informazio bat ez zabaltzea, EITBko Zuzendaritza Nagusia jakitun jarriko dute.
83. art. Hauteskundeei begira, Estatutu honi loturik dauden ikus-entzunezko erredakzioaren eta informazioaren profesionalen zerrenda (hautesle-errola) osatzen eta eguneratzen dute.
84. art. Babes eta erantzukizun deontologikoko prozeduretan, txostena helaraziko diote EITBko Zuzendaritza Nagusiari larritzat jotzen diren kasuetan.
85. art. Lan-arazoren baten berri jakiten duenean, Enpresa Batzordea jakitun ipiniko dute berehala.
86. art. Zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeak arazo informatiboen eta deontologikoen gainean hitz egiten dutenean, erredakzio-kontseiluek euren iritzia helarazten dute.

HORI GUZTIA POSIBLE IZAN DADIN

- 87. art. Erredakzio-kontseiluek, gehiengo osoaren erabakiz, enpresako Zuzendaritzarekin eta Albistegi Zuzendaritzarekin bilerak egiteko eska dezakete.
- 88. art. Bilerak eta batzarrak antola ditzakete Estatutuari atxikitako profesionalekin, enpresaren lokale-tan, lan-ordutegiaren barruan. Horrek ez du eguneroko lana eragotzi behar, eta deialdia gutxie-nez 48 ordu lehenago jakinaraziko dute.
- 89. art. Proposamenak eta iradokizunak helaraziko dizkiete hedabideetako zuzendaritzei.
- 90. art. Txostenak egingo dituzte, euren eskumenen arloaren barruan, Administrazio Kontseiluak, En-presa Batzordeak edo bestek hala eskatuz gero.
- 91. art. Estatutu hau aldatzea proposatuko diete Zuzendaritza Nagusiari eta Administrazio Kontseiluari, aldaketaz diharduen artikuluan zehazten den moduan.
- 92. art. Estatutu honetan aitortzen zaizkien beste eginkizun batzuk beteko dituzte.

ESTATUTUA ALDATZEAZ

- 93. art. Estatutu honen erreformak Administrazio Kontseiluaren onespena beharko du. Aldez aurretik, Administrazio Kontseiluak aintzat hartu beharko du EITB Taldeko informazioaren profesionalen iritzia, erredakzio-kontseiluek antolaturiko kontsultaren bidez jaso. Erreforma, zuzendari nagu-siak, Administrazio Kontseiluak edo erredakzio-kontseiluek proposa dezakete. Azken kasu ho-rretan, EITB Taldeko informazioaren profesionalek berretsi beharko dute, ematen diren botoen hiru bosteneko gehiengo kualifikatuarekin.

KANPOKO ENPRESAK ETA PRODUKZIO-ETXEAK

- 94. art. EITBrako informazio-dukien lanketan diharduten edo parte hartzen duten kanpoko enpresentzat eta produkzio-etxeentzat ere, Estatutu hau gida bat da. Hori dela eta, EITBko Zuzendaritzak eta hedabide bakoitzeko zuzendariek enpresa horien aurrean testu hau aktiboki defendatzeko kon-promisoa hartuko dute.

EITBREN ERREDAKZIO ESTATUTUAREN ERANSKINA

ERREDAKZIO KONTSEILUEN OSAERA

1. art. ETBko Erredakzio Kontseilua 5 ordezkari osatuko dute, eta bi urtez beteko dituzte euren zereginak. Radio Vitoriako, Eusko Irratiko irratiak eta EITBneteko erredakzio-kontseiluak hiruna kidek osatuko dituzte, eta horiek ere bi urtez beteko dituzte euren zereginak. EITBko Zuzendaritzak edo kontseiluek eurek eskatuta, osaera berriz aztertu daiteke (ikus Erredakzio Estatutua-ren 93. artikulua).
2. art. Erredakzio-kontseiluek euren ordezkariak eraginkortasunez bete ahal izan dezaten, EITBko Zuzendaritza Nagusiak beharrezko garantiak eta eskubideak aitortuko dizkie, eta eskura jarriko dizkie euren zereginetarako behar dituzten lekua, denbora eta baliabide teknikoak.
3. art. Estatutu honek aitortzen dizkien zereginak betetzeagatik, erredakzio-kontseiluetako kideei ezin dakieke zehapenik ezarri.
4. art. Erredakzio-kontseiluko kideek hilean gehienez 14 orduko kreditua izango dute euren zereginak betetzeko. Kopuru horretatik kanpo daude EITBko zuzendari eta beste arduradun batzuekin eginiko batzarrek.
5. art. Erredakzio-kontseiluek EITBn lan egiten duten informazioaren profesional guztiak ordezkatzeko dituzte, eta, etorkizunean, EITBren Erredakzio Estatutu honi atxikitzen zaizkion beste kolektibo batzuk ere.
6. art. Boto gehien jasotzen dituen hautagaia izango da erredakzio-kontseilu bakoitzeko burua.
7. art. Erredakzio-kontseiluetako kideek gehienez ere bi urteko bi agintaldi bete ditzakete jarraian, eta beste bi urte igaro beharko dira sufragio pasiboaren eskubidea erabili ahal izateko.
8. art. Kontseilua utzi ondoren, kide ohiei urtebetez errespetatuko zaizkie kontseiluko eginkizunetan aritu bitartean izandako ordutegia, lanaldia eta egitekoa, hala eskatzen badute.
9. art. Zuzendaritzak konfiantzako karguetarako izendatzen baditu, erredakzio-kontseiluetako kideek bertan behera utzi beharko dituzte kontseiluko eginkizunak. Hauteskundeetan erreserba modura eratutako kideek ordezkatzeko dituzte.
10. art. Erredakzioaren babesak galtzen badute, bertan behera utzi beharko dituzte kontseiluko eginkizunak. Erredakzioak boto bidez kenduko die babesak, hautesle-errolaren % 51k aurka bozkatuta. Bozketa hori deitzeko, eskaera egin beharko zaio erredakzio-kontseiluari, hautesle-errolaren % 20k sinatuta.

HAUTESKUNDE ARAUDIA

- 11. art. Erredakzio-kontseiluetako ordezkariak hautesle izateko baldintzak betetzen dituzten langileek aukeratuko dituzte, boto pertsonal, zuzeneko, libre eta sekretuaren bitartez.
- 12. art. Hautesle izateko, pertsonak EITB Taldean diharduen informazioaren profesionala izan behar du, Estatutu honen 4. artikuluan definitu bezala, eta enpresarekin gutxienez hilabeteko lan-harreman juridikoa izan behar du. Administrazio Kontseiluak berretsi behar dituen kargudunak ez dira hautesle izango.
- 13. art. Hautagai izateko, pertsonak EITB Taldean diharduen informazioaren profesionala izan behar du, Estatutu honen 4. artikuluan definitu bezala, eta enpresarekin gutxienez sei hilabeteko lan-harreman juridikoa izan behar du. Administrazio Kontseiluak berretsi behar dituen kargudunak eta enpresa-batzordeetako kideak ez dira hautagai izango.
- 14. art. Hitzarmen kolektibotik kanpoko harreman juridikoa duten erredaktoreek ez dute sufragio pasiboaren ez aktiboaren eskubidea.

HAUTESKUNDE PROZESUA

- 15. art. Erredakzio-kontseiluak berriztatu aurretik, ikus-entzunezko informazioaren profesionalen errolda eguneratu egin daiteke, Estatutu honetan ezarritako prozedurari jarraituz.
- 16. art. Bi urteko agintaldia amaitu baino bi hilabete lehenago, erredakzio-kontseiluek hauteskundeetarako deialdia egingo dute.
- 17. art. Hauteskundeetarako deialdia egiten denetik, zazpi eguneko epea dago Hauteskunde Batzordea eratzeke, sei pertsonak osaturik. Hiru, erredakzio-batzordeek izendatuko dituzte, eta beste hiruak, EITBko Zuzendaritzak.
- 18. art. Eratu eta gero, Hauteskunde Batzordeak zazpi eguneko epea izango du hautesle-errolda argitaratzeko.
- 19. art. Errolda argitaratuta, informazioaren profesionalak zazpi eguneko epea izango dute egoki derritzen zuzenketak eskatzeko. Hauteskunde Batzordeak hiru egun izango du alegazioen gainean erabakitzeke eta behin betiko hautesle-errolda argitaratzeko.
- 20. art. Hautagaitzak pertsona bakarrekoak izango dira.

21. art. Hautesle-errola argitaratzen denetik, zazpi eguneko epea egongo da hautagaitza aurkezteko. Epea amaitu eta biharamunean, Hauteskunde Batzordeak baldintzak betetzen dituzten hautagaien zerrenda argitaratuko du. Hiru eguneko epea egongo da erreklamazioak aurkezteko, eta hiru eguneko beste epe bat, behin betiko zerrendak argitaratzeko.
22. art. Hautagaitza ezagutarazteko, hautagai bakoitzak hamabost lerroko idazkia bidal diezaioke Hauteskunde Batzordeari, intranetean argitara dezan. Posta elektronikoa ere erabil dezake idazki hori zabaltzeko.
23. art. Hauteskunde eguna baino hamabost egutegi-egun lehenago, Hauteskunde Batzordeak intranetean argitaratuko ditu boto-paperak eta botoa postaz emateko beharrezkoa den dokumentazioa. Giza Baliabideen Sailak beharrezko baliabide teknikoak ipiniko ditu Hauteskunde Batzordearen eskura, hauteskunde-prozesua aurrera joan dadin

HAUTESKUNDE MAHAIAK

24. art. Hauteskunde-mahaiak EITBren egoitza guztietan jarriko dira (bai gaur egunekoetan –Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean–, bai etorkizunean izan litezkeenetan), eta hedabide bakoitzeko kutxa bat egongo da. Bozketa baino zazpi egun lehenago eratuko dira mahaiak, posta bidezko botoak jaso eta gordetzeko. Bozketaren eguna ostirala izango da, 10:00 - 18:00 orduetegiarekin.
25. art. Mahaia lau kidek osatuko dute, egoitza bakoitzeko erroldan adinik handiena duten biek eta adinik txikiena duten biek. Kideok euren zereginetatik libre egongo dira bozketaren egunean, eta euren ardurapean izango dute erroldan zerrendaturik dauden langileen identitatea egiaztatzea eta boto-zenbaketa egitea. Hautagaiek ikuskatzaileak izenda ditzakete Hauteskunde Batzordearen bitartez.

BOZKETA

26. art. Hautesle bakoitzak bere erredakzio-kontseiluan dauden kide adina hautagai aukeratu beharko ditu. Horretarako gurutze batez markatuko ditu. Aukeratu behar dituen baino pertsona gehiago markatuz gero, botoa baliogabea izango da. Boto gehien jasotzen dituzten hautagaiak hautetsi bihurtuko dira. Berdinketa gertatuz gero, Hauteskunde Batzordeak zozketa bidez hautsiko du.
27. art. Korrespontsalietan lan egiten dutenek edo hauteskunde-egunean kanpoan daudenek postaz eman dezakete botoa. Botoa balioduna izan dadin, gutun-azal itxi batean sartu beharko da gutun-azal handiago baten barruan, hauteslearen NANaren fotokopiarekin batera, eta gutun-azal handia Hauteskunde Batzordeari bidali beharko zaio. Posta bidezko botoa balioduna izan dadin, hauteskunde-mahaia itxi baino lehen jaso beharko da.

28. art. Bozketa amaitu ostean, jendaurrean egingo da botoen zenbaketa, bai mahaian emanak, bai posta bidez bidaliak batuta. Boto guztiak zenbatu eta gero, emaitzen eta izandako gorabeheren akta idatziko da. Akta, hauteskunde-mahaiko kide guztiek eta ikuskatzaileek sinatuko dute, eta, horren ondoren, Hauteskunde Batzordeari helaraziko zaio.

EMAITZAK

29. art. Hauteskunde Batzordeak jakinaraziko ditu emaitza guztiak, egoitza guztietan eta intranetean.
- 30². art. Boto gehien jasotzen dituzten hautagaiak izendatuko dira erredakzio-kontseiluetako kide. Hurrengo hirurak –telebistaren kasuan– edo hurrengo biak –irratien eta Interneten kasuan– erreserbako postuetan geratuko dira, izan litezkeen hutsuneak betetzeko. Kontseiluren batean hautagaiak kideak baino gutxiago balira, zentsutik hautatuz beteko dira kontseilu horretako postu guztiak. Alegia, zentsutik aukeratuko dira kontseiluko kide titularrak eta erreserbakoak.
31. art. Alegazioak aurkezteko epea 24 ordukoa izango da, eta Hauteskunde Batzordeak bi egun izango du erabakitzeko. Erabaki horren kontra ezingo da hel egin.
32. art. Epealdi hori amaituta, erredakzio-kontseiluetarako aukeratutako pertsonak euren zereginak betetzen hasiko dira.
33. art. Hauteskunde Batzordeak aktaren kopia bana bidaliko die Administrazio Kontseiluari eta aukeratuak izan diren pertsonari. Behin betiko emaitzak intranetean eta egoitza guztietako iragarki-tauletan argitaratuko dira.

² EITBren Administrazio Kontseiluak onartu zuen artikulua aldaketa, 2018.02.27ko bileran.

ERANSKIN BEREZIA

ERREDAKZIO ESTATUTU HONEN BOZKETAZ

1. art. Zuzendaritza Nagusiak eta informazioaren profesionalen ordezkariak adostasuna lortu ondoren, testua Administrazio Kontseilura bidaliko da, txosten bat presta dezan. Zuzendaritza Nagusiak txostena aztertu eta ekarriak aintzat hartu ondoren, kontsulta-prozesuari ekingo zaio.
2. art. Hiru eguneko epean, Hauteskunde Batzordea eratuko da, sei pertsonak osaturik. Hiru, Erredakzio Estatutua landu duen batzordean aritu diren informazioaren profesionalen ordezkariak izendatuko dituzte, eta beste hirurak, EITBko Zuzendaritzak.
3. art. Eratu eta gero, Hauteskunde Batzordeak lau eguneko epea izango du hautesle-errola argitaratzeko.
4. art. Hautesle-errola argitaratuta, informazioaren profesionalak bost eguneko epea izango dute egoki deritzen zuzenketak eskatzeko. Hauteskunde Batzordeak bi egun izango du alegazioen gainean erabakitze eta behin betiko hautesle-errola argitaratzeko.
5. art. Behin betiko hautesle-errola argitaratu ostean, Hauteskunde Batzordeak kontsultaren eguna finkatuko du, 15 egutegi-eguneko tartearen barruan finkatu ere.
6. art. Bozketa baino hamar egutegi-egun lehenago, Hauteskunde Batzordeak intranetean argitaratuko ditu boto-paperak eta botoa postaz emateko beharrezkoa den dokumentazioa. Giza Baliabideen Sailak beharrezko baliabide teknikoak ipiniko ditu Hauteskunde Batzordearen eskura, hauteskunde-prozesua aurrera joan dadin.
7. art. Hauteskunde-mahaiak EITBren egoitza guztietan (Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean) jarriko dira. Bozketa baino zazpi egun lehenago eratuko dira mahaiak, posta bidezko botoak jaso eta gordetzeko. Bozketaren eguna ostirala izango da, 10:00 - 18:00 ordutegiarekin.
8. art. Mahaia lau kidek osatuko dute, egoitza bakoitzeko erroldan adinik handiena duten biek eta adinik txikiena duten biek. Kideok euren zereginetatik libre egongo dira bozketaren egunean, eta euren ardurapean izango dute erroldan zerrendaturik dauden langileen identitatea egiaztatzea eta boto-zenbaketa egitea.
9. art. Hautesle bakoitzak eskura izango dituen hiru boto-paperetatik bat aukeratu beharko du: BAI Estatutuari, EZ Estatutuari, edo boto zuria.

10. art. Korrespontsalietan lan egiten dutenek edo hauteskunde-egunean kanpoan daudenek postaz eman dezakete botoa. Botoa balioduna izan dadin, gutun-azal itxi batean sartu beharko da gutun-azal handiago baten barruan, hauteslearen NANaren fotokopiarekin batera, eta gutun-azal handia Hauteskunde Batzordeari bidali beharko zaio. Posta bidezko botoa balioduna izan dadin, hauteskunde-mahaia itxi baino lehen jaso beharko da.
11. art. Bozketa amaitu ostean, jendaurrean egingo da botoen zenbaketa, bai mahaian emanak, bai posta bidez bidaliak batuta. Boto guztiak zenbatu eta gero, emaitzen eta izandako gorabeheren akta idatziko da. Akta, hauteskunde-mahaiko kide guztiek eta ikuskatzaileek sinatuko dute, eta, horren ondoren, Hauteskunde Batzordeari helaraziko zaio.
12. art. Hauteskunde Batzordeak jakinaraziko ditu behin-behineko emaitzak, egoitza guztietan eta in-tranetean.
13. art. Alegazioak aurkezteko epea 24 ordukoa izango da, eta Hauteskunde Batzordeak bi egun izango du erabakitzeko. Erabaki horren kontra ezingo da hel egin.
14. art. Estatutuak emandako botoen gehiengo soila lortzen badu, Zuzendaritza Nagusiak Administrazio Kontseiluari helaraziko dio testua, behin betiko onespena eman dezan. Onetsi eta gero, testuak unean bertan izango du indarra. Kontsulta-prozesuaz arduratu den Hauteskunde Batzordeak erredakzio-kontseiluetako kideen aukeraketa antolatu beharko du orduan. Batzorde horretan ezin daiteke egon erredakzio-kontseiluren baterako hautagaitza aurkezteko asmoa duen pertsonarik. Ordezko modura, Erredakzio Estatutuaren lanketan parte hartu duten profesionalak izan daitezke Batzordeko kide, eta, inor geratuko ez balitz, informazioaren profesional boluntarioak. Boluntariorik ez balego, zozketa bat egingo da hauteskundeetara aurkezten ez diren EITBko informazioaren profesionalen artean.

8. Eranskinak

OHARRA

Euskarazko izen berezi baten amaieran «[a](#)» edo «[ak](#)» letrak azpimarratuta ageri badira, horrek esan nahi du hitzaren amaiera artikuluari dagokiola, singularrean edo pluralean, hurrenez hurren.

Erreferentzia nagusiak:

Euskaltzaindiaren 45. araua: Gure egitura politiko batzuen euskal izenez

Euskaltzaindiaren 57. araua: Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak

Euskaltzaindiaren 139. araua: Euskal Herria izena

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren 2010eko uztailaren 16ko Agindua (EHAA, 175 zk.)

1. EITBren komunikazio-esparruko egituren deiturak

Euskal Irrati Telebistaren **komunikazio-esparrua** euskal herritarren eremu kultural, ekonomiko, sozial eta instituzional bera da eta, lehen lehenik, Euskal Autonomia Erkidegoa, bertako legebiltzarrek onartu baitzuen 5/1982 Legea, Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortzekoa.

Xehetasun gehiago ematen ez denean, EITBn aipatzen diren erakunde eta hautetsien erreferenteak **EAEko erakunde eta hautetsiak** dira: 'gobernua', 'Trafiko Zuzendaritza' eta 'Estatistika Institutua' EAEko gobernua, EAEko Trafiko Zuzendaritza eta EAEko Estatistika Institutua dira. **EAEtik kanpoko erakunde eta hautetsiak** aipatzen direnean, nongoak diren zehaztu behar da, adibidez: «Espainiako gobernua», «Espainiako presidentea», «Kataluniako Trafiko Zuzendaritza»...

Praktika profesional ona deitura ofizialak erabiltzean datza, eta, **deitura** ofizialekin batera, informazioaren lanketan beharrezko izaten diren **sinonimoak**. Deitura guztiek ez dituzte konnotazio berak izaten, eta, beraz, **informazioaren tipologiak** esango du zein den kasuan-kasuan auke-rakoena. Alegia, zilegi da, eta oso erabilgarri, testuinguruak ezberdintzea: erakundeak, politika, kultur arloa, geografia, eta abar.

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
Euskadi Euskal Autonomia Erkidegoa	Comunidad Autónoma de Euskadi Comunidad Autónoma del País Vasco Comunidad Autónoma Vasca Euskadi País Vasco
<i>Jatorriz, 'País Vasco' gaztelaniazko deitura Euskal Herria euskarazko izenaren baliokidea da. Geroago, beste esangura bat ere hartu zuen, batzuetan nahasgarria izaten dena. Izan ere, 1936ko eta 1979ko autonomia-estatutuetan, egun Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osatzen duten erkidego politikoa izendatzeko jaso zen.</i>	
Nafarroako Foru Erkidegoa Foru Erkidegoa Nafarroa	Comunidad Foral de Navarra Comunidad Foral Navarra
Hego Euskal Herria Hegoalde	Hegoalde País Vasco sur
<i>'Hegoalde' izenpean, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa biltzen dira.</i>	
Ipar Euskal Herria Iparralde Euskal Hirigune Elkargoa	Iparralde País Vasco norte Mancomunidad Única de Iparralde
<i>'País Vasco norte' erabiltzen du gaztelaniaz Euskal Kultur Erakundeak (Institut Culturel Basque): http://www.eke.eus/es/kultural/pais-vasco/pais-vasco-norte-o-iparralde</i>	

Euskal Herria a	Euskal Herria País Vasco
<i>Euskaltzaindiaren 2004ko uztailaren 23ko 139. arauari jarraiki, Euskal Herria izenak euskaraz hitz egiten den herrialdeak biltzen ditu: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa (EAE); Nafarroa (NFE); eta Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa (Ipar Euskal Herria).</i>	
Espainia Estatu espainiarra a Estatu espainola a	España Estado español
<i>‘Estatu espainiarra’ deitura ez da egoki geografiaz ari garenean.</i>	
Frantzia Estatu frantsesa a Estatu frantziarra a Frantziako Errepublika	Francia Estado francés República Francesa
<i>‘Estatu frantsesa’ deitura ez da egoki geografiaz ari garenean.</i>	

2. Gure egitura administratiboen eta kulturalen deskribapen geografikoa

2.1. Euskal Herriko erkidegoak eta herrialdeak

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
Euskal Autonomia Erkidegoa a - Araba - Bizkaia a - Gipuzkoa Nafarroako Foru Erkidegoa a - Nafarroa Iparralde ¹ - Lapurdi - Nafarroa Beherea a = Baxenabarre - Zuberoa	Comunidad Autónoma Vasca - Álava - Bizkaia - Gipuzkoa Comunidad Foral de Navarra - Navarra Iparralde ¹ - Lapurdi - Baja Navarra = Baxenabarre - Zuberoa

¹ 2017tik, Iparralde osoa egitura administratibo bakarrean bilduta dago, *Euskal Hirigune Elkargoa* izenarekin. Iparraldeak, Biarnorekin batera, Pirinio Atlantikoetako Departamendua osatzen du, zeina baita Akitania Berria eskualdearen parte bat.

2.2. Arabako kuadrillak

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
Agurain	Salvatierra
Aiaralde a	Ayala
Añana	Añana
Arabako Errioxa	Rioja Alavesa ²
Arabako Mendialde a	Montaña Alavesa
Gasteiz	Vitoria-Gasteiz
Zuia	Zuia
Trebiñu (Burgos)	Treviño (Burgos)

² Ez du behar artikulurik. Okerra da, beraz, «La Rioja Alavesa».

2.3. Bizkaiko eskualdeak

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
Arratia	Arratia
Busturialde a	Busturialdea
Durangalde a	Durangaldea = Duranguesado
Enkarterri	Encartaciones
Ezkerralde a	Margen Izquierda
Hego Uribe	Hego Uribe
Lea-Artibai	Lea-Artibai
Mungialde a	Mungialdea
Txorierri	Txorierri
Uribe Kosta	Uribe Kosta

2.4. Gipuzkoako eskualdeak

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
Debarro a	Debarroa = Cuenca del Deba
Debabarrena a	Debabarrena = Bajo Deba
Debagoiena a	Debagoiena = Alto Deba
Donostia-Beterri	Donostia-Beterri
Goierri	Goierri
Oiartzualde a	Oiartzualdea
Tolosalde a	Tolosaldea
Urola Kosta	Urola Kosta

2.5. Nafarroako merindadeak eta eskualdeak

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
Erriberri Orbaibar Iruñea Antsoain zendea Anue ibarra Araitz ibarra Arakil ibarra Aranatzalde Basaburua Baztanalde Bortziria^{ak} = Bortzerria^{ak} Burunda Etxauribar Galar zendea Itza zendea Izarbeibar Larraun ibarra Leitzaran Malerreka Ollaran = Olloibar Oltza zendea Urumealde Zizur zendea Lizarra Aguilar ibarra Allin ibarra Ameskoa ibarra^{ak} Berrotza Deierri ibarra Doneztebe Iguzkitza Egaibar Estellerriko Erribera Gesalatz ibarra Iguzkitzaibar Los Arcosko Bostiria^{ak} Mañeruibar Vianalde Tutera	Olite Valdorba Pamplona Cendea de Antsoain Valle de Anue Valle de Araitz Valle de Arakil Tierra de Aranatz Valle de Basaburua Comarca de Baztan Cinco Villas Burunda Valle de Etxauri Cendea de Galar Cendea de Itza Valdizarbe Valle de Larraun Leitzaran Malerreka Valle de Ollo Cendea de Oltza Comarca del Urumea Cendea de Zizur Estella Valle de Aguilar Valle de Allin Las Améscoas La Berrueza Valle de Yerri Santesteban de la Solana Valdega Ribera de Estella Valle de Gesalatz Valle de la Solana Cinco Villas de Los Arcos Valle de Mañeru Comarca de Viana Tudela

Zangoza Aezkoa Artzibar Eguesibar Elortzibar Erronkaribar Esteribar Ibargoiti harana a Iruñerria a Itzagaondoa ibarra a Lizoainibar Nabaskoze almiradio a Oibar harana a Urraul Zangozerria a Zaraitzu	Sangüesa Valle de Aezkoa Valle de Artze Valle de Egüés Valle de Elortz Valle de Roncal Valle de Esteribar Valle de Ibargoiti Cuenca de Pamplona Valle de Itzagaondoa Valle de Lizoain Almiradío de Navascués Valle de Aibar Urraul Comarca de Sangüesa Valle de Salazar
---	--

2.6. Nafarroa Behereko eskualdeak

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
Agaramont Amikuze Arberoa Baigorri-Ortzaize Garazi Oztibarre	Agaramont Amikuze Arberoa Baigorri-Ortzaize Garazi Oztibarre

2.7. Zuberoako eskualdeak

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
Arbaila Arbaila Handia a Arbaila Txipia a Basabürüa a Ibarresküin Ibarrezker Pettarra a	Arbaila Arbaila Handia Arbaila Txipia Basabürüa Ibarresküin Ibarrezker Pettarra

2.8. Lapurdiko eskualdeak

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
Baiona-Angelu-Biarritz (BAB) Lapurdi Beherea a Lapurdi Ekialdea a Lapurdi Erdialdea a Lapurdi Garaia a Lapurdi Itsasegia a	Baiona-Angelu-Biarritz (BAB) Lapurdi Beherea Lapurdi Ekialdea Lapurdi Erdialdea Lapurdi Garaia Costa Labortana

2.9. Iparraldeko kantonamenduak

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
Angelu Baiona-1 Baiona-2 Baiona-3 Biarritz Bidaxunerria a , Amikuze eta Oztibarre Errobi-Aturri Donibane Lohizune Hendaia-Hegoko Euskal Itsasbazterra a Baigura eta Mondarrain Euskal Mendialdea a Uztaritze-Erobi eta Urdazuri ibarrak ak	Angelu Baiona-1 Baiona-2 Baiona-3 Biarritz Comarca de Bidaxune, Amikuze y Oztibarre Errobi-Aturri San Juan de Luz Hendaia-Costa Vasca Sur Baigura y Mondarrain Montaña Vasca Uztaritze-Valles de Errobi y Urdazuri

3. Organo eta kargu politikoak

3.0. 'Lehendakari' terminoaren erabileraz

Euskal Herriko erakundeei dagokienez, egoki da **euskarazko** hedabideetan 'lehendakari' erabiltzea horietako buru edo presidenteak izendatzeko. Lehendakaria, antonomasiaraz, **Euskal Autonomia Erkidegokoa** da eta, gainerako kasuetan, zehaztu egin beharko da zein erakundetakoa den: «Nafarroako lehendakaria» e. a. **Gaztelaniazko** hedabideetan, 'lehendakari' Euskal Autonomia Erkidegokoa baino ez da.

3.1. Euskal Autonomia Erkidegoa - Comunidad Autónoma Vasca

3.1.1. Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
lehendakaria = legebiltzarburua lehen lehendakariordea bigarren lehendakariordea lehen idazkaria bigarren idazkaria legelari nagusia legebiltzarkidea bozeramailea Mahaia Legebiltzar-taldeak Osoko Bilkura Batzordeak Bozeramaileen Batzordea Diputazio Iraunkorra Arartekoa Kontu Epaitegia	presidente/a vicepresidente/a primero/a vicepresidente/a segundo/a secretario/a primero/a secretario/a segundo/a letrado/a mayor parlamentario/a portavoz Mesa Grupos parlamentarios Pleno Comisiones Junta de Portavoces Diputación Permanente Ararteko = Defensoría del Pueblo Vasco Tribunal de Cuentas

3.1.2. Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
lehendakaria lehendakariordea sailburua ³ sailburuordea Saila ³ Sailburuordetza	lehendakari vicelehendakari consejero/a ³ viceconsejero/a Departamento ³ Viceconsejería

³ Beraz: «Segurtasun Saila» / «Departamento de Seguridad»; «Segurtasun sailburua» / «consejero/a de Seguridad». Desegokia da «Consejería de Seguridad».

3.1.3. Batzar Nagusiak – Juntas Generales

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
lehendakaria = presidentea lehen lehendakariordea bigarren lehendakariordea lehen idazkaria bigarren idazkaria legelari nagusia batzarkidea bozeramailea Mahaia Legebiltzar-taldeak Osoko Bilkura Batzordeak Taldeburu Batzarra ⁴ / Bozeramaileen Batzordea ⁵ Batzar Iraunkorra ⁴ / Batzorde Iraunkorra ⁵	presidente/a vicepresidente/a primero/a vicepresidente/a segundo/a secretario/a primero/a secretario/a segundo/a letrado/a mayor juntero/a portavoz Mesa Grupos parlamentarios Pleno Comisiones Junta de Portavoces Junta Permanente ⁴ / Comisión Permanente ⁵

⁴ Bizkaian.

⁵ Gipuzkoan eta Araban.

3.1.4. Foru Aldundiak – Diputaciones forales

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
diputatu nagusia = ahaldun nagusia foru diputatua Departamentua	diputado/a general diputado/a foral Departamento

3.1.5. Justizia administrazioa – Administración de Justicia

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
lehendakaria = presidentea magistratua fiskalburua Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusia Arabako Probintzi Auzitegia Bizkaiko Probintzi Auzitegia Gipuzkoako Probintzi Auzitegia	presidente/a magistrado/a fiscal jefe/a / fiscal superior Tribunal Superior de Justicia del País Vasco Audiencia Provincial de Álava Audiencia Provincial de Bizkaia Audiencia Provincial de Gipuzkoa

3.2. Nafarroako Foru Erkidegoa - Comunidad Foral de Navarra

3.2.1. Nafarroako Parlamentua - Parlamento de Navarra

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
lehendakaria = presidentea lehen lehendakariordea bigarren lehendakariordea lehen idazkaria bigarren idazkaria legelari nagusia foru-parlamentaria bozeramailea Mahaia Parlamentu-taldeak Osoko Bilkura Batzordeak Eledunen Batzarra Batzorde Iraunkorra Arartekoa Comptos Ganbera	presidente/a vicepresidente/a primero/a vicepresidente/a segundo/a secretario/a primero/a secretario/a segundo/a letrado/a mayor parlamentario/a foral portavoz Mesa Grupos parlamentarios Pleno Comisiones Junta de Portavoces Comisión Permanente Defensor/a del Pueblo Cámara de Comptos

3.2.2. Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
lehendakaria = presidentea lehendakariordea kontseilaria ⁶ zuzendari nagusia Departamentua ⁶ Zuzendaritza Nagusia	presidente/a vicepresidente/a consejero/a ⁶ director/a general Departamento ⁶ Dirección General

⁶ Beraz: «Hezkuntza Departamentua» / «Departamento de Educación»; «Hezkuntza kontseilaria» / «consejero/a de Educación». Okerra da «Hezkuntza Saila» / «Consejería de Educación».

3.2.3. Justizia administrazioa – Administración de Justicia

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
lehendakaria = presidentea magistratua fiskalburua Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia Nafarroako Probintzi Auzitegia	presidente/a magistrado/a fiscal jefe/a / fiscal superior Tribunal Superior de Justicia de Navarra Audiencia Provincial de Navarra

3.3. Iparraldea - Iparralde

3.3.1. Akitania Berriko Eskualde Kontseilua - Consejo Regional de Nueva Aquitania

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
lehendakaria = presidentea eskualdeko kontseilaria Osoko Bilkura Batzorde Iraunkorra Gobernua ⁷	presidente/a consejero/a regional Sesión Plenaria Comisión Permanente Ejecutivo ⁷

⁷ Gobernuak presidenteorde bat badu.

3.3.2. Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia - Consejo General de los Pirineos Atlánticos⁸

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
lehendakaria = presidentea kontseilari nagusia Osoko Bilkura Batzordeak Batzorde Iraunkorra Gobernua ⁹	presidente/a consejero/a general Sesión Plenaria Comisiones Comisión Permanente Ejecutivo ⁹

⁸ Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren egoitzari Nafarroako Parlamentua deritzo (frantsesez, "Parlement de Navarre"), eta Pauen dago.

⁹ Gobernuak presidenteorde bat badu.

3.3.3. Justizia administrazioa – Administración de Justicia

Euskarazko hedabideetan	Gaztelaniazko hedabideetan
lehendakaria = presidentea magistratua ¹⁰ prokuradore nagusia = fiskalburua ¹¹ Paueko Apelazio Auzitegia Baionako Instantzia Handiko Auzitegia ¹² Baionako Instantziako Auzitegia Baionako Lan-arloko Auzitegia ¹³ Baionako Merkataritza Auzitegia	presidente/a magistrado/a ¹⁰ fiscal jefe/a ¹¹ Tribunal de Apelación de Pau Tribunal de Gran Instancia de Baiona ¹² Juzgado de Cantón de Baiona Magistratura de Trabajo de Baiona ¹³ Tribunal de Comercio de Baiona

¹⁰ Frantsesez: «magistrat du siège».

¹¹ Frantsesez: «procureur général» edo «chief de parquet».

¹² Baionako Auzitegi Korrekzionala —albistegietan sarritan aipatzen dena—, berez, Baionako Instantzia Handiko Auzitegiaren sala bat da.

¹³ Frantsesez: «Conseil de prud'hommes».

II. eranskina: Glosarioa

EITBren estilo liburuko eranskin honetan, informazioa lantzeko orduan kazetariei zalantza eragiten dieten hainbat hitz kontsulta daitezke. Era askotako hitzak dira, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeriarekin loturikoak, toki-izenak eta herritar-izenak, auzibidean gerta daitezkeen egoerak, eta Euskal Herrian antolatzen diren zenbait ekitaldi.

Glosarioa ohiko hiztegi baten gisa antolatu da. Lehenik, letra lodi urdinez, sarrera ageri da, hau da, zalantza edo kontsultatzeko beharra eragiten duen hitza. Euskarazkoak ez diren sarrerek grisez ipini dira. Ondoan, parentesi artean, hitza edo kontzeptua jasota dagoen **estilo liburuko** atalaren erreferentzia eskaini da. Azpian, dagozkion argibideak datoz: definizioa, erabilerari buruzko oharra eta jarraibideak, adibiderako esaldiak zein informazio gehiago eskaintzen duten sarreren erreferentzia ('ikus' dei-hitza ostean). Adibideetan ere, urdina erabili da euskarazkoetarako, eta grisa, besteetarako.

abisu hori (A3 fitxa)

Eguraldi-fenomenoek ekar dezaketen arriskuaz ohartarazteko, meteorologia-zerbitzuek euren sistemak darabiltzate.

- Euskalmet (EAErako): abisu horia / alerta laranja / alarma gorria

- AEMET (Nafarroarako): abisu-maila horia / abisu-maila laranja / abisu-maila gorria

- Meteo France (Iparralderako): ernetasun horia / ernetasun laranja / ernetasun gorria

Funtsean, pareko sistemak dira eta, beraz, Euskal Herri osoaz mintzatzeko, Euskalmeten nomenklatura erabil daiteke EITBn.

- *Bizkaian, abisu horian gaude gaur eta bihar.*
- *Alerta laranja ezarri dute Pirinio aldean elurragatik.*
- *Lapurdiko kostan ezin daiteke itsasora irten alarma gorriagatik.*

Berez, EAEn, Euskalmetek eguraldiaren iragarpena prestatzen du eta, Babes Zibilarekin batera, egoeraren azterketa egiten du. Azterketa horren ondoren, Segurtasun Sailak zabalitzen du dagokion ohartarazpena.

Ohartarazpenaren kolorea zehazteko, hiru faktore hartzen dira aintzat: 1) eguraldiaren iragarpena, 2) egoera (adibidez, aurreko egu-

netako euriaren ondorioz, ibaiak hazita datozen), eta 3) sektorea (nabigazioa, errepideko trafikoa, nekazaritza...).

Hiru faktoreek arrasto garrantzitsuak dira kazetariarentzat, ohartarazpenaren atzean zer albiste egon daitekeen erabakitzeke. Eguraldi Taldeak laguntza handia eman dezake kasuan-kasuan faktore bakoitza interpretatzen.

abusu (A11 fitxa)

'Adikzio' hitza sinonimotzat jo daiteke, baina gehienetan medikamentuekin lotuta erabiltzen da.

adikzio (A11 fitxa)

Pertsonari substantzia baten kontsumoa edo portaera baten errealizazioa kontrolatzea eragozten dion nahasmendua.

agiri gabe (A9 fitxa)

Esapide desagokia. Horren ordeztu, 'egoera irregularrean dagoen etorkin' edo 'bizileku-baimenik ez duen etorkin' esan daiteke.

akusatu (A14 fitxa)

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

alarma gorri

Ikus 'abisu hori'

alerta laranja

Ikus 'abisu hori'

Araba Euskaraz (B20 fitxa)

Arabako ikastolen aldeko jaialdia.

Euskaraz, edizioari dagokion urtea aurretik ipintzen da: «**2020ko Araba Euskaraz**» (zentzu gabea da «***Araba Euskaraz 2020**»).

Gaztelaniaz, artikulua erabileran, alternantzia librea ageri du:

- *La ikastola Assa es la organizadora este año de Araba Euskaraz.*
- *En La Puebla de Arganzón esperan con nervios el día del Araba Euskaraz.*

Arabako Errioxa (I. eranskina)

Desegokia da **Arabar Errioxa* esatea Araba hegoaldeko kuadrillari.

arabiar (A5 fitxa)

Arabiako herritarra, edo Arabiatik Ipar Afrikan eta Ekialde Hurbilean zabaldu zen leinuko kidea.

arabiera (A5 fitxa)

Arabian jatorria duen leinuaren hizkuntza.

asilo-eskatzaile (A9 fitxa)

Gerratik edo jazarpenetik ihesi bere herrialdetik kanpo babes bila irteten den pertsona. Halako motiboak daudenean, ez da egoki 'migrante' generikoa erabiltzea. Berez, asilo-eskatzailea izatea bien bitarteko egoera bat da, herrialde hartzaileak formalki errefuxiatu estatusa aitortu artekoa.

atzeratu (A10 fitxa)

Hitz desegokia. Desgaitasuna duten pertsonak aipatzeko, bazter utzi behar dira hitz gutxiesgarriak, eufemismoak eta esamolde mingarriak.
Ikus 'desgaitu'

atzerriratu (A9 fitxa)

Herrialdetik kanpo lan egitera irteten den pertsona. Normalean, enpresa batek edo erakunde batek aldi batez atzerriko toki batera

eginkizun jakin batekin bidaltzen duen pertsona kualifikatuari esaten zaio atzerriratu.

auzipetu (A14 fitxa)

= 'prozesatu'

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

badaezpadako espetxe (A14 fitxa)

= 'espetxe prebentibo'

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

baldintzarik gabeko espetxe (A14 fitxa)

= 'baldintzarik gabeko kartzela'

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

beltz (A9 fitxa)

Gertakariez ari garenean, desegokia da pertsonaren jatorria, talde etnikoa edo larruazalaren kolorea aipatzea, betiere albistearen ulertzeko guztiz beharrezkoa ez bada.

berbapeko askatasun (A14 fitxa)

Errugabetasun-presuntzioa errespetatzearen, delituei buruzko albisteetan, beti zehaztu behar da aipatzen diren pertsonak zein egoera juridikotan dauden.

bikote-biolentzia (A7 fitxa)

= 'bikote-indarkeria'

Ez da 'indarkeria matxista' terminoaren baliokidea.

biolentzia matxista (A7 fitxa)

= 'indarkeria matxista'

Gizonen eta emakumeen arteko harremanetan gertatzen den diskriminazioaren eta bostere-desorekaren adierazpen bat da, emakumeek jasaten dutena senar edo bikotekide dutenaren edo izan dutenaren eskutik. Terminonek ez du anbiguotasunik, eta agerian ipintzen du zein diren arazoaren erroak.

Agresio matxistak gertatzen diren ingurune batean dauden adin txikikoak halako biolentziaren biktima zuzentzat jotzen dira.

Albiste-testuetan, 'biolentzia sexista' eta 'biolentzia matxista' baliokideak dira.

biolentzia sexista (A7 fitxa)

= 'indarkeria sexista'

Ikus 'biolentzia matxista'

bizkaíno (VIII. eranskina)

Bizkaiko herritarra.

Gero eta errespetu handiagoz erabiltzen ditugu beste hizkuntza batzuetako toki-izenak, adibidez, *Sri Lanka* (sasoi bateko *Zeilan*), *Beijing* (sasoi bateko *Pekin*), *Mumbai* (sasoi bateko *Bombay*) edo *Myanmar* (sasoi bateko *Birmanía*). Errespetu berarekin, gaztelaniaz ari garenean, euskarazko izenak erabiliko ditugu ofizialak direnean eta, logikak eskatzen duenari jarraituta, dagozkien jentilizioak forma ofizial horretatik eratorriko ditugu.

departamendu (I. eranskina)

Frantziako eta beste herrialde batzuetako lurraldea banatzen den administrazio barrutietako bakoitza.

departamentu (I. eranskina)

Nafarroako Foru Erkidegoko gobernuko arloetako bakoitza.

Ikus 'sail' eta 'kontseilaritza'

desgaitu (A10 fitxa)

Hitz desagokia. Desgaitasuna duten pertsonak aipatzeko, bazter utzi behar dira hitz gutxiesgarriak, eufemismoak eta esamolde mingarriak. Honelako esapideak erabili behar dira: 'desgaitasuna duen pertsona', 'autismoa duen haurra', 'alzheimerra duen gizona' e. a.

desplazatu (A9 fitxa)

'Errefuxiatu'-ren sinonimo modura erabiltzen da baina, berez, sorlekutik irten eta herrialde bereko beste leku batera aldatzen den edo aldatzen duten pertsonari esaten zaio.

diseinuzko droga (A11 fitxa)

Deitura hau baztertu egin behar da. Laborategian sortutako drogei 'droga sintetiko' esan behar zaie, 'diseinu' hitzak kutsu erakargarri bat erants dezake eta.

droga (A11 fitxa)

Informazioetan, zein substantzia den zehaztu behar da (marihuana, kokaina, alkohola...).

Ikus 'diseinuzko droga', 'droga bigun', 'droga gogor', 'droga-mendekotasun'

droga bigun (A11 fitxa)

Ez da egokia droga bigunak eta droga gogorak bereiztea, nahasmena eragin baitaiteke kontsumo adiktiboaren ondorioei buruz.

droga gogor (A11 fitxa)

Ez da egokia droga bigunak eta droga gogorak bereiztea, nahasmena eragin baitaiteke kontsumo adiktiboaren ondorioei buruz.

droga sintetiko (A11 fitxa)

Laborategian sortutako drogei 'droga sintetiko' esan behar zaie. Desegokia da 'diseinuzko droga' terminoa, kutsu erakargarri bat izan dezake eta.

drogadikzio (A11 fitxa)

Ikus 'droga-mendekotasun'

droga-mendekotasun (A11 fitxa)

Esangura bertsua izan arren, konnotazio ezberdinak dituzte 'droga-mendekotasun', 'drogadikzio' eta 'toxikomania' terminoek. Hiruretan neutroena 'droga-mendekotasun' da, osasunarekin loturiko arloetan erabilia. 'Toxikomania' jatorriz medikuntzaren arlokoa da, droga-kontsumitzaile baten intoxikazio-egoera kronikoa edo periodikoa adierazteko, baina egun konnotazio peioratiboz zamatuta dago, 'drogadikzio' hitza bezala.

egile aitortu (A14 fitxa)

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

elbarri (A10 fitxa)

Hitz desagokia. Desgaitasuna duten pertsonak aipatzeko, bazter utzi behar dira hitz gutxiesgarriak, eufemismoak eta esamolde mingarriak.

Ikus 'desgaitu'

emakumeen aurkako indarkeria (A7 fitxa)

= emakumeen aurkako biolentzia

Albiste-testuetan, 'emakumeen aurkako indarkeria' eta 'indarkeria matxista' baliokideak dira. Halere, lehena neutroegia da, ez baititu agerian ipintzen arazoaren erroak.

emigrante (A9 fitxa)

Herrialdetik kanpo bizitzera irteten den pertsona, den arrazoiagatik dela, jatorrizko herrialdearen ikuspegitik begiratuta.

erbesteratu (A9 fitxa)

Herrialdetik kanporatu eta itzultzea debekatu zaion pertsona.

errefuxiatu (A9 fitxa)

Gerratik edo jazarpenetik ihesi bere herrialdetik kanpo babes bila irteten den pertsona. Halako motiboak daudenean, ez da egoki 'migrante' generikoa erabiltzea.

errugabetasun-presuntzio (A14 fitxa)

Errugabetasun-presuntzioa delitu batez akusaturiko pertsona guztiek duten eskubide bat da, pertsonok aurrez errugabetzat edukitzean datzana. Presuntzioaz ari garenean, eginbide judizialik hasi den jakin behar da. Hasita egon ezean, 'ustezko egilea' esan beharrean, 'egilea izan litekeena' esango dugu.

Kasua epaitu eta epai bat egon arte, honelako terminoak erabiliko dira: 'akusatua' 'ikertua', 'auzipetua', 'prozesatua', '[hain kasurekin loturik edo hain kasurengatik] atxilotua', '[gertakarien] ustezko egilea', '[gertakarien] ustezko erruduna'.

Gauza jakina bada pertsonak epailearen aurrean onartu duela gertakarietan parte hartu duela, orduan, 'egile aitortua' esan daiteke.

Eskubide honek ematen duen babesak eragotzi egiten du atxilotuak identifikatzea, haien irudia zabaltzea, eta haien bizitza pribatuari buruzko datuak jakinaraztea.

espetxe prebentibo (A14 fitxa)

= badaezpadako espetxe

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

etorkin (A9 fitxa)

= immigrante

Berea ez den herrialde batera bizitzera datorren pertsona, den arrazoiagatik dela, herrialde hartzailearen ikuspegitik begiratuta.

etorkin ilegal (A9 fitxa)

Esapide desegokia. Horren orde, 'egoera irregularrean dagoen etorkina' edo 'egoitza-baimenik gabeko etorkina' esan daiteke.

etxeko indarkeria (A7 fitxa)

= etxeko biolentzia = familia barruko indarkeria
Ez da 'indarkeria matxista' terminoaren baliokidea. Etxeko indarkeria elkarrekin bizi diren familia bereko kideen artean gertatzen da, eta biktimak gizonak zein emakumeak izan daitezke, adin nagusiak zein adin txikiak, ezkontideak, haurrideak, gurasoak zein seme-alabak.

Ikus 'biolentzia matxista'

Euskadi (I. eranskina)

= Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

euskaditar (I. eranskina)

Euskadiko herritarra, alegia, EAEko herritarra.

Ikus 'euskal herritar'

euskal (I. eranskina)

Euskal Herrikoa. Adibidez: euskal enpresa, euskal abeslaria, euskal mendiak, euskal jokalaria... Era berean, euskarari edo euskaldunen kulturari dagokiena. Adibidez: euskal ohiturak, euskal jaiak, euskal pertsona-izenak...

Ikus 'euskaldun', 'euskal herritar', 'euskaditar'

Euskal Herria (-a) (I. eranskina)

Euskaltzaindiaren 2004ko uztailaren 23ko 139. arauari jarraiki, 'Euskal Herria' izenak euskaraz hitz egiten den herrialdeak biltzen ditu: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa (EAE); Nafarroa (NFE) eta Nafarroa Beherea, Lapurdi eta Zuberoa (Ipar

Euskal Herria). Jatorriz, 'País Vasco' gaztelaniazko deitura Euskal Herria euskarazko izenaren baliokidea da. Geroago, beste esangura bat ere hartu zuen, batzuetan nahasgarria izaten dena. Izan ere, 1936ko eta 1979ko autonomia-estatu-tuetan, egun Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osatzen duten erkidego politikoa izendatzeko jaso zen.

Euskal Hirigune Elkargoa (I. eranskina)

= Euskal Elkargoa

Ipar Euskal Herri osoa biltzen duen lehen egitura administratiboa, 2017ko urtarrilaren 1ean abiatu zena.

euskal herritar (I. eranskina)

Euskal Herriko herritarra.

Ikus 'euskaldun', 'euskal', 'euskaditar'

euskaldun (VIII. eranskina)

Euskara dakien pertsona, euskaraz mintzatzen dena. Euskal Herrian jaio eta/edo bizi direnei esateko, okerra da 'euskaldun' erabiltzea.

Ikus 'euskal herritar', 'euskal'

ezindu (A10 fitxa)

Hitz desagokia. Desgaitasuna duten pertsonak aipatzeko, bazter utzi behar dira hitz gutxiesgarriak, eufemismoak eta esamolde mingarriak.

Ikus 'desgaitu'

familia barruko indarkeria (A7 fitxa)

Ikus 'etxeko indarkeria'

fidantza bidez saihets daitekeen espetxe (A14 fitxa)

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

fidantzapeko askatasun (A14 fitxa)

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

garapen jasagarri (A17 fitxa)

= garapen iraunkor

Hurrengo belaunaldien beharrak asetzeko aukerak arriskuan jarri gabe, uneko belaunaldien beharrak asetzen dituen garapen ekonomiko eta soziala.

genero-biolentzia (A7 fitxa)

Ikus 'genero indarkeria'

genero-ikuspegi (A6 fitxa)

Emakumeen eta gizonen berdintasuna alde orotarik aintzat hartzen duen ikuspegia.

genero-indarkeria (A7 fitxa)

Albiste-testuetan, genero-indarkeria / violencia de género eta indarkeria matxista / violencia machista baliokideak dira. Edozelan ere, genero-indarkeria / violencia de género termino zabalagoa da, bere barruan biltzen duelako sexu- eta/edo genero-identitateagatik edo sexu-orientazio eta/edo -jokabideagatik gauzatzen den biolentzia oro.

gernikés/-esa (VIII. eranskina)

Gernikako herritarra.

Ikus 'bizkaíno/-a'

gipuzkoano/-a (VIII. eranskina)

Gipuzkoako herritarra.

Ikus 'bizkaíno/-a'

gurasoen ardurapeko askatasun (A14 fitxa)

= gurasoen zaintzapeko askatasun

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

gutxitu (A10 fitxa)

= urritu

Hitz desagokia. Desgaitasuna duten pertsonak aipatzeko, bazter utzi behar dira hitz gutxiesgarriak, eufemismoak eta esamolde mingarriak.

Ikus 'desgaitu'

hebrear (A5 fitxa)

Antzinateko Israel herriko kidea; zentzu etnikoa du, beraz.

Hego Euskal Herria (-a) (I. eranskina)

= Hegoaldea (-a)

Izan honen pean, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa biltzen dira.

Herri Urrats (B20 fitxa)

Iparraldeko ikastolen aldeko jaialdia.

Euskaraz, edizioari dagokion urtea aurretik ipintzen da: «**2020ko Herri Urrats**» (zentzu gabea da «***Herri Urrats 2020**»).

Gaztelaniaz, artikulua erabileran, alternantzia libre ageri du:

- *Los organizadores subrayan que Herri Urrats es mucho más que un macrofestival de música.*
- *El Ayuntamiento de Arrigorriaga ha organizado un servicio de autobús para el Herri Urrats.*

hindi (A5 fitxa)

Indiako hizkuntza handienetako bat.

hindu (1) (A5 fitxa)

Hinduismoa aitortzen duen sinestuna.

hindu (2) (A5 fitxa)

= indiar

Indiako herritarra. 'Indiar' jentilizio anbiguoa-ren aurrean, Indiako herritarrei 'hindu' esatea zabaldu zen aspaldi eta, beraz, ezin daiteke txartzat eman.

ibilaldia (B20 fitxa)

Euskaraz, edizioari dagokion urtea aurretik ipintzen da: «**2020ko Ibilaldia**» (zentzu gabea da «***Ibilaldia 2020**»).

Gaztelaniaz, artikulua erabileran, alternantzia libre ageri du:

- *Los organizadores de Ibilaldia esperan superar la asistencia del año pasado.*
- *Este año nos juntaremos todos los amigos en el Ibilaldi.*

ijito (A5 fitxa)

Gertakariez ari garenean, desegokia da pertsonaren jatorria, talde etnikoa edo larruazalaren kolorea aipatzea, betiere albistea ulertzeko guztiz beharrezkoa ez bada.

ikertu (A14 fitxa)

2015. urtetik, Espainiako Zigor Kodea 'ikertu'-ei buruz ari da, lehengo 'inputatu'-en lekuan.

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

ilegal (A9 fitxa)

Ikus 'etorkin ilegal'

immigrante (A9 fitxa)

= etorkin

indarkeria matxista (A7 fitxa)

Ikus 'biolentzia matxista'

indarkeria sexista (A7 fitxa)

Ikus 'biolentzia sexista'

indiar (1) (A5 fitxa)

Indiako herritarra.

indiar (2) (A5 fitxa)

Ameriketako jatorrizko herrietako bateko pertsona.

inputatu (A14 fitxa)

2015. urtetik, Espainiako Zigor Kodea 'ikertu'-ei buruz ari da, lehengo 'inputatu'-en lekuan.

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

lpar Euskal Herria (-a) (I. eranskina)

= Iparraldea (-a)

Lapurdik, Nafarroa Behereak eta Zuberoak osatzen dute.

Ikus 'Euskal Hirigune Elkargoa'

islamista (A5 fitxa)

Bizitza sozial eta politikoan lege islamikoa aplikatzea aldarrikatzen duen musulmana.

israeldar (1) (A5 fitxa)

Antzinateko Israel herrikoen ondorengoa.

israeldar (2) (A5 fitxa)

Judaismo fedea aitortzen duen sinestuna.

judu (1) (A5 fitxa)

= hebrear

Antzinateko Israel herrikoen ondorengoa.

judu (2) (A5 fitxa)

Antzinateko Israel herrikoen fedea aitortzen duen sinestuna.

kargu gabe aske (A14 fitxa)

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

karguekin aske (A14 fitxa)

Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

Kilometroak (B20 fitxa)

Euskaraz, edizioari dagokion urtea aurretik ipintzen da: «**2020ko Kilometroak**» (zentzu gabea da «***Kilometroak 2020**»).

Gaztelaniaz, artikulua erabileran, alternantzia librea ageri du:

- *Este domingo se celebra Kilometroak en Urretxu-Zumarraga.*
- *Ze Esatek y Skakeitan actuarán en el Kilometroak.*

klima-aldaketa (A17 fitxa)

Lur planetako klima-sisteman gertatzen den transformazioa, eguraldi-eredu berriak dakartzana, alegia, leku jakin bateko tenperaturaren, prezipitazioetan, haizearen abiaduran, presio atmosferikoan eta abarretan batez besteko zein muturreko balio berriak dakartzana. Prozesu naturala izan daiteke eta, Lurraren historian, hainbeste bider gertatu dira, gradualki zein bat-batean. Oraingo unean gertatzen ari dena antropogenikoa da, hots, gizakiaren jarduerak eragina.

koloreko pertsona (A9 fitxa)

Larruazal beltza, beltzarana edo iluna duen pertsona aipatzeko deitura alternatiboa. Euskaraz, edozelan ere, maiztasun txikikoa da.

Gertakariez ari garenean, desegokia da pertsonaren jatorria, talde etnikoa edo larruazalaren kolorea aipatzea, betiere albistea ulertzeko guztiz beharrezkoa ez bada.

kontseilari (I. eranskina)

Nafarroako Foru Erkidegoko gobernuko departamentuetako baten titularra.

Ikus 'sailburu'

kontseilaritza (I. eranskina)

Espainiako autonomia-erkidegoetako gobernuan bereizten den arloetako bakoitza.

Ikus 'sail' eta departamentu'

Korrika (B20 fitxa)

Euskararen alde Euskal Herri osoa lasterka zeharkatzen duen ekimena.

Euskaraz, edizioari dagokion urtea aurretik ipintzen da: «**2020ko Korrika**» (zentzu gabea da «***Korrika 2020**»).

Gaztelaniaz, artikulua erabileran, alternantzia librea ageri du:

- *Esta edición de Korrika arrancará en Puente la Reina.*
- *¿Cuál es la Korrika que recuerdas con más cariño?*

larrialdi klimatiko (A17 fitxa)

Egun abian den klima-aldaketa antropogenikoaren tamainaz, ondorio larriez eta neurriak hartzeko denbora urriaz ohartarazten duen terminoa.

Ikus 'klima-aldaketa'

lehendakari (I. eranskina)

Euskarazko hedabideetan, Euskal Herriko edozein erakundetako presidenteari esateko erabiltzen da. Antonomasiaz, 'lehendakaria' Euskal Autonomia Erkidegokoa da eta, gainerako kasuetan, zehaztu egin behar da: «Nafarroako lehendakaria» e. a. Gaztelaniazko hedabideetan, EAEko gobernuko presidentea baino ez da aipatzen izen horrekin.

mairu (A9 fitxa)

Magrebekoa, magrebtarra. Ez du 'moro' gaztelaniazko ordainaren gutxiespen-kutsua baina, edozelan ere, desegokia da 'musulman' adierazteko.

Gertakariez ari garenean, desegokia da pertsonaren jatorria, talde etnikoa edo larruazalaren kolorea aipatzea, betiere albistea ulertzeko guztiz beharrezkoa ez bada.

migrante (A9 fitxa)

Den arrazoiagatik dela herrialdetik kanpo bizitzera irteten den pertsona, ikuspegi generikotik begiratuta. Albisteetan, termino hau lehenetsi

behar da, 'immigrante' eta 'emigrante' bazter-tuta, betiere zehaztu beharra ez badago.

minusbaliatu (A10 fitxa)

Hitz desagokia. Desgaitasuna duten pertsonak aipatzeko, bazter utzi behar dira hitz gutxiesgarriak, eufemismoak eta esamolde mingarriak.
Ikus 'desgaitu'

musulman (A5 fitxa)

Islama aitortzen duen sinestuna.

Nafarroa (I. eranskina)

= Nafarroako Foru Erkidegoa
Baztertu beharrekoa da Nafarroari 'Euskadi' esatea.

Nafarroa Oinez (B20 fitxa)

Nafarroako ikastolen aldeko jaialdia.
Euskaraz, edizioari dagokion urtea aurretik ipintzen da: «**2020ko Nafarroa Oinez**» (zentzu gabea da «***Nafarroa Oinez 2020**»).

Gaztelaniaz, artikulua erabileran, alternantzia librea ageri du:

- *Han organizado un curso para las personas que quieran participar en la seguridad de Nafarroa Oinez.*
- *Es la cuarta vez que esta ikastola protagoniza el Nafarroa Oinez.*

paper gabe = agiri gabe (A9 fitxa)

Esapide desagokia. Horren orde, 'egoera irregularrean dagoen etorkin' edo 'egoitza-baime-nik gabeko etorkin' esan daiteke.

prozesatu (A14 fitxa)

= 'auzipetu'
Ikus 'errugabetasun-presuntzio'

Saharaz hegoaldeko (A9 fitxa)

Gertakariez ari garenean, desagokia da pertso-naren jatorria, talde etnikoa edo larruazalaren kolorea aipatzea, betiere albistea ulertzeko guztiz beharrezkoa ez bada.

sail (I. eranskina)

Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuko ar-

loetako bakoitza.

Ikus 'departamentu' eta 'kontseilaritza'

sailburu (I. eranskina)

Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuko saile-tako baten titularra.
Ikus 'kontseilari'

toxikomania (A11 fitxa)

Ikus 'droga-mendekotasun'

urritu (A10 fitxa)

Ikus 'gutxitu'

III. eranskina: Azpidazketa bidezko itzulpena

1. Azpidatzien neurria

Pantaila batean **bi lerro** baino ezin dira idatzi. Lerroak ez luke inola ere **40 karaktere** baino gehiagokoa izan behar.

Azpidatziak behar beste denbora utzi behar dira pantailan, ikusleek irakurtzeko arazorik izan ez dezaten, baina denbora gehiegi ere ez dira edukiko ikusgai, bigarrenaz irakurtzen hasteak eragin dezakeen nahastea ekiditeko. Batez beste, deskribatu bezalako **lerro bi irakurtzeko, 6-7 segundo** kalkulatu beharko dira.

Lana erraztearren, taula honetan egin dira kalkuluak. Pantaila bakoitzak behar duen denboraz gainera, testuari "arnasa" apur bat eman behar zaiola hartu da aintzat: protagonista segundo pare batez entzun daiteke azpidatziak sartu aurretik; pantailatik pantailara segundo-lipar bat utz daiteke...

Kortearen iraupena	Azpidatzien neurria
< 10 s	1 pantaila: 1-2 lerro
11 - 19 s	2 pantaila: 3-4 lerro
18 - 25 s	3 pantaila: 5-6 lerro
26 - 33 s	4 pantaila: 7-8 lerro

2. Testuaren prestaketa

Pertsona baten adierazpenak itzuli eta azpidatzi modura prestatzen direnean, testu zuzena, **zentzuduna** eta **ulertzen erraza** lortu behar da.

Lehen araua itzulpen ona egitea da. Adierazpenak euskaratik gaztelaniara itzuli behar badira, esate baterako, gure gaztelanian egiten ditugun solezismoak (leismoa, «*si tendría», «*sentarros»...) guztiz saihestu behar dira.

Bigarren araua da beharrezko **aldaketak edo moldaketak** egitea, testua zentzuduna eta ulergarria izan dadin.

- a) **Osatu** egin behar dira hiztunak zintzilik, amaitu gabe edo etenda uzten dituen esaldiak.
- b) **Esplizitatu** egin behar dira doinuaren, keinuen eta elipsien menpe uzten dituen esangurak.
- c) Azpidatzietatik **kanpo utzi** behar dira makulu eta hitz hutsak («bueno», «ba», «e», «tira», «zera»...).
- d) **Ondo adierazi** behar dira txarto azalduta, erdizka esanda edo ulertutzat emanda dauden esangurak.

Horrez gainera, testua lerroka antolatzen denean, **berba-multzoak** (sintagmak) errespetatzen ahalegindu behar da, hariari errazago jarraitzen baitzaio horrela.

- a) **Lerroak banatzeko** tokirik egokienak gramatikarekin loturikoak dira: komak, lokailuak, juntagailuak...
- b) Esaldi bat idazteko pantaila bat baino gehiago behar denean, **hiru puntu** jartzen dira esaldia eteten den lekuan, eta hurrengo pantailaren hasieran berriro ere hiru puntu ipintzen dira.

1. pantalla	Lehia handia dago lehorrean.	(28 k.)
	Hala esaten digute erosleek...	(30 k.)
2. pantalla	...eta sinetsi egin beharko diegu.	(34 k.)

1. pantalla	El 58 % de los presupuestos de Bizkaia	(38 k.)
	se dedica al gasto social...	(28 k.)
2. pantalla	...y a la protección de las personas	(36 k.)
	en situación más vulnerable.	(28 k.)

3. Puntuazioa

- a) Puntuak eta komak ondo jartzeak asko laguntzen du testuari zentzua ematen.

Txarto	Ondo
Irabazi egingo dugu... Mr. Obama... Zu eta ni...	Irabazi egingo dugu, (20 k.) Mr. Obama. Zuk eta nik. (23 k.)

- b) Ez da beharrezkoa azpidatziak irekitzeko eta ixteko komatxoak erabiltzea.

Txarto	Ondo
"El dinero recogido en este Herri Urrats es para la ikastola de Kanbo."	El dinero recogido en este Herri Urrats (39 k.) es para la ikastola de Kanbo. (29 k.)

- c) Komatxoek izenak, markak eta tituluak nabarmentzeko balio dute.

Ondo
"I feel good" da abestia, (25 k.) eta dantzariak ere baditugu. (28 k.)

- d) Izen arrotz bat agertzen denean (adib., Crane), euskaraz baliagarria izan daiteke marratxo lotzea deklinabide-marka (adib., Crane-k). Dena dela, azpidatziak marratxo betetzea saihestu behar da.

4. Adibideak

Aurreko hiru ataletan azaldutako jarraibideen aplikazio praktikoa erakustearren, bi adibide proposatuko dira.

Lehen adibidea

Artur Masen katalanezko adierazpenak, Diada dela eta

Fasea		Iruzkinak
1. Jatorrizko hitzak idatziz jasotzea	Mas: El que crec que no hi ha de ser sóc jo, com a president del país. Si jo pensés en mi mateix, en l'Artur Mas, hi aniria. Kazet.: L'Artur Mas hi aniria? Mas: Sí, i tant, l'Artur Mas hi aniria; hi aniria de totes, totes. Si pensés en el meu partit també hi aniria. Si pensés en Convergència i Unió també hi aniria. I si pensés en els meus votants exclusivament, també hi aniria. Fixi's si tinc raons per anar-hi.	· Guztira, korteak 25 segundo ditu. · Denbora horretan, erritmo erosoan, hiru pantaila (sei lerro) irakur daitezke gehie-nez ere.

Fasea	Emitza	Iruzkinak
2. Itzulpen gordina	Mas: Uste dut joan behar ez duena neu naizela, herrialdeko presidentea izanik. Neure buruarengan, Artur Masengan pentsatuko banu, joango nintzateke. Kazet.: Artur Mas joango litzateke? Mas: Bai horixe, Artur Mas, joango litzateke; joango litzateke zalantza barik. Nire alderdian pentsatuko banu, orduan ere joango nintzateke. Convergencia i Union pentsatuko banu, orduan ere joango nintzateke. Eta nire boto-emaileengan baino pentsatuko ez banu, orduan ere joango nintzateke. Pentsa arrazoirik badudan joateko.	· Guztira, 450 karaktere baino gehiago dira. · Hamaika lerro (bost pantaila baino gehiago) beharko lirateke hori dena idazteko. · Sei lerroko azpidatzietan ezin daiteke 240 karaktere baino gehiago jarri.
3. Testua prozesatzea	Mas: Nik ez dut joan behar, presidentea izanik. Neure buruarengan pentsatuko banu, joango nintzateke. Kazet.: Artur Mas joango litzateke? Mas: Bai horixe, Artur Mas, joango litzateke. Nire alderdian pentsatuko banu, eta Convergencia i Union pentsatuko banu, joango nintzateke. Nire boto-emaileengan baino pentsatuko ez banu, orduan ere joango nintzateke. Baditut arrazoiak joateko.	· Itzulpenaren bigarren bertsio honetan, testu soilagoa ekointzi da. · Soildu eta gero, errazago identifikatzen dira esanahiak banatzen dituen atalak (perpaus nagusiak eta perpaus menderatuak).
4. Azpidatziak prestatzea (euskaraz)	1. pt. Ez dut joan behar, presidentea izanik. Nigatik balitz, joango nintzateke. (39 k.) (36 k.) 2. pt. Alderdian edo CiUn pentsatuko banu, orduan ere joango nintzateke. (35 k.) (29 k.) 3. pt. Nire boto-emaileengan pentsatuta, orduan ere joango nintzateke. (33 k.) (29 k.)	· Lerroak antolatzeke, atalen osotasuna errespetatu da. · Aldi berean, lerroak ahalik eta gehien orekatu dira neurriz, begiari errazago izan dakion irakurtzea.

Fasea	Emitza	Iruzkinak
4. Azpidatziak prestatzea (gaztelaniaz)	1. pt. No debo ir, como presidente del país. Si pensase en mí mismo, sí iría. 2. pt. Si pensase en mi partido o en CiU, también iría. 3. pt. Si pensase en mis votantes exclusivamente, también iría.	· Gaztelaniazko azpidatziak prestatzeko, urrats eta irizpi-de berei jarraitu behar zaie.

Bigarren adibidea

Tommy Lee Jonesen ingelesezko adierazpenak, Donostia saria jasotzera etorri zenekoak

Fasea	Emitza	Iruzkinak
1. Jatorrizko hitzak idatziz jasotzea	T. L. J.: Truly an honor. And... er... as so many receivers of this award have said before, it is a bit early... er... for a lifetime achievement award. I think I should wait for another sixty years... er... er... I will back for the next one. Thank you.	· Guztira, korteak 16 segundo ditu. · Denbora horretan, erritmo erosoan, bi pantaila (lau lerro) irakur daitezke.
2. Itzulpen gordina	T. L. J.: Es ciertamente un honor. Y como muchos otros receptores de este premio han dicho anteriormente, es un poco pronto para un premio por los logros de toda una vida. Creo que debería esperar otros sesenta años. Ya volveré a por el próximo.	· Hizketa espontaneoan gertatzen diren zalantzak eta inkongruentziak ez dira itzuli behar bere horretan.
3. Testua prozesatzea	1. pt. Es un honor. (12 k.) Como muchos otros han dicho antes... (36 k.) 2. pt. ...es pronto para un premio por una vida. (41 k.) Esperaré 60 años más, y ya volveré. (35 k.)	· Saio honen emaitza ez da ona: lerroak orekatu gabe daude; esaldi bat pantaila bitan zaitu da; informazio asko galdu da.

Fasea	Emitza	Iruzkina
4. Azpidatziak prestatzea (gaztelaniaz)	1. pt. Como muchos otros han dicho antes, es pronto para un premio por una vida. 2. pt. Debería esperar otros 60 años. Ya volveré a por el próximo.	· Azpidatzi onak egiteko, muina salbatu behar da. Tes- tuinguruak agintzen dituen konplimenduak eta osagarri den gainerako guztia kan- poan utz daiteke.
4. Azpidatziak prestatzea (euskaraz)	1. pt. Beste batzuek esan duten bezala, goiz da bizitza osoko sari baterako. 2. pt. Beste 60 urte itxaron beharko nuke. Itzuliko naiz, ba, hurrengoaren bila.	· Euskarazko azpidatziak pres- tatzeko, urrats eta irizpide berei jarraitu behar zaie.

IV. eranskina: Arazo grafikoak euskaraz eta gaztelaniaz

1. Arazo grafikoak euskaraz

- a) «Eta» juntagailua oso-osorik idatzi behar da beti. Salbuespen bakarra «eta erdi» da, «t'erdi» ere onartuko baita.

urte t'erdi

Lau t'erdiko finala

- b) Zenbakiak zifraz idatziko dira, «bat» izan ezik. Lekua badago, bitik bederatzira artekoak letraz eman daitezke. Guztiz gaitzesgarriak dira «10 mila» eta era horretako hibridoak.

16 graduko tenperatura

bost zauritu

- c) Orduak deklinatzen direnean, orduei pluraleko marka eranstean zaie, eta minutuei, singularreko marka.

15:00etan

15:03an

15:21ean

15:30ean

- d) Izen berezi arrotzak deklinatzeko, idatziari begiratuko zaio, amaierako letra mutua den ala ez aintzat hartu gabe.

Claire	→	Claireri	[klerri] ahoskera dagokio
Serge	→	Sergerentzat	[sergentzat] ahoskera dagokio

- e) Izenen amaierako -y, -w eta -h grafiak bokalak dira egiaz, arabierazko izenetan izan ezik. Hortaz, egiazko bokal-amaierei dagokien moduan deklinatuko dira:

Hannah	→	Hannahrekin	[hanarekin] ahoskera dagokio
Andrew	→	Andrewk	[andriuk] ahoskera dagokio
Johnny	→	Johnnyri	[joniri] ahoskera dagokio

Baina:

Fatah	→	Fatahek	[fataχek] ahoskera dagokio
--------------	---	----------------	----------------------------

- f) Siglei marratxo barik eransten zaie deklinabide-marka, kasu batean izan ezik: sigla Kz amaitu eta atzizkia Kz hasten denean.

AEK-k

- g) Izen berezien siglak izen bereziak bezala deklinatzen dira.

NATOk

Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeak

NBEri

Nazio Batuen Erakundeari

- h) Izen arrunten siglak izen arruntak bezala deklinatzen dira, artikulatu eta guzti.

PCa

[pezea] irakurriko dugu

BEZarekin

balio erantsiaren gaineko zergarekin

- i) Euskarazko emisioetan, izen bereziak azentu edo bestelako zeinu diakritiko barik idazten dira.

Rhone departamendua

(frantsesez: Rhône)

Lopez lehendakaria

(gaztelaniaz: López)

- j) Izen bereziei deklinabide-atzizkia eranstea, ez da inolako baliabide grafikorik behar parte biak bereizteko.

M. A. Meaberekin solasean

(desegokiak dira «MEABErekin», «Meabe-rekin» e. a.)

2. Arazo grafikoak gaztelaniaz

- a) Maiuskulaz idazten denean ere, dagozkion azentu-markak ipini behar dira.

Ágata

CANCÚN

- b) Zenbakiak zifraz idatziko dira. Lekua badago, batetik bederatzira artekoak letraz eman daitezke. Guztiz gaitzesgarriak dira «10 mil» eta era horretako hibridoak.

16 grados

Cinco heridos

- c) «Ex» aurrizkia oinarriari lotuta idatzi behar da. Oinarria hitz bat baino gehiagokoa bada, berriz, bananduta idazten da.

exmarido

ex primer ministro

ex relaciones públicas

- d) Hitz monosilabikoak azentu-markarik gabe idazten dira.

guion

truhan

liais

- e) «Solo» adberbioak ez du azentu-markarik behar. Anbiguotasuna apurtzeko zilegi da azentua idaztea, baina ez da inondik inora derrigorrezkoa.

Trabajo solo los domingos.

→

nik bakarrik

Trabajo solo / sólo / solamente los domingos.

→

igandeetan baino ez

- f) Izenordain erakusleek ez dute azentu-markarik behar. Anbiguotasuna apurtzeko zilegi da azentua idaztea, baina ez da inondik inora derrigorrezkoa.

¿Por qué tiraron esos libros usados?

→

liburu erabili horiek

¿Por qué tiraron esos / ésos libros usados?

→

pertsona horiek, liburu erabiliak

- g) Gaztelaniaz guztiz irentsita dauden hitzetan «q» letra «qu» digrafoan baino ezin da erabili. Osterantzean, «c» edo «k» jarri behar da.

Catar

Irak

cuásar

cuórum

- h) Izen arrunten siglak ez dira inoiz pluraleko forman jartzen.

diferentes ONG del país

muchos CD de música

V. eranskina: Lokuzio-arazoak euskaraz eta gaztelaniaz

1. Lokuzio-arazo orokorrak

- a) Lokuzioak **informazioa transmititzen** lagundu behar du, modu bitan. Batetik, ahoskera garbi baten bitartez, testua ondo jasotzen lagundu behar zaie ikus-entzuleei. Bestetik, doinu egoki baten bitartez, zentzuaz ondo jabetzen lagundu behar zaie.
- b) Lokuzioak **tonu naturala** izan behar du; ez da egokia ez tonu enfatikoa, ez handientsua, ez pedantea, ez maneratsua.
- c) Ikus-entzuleek ez dute irakurketa-tonurik sumatu behar lokuzioan. Testua entzutean, esataria **aurrez aurre hizketan** ari zaiela iruditu behar zaie.
- d) Lokuzioak **monotonia saihestu** behar du. Horretarako, batetik, esaldi guztiak berdin taxutzea saihestu behar da. Bestetik, irakurtzean, nagikerian ez jaustea zaindu behar da.
- e) Erritmoari dagokionez, aldeak igartzen dira genero batetik bestera. Albisteak **erritmo onean** irakurtzen dira, urgentzia-kutsu apur bat emanez. Erreportajeak lasaiago irakurtzen dira. Kiroletan, erritmo bizi samarra erabiltzen da.
- f) Kiroletan, ahotsaren inflexioak beste generoetan baino markatuagoak dira. Edozelan ere, oro har, desegoki dira **doinuera malkartsuak**, gorabehera handikoak.
- g) **Eten eta geldialdiek** arnasa hartzeko balio diote esatariari, baina, horrez gainera, testuari zentzua ematen eta irakurketaren erritmoa markatzen laguntzen dute. Oso jokabide desegokia da hitz-jarioka mintzatzea, eta itolarriak agintzea etenak non egin.
- h) Oso jokabide desegokia da, halaber, esaldiak ez ixtea, eta lokuzioaren doinua goian zintzilik uztea eten guztietan, esaldietako **pausa ezberdinak** bereizi gabe.
- i) Puntuazio-markak eta puntuazio-arauak labur gera daitezke esatari profesionalen premietarako, eta, beraz, zilegi da —eta gomendagarri— **bakoitzak bere sistema** asmatzea.

- j) Hizkuntza arrotzetako hitzak eta pertsona- eta leku-izenak albistea prestatzen den unean **kontsultatu** behar dira, testua irakurtzeko orduan zalantza edo akatsa ez egiteko (forma akastun edo okerrak izartxo batez markatuta daude).

Wroclaw	<vrotsuaf>	(*roklaw)
maglia	<mallā>	(*maglia)
Angela Merkel	<angéla>	(*ánxela)

2. Lokuzio-arazoak euskaraz

- a) Hotsak ebakitzeko orduan, **Euskaltzaindiak** emandako EBAZ deritzon araua da erreferentzia nagusia.

joan	<yoan>	(*xoan)
zihoan	<zihoan>	(*zioan)
prozesu	<prozesu>	(*proθesu)
mutila	<mutilla> / <mutila>	(*mutiya)

- b) Munduko **nazioak**, **hiriburuak** eta hiri nagusiak, eskualderik ezagunenak eta elementu geografikorik garrantzitsuenak, euskal grafiara egokitzen direnez gero, euskararen legeen arabera ahoskatuko dira.

Norvegia	<norbegia>
Jerusalem	<yerusalem>

- c) Euskal pertsona- eta leku-izenak esaten direnean, **euskal ahoskera** eman behar zaie. Arreta berezia jarri behar da hainbat izenez osaturiko kateak agertzen direnean, oso nabarmen geratzen baita ahoskera desegokia.

Antonia Lauzirika	<an-tó-ni-à law-zí-ri-kà>	(*an-tó-nja law-zi-rí-ka)
Derio	<de-rí-o>	(*dé-rjo)

- d) Euskal Herrian gaztelaniazko diskurtsoan ohiko diren euskarazko hitzen kasuan, arreta eman behar zaio **azentuazioari**, gaztelaniaren eredueta ez jausteko.

ikastola	<i-kás-to-là>	(*i-kas-tó-la)
zorianak	<zo-rí-o-nàk>	(*zo-rjó-nak)
batasuna	<ba-tá-su-nà>	(*ba-ta-sú-na)
aspaldiko	<as-pál-di-kò>	(*as-pal-dí-ko)

- e) Euskal Irrati Telebistan, euskararen **doinuera guztiak** dira zilegi eta egoki.

3. Lokuzio-arazoak gaztelaniaz

- a) Askok aurka egiten dioten arren, **yeismoa** arauzkoa da gaztelaniaz, <ll> ebakera bezala.

caballo	<kaballo> / <kabayo>
----------------	----------------------

- b) Mundu zabaleko leku-izenak ondo ahoskatzeko ahalegina egiten delarik, zabarkeriatzat baino ezin da jo ahalegin bera ez egitea **euskarazko leku-izenak** ahoskatzeko.

Zarautz	<zarautz>	(*θarauθ)
----------------	-----------	-----------

- c) Preposizio eta menderagailu gehienak **azentu gabeak** dira, eta, bai batzuek, bai besteek, **multzo fonikoa** osatzen dute ostean datorren osagaiarekin. Akats larria da, beraz, preposizioari edo menderagailuari azentu nabarmena ezartzea eta ostean, lagundu behar dion osagaia sartu aurretik, eten bat egitea —adibideetan, marra bertikal baten bidez irudikatu da eten hori—. Esatari batzuek horrelako akatsak egiten dituzte, diskurtsoari enfasia eman nahian.

introducción a la química orgánica	<introdukθión l alakímika orgánika> (*introdukθión á l lakímika orgánika)
---	--

dijo que trajera pan	<díxo l ketraxéra pán> (*díxo ké l traxéra pán)
-----------------------------	--

- d) Okerra da hitz batean **azentu bi** ezartzea. Esatari batzuek horrelako akatsak egiten dituzte, diskurtsoari enfasia eman nahian.

el comunicado	<elkomunikádo>	(*elkómu-nikádo / *elkomúni-kadó)
la publicación	<lapublikaθión>	(*lapúbli-kaθión)

- e) Euskal Irrati Telebistan, **zilegi** eta **egoki** da euskal doinuko gaztelania, baita Ebroko Erriberako doinukoa ere.

VI. eranskina: ENG ekipoen bidez grabatzeko jarraibideak

1. Prentsaurrekoak

ENG ekiptoak prentsaurrekoa ematen den hizkuntza jakin behar du.

Kazetaritza-kalitatea	Narrazio-kalitatea	Estilo-ezaugarriak
EITBren eskariak ahalik eta datu gehien jaso behar du: parte-hartzaileak, ekitaldiaren helburua, grabatzeko irizpideak. Kazetariak ahal den eta argibide gehien emango dio ENG ekiptoari, baliabide-plano hobeak eta ugari lortzeko helburuarekin: hizlariak grabatzeko ordena, txertaketak egiteko une egokia... Bestela: • Hizketaldi guztiak grabatu behar dira, baita kazetari-egindako galderen erantzunak ere. • Baliabide-planoak grabatu behar dira. • Prentsaurrekoa gaztelaniaz besterik ematen ez bada, euskaraz egindako zeinahi erreferentzia grabatu behar da (elkarriketak...).	Baliabide-planoak: • Baliabide-plano ugari grabatu. Inoiz ez dira gehiegi. • Kanpoaldea, kartela, esku-orria, logotipoaren aplikazioak, ikus-entzunezkoen proiektzioak eta abar erakusteko planoak (ahalik eta gehien zehaztu). • Sarrera-irteeren planoak, eta berez sortzen diren pasadizoen planoak (agurrak, elkarriketak, itxurak...). • Hizlarien planoak (orokorra, hainbat angelutatik, plano laburrak, mahaira eserita, logoaren ondoan...).	• Plano labur oso egonkorak (tripodea erabiliz). • Zehaztu planoak mikroarekin / mikrorik gabe grabatu behar den. AUDIOA: CH1- Hizlarien ahotsa CH2- Giroko audioa (kamerako mikroa) Hainbat hizlari egonez gero, CH2ra beste mikrofono bat konekta daiteke.

2. Kirolak: ekitaldiak eta emankizunak

ENG ekipoak dena delako kirolaren oinarriak jakin, eta kirolari ospetsuenak nor diren ezagutu behar du.

Kazetaritza-kalitatea	Narrazio-kalitatea	Estilo-ezaugarriak
EITBren eskariak ahalik eta datu gehien jaso behar du: ekitaldia bera, jarraitu beharreko kirolariak, eta grabatzeko irizpideak. Bestela: - Kirol-ekitaldia bada, jokoaren jarraipena egin behar da, golak, finalak, aurreneko sailkatuak eta abar ez galtzeko. - Entrenamendua bada, albiste diren jokalarien eta entrenatzailearen jarraipena egingo da.	Baliabide-planoak: - Baliabide-plano ugari grabatu. Inoiz ez dira gehiegi. - Baliabide-planoak: ikusleak, ordezkoen aulkia, entrenatzailea, autografoak, sarrera-irteerak.	AUDIOA: Irakurri <i>Audioaren kalitatearen gaineko ezaugarri teknikoak</i> izeneko atalaren azken oharra. Kamerako mikroaren soinu-kalitatea nahikoa ez balitz, mikro bat konektatu beharko litzateke CH1era.

3. Arte-erakusketak

Kazetaritza-kalitatea	Narrazio-kalitatea	Estilo-ezaugarriak
EITBren eskakizunak besterik adierazi ezean, albistegia amaitzeko berri bat edo estetikazainduko kultur berri bat egitea da helburua.	Hartu behar diren planoak: - Grabatutako koadro edo eskultura bakoitzaren osoko plano eta xehetasunen plano. - Erakusketaren plano orokorra (aretoa, lanak, ikusleak, e. a.), angelu berezi eta originalak erabiliz. Kanpoaldearen planoak (eraikinaren aurrealdea barne), kartelak, liburuxkak, logotipoak, artista, e. a.	- Narrazioa foku-aldaketekin, islekin... - Halako grabazioetan, eskertzekoa da kamerariaren sormena.

4. Kontzertuak eta musika-emanaldiak

Kazetaritza-kalitatea	Narrazio-kalitatea	Estilo-ezaugarriak
EITBren eskakizunak besterik adierazi ezean, albistegia amaitzeko berri bat edo estetikazainduko kultur berri bat egitea da helburua.	Hartu behar diren planoak: - Gutxienez 2 minutuko etenik gabeko musika-planoa (sekuentzia interesgarria), oso-osorik emateko modukoa. - Plano orokorrak eta xehetasun-planoak (instrumentuak, musikariak, ikus-entzuleak, kartelak, logotipoak, sarrerak eta irteerak, kanpoan zain egondakoak...), hainbat angelutatik hartuta.	- Narrazioa foku-aldaketekin, islekin. - Halako grabazioetan, eskertzekoa da kamerariaren sormena. AUDIOA: Audio-seinalea soinu-mahaitik badator, zaratarik sortzen ez dela egiaztatu behar da, eta gogoan izan behar da konektorea hainbat motatakoa izan daitekeela.

5. Istripuak, kalteak eta hondamendiak

Kazetaritza-kalitatea	Narrazio-kalitatea	Estilo-ezaugarriak
Kazetariaren eskariei jaramon egin behar zaie. Argibiderik izan ezean, kameraria ahalik eta informazio gehien grabatzen ahaleginduko da, bai jazoerak eurak, bai <i>in situ</i> egiten diren adierazpenak .	- Gertakarien, biktimen eta lekukoen plano orokorrak eta xehetasun-planoak. - Lekukoen eta agintarien adierazpenen planoak. - Herriaren, inguruaren, mugarrien, kartelen eta gertakaria zehazki kokatu dezaketen datuen planoak. - Ahal dela, ez grabatu matrikularik.	Ez grabatu gehiegi kamera lepoan hartuta, behar-beharrezkoa izan ezean. AUDIOA: CH1 kanala, adierazpenak eta soinu zehatzak grabatzeko, (ahal dela, zaratak eragotzi). CH2 kanala, giro-soinua grabatzeko.

6. *Statementa (stand up)*

ENG taldeak *statementaren* hizkuntza jakin behar du.

Kazetaritza-kalitatea	Narrazio-kalitatea	Estilo-ezaugarriak
Kazetariaren eskariei jaramon egin behar zaie.	Kazetariaren irudiak hondoko irudiak baino lehentasun handiagoa du beti (hondoak adierazkorra eta gaiarekin lotua izan behar du, ahal den neurrian). - Kazetariaren aurrez aurreko plano ertaina, kazetaria bera zentratuta ageri dela (ala ez, konposizioaren arabera); hondoko planoak ihesetarako aprobetxatuta. Hondoko planoak gaizki fokatuta egon daiteke ala ez, kazetariari zer interesatzen zaion. Adibidez: – Albistea gertatu deneko lekuan bertan ez badago. – Hondoko planoan dagoena eta albistea lotu nahi ez badira. – Kazetariaren irudia erabat nabarmendu nahi bada. - Kazetaria ongi argiztatuta dagoela bermatu behar da, islatzaileak eta/edo argia orekatzeko fokuak erabiliz. Logoa, mikroko belakia eta mikroa bera ondo kokaturik agertu behar dira. Beste aukera bat paparreko mikrofonoa erabiltzea da. AUDIOA: Lokuzioa ongi hartzeko, mikrofonoaren posizioa zaindu behar da. Kanpoko zarata handiak edo haizeak eragindakoak eragotzi behar dira.	

7. Elkarrizketak

ENG ekipoak elkarrizketaren hizkuntza jakin behar du.

Kazetaritza-kalitatea	Narrazio-kalitatea	Estilo-ezaugarriak
Kazetariaren eskariei jaramon egin behar zaie. - EITBren eskakizunaren arabera kazetariak parte hartu behar ez badu baina galdera-sorta bat baldin badago, galderak kamerariaren alboan dagoen laguntzaileak egin behar ditu. Elkarrizketatuak laguntzaileari begiratu behar dio. - Kazetariak parte hartzen duenean, kamerariaren alboan jarri behar du, aurreko kasuan bezalaxe. Eta, berdin: hizlariak kazetariari begiratu behar dio. - Kazetaria eta elkarrizketatua plano berean azaltzen direnean, kameraren aurrez aurre jarri behar dute biek sarrera eta galderak egin bitartean. Elkarrizketatua erantzuten hasten denean, kazetariak elkarrizketatuaren alderantz biratu behar du, elkarrizketatuaren planoan kameraren aurrez aurrekoa izan dadin eta alboz sekula atera ez dadin.	- Kazetariaren eta elkarrizketatuaren baliabide-planoak beste toki batzuetan (iristean, alde egitean, e. a.). - Elkarrizketatuaren baliabide-planoak, aho-keinurik ikusten ez dela. - Elkarrizketatuaren xehe-tasunen baliabide-planoak (eskuak, begiak...).	Elkarrizketatuaren irudiak hondoko irudiak baino lehentasun handiagoa du beti. - Elkarrizketatuaren hondoa gaizki fokatuta egon daiteke: albistearekin erlazionatu nahi ez denean, asmo artistikoengatik... - Elkarrizketatua ongi argiztatuta dagoela bermatu behar da, islatzaileak edo/eta argia orekatzeko fokuak erabiliz. Kamera pertsonarengandik urrun jarri, haren irudiari kalterik ez egiteko (ez da egokia angeluhandia), eta ez kikiltzeko. AUDIOA: Oso garrantzitsua da beti soinua ongi grabatzea.

8. Zuzeneko emankizunak eta kazetaririk gabeko beste lan batzuk

Kazetaritza-kalitatea	Narrazio-kalitatea	Estilo-ezaugarriak
Zuzenekoak: Kazetariaren eskariei jaramon egin behar zaie.	Zuzenekoak: Kazetariaren eskariei jaramon egin behar zaie, edo berak emandako jarraibideei (kazetaria une horretan ez balego), albistearekin lotutako ikusizko informazio egokia eskaintzen duen kokalekua aukeratzeko helburuz.	Zuzenekoak: Errealizazioak emandako jarraibideei jaramon egin behar zaie.
Gainerako lanak, kazetaririk gabe: - Albistearen jarraipena egin behar da. - Kazetariak harremanetan jarri behar du ENG ekipoarekin, beharrezko informazioa emateko.	Gainerako lanak, kazetaririk gabe: Baliabide-plano ugari.	Gainerako lanak, kazetaririk gabe: AUDIOA: Giro-soinua beti grabatu behar da.

9. Bideoaren kalitate-ezaugarri teknikoak

- Honela antolatu behar da grabazioa: 30 segundoz **barrak**; audio-kanal bietan 1 kHz eta 0 VU-ko **tonua** → 30 segundoz **beltza** eta erabateko **isiltasuna** → Grabazio **masterra**.
- Zuri- balantzea** egin behar da kokaleku berri bakoitzean, edo beharrezkoa den guztietan.
- Tripodea** erabili behar da ahal den guztietan, kazetaritza- edo arte-asmo jakin bat eduki ezean.
- Zoom eta hartualdi panoramiko** laburrak egin behar dira (albiste editatua beti da laburra), baina ez azkarrak, hasiera eta amaiera egonkorrekin (5 segundoz plano finkoa → kameraren mugimendua → 5 segundoz plano finkoa).
- Hartualdi **panoramikoak** interesa duen puntu batetik beste batera joan behar du.
- Planoak** direla eta: a) **konposizio** ONA, b) **argiztapen** ONA, c) **kopuru eta iraupen** EGOKIAK, editatze-lan ona egin ahal izateko.

- g) EITBren **logoak eta mikrofonoak** egoera onean behar dute.
- h) **Prentsaurrekoetan, EITB Taldearen mikroetan** ageri diren logoak posizio egokian eta erraz ikusteko moduan daudela zaindu behar da.

10. Audioaren kalitate-ezaugarri teknikoak

- a) **Emaiza** beti **egiaztatu** behar da; ezertarako ere ez dira ulertzen ez diren audioak edo giro-soinurik ez daukaten bideoak.
- b) **Giro-soinua** grabatzen denean, ez egin hitzik, audioa baliagarria izan dadin.
- c) **Audio-mailak** beti kontrolatu behar dira. Segurtasun-neurri gisa, komenigarriagoa da baxu grabatzea, altuegi grabatzea eta asetzea baino. Kaskoen bitartez egiaztatu behar da audioa onartzeko modukoa dela.
- d) Audioa **soinu-mahaiko** linea-irteeratik hartu behar da; ez amplifikazio-sistematik.
- e) **Giro-soinua** zenbat eta ozenagoa izan, eskuko mikroak orduan eta hurbilago egon behar du soinu-iturritik (kazetariaren ezpainetatik).
- f) Haize zakarra badabil, **haize-babes** zurruna erabil daiteke.
- g) Ez sorrarazi **soinu-arazorik** mikrofonoak elkar ukitzen daudelako, grabagailuek zarata ateratzen dutelako, haize-lasterrak dabiltzalako...
- h) Prentsaurrekoetan, audioa antolatzaileek banatzen dutenean, **konektore egokiak** erabili, eta soinu-kalitate egokia lortu behar da.

VII. eranskina: Telebistako kredituei buruzko araudia

1. Irizpide nagusiak

Aitorpena

1. Telebistako programen kredituetan agertzeko irizpide nagusia **autoretza** eta **kudeaketa erantzukizuna** dira. Zehazki:
 1. **Programaren aurretza**: zuzendaria, errealizadorea, gidoilaria, musikagilea eta aktoreak.
 2. **Aurkezleak, kazetariak**.
 3. **Saioaren kudeaketa erantzukizuna**: produktore eragilea, produktore delegatua, produktorea.
2. **Programa-mota** bakoitzak bere kreditu-sistema dauka. Zehazki:
 - Entretenimendua eta aktualitatea. (Ikus 2. atala)
 - Informazio-zerbitzuak: albistegiak eta kirol-saioak. (Ikus 3. atala)
 - Kanpo-emankizunak. (Ikus 4. atala)
3. Kredituak **lau modutan** itxi daitezke, ekoizpen-sistemaren arabera:
 - **EITB Mediak** ekoitzia.
 - Produkzio **elkartua**.
 - **Enkarguzko** produkzioa.
 - **Koprodukzioa**.
4. **Aurkezleak** eta **kazetariak** agertzen diren unean aipatuko dira:
 - **Aurkezlearen izena** beraren irudiari gainezarrita idatziko da programaren hasieran, pantailaren behealdean.
 - **Kazetariaren izena** erreportajearen irudiari gainezarrita idatziko da, pantailaren behealdean.

Estiloa

5. Kredituak programaren **irudiek dirauten bitartean** txertatuko dira pantailaren behealdeko laurdenean, 2 edo 3 lerrotan. Zeregina lehen lerroan, eta izen-abizenak azpian.



6. Kredituak luzeak direnean **multzoka** eskainiko dira, zereginen arabera, irakurtzeko moduko abiaduran. Multzo bakoitzaren iraupena 3 segundokoa izango da.

7. **Multzoen arteko trantsizioa** ebaketa bidez edo 15 frame baino gutxiagoko gortina baten bidez egingo da.
8. **Copyrightak** EITBren denboraldiko eredu grafiko bateratuari jarraitu behar dio.

Erreferentzia komertzialak

9. Kredituetan agertuko diren **izen komertzialak** EITBko Zuzendaritza Komertzialarekin hitzartu beharko dira aldez aurretik, kontratu bidezko konpromisoen kasuan izan ezik.
10. Izen komertzialei dagokienez, **hornitzaile zuzena** baino ez da aipatuko: produktuen marka jarritz gero, ez da saltokiaren izena jarriko.
11. Izen komertzialak **logo bidez** agertuko dira, baldin eta horrela jaso bada dagokion hitzarmen edo kontratuan.
12. Jantziei dagozkien konpromiso komertzialak programaren amaieran jarriko dira 3 segundoz, testu finko modura edo dagokion logoarekin, programaren amaieran jartzeko izango liratekeen gainerako kredituen aurretik. Idazkun hau ipiniko da pantailan: **Jantziak** (euskaraz) / **Vestuario** (gaztelaniaz).

Produkzio-etxeak

13. Produkzio-etxeetako langileei dagokienez, 1. jarraibideko **irizpide nagusi** berberak izango dira kontuan.
14. Programaren sortzaileekin adostuz gero, **krediturik ez sartzeko aukera** dago. Edonola ere, kasu horretan, krediturik ez sartzeagatik sor litezkeen balizko erantzukizunak ekoiztetxeak hartuko ditu bere gain.

Kontsultak

15. **Araudiaren interpretazioa** egiteko, hauek dira eskudunak:
 - **Produkzio zuzendaria** edo —Miramongo programetan— **Miramongo Produkzio burua**, kredituetan aipamenak egiteko baimenei eta moduei dagokienez.
 - **Arlo Artistikoaren burua**, kredituak txertatzeko abiadurari, uneari eta errealizazioarekin loturiko beste alderdiei dagokienez.

2. Entreenimendua eta aktualitatea

- Bestelako irizpiderik ematen ez bada, kredituak programaren amaieran eskainiko dira. Fikzioan eta dokumentaletan, aukeran dago zuzendaria eta errealizadorea hasieran jartzea. Betiere, pertsona bakoitza behin baino ez da aipatu behar, errepikatu gabe.
- Aktore-zerrenda ordenatzeko, hiru irizpide hauetako bat erabiliko da: protagonismoa, agerpen-ordena, hurrenkera alfabetikoa. Posible da irizpideak konbinatzea.
- *Copyrighta* ekoizpen-sistemaren arabera ezarriko da.

KREDITUAK EUSKARAZ	KREDITUAK GAZTELANIAZ
Zuzendaria	Dirección
Errealizadorea	Realización
Gidoilaria	Guion
Sintonia	Sintonía
<i>Produkzio-etxearen izena</i> -ko produktore eragilea	Producción ejecutiva de <i>nombre de la productora</i>
Produktore delegatua ¹	Producción delegada ¹
Gure esker ona / Kolaboratzaileak ²	Agradecimientos / Colaboraciones ²
Miramongo estudioak (<i>Miramonen egina bada</i>)	Estudios de Miramon (<i>si se ha fabricado en Miramon</i>)

Kredituen itxiera

1. EITB Mediak ekoitzia bada

KREDITUAK EUSKARAZ	KREDITUAK GAZTELANIAZ
© EITB Media 2020 (<i>urtea</i>)	© EITB Media 2020 (<i>año</i>)

¹ EITB Mediako produktorea (produkzio elkartuan, enkarguzkoan zein koprodukzioetan).

² Erakunde edo marka bati esker ona agertu behar bazaio, beraren izena zein logoa erabil daitezke.

2. Produkzio elkartua bada

KREDITUAK EUSKARAZ	KREDITUAK GAZTELANIAZ
<i>Produkzio-etxearen izena</i> -k eta EITB Mediak ekoitzia	Producido por <i>nombre de la productora</i> y EITB Media
© EITB Media 2020 (<i>urtea</i>)	© EITB Media 2020 (<i>año</i>)

3. Enkarguzko produkzioa bada

KREDITUAK EUSKARAZ	KREDITUAK GAZTELANIAZ
<i>Produkzio-etxearen izena</i> -k EITB Mediarentzat ekoitzia	Producido por <i>nombre de la productora</i> para EITB Media
© EITB Media 2020 (<i>urtea</i>)	© EITB Media 2020 (<i>año</i>)

4. Koprodukzioa bada

KREDITUAK EUSKARAZ	KREDITUAK GAZTELANIAZ
© EITB Media 2020 (<i>urtea</i>) eta <i>produkzio-etxearen izena</i>	© EITB Media 2020 (<i>año</i>) y <i>nombre de la productora</i>

3. Informazio-zerbitzuak: albistegiak eta kirol-saioak

Erreportajearen barruan, berriemailearen izena azalduko da. Egunerokoz kanpoko albistegietan, berriemailearekin batera, irudiaren eta soinuaren arduradunak ere jar daitezke.

KREDITUAK EUSKARAZ	KREDITUAK GAZTELANIAZ
Editorea edo zuzendaria	Edición o Dirección
Errealizadorea	Realización
Produktorea	Producción
© EITB Media 2020 (<i>urtea</i>)	© EITB Media 2020 (<i>año</i>)

4. Kanpo-emankizunak

1. EITB Mediak ekoitzia bada

KREDITUAK EUSKARAZ	KREDITUAK GAZTELANIAZ
Gure esker ona / Kolaboratzaileak ³	Agradecimientos / Colaboraciones ³
© EITB Media 2020 (urtea)	© EITB Media 2020 (año)

2. Ekitaldia hirugarren batek antolatua bada

KREDITUAK EUSKARAZ	KREDITUAK GAZTELANIAZ
<i>Antolatzailearen izena</i> -k eta EITB Mediak ekoitzia	Producido por <i>nombre del organizador</i> y EITB Media
Gure esker ona / Kolaboratzaileak ³	Agradecimientos / Colaboraciones ³
© EITB Media 2020 (urtea)	© EITB Media 2020 (año)

5. EITB Mediaren parte-hartzea duten film eta dokumentalak

EITB Mediak parte hartzen duen %6koaren finantzazio-proiektuetan, EITBren logoa txertatuko da kredituetan.

³ Erakunde edo marka bati esker ona agertu behar bazaio, beraren izena zein logoa erabil daitezke.

VIII. eranskina: Euskal Herriko udalerriak eta jentilizioak

EITBn erabiltzeko jarraibideak¹

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Abadiño	Abadiño	abadiñar		Durangaldea	Durangaldea = Duranguesado	Bizkaia
Abaigar	Abaigar	abaigartar		Egaibar	Valdega	Nafarroa
Abaltzisketa	Abaltzisketa	abaltzisketar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Abanto Zierbena	Abanto y Ciérvana	abantar		Ezkerraldea	Margen Izquierda	Bizkaia
Abartzuza	Abárzuza	abartzuzar		Deierri ibarra	Valle de Yerri	Nafarroa
Abaurregaina	Abaurrea Alta	abaurrear = abaurregaindar		Aezkoa	Valle de Aezkoa	Nafarroa
Abaurrepea	Abaurrea Baja	abaurrepetar		Aezkoa	Valle de Aezkoa	Nafarroa
Aberin	Aberin	aberindar		Iguzkitzaibar	Valle de la Solana	Nafarroa
Ablitas	Ablitas	ablitastar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Adios	Adiós	adiostar		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa
Aduna	Aduna	adunar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Agoitz	Aoiz	agoiztar = agoizko		Zangoza merindadea	Merindad de Sangüesa	Nafarroa
Aguilar Kodes	Aguilar de Codés	aguilartar		Aguilar ibarra	Valle de Aguilar	Nafarroa
Agurain	Salvatierra	aguraindar		Agurain	Salvatierra	Araba
Ahatsa	Ahatsa	ahatsar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Ahetze	Ahetze	aheztar		Lapurdi Erdialdea	Lapurdi Erdialdea	Lapurdi
Ahurti	Ahurti	ahurtiar		Lapurdi Ekialdea	Lapurdi Ekialdea	Lapurdi
Aia	Aia	aiar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Aiara	Ayala	aiarar		Aiaraldea	Ayala	Araba
Aiegi	Ayegui	aiegiar		Iguzkitzaibar	Valle de la Solana	Nafarroa
Aiherra	Aiherra	aihertar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Ainharbe	Ainharbe	ainharbear		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Ainhize	Ainhize	ainhiztar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Ainhua	Ainhua	ainhoar		Lapurdi Garaia	Lapurdi Garaia	Lapurdi
Aintzila	Aintzila	aintzildar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Aizarnazabal	Aizarnazabal	aizarnazabaldar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Aiziritze	Aiziritze	aiziritzar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Ajangiz	Ajangiz	ajangiztar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Akamarre	Akamarre	akamartar		Agaramont	Agaramont	Nafarroa Beherea

¹ Estilo-liburu honetako B20 fitxan ezarritako printzipioak aintzat hartuta, euskarazko hedabideetarako Euskaltzaindiak erabakitako izenak jaso dira. Gaztelaniazko hedabideetarako, gaztelaniazko izen ofizialak edo, existitu ezean, euskarazko izenak.

² Zerrenda lehen zutabe honen arabera dago ordenatuta, alfabetikoki.

³ Euskal gizarte elebidunean, ohikoa da euskarazko jentilizioak erabiltzea gaztelaniaz ari garela, adibidez: «zarauztarra», «goizuetarra», «donostiarr». Grafiari dagokionez, udalerriaren idazkerari jarraitu zaio gaztelaniazko jentilizioaren forma finkatzeko: «barakaldés», «gernikés», eta baita «bizkaino» eta «gipuzkoano» ere.

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Albiztur	Albiztur	albizturtar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Aldude	Aldude	aldudar		Baigorri-Ortzaize	Baigorri-Ortzaize	Nafarroa Beherea
Alegia	Alegia	alegiar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Alesbes	Villafranca	alesbestar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Alkiza	Alkiza	alkizar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Allin	Allín	allindar		Allin ibarra	Valle de Allín	Nafarroa
Allo	Allo	alloar		Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
Alonsotegi	Alonsotegi	alonsotegiar		Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Aloze	Aloze	aloztar		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Altsasu	Altsasu	altsasuar		Burunda	Burunda	Nafarroa
Altzabeheti	Altzabeheti	altzabehetiar		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Altzaga	Altzaga	altzagar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Altzai	Altzai	altzaiar		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Altzieta	Altzieta	altzietar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Altzo	Altzo	altzotar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Altzumarta	Altzumarta	altzumartar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Altzurükü	Altzurükü	altzurükütar		Arbaila Txipia	Arbaila Txipia	Zuberoa
Amendüze	Amendüze	amendüztar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Ameskoabarrena	Ameskoa Baja	ameskoar = ameskoabarrendar		Ameskoa ibarrak	Las Ameskoas	Nafarroa
Amezketar	Amezketar	amezketar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Amikuze	Amikuze	amikuztar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Amoroto	Amoroto	amorotar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Amorotze	Amorotze	amoroztar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Amurrio	Amurrio	amurriotar		Aiaraldea	Ayala	Araba
Añana	Añana	añanar		Añana	Añana	Araba
Andoain	Andoain	andoaindar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Andosilla	Andosilla	andosillar	andolense	Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
Angelu	Angelu	angeluar		Baiona-Angelu-Biarritz	Baiona-Angelu-Biarritz	Lapurdi
Anhauze	Anhauze	anhauztar		Baigorri-Ortzaize	Baigorri-Ortzaize	Nafarroa Beherea
Anoeta	Anoeta	anoetar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Añorbe	Añorbe	añorbear		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa
Antsoain	Ansoáin	antsoaindar		Antsoain zendea	Cendea de Antsoain	Nafarroa
Antzin	Ancín	antzindar		Egaibar	Valdega	Nafarroa
Antzuola	Antzuola	antzuolar		Debagoiena	Debagoiena= Alto Deba	Gipuzkoa
Anue	Anue	anuetar		Anue ibarra	Valle de Anue	Nafarroa
Araitz	Araitz	araitzar		Araitz ibarra	Valle de Araitz	Nafarroa

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Arakaldo	Arakaldo	arakaldar		Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia
Arakil	Arakil	arakildar		Arakil ibarra	Valle de Arakil	Nafarroa
Arama	Arama	aramar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Aramaio	Aramaio	aramaioar		Zuia	Zuia	Araba
Aranaratxe	Aranaratxe	aranaratxear		Ameskoa ibarrak	Las Ameskoas	Nafarroa
Aranguren	Aranguren	arangurendar		Zangoza merindadea	Merindad de Sangüesa	Nafarroa
Arano	Arano	aranoar		Urumealdea	Comarca del Urumea	Nafarroa
Arantza	Arantza	aranaztar		Bortziriak	Cinco Villas	Nafarroa
Arantzazu	Arantzazu	arantzazuar = arantzazuztar		Arratia	Arratia	Bizkaia
Aras	Aras	arastar		Vianaldea	Comarca de Viana	Nafarroa
Arberatze	Arberatze	arberaztar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Arberoa	Arberoa	arberoar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Arbizu	Arbizu	arbizuar		Aranatzaldea	Tierra de Aranatz	Nafarroa
Arbona	Arbona	arbonar		Lapurdi Erdialdea	Lapurdi Erdialdea	Lapurdi
Arboti	Arboti	arbotiar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Areatza	Areatza	areatzar		Arratia	Arratia	Bizkaia
Arellano	Arellano	arellanoar		Iguzkitzaibar	Valle de la Solana	Nafarroa
Areso	Areso	aresoar		Leitzaran	Leitzaran	Nafarroa
Aretxabaleta	Aretxabaleta	aretxabaletar		Debagoiena	Debagoiena= Alto Deba	Gipuzkoa
Argantzun	La Puebla de Arganzón	argantzundar		Trebiñu	Treviño	Burgos
Arguedas	Arguedas	arguedastar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Arhane	Arhane	arhantar		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Arhantsusi	Arhantsusi	arhantsusiar = arhantsusitar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Aria	Aria	ariatar		Aezkoa	Valle de Aezkoa	Nafarroa
Aribe	Aribe	aribear		Aezkoa	Valle de Aezkoa	Nafarroa
Armañanzas	Armañanzas	armañantzastar		Los Arcosko Bostiriak	Cinco Villas de Los Arcos	Nafarroa
Armendaritze	Armendaritze	armendariztar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Armiñon	Armiñón	armiñondar		Añana	Añana	Araba
Arnegi	Arnegi	arnegitar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Arraia-Maeztu	Arraia-Maeztu	arraiar = maeztuar		Mendialdea	Montaña Alavesa	Araba
Arrangoitze	Arrangoitze	arrangoiztar		Lapurdi Erdialdea	Lapurdi Erdialdea	Lapurdi
Arrankudiaga	Arrankudiaga	arrankudiagar		Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia
Arrasate	Arrasate = Mondragón	arrasatear		Debagoiena	Debagoiena= Alto Deba	Gipuzkoa
Arratzu	Arratzu	arratzuar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Arratzua-Ubarrundia	Arrazua-Ubarrundia	arratzuar = ubarrundiar		Zuia	Zuia	Araba

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Arrieta	Arrieta	arrietar		Mungialdea	Mungialdea	Bizkaia
Arrigorriaga	Arrigorriaga	arrigorriagar		Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia
Arroitz	Arróniz	arroiztar		Doneztebe Iguzkitza	Santesteban de la Solana	Nafarroa
Arrokiaga	Arrokiaga	arrokiagatar		Arbaila Handia	Arbaila Handia	Zuberoa
Arrosa	Arrosa	arrosatar		Baigorri-Ortzaize	Baigorri-Ortzaize	Nafarroa Beherea
Arroze	Arroze	arroztar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Arruazu	Arruazu	arruazuar		Aranatzaldea	Tierra de Aranatz	Nafarroa
Arrueta	Arrueta	arruetar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Artaxoa	Artajona	artaxoar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Artazu	Artazu	artazuar		Mañeruibar	Valle de Mañeru	Nafarroa
Arteaga	Artea	arteagar = arteagaztar		Arratia	Arratia	Bizkaia
Artzetales	Artzetales	artzetalestar		Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Artzibar	Valle de Arce	artzibartar		Artzibar	Valle de Artze	Nafarroa
Artziniega	Artziniega	artziniegar		Aiaraldea	Ayala	Araba
Arüe	Arüe	arüetar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Asparrena	Asparrena	asparrendar		Agurain	Salvatierra	Araba
Asteasu	Asteasu	asteasuar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Astigarraga	Astigarraga	astigartar		Donostia-Beterri	Donostia-Beterri	Gipuzkoa
Astüe	Astüe	astüar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Atarrabia	Villava	atarrabiar		Iruñea merindadea	Merindad de Pamplona	Nafarroa
Ataun	Ataun	ataundar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Atetz	Atez	ateztar		Iruñea merindadea	Merindad de Pamplona	Nafarroa
Atharratze	Atharratze	atharraztar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Atherei	Atherei	athereiar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Atxondo	Atxondo	atxondar		Durangaldea	Durangaldea = Duranguesado	Bizkaia
Aulesti	Aulesti	aulestiar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Auritz	Burguete	auriztar		Zangoza merindadea	Merindad de Sangüesa	Nafarroa
Azagra	Azagra	azagrar		Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
Azkaine	Azkaine	azkaindar		Lapurdi Itsasegia	Lapurdi Itsasegia	Lapurdi
Azkarate	Azkarate	azkaratear		Baigorri-Ortzaize	Baigorri-Ortzaize	Nafarroa Beherea
Azkoien	Peralta	azkoiendar	peraltés/a	Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Azkoitia	Azkoitia	azkoitiar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Azme	Azme	azmetar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Azpeitia	Azpeitia	azpeitiar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Azuelo	Azuelo	azueloar		Aguilar ibarra	Valle de Aguilar	Nafarroa
Baigorri	Baigorri	baigorriar		Baigorri-Ortzaize	Baigorri-Ortzaize	Nafarroa Beherea

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Baiona	Baiona	baiones = baionar	baionés/a	Baiona-Angelu-Biarritz	Baiona-Angelu-Biarritz	Lapurdi
Bakaiku	Bakaiku	bakaikuar		Burunda	Burunda	Nafarroa
Bakio	Bakio	bakiotar		Mungialdea	Mungialdea	Bizkaia
Baliarrain	Baliarrain	baliarraindar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Balmaseda	Balmaseda	balmasedar		Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Banka	Banka	bankar		Baigorri-Ortzaize	Baigorri-Ortzaize	Nafarroa Beherea
Barakaldo	Barakaldo	barakaldar	barakaldés/a	Ezkerraldea	Margen Izquierda	Bizkaia
Barañain	Barañain	barañaindar		Zizur zendea	Cendea de Zizur	Nafarroa
Barasoain	Barasoain	barasoaindar		Orbaibar	Valdorba	Nafarroa
Barbarin	Barbarin	barbarindar		Doneztebe Iguzkitza	Santesteban de la Solana	Nafarroa
Bardoze	Bardoze	bardoztar		Lapurdi Ekialdea	Lapurdi Ekialdea	Lapurdi
Bargota	Bargota	bargotar		Vianaldea	Comarca de Viana	Nafarroa
Barillas	Barillas	barillastar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Barkoxe	Barkoxe	barkoxtar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Barrika	Barrika	barrikar = barrikoztar		Uribe Kosta	Uribe Kosta	Bizkaia
Barrundia	Barrundia	barrundiar		Agurain	Salvatierra	Araba
Basaburua	Barrundia	basaburuar		Basaburua	Valle de Basaburua	Nafarroa
Basauri	Basauri	basauriar		Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia
Bastida	Labastida	bastidar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Bastida	Bastida	bastidar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Basusarri	Basusarri	basusartar		Lapurdi Erdialdea	Lapurdi Erdialdea	Lapurdi
Bazkazane	Bazkazane	bazkazandar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Baztan	Baztan	baztandar	baztanés/a	Baztanaldea	Comarca de Baztan	Nafarroa
Beasain	Beasain	beasaindar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Bedia	Bedia	bediar = bediaztar		Arratia	Arratia	Bizkaia
Behaskane	Behaskane	behaskandar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Behauze	Behauze	behauztar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Behorlegi	Behorlegi	behorlegitar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Beire	Beire	beiretar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Beizama	Beizama	beizamar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Belauntza	Belauntza	belauntzar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Bera	Bera	beratar		Bortzirriak	Cinco Villas	Nafarroa
Berango	Berango	berangar = berangoztar		Uribe Kosta	Uribe Kosta	Bizkaia
Berantevilla	Berantevilla	berantevillar		Añana	Añana	Araba
Beraskoain	Belascoáin	beraskoaindar		Etxauribar	Valle de Etxauri	Nafarroa
Berastegi	Berastegi	berastegiar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Berbinzana	Berbinzana	berbintzandar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Bergara	Bergara	bergarar	bergarés/a	Debagoiena	Debagoiena= Alto Deba	Gipuzkoa
Beriain	Beriain	beriaindar		Galar zendea	Cendea de Galar	Nafarroa
Bermeo	Bermeo	bermeotar	bermeano/a	Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Bernedo	Bernedo	bernedar		Mendialdea	Montaña Alavesa	Araba
Berorize = Montori	Berorize = Montori	beroriztar = montoriar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Berriatua	Berriatua	berriatuar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Berriobeiti	Berrioplano	berriobeitiar		Antsoain zendea	Cendea de Antsoain	Nafarroa
Berriozar	Berriozar	berriozartar		Antsoain zendea	Cendea de Antsoain	Nafarroa
Berriz	Berriz	berriztar		Durungaldea	Durungaldea = Duranguesado	Bizkaia
Berrobi	Berrobi	berrobitar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Berroeta	Berroeta	berroetar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Berrogaine	Berrogaine	berrogaintar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Bertizarana	Bertizarana	bertizarandar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Beskoitze	Beskoitze	beskoiztar		Lapurdi Ekialdea	Lapurdi Ekialdea	Lapurdi
Betelu	Betelu	beteluar		Araitz ibarra	Valle de Araitz	Nafarroa
Biarritz	Biarritz	biarritzar		Baiona-Angelu-Biarritz	Baiona-Angelu-Biarritz	Lapurdi
Bidania-Goiatz	Bidania-Goiatz	bidaniar = goiaztar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Bidankoze	Vidángoz	bidankoztar		Erronkaribar Baigorri-Ortzaize	Valle de Roncal Baigorri-Ortzaize	Nafarroa
Bidarrai	Bidarrai	bidarraitar				Nafarroa Beherea
Bidarte	Bidarte	bidartar		Lapurdi Itsasegia	Lapurdi Itsasegia	Lapurdi
Bidaurreta	Bidaurreta	bidaurretar		Etxauribar	Valle de Etxauri	Nafarroa
Bidaxune	Bidaxune	bidaxundar		Agaramont	Agaramont	Nafarroa Beherea
Bilar	Elvillar	bilartar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Bilbo	Bilbao	bilbotar	bilbaíno/a	Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia
Bildoze	Bildoze	bildoztar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Biriatu	Biriatu	biriatuar		Lapurdi Itsasegia	Lapurdi Itsasegia	Lapurdi
Bithiriña	Bithiriña	bithirindar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Biurrun-Olkotz	Biurrun-Olcoz	biurrundar-olkotzar		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa
Bizkai	Bizkai	bizkaitar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Bokale	Bokale	bokales		Baiona-Angelu-Biarritz	Baiona-Angelu-Biarritz	Lapurdi
Buñuel	Buñuel	buñueldar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Bunuze	Bunuze	bunuztar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Burgi	Burgi	burgiar		Erronkaribar	Valle de Roncal	Nafarroa
Burgu	Elburgo	burguar		Agurain	Salvatierra	Araba

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Burgue	Burgue	burguetar		Agaramont	Agaramont	Nafarroa Beherea
Burlata	Burlada	burlatar	burladés/a	Eguesibar	Valle de Egüés	Nafarroa
Busturia	Busturia	busturiar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Buztintze	Buztintze	buztintzeaz		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Cabanillas	Cabanillas	cabanillastar	cabanillero/a	Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Cabredo	Cabredo	cabredoar		Aguilar ibarra	Valle de Aguilar	Nafarroa
Cadreita	Cadreita	cadreitar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Caparroso	Caparroso	caparrosoar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Carcar	Cárcar	carcartar		Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
Cascante	Cascante	cascantear	cascantino/a	Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Castejon	Castejón	castejondar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Cintruenigo	Cintruéñigo	cintruenigoar	cirbonero/a	Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Corella	Corella	corellar	corellano/a	Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Cortes	Cortes	cortestar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Deba	Deba	debar		Debabarrena	Debabarrena= Bajo Deba	Gipuzkoa
Deierri	Valle de Yerri	deierriar		Deierri ibarra	Valle de Yerri	Nafarroa
Deikaztelu	Dicastillo	deikazteluar		Iguzkitzaibar	Valle de la Solana	Nafarroa
Derio	Derio	deriotar = derioztar		Txorierri	Txorierri	Bizkaia
Desoio	Desojo	desoioar		Aguilar ibarra	Valle de Aguilar	Nafarroa
Dima	Dima	dimar = dimoztar		Arratia	Arratia	Bizkaia
Domintxaine	Domintxaine	domintxaintar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Donaixti	Donaixti	donaixtiar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Donamaria	Donamaria	donamariar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Donamartiri	Donamartiri	donamartiritar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Donapaleu	Donapaleu	donapaleutar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Donazaharre	Donazaharre	donazahartar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Donemiliaga	San Millán	donemiliagar		Agurain	Salvatierra	Araba
Doneztebe	Santesteban	doneztebar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Doneztebe	Doneztebe	doneztebear		Arbaila Handia Garazi	Arbaila Handia	Zuberoa
Donibane Garazi	Donibane Garazi	donibandar = donibanegaraztar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Donibane Lohizune	San Juan de Luz	donibandar		Lapurdi Itsasegia	Lapurdi Itsasegia	Lapurdi
Donostia	San Sebastián	donostiar	donostiarra	Donostia-Beterri	Donostia-Beterri	Gipuzkoa
Donoztiri	Donoztiri	donoztiritar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Dulantzi	Alegria-Dulantzi	dulantziar		Agurain	Salvatierra	Araba
Durango	Durango	durangar	durangués/a	Durungaldea	Durungaldea = Duranguesado	Bizkaia

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Duzunaritze	Duzunaritze	duzunariztar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Ea	Ea	eatar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Eguesibar	Egüés	eguesibartar		Eguesibar	Valle de Egüés	Nafarroa
Eibar	Eibar	eibartar	eibarrés/a	Debabarrena	Debabarrena= Bajo Deba	Gipuzkoa
Eihalarre	Eihalarre	eiheralartar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Ekora	Yécora	ekorar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
El Busto	El Busto	elbustoar		Los Arcosko Bostiriak	Cinco Villas de Los Arcos	Nafarroa
Elantxobe	Elantxobe	elantxobetar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Elduain	Elduain	elduaindar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Elgeta	Elgeta	elgetar		Debagoiena	Debagoiena= Alto Deba	Gipuzkoa
Elgoibar	Elgoibar	elgoibartar		Debabarrena	Debabarrena= Bajo Deba	Gipuzkoa
Elgorriaga	Elgorriaga	elgorriagar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Elizagorria	Lazagurría	elizagorriar		Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
Elo	Monreal	eloar		Ibargoiti harana	Valle Ibargoiti	Nafarroa
Elorrio	Elorrio	elorriar		Durangaldea	Durangaldea = Duranguesado	Bizkaia
Eltziego	Elciego	eltziegar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Eneritz	Enériz	eneriztar		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa
Erandio	Erandio	erandiotar = randioztar		Txorierrri	Txorierrri	Bizkaia
Erango	Erango	erangoar		Agaramont	Agaramont	Nafarroa Beherea
Eratsun	Eratsun	eratsundar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Ereño	Ereño	ereñar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Ergoiena	Ergoiena	ergoiendar		Aranatzaldea	Tierra de Aranatz	Nafarroa
Ermua	Ermua	ermuar		Durangaldea	Durangaldea = Duranguesado	Bizkaia
Erreiti	Erreiti	erreitiar		Agaramont	Agaramont	Nafarroa Beherea
Erreterria	Erreterria	erreterriar		Oiartzualdea	Oiartzualdea	Gipuzkoa
Errezil	Errezil	errezildar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Erribareita	Erribareita	erribareitar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Erriberabeitia	Ribera Baja	erriberabeitiar		Añana	Añana	Araba
Erriberagoitia	Ribera Alta	erriberagoitiar		Añana	Añana	Araba
Erriberri	Olite	erriberritar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Errigoiti	Errigoiti	errigoitiar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Erroibar	Erro	erroibartar		Zangoza merindadea	Merindad de Sangüesa	Nafarroa
Erromantzatua	Romanzado	erromantzatuar		Urraul	Urraul	Nafarroa
Erronkari	Roncal	erronkariar	roncalés/a	Erronkaribar	Valle de Roncal	Nafarroa
Esa	Yesa	esar		Zangozerria	Comarca de Sangüesa	Nafarroa

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Eskoriatza	Eskoriatza	eskoriatzar		Debagoiena	Debagoiena= Alto Deba	Gipuzkoa
Eslaba	Eslava	eslabar		Oibar harana	Valle de Aibar	Nafarroa
Espartza Zaraitzu	Espaza de Salazar	espartzar = espartzazaraitzuar		Zaraitzu	Valle de Salazar	Nafarroa
Esprontzeda	Espronceda	esprontzedar		Aguilar ibarra	Valle de Aguilar	Nafarroa
Esteribar	Esteribar	esteribartar		Esteribar	Valle de Esteribar	Nafarroa
Etaiu	Etayo	etaiuar = etaiuko		Egaibar	Valdega	Nafarroa
Etxalar	Etxalar	etxalartar		Bortzirriak	Cinco Villas	Nafarroa
Etxarri	Echarri	etxarriar = etxarrietxauribartar		Etxauribar	Valle de Etxauri	Nafarroa
Etxarri	Etxarri	etxarriar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Etxarri Aranatz	Etxarri-Aranatz	etxarriar = etxarriaranaztar		Aranatzaldea	Tierra de Aranatz	Nafarroa
Etxauri	Etxauri	etxauriar		Etxauribar	Valle de Etxauri	Nafarroa
Etxebarre	Etxebarre	etxebartar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Etxebarri	Etxebarri	etxebarritar		Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia
Etxebarría	Etxebarría	etxebarritar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Eulate	Eulate	eulatear		Ameskoa ibarrak	Las Ameskoas	Nafarroa
Ezkaabarte	Ezkaabarte	ezkaabartear		Iruñea merindadea	Merindad de Pamplona	Nafarroa
Ezkaroze	Ezcároz	ezkaroztar		Zaraitzu	Valle de Salazar	Nafarroa
Ezkio-Itsaso	Ezkio-Itsaso	ezkioatar = itsasoar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Ezkurra	Ezkurra	ezkurrar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Ezpeize	Ezpeize	ezpeiztar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Ezpeleta	Ezpeleta	ezpeletar		Lapurdi Garaia	Lapurdi Garaia	Lapurdi
Ezporogi	Ezprogui	ezporogiar		Oibar harana	Valle de Aibar	Nafarroa
Ezterenzubi	Ezterenzubi	ezterenzubitar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Faltzes	Falces	faltzestar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Fitero	Fitero	fiteroar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Fontellas	Fontellas	fontellastar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Forua	Forua	foruar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Fruiz	Fruiz	fruitzar		Mungialdea	Mungialdea	Bizkaia
Funes	Funes	funestar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Fustiñana	Fustiñana	fustiñanar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Gabadi	Gabadi	gabadiar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Gabiria	Gabiria	gabiriar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Gaintza	Gaintza	gaintzar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Galar	Galar	galartar		Galar zendea	Cendea de Galar	Nafarroa
Galdakao	Galdakao	galdakatar = galdakoztar		Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Galdames	Galdames	galdamestar		Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Galipentzu	Gallipienzo	galipentzutar		Oibar harana	Valle de Aibar	Nafarroa
Galoze	Gallués	galoztar		Zaraitzu	Valle de Salazar	Nafarroa
Gamarte	Gamarte	gamartear		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Gamere	Gamere	gamerear		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Gamiz-Fika	Gamiz-Fika	gamiztar = fikar		Mungialdea	Mungialdea	Bizkaia
Gamue	Gamue	gamuar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Garai	Garai	garaitar		Durungaldea	Durungaldea = Duranguesado	Bizkaia
Garaioa	Garaioa	garaiotar		Aezkoa	Valle de Aezkoa	Nafarroa
Garazi	Garazi	garaztar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Garde	Garde	gardar		Erronkaribar	Valle de Roncal	Nafarroa
Gares	Puente la Reina	garestar		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa
Garindaine	Garindaine	garindaintar		Arbaila Txipia	Arbaila Txipia	Zuberoa
Garinoain	Garinoain	garinoaindar		Orbaibar	Valdorba	Nafarroa
Garralda	Garralda	garraldar		Aezkoa	Valle de Aezkoa	Nafarroa
Garrüze	Garrüze	garrüztar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Gasteiz	Vitoria-Gasteiz	gasteiztar	vitoriano/a	Gasteiz	Vitoria-Gasteiz	Araba
Gatika	Gatika	gatar		Mungialdea	Mungialdea	Bizkaia
Gaubea	Valdegovía	gaubear		Añana	Añana	Araba
Gautegiz Arteaga	Gautegiz Arteaga	arteagar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Gaztelu	Gaztelu	gazteluar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Gazteluberri	Castillo-Nuevo	gazteluberriar		Nabaskoze almiradioa	Almiradio de Navascués	Nafarroa
Genevilla	Genevilla	genevillar		Aguilar ibarra	Valle de Aguilar	Nafarroa
Gernika-Lumo	Gernika-Lumo	gernikar = lumotar	gernikés/a	Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Gesalatz	Guesálaz	gesalaztar		Gesalatz ibarra	Valle de Gesalatz	Nafarroa
Getaria	Getaria	getariar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Getaria (Lapurdi)	Getaria (Lapurdi)	getariar		Lapurdi Itsasegia	Lapurdi Itsasegia	Lapurdi
Getxo	Getxo	getxotar = getxoztar		Uribe Kosta	Uribe Kosta	Bizkaia
Girgillao	Guirguillano	girgillaotar		Mañeruibar	Valle de Mañeru	Nafarroa
Gixune	Gixune	gixundar		Lapurdi Ekialdea	Lapurdi Ekialdea	Lapurdi
Gizaburuaga	Gizaburuaga	gizaburuagar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Goizueta	Goizueta	goizuetar		Urumealdea	Comarca del Urumea	Nafarroa
Goñerri = Goñibar	Goñi	goñerritar = goñibartar		Lizarrar merindadea	Merindad de Estella	Nafarroa
Gordexola	Gordexola	gordexolar		Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Gorliz	Gorliz	gorliztar		Uribe Kosta	Uribe Kosta	Bizkaia

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Gorza	Güesa	gorztar		Zaraitzu	Valle de Salazar	Nafarroa
Gotaine	Gotaine	gotaintar		Arbaila Handia	Arbaila Handia	Zuberoa
Guardia	Laguardia	guardiar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Gueñes	Güeñes	gueñestar		Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Haltsu	Haltsu	haltsuar		Lapurdi Erdialdea	Lapurdi Erdialdea	Lapurdi
Harana	Valle de Arana	harandar		Mendialdea	Montaña Alavesa	Araba
Hauze	Hauze	hauztar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Hazparne	Hazparne	hazpandar		Lapurdi Ekialdea	Lapurdi Ekialdea	Lapurdi
Heleta	Heleta	heletar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Hendaia	Hendaia	hendaiar		Lapurdi Itsasegia	Lapurdi Itsasegia	Lapurdi
Hernani	Hernani	hernaniar		Donostia-Beterri	Donostia-Beterri	Gipuzkoa
Hernialde	Hernialde	hernialdetar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Hiriberri	Villanueva de Aezkoa	hiriberriar		Aezkoa	Valle de Aezkoa	Nafarroa
Hiriberri	Hiriberri	hiriberritar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Hiriburu	Hiriburu	hiriburutar		Lapurdi Beherea	Lapurdi Beherea	Lapurdi
Hondarribia	Hondarribia	hondarribiar		Oiartzualdea	Oiartzualdea	Gipuzkoa
Hozta	Hozta	hoztar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Ibargoiti	Ibargoiti	ibargoitiar		Ibargoiti harana	Valle Ibargoiti	Nafarroa
Ibarra	Ibarra	ibartar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Ibarrangelu	Ibarrangelu	ibarrangelutar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Ibarre	Ibarre	ibartar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Ibarrola	Ibarrola	ibarrolar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Idauze	Idauze	idauztar		Arbaila Handia	Arbaila Handia	Zuberoa
Idiazabal	Idiazabal	idiazabaldar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Igantzi	Igantzi	igantziar		Bortziriak	Cinco Villas	Nafarroa
Igorre	Igorre	igorretar = gorretar		Arratia	Arratia	Bizkaia
Iguzkitza	Igúzquiza	iguzkitzar		Doneztebe Iguzkitza	Santesteban de la Solana	Nafarroa
Iholdi	Iholdi	iholdiar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Ikaztegieta	Ikaztegieta	ikaztegiatar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Ilharre	Ilharre	ilhatar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Imotz	Imotz	imotzar		Iruñea merindadea	Merindad de Pamplona	Nafarroa
Irabarne	Irabarne	irabarnetar		Arbaila Handia	Arbaila Handia	Zuberoa
Irañeta	Irañeta	irañetar		Arakil ibarra	Valle de Arakil	Nafarroa
Irisarri	Irisarri	irisartar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Irulegi	Irulegi	irulegitar		Baigorri-Ortzaize	Baigorri-Ortzaize	Nafarroa Beherea
Irun	Irun	irundar	irunés/a	Oiartzualdea	Oiartzualdea	Gipuzkoa

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Iruña Oka	Iruña de Oca	iruñar = iruñaokar		Añana	Añana	Araba
Irunberri	Lumbier	irunberriar		Zangozerria	Comarca de Sangüesa	Nafarroa
Iruñea	Pamplona	iruindar	pamplonés/a	Iruñea merindadea	Merindad de Pamplona	Nafarroa
Irura	Irura	irurar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Iruraitz-Gauna	Iruraiz-Gauna	iruraitzar = gaunar		Agurain	Salvatierra	Araba
Iruri	Iruri	iruritar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Irurtzun	Irurtzun	irurtzundar		Arakil ibarra	Valle de Arakil	Nafarroa
Ispaster	Ispaster	ispastertar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Ithorrotze	Ithorrotze	ithorrotzar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Itsasondo	Itsasondo	itsasondoar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Itsasu	Itsasu	itsasuar		Lapurdi Garaia	Lapurdi Garaia	Lapurdi
Ituren	Ituren	iturendar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Iturmendi	Iturmendi	iturmendiar		Burunda	Burunda	Nafarroa
Itza	Iza	itzatar		Itza zendea	Cendea de Itza	Nafarroa
Itzagaondoa	Izagaondoa	itzagaondoar		Itzagaondoa ibarra	Valle de Itzagaondoa	Nafarroa
Itzaltzu	Izalzu	itzaltzuar		Zaraitzu	Valle de Salazar	Nafarroa
Iurreta	Iurreta	iurretar		Durungaldea	Durungaldea = Duranguesado	Bizkaia
Izaba	Isaba	izabar		Erronkaribar	Valle de Roncal	Nafarroa
Izpura	Izpura	izpurar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Izturitze	Izturitze	izturiztar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Izura	Izura	izuratar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Izurtza	Izurtza	izurtzar		Durungaldea	Durungaldea = Duranguesado	Bizkaia
Jaitz	Salinas de Oro	jaiztar		Gesalatz ibarra	Valle de Gesalatz	Nafarroa
Jatabe	Maruri-Jatabe	jatabetar		Mungialdea	Mungialdea	Bizkaia
Jatsu (Lapurdi)	Jatsu (Lapurdi)	jatsuar		Lapurdi Erdialdea	Lapurdi Erdialdea	Lapurdi
Jatsu Garazi	Jatsu Garazi	jatsuar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Jaurrieta	Jaurrieta	jaurrietar		Zaraitzu	Valle de Salazar	Nafarroa
Jutsi	Jutsi	jutsiar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Kanbo	Kanbo	kanboar		Lapurdi Garaia	Lapurdi Garaia	Lapurdi
Kanpezu	Campezo	kanpezuar		Mendialdea	Montaña Alavesa	Araba
Karrantza	Valle de Carranza	karrantzar	carranzano/a	Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Kaseda	Cáteda	kasedar		Oibar harana	Valle de Aibar	Nafarroa
Kortezubi	Kortezubi	kortezubitar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Kripan	Kripan	kripandar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Kuartango	Kuartango	kuartangar		Añana	Añana	Araba
Labaien	Labaien	labaiendar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Labetze	Labetze	labetzar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Lagran	Lagrán	lagrandar		Mendialdea	Montaña Alavesa	Araba
Lakarra	Lakarra	lakartar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Lakarri	Lakarri	lakarrar		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Lakuntza	Lakuntza	lakuntzar		Aranatzaldea	Tierra de Aranatz	Nafarroa
Lana	Lana	lanar		Lizarra merindadea	Merindad de Estella	Nafarroa
Landibarre	Landibarre	landibartar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Lanestosa	Lanestosa	lanestosar		Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Lantaron	Lantarón	lantarondar		Añana	Añana	Araba
Lantz	Lantz	lanztar		Anue ibarra	Valle de Anue	Nafarroa
Lantziego	Lanciego	lantziegar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Laphizketa	Laphizketa	laphizketar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Lapoblacion	Lapoblación	lapoblaciondar		Aguilar ibarra	Valle de Aguilar	Nafarroa
Lapuebla de Labarca	Lapuebla de Labarca	lapueblar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Larrabetzu	Larrabetzu	larrabetzuar		Txorierri	Txorierri	Bizkaia
Larrabile	Larrabile	larrabiltar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Larraga	Larraga	larragar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Larragoa	Larraona	larragoar		Ameskoa ibarrak	Las Ameskoas	Nafarroa
Larraine	Larraine	larraintar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Larraul	Larraul	larrauldar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Larraun	Larraun	larraundar		Larraun ibarra	Valle de Larraun	Nafarroa
Larresoro	Larresoro	larresoroar		Lapurdi Erdialdea	Lapurdi Erdialdea	Lapurdi
Larribarre	Larribarre	larribartar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Larriori	Larriori	larrioritar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Larüntze	Larüntze	larünztar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Larzabale	Larzabale	larzabaldar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Lasa	Lasa	lasar		Baigorri-Ortzaize	Baigorri-Ortzaize	Nafarroa Beherea
Lasarte-Oria	Lasarte-Oria	lasartear = oriatar		Donostia-Beterri	Donostia-Beterri	Gipuzkoa
Laudio	Llodio	laudioar		Aiaraldea	Ayala	Araba
Laukiz	Laukiz	laukiztar		Mungialdea	Mungialdea	Bizkaia
Lazkao	Lazkao	lazkaotar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Leaburu	Leaburu	leaburuar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Leatxe	Leatxe	leatxear		Oibar harana	Valle de Aibar	Nafarroa
Lede	Liédena	ledeatar		Zangozerria	Comarca de Sangüesa	Nafarroa
Legarda	Legarda	legardar		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa
Legaria	Legaria	legariar		Egaibar	Valdega	Nafarroa
Legazpi	Legazpi	legazpiar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Legorreta	Legorreta	legorretar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Legutio	Legutio	legutioar		Zuia	Zuia	Araba
Lehuntze	Lehuntze	lehuntzar		Lapurdi Beherea	Lapurdi Beherea	Lapurdi
Leintz Gatzaga	Leintz-Gatzaga	gatzagar		Debagoiena	Debagoiena= Alto Deba	Gipuzkoa
Leioa	Leioa	leioar = leioaztar		Uribe Kosta	Uribe Kosta	Bizkaia
Leitza	Leitza	leitzar		Leitzaran	Leitzaran	Nafarroa
Lekeitio	Lekeitio	lekeitiar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Lekorne	Lekorne	lekondar		Lapurdi Ekialdea	Lapurdi Ekialdea	Lapurdi
Lekuine	Lekuine	lekuindar		Lapurdi Ekialdea	Lapurdi Ekialdea	Lapurdi
Lekunberri	Lekunberri	lekunberriar		Larraun ibarra	Valle de Larraun	Nafarroa
Lekunberri	Lekunberri	lekunberritar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Lemoa	Lemoa	lemoar = lemoaztar		Arratia	Arratia	Bizkaia
Lemoiz	Lemoiz	lemoiztar		Uribe Kosta	Uribe Kosta	Bizkaia
Leotz	Leoz	leoztar		Orbaibar	Valdorba	Nafarroa
Lerga	Lerga	lergar		Oibar harana	Valle de Aibar	Nafarroa
Lerin	Lerín	lerindar		Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
Lesaka	Lesaka	lesakar		Bortziriak	Cinco Villas	Nafarroa
Lexantzü	Lexantzü	lexantzar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Lextarre	Lextarre	lextarrar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Leza	Leza	lezar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Lezama	Lezama	lezamar		Txorierrri	Txorierrri	Bizkaia
Lezaun	Lezaun	lezaundar		Deierri ibarra	Valle de Yerri	Nafarroa
Lezo	Lezo	lezoar		Oiartzualdea	Oiartzualdea	Gipuzkoa
Ligi	Ligi	ligiar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Liginaga	Liginaga	liginagar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Lizarra	Estella	lizarratar	estellés/a	Lizarra merindadea	Merindad de Estella	Nafarroa
Lizartza	Lizartza	lizartzar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Lizoainibar-Arriasgoti	Lizoáin-Arriasgoiti	lizoainibartar		Lizoainibar	Valle de Lizoain	Nafarroa
Lodosa	Lodosa	lodosar		Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
Lohitzüne	Lohitzüne	lohitzüntar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Loiu	Loiu	loiutar = loiuztar		Txorierrri	Txorierrri	Bizkaia
Longida	Lónguida	longidar		Zangoza merindadea	Merindad de Sangüesa	Nafarroa
Los Arcos	Los Arcos	losarcostar		Los Arcosko Bostiriak	Cinco Villas de Los Arcos	Nafarroa
Luhuso	Luhuso	luhusoar		Lapurdi Garaia	Lapurdi Garaia	Lapurdi
Lukin	Luquín	lukindar		Doneztebe Iguzkitza	Santesteban de la Solana	Nafarroa
Lüküze	Lüküze	lüküztar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Luzaide	Valcarlos	luzaidar		Zangoza merindadea	Merindad de Sangüesa	Nafarroa
Makea	Makea	makear		Lapurdi Ekialdea	Lapurdi Ekialdea	Lapurdi
Mallabia	Mallabia	mallabitar		Durungaldea	Durungaldea = Duranguesado	Bizkaia
Mañaria	Mañaria	mañariar		Durungaldea	Durungaldea = Duranguesado	Bizkaia
Mañeru	Mañeru	mañeruar		Mañeruibar	Valle de Mañeru	Nafarroa
Mañueta	Baños de Ebro	mañuetar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Marañon	Marañón	marañondar		Aguilar ibarra	Valle de Aguilar	Nafarroa
Markina-Xemein	Markina-Xemein	markinar = xemeindar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Martxueta	Martxueta	martxuetar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Martzilla	Marcilla	martzillar	marcillés/a	Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Maule	Maule	mauletar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Mehaine	Mehaine	mehaindar		Arberoa	Arberoa	Nafarroa Beherea
Melida	Mélida	melidar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Meñaka	Meñaka	meñakar		Mungialdea	Mungialdea	Bizkaia
Mendabia	Mendavia	mendabiar		Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
Mendaro	Mendaro	mendaroar		Debabarrena	Debabarrena= Bajo Deba	Gipuzkoa
Mendata	Mendata	mendatar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Mendaza	Mendaza	mendazar		Berrotza	La Berrueza	Nafarroa
Mendexa	Mendexa	mendexar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Mendi	Mendi	mendiar		Arbaila Handia	Arbaila Handia	Zuberoa
Mendibe	Mendibe	mendibetar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Mendibile	Mendibile	mendibiltar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Mendigorria	Mendigorria	mendigorriar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Mendikota	Mendikota	mendikotar		Arbaila Handia	Arbaila Handia	Zuberoa
Metauten	Metauten	metautendar		Allin ibarra	Valle de Allín	Nafarroa
Milafranga	Milafranga	milafrangar		Lapurdi Beherea	Lapurdi Beherea	Lapurdi
Milagro	Milagro	milagroar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Mirafuentes	Mirafuentes	mirafuentestar		Berrotza	La Berrueza	Nafarroa
Miranda Arga	Miranda de Arga	mirandar	mirandés/a	Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Mitikile	Mitikile	mitikiltar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Monjolose	Monjolose	monjolostar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Monteagudo	Monteagudo	monteagudoar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Montori = Berorize	Montori = Berorize	montoriar = beroriztar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Moreda	Moreda de Alava	moredar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Morentin	Morentin	morentindar		Iguzkitzaibar	Valle de la Solana	Nafarroa
Morga	Morga	morgar		Mungialdea	Mungialdea	Bizkaia

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Mues	Mués	muestar		Berrotza	La Berrueza	Nafarroa
Mugerre	Mugerre	mugertar		Lapurdi Beherea	Lapurdi Beherea	Lapurdi
Mundaka	Mundaka	mundakar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Mungia	Mungia	mungiar		Mungialdea	Mungialdea	Bizkaia
Munitibar	Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz	munitibartar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Murchante	Murchante	murchantear	murchantino/a	Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Murieta	Murieta	murietar		Egaibar	Valdega	Nafarroa
Murillo el Cuende	Murillo el Cuende	murilloar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Murillo el Fruto	Murillo el Fruto	murilloar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Murueta	Murueta	muruetar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Muruzabal	Muruzábal	muruzabaldar		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa
Muskildi	Muskildi	muskildiar		Arbaila Txipia	Arbaila Txipia	Zuberoa
Muskiz	Muskiz	muskiztar		Ezkerraldea	Margen Izquierda	Bizkaia
Mutiloa	Mutiloa	mutiloar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Mutriku	Mutriku	mutrikuar		Debarrena	Debarrena= Bajo Deba	Gipuzkoa
Muxika	Muxika	muxikar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Nabarniz	Nabarniz	nabarniztar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Nabaskoze	Navascués	nabaskoztar		Nabaskoze almiradioa	Almiradio de Navascués	Nafarroa
Navaridas	Navaridas	navaridastar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Nazar	Nazar	nazartar		Berrotza	La Berrueza	Nafarroa
Noain (Elortzibar)	Noain (Valle de Elorz)	noaindar = elortzibartar		Elortzibar	Valle de Elortz	Nafarroa
Obanos	Obanos	obanostar		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa
Odieta	Odieta	odietar		Iruñea merindadea	Merindad de Pamplona	Nafarroa
Oiartzun	Oiartzun	oiartzuar		Oiartzualdea	Oiartzualdea	Gipuzkoa
Oibar	Aibar	oibartar		Oibar harana	Valle de Aibar	Nafarroa
Oiergi	Oiergi	oiergiar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Oion	Oyón	oiondar	oyonés/a	Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Oiz	Oitz	oiztar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Oko	Oco	okoar		Egaibar	Valdega	Nafarroa
Okondo	Okondo	okondar		Aiaraldea	Ayala	Araba
Olaberria	Olaberria	olaberritar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Olaibar	Olaibar	olaibartar		Iruñea merindadea	Merindad de Pamplona	Nafarroa
Olatzagutia	Olazagutia	olatzagutiar		Burunda	Burunda	Nafarroa
Olexoa	Olejua	olexoar		Egaibar	Valdega	Nafarroa
Olhaibi	Olhaibi	olhaibitar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Ollaran = Olloibar	Valle de Ollo	ollarandar = olloibartar		Olloibar	Valle de Ollo	Nafarroa

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Oloritz	Olóriz	oloriztar		Orbaibar	Valdorba	Nafarroa
Oltza zendea	Cendea de Olza	oltzar		Oltza zendea	Cendea de Oltza	Nafarroa
Oñati	Oñati	oñatiar		Debagoiena	Debagoiena= Alto Deba	Gipuzkoa
Ondarroa	Ondarroa	ondarroar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Onizegaine	Onizegaine	oniztar		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Onizepea	Onizepea	oniztar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Oragarre	Oragarre	oragatar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Orbaizeta	Orbaizeta	orbaizetar		Aezkoa	Valle de Aezkoa	Nafarroa
Orbara	Orbara	orbaratar		Aezkoa	Valle de Aezkoa	Nafarroa
Ordizia	Ordizia	ordiziar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Orendain	Orendain	orendaindar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Orexa	Orexa	orexar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Orio	Orio	oriotar		Donostia-Beterri	Donostia-Beterri	Gipuzkoa
Orisoain	Orisoain	orisoaindar		Orbaibar	Valdorba	Nafarroa
Orkoién	Orkoién	orkoiendar		Oltza zendea	Cendea de Oltza	Nafarroa
Ormaiztegi	Ormaiztegi	ormaiztegiar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Orontze	Oronz	orontzar		Zaraitzu	Valle de Salazar	Nafarroa
Orotz-Betelu	Oroz-Betelu	oroztar		Artzibar	Valle de Artze	Nafarroa
Orozko	Orozko	orozkoar		Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia
Orreaga	Roncesvalles	orreagatar		Zangoza merindadea	Merindad de Sangüesa	Nafarroa
Ortuella	Ortuella	ortuellar		Ezkerraldea	Margen Izquierda	Bizkaia
Ortzaize	Ortzaize	ortzaiztar		Baigorri-Ortzaize	Baigorri-Ortzaize	Nafarroa Beherea
Ospitalepea	Ospitalepea	ospitaletar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Ostankoa	Ostankoa	ostankoar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Oteitza	Oteiza	oteitzar		Iguzkitzaibar	Valle de la Solana	Nafarroa
Otsagabia	Ochagavía	otsagabiar		Zaraitzu	Valle de Salazar	Nafarroa
Otxandio	Otxandio	otxandiar		Durungaldea	Durungaldea = Duranguesado	Bizkaia
Ozaraine	Ozaraine	ozaraintar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Ozaze	Ozaze	ozaztar		Arbaila Handia	Arbaila Handia	Zuberoa
Oztibarre	Oztibarre	oztibartar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Pagola	Pagola	pagolar		Arbaila Txipia	Arbaila Txipia	Zuberoa
Pasaia	Pasaia	pasaitar		Oiartzualdea	Oiartzualdea	Gipuzkoa
Petilla Aragoi	Petilla de Aragón	petillar		Zangozerria	Comarca de Sangüesa	Nafarroa
Piedramillera	Piedramillera	piedramillera		Berrotza	La Berrueza	Nafarroa
Pitillas	Pitillas	pitillastar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Plentzia	Plentzia	plentziar		Uribe Kosta	Uribe Kosta	Bizkaia
Portugalete	Portugalete	portugaletetar	portugalujo/a	Ezkerraldea	Margen Izquierda	Bizkaia

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Puiu	Pueyo	puiuar		Orbaibar	Valdorba	Nafarroa
Ribaforada	Ribaforada	ribaforadar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Saldias	Saldias	saldiastrar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Samaniego	Samaniego	samaniegar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Samatze	Samatze	samaztar		Agaramont	Agaramont	Nafarroa Beherea
San Adrian	San Adrián	sanadriandar		Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
San Martin Unx	San Martín de Unx	sanmartindar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Santa Grazi = Urdatx	Santa Grazi = Urdatx	santagraztar = urdaxtar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Santakara	Santacara	santakarakar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Santsol	Sansol	santsoldar		Los Arcosko Bostiriak	Cinco Villas de Los Arcos	Nafarroa
Santurtzi	Santurtzi	santurtziar	santurzano/a	Ezkerraldea	Margen Izquierda	Bizkaia
Sara	Sara	saratar		Lapurdi Garaia	Lapurdi Garaia	Lapurdi
Sarasketa	Sarasketa	sarasketar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Sarikota	Sarikota	sarikotar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Sarikotagaine	Sarikotagaine	sarikotar		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Sarikotapea	Sarikotapea	sarikotar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Sartaguda	Sartaguda	sartagudar		Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
Sartze	Sarriés	sarztar		Zaraitzu	Valle de Salazar	Nafarroa
Segura	Segura	segurar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Senpere	Senpere	senpertar		Lapurdi Erdialdea	Lapurdi Erdialdea	Lapurdi
Sesma	Sesma	sesmar		Estellerriko Erribera	Ribera de Estella	Nafarroa
Sestao	Sestao	sestaoar		Ezkerraldea	Margen Izquierda	Bizkaia
Sohüta	Sohüta	sohütar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Sondika	Sondika	sondikatar = sondikoztar		Txorierrri	Txorierrri	Bizkaia
Sopela	Sopela	sopelar = sopeloztar		Uribe Kosta	Uribe Kosta	Bizkaia
Sopuerta	Sopuerta	sopuertar		Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Soraluze	Soraluze = Placencia de las Armas	soraluzetar		Debabarrena	Debabarrena= Bajo Deba	Gipuzkoa
Sorhapürü	Sorhapürü	sorhapürtar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Sorholüze	Sorholüze	sorholüztar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Sorlada	Sorlada	sorladar		Berrotza	La Berrueza	Nafarroa
Suhuskune	Suhuskune	suhuskundar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Sukarrieta	Sukarrieta	sukarrietar		Busturialdea	Busturialdea	Bizkaia
Sunbilla	Sunbilla	sunbildar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Tafalla	Tafalla	tafallar	tafallés/a	Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Tebas-Muru Arterderreta	Tiebas-Muruarte de Reta	tebastar = muruarterderretar		Elortzibar	Valle de Elortz	Nafarroa
Tirapu	Tirapu	tirapuar		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Tolosa	Tolosa	tolosar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Torralba del Río	Torralba del Río	torralbar		Aguilar ibarra	Valle de Aguilar	Nafarroa
Torres del Río	Torres del Río	torrestar		Los Arcosko Bostiriak	Cinco Villas de Los Arcos	Nafarroa
Trapagaran	Valle de Trápaga	trapagarandar		Ezkerraldea	Margen Izquierda	Bizkaia
Trebiñu	Condado de Treviño	trebiñar		Trebiñu	Treviño	Burgos
Tulebras	Tulebras	tulebrastar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Turtzioz	Trucios	turtzioztar		Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Tutera	Tudela	tutera	tudelano/a	Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Txulapain	Juslapeña	txulapaindar		Iruñea merindadea	Merindad de Pamplona	Nafarroa
Ubide	Ubide	ubidear = ubideztar		Arratia	Arratia	Bizkaia
Ugao	Ugao-Miraballes	ugaotar = miraballestar		Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia
Uharte	Huarte	uhartear = uharteguesibartar		Eguesibar	Valle de Egüés	Nafarroa
Uharte Arakil	Uharte Arakil	uhartear = uhartearakildar		Arakil ibarra	Valle de Arakil	Nafarroa
Uharte Garazi	Uharte Garazi	uhartear = uhartegaraztar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Uhartehiri	Uhartehiri	uhartear = uhartehiriar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Ukar	Úcar	ukartar		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa
Ultzama	Ultzama	ultzamar		Iruñea merindadea	Merindad de Pamplona	Nafarroa
Unaso	Unaso	unastar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Ündürene	Ündürene	ündürentar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Untzitibar	Unciti	untzitibartar		Zangoza merindadea	Merindad de Sangüesa	Nafarroa
Untzue	Unzué	untzuetar		Orbaibar	Valdorba	Nafarroa
Urdatx = Santa Grazi	Urdatx = Santa Grazi	urdaxtar = santagraztar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Urdazubi	Urdax	urdazubiar		Baztanaldea	Comarca de Baztan	Nafarroa
Urdiain	Urdiain	urdiaindar		Burunda	Burunda	Nafarroa
Urdiñarbe	Urdiñarbe	urdiñarbatar		Arbaila Txipia	Arbaila Txipia	Zuberoa
Urduliz	Urduliz	urduliztar		Uribe Kosta	Uribe Kosta	Bizkaia
Urduña	Orduña	urduñar		Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia
Urepele	Urepele	urepeldar		Baigorri-Ortzaize	Baigorri-Ortzaize	Nafarroa Beherea
Urizaharra	Peñacerrada	urizahartar		Mendialdea	Montaña Alavesa	Araba
Urkabustaiz	Urkabustaiz	urkabustaiztar		Zuia	Zuia	Araba
Urketa	Urketa	urketar		Lapurdi Beherea	Lapurdi Beherea	Lapurdi
Urnieta	Urnieta	urnietar		Donostia-Beterri	Donostia-Beterri	Gipuzkoa
Urraulbeiti	Urraúl Bajo	urraulbeitiar		Urraul	Urraul	Nafarroa
Urraulgoiti	Urraúl Alto	urraulgoitiar		Urraul	Urraul	Nafarroa
Urretxu	Urretxu	urretxuar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan ²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Urrotz	Urroz-Villa	urroztar		Itzagaondoa ibarra	Valle de Itzagaondoa	Nafarroa
Urroz	Urrotz	urroztar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Urruña	Urruña	urruñar		Lapurdi Itsasegia	Lapurdi Itsasegia	Lapurdi
Ürrüstoi	Ürrüstoi	ürrüstoitar		Pettarra	Pettarra	Zuberoa
Urzainki	Urzainqui	urzainkiar		Erronkaribar	Valle de Roncal	Nafarroa
Usurbil	Usurbil	usurbildar		Donostia-Beterri	Donostia-Beterri	Gipuzkoa
Uterga	Uterga	utergar		Izarbeibar	Valdizarbe	Nafarroa
Uxue	Ujué	uxuetar		Erriberri merindadea	Merindad de Olite	Nafarroa
Uztaritze	Uztaritze	uztariztar		Lapurdi Erdialdea	Lapurdi Erdialdea	Lapurdi
Uztarroze	Uztároz	uztarroztar		Erronkaribar	Valle de Roncal	Nafarroa
Valtierra	Valtierra	valtierrar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Viana	Viana	vianar	vianés/a	Vianaldea	Comarca de Viana	Nafarroa
Villabona-Amasa	Villabona	billabonatar = amasar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Villabuena	Villabuena de Álava	villabuenar		Arabako Errioxa	Rioja Alavesa	Araba
Villamayor de Monjardin	Villamayor de Monjardín	villamayortar		Doneztebe Iguzkitza	Santesteban de la Solana	Nafarroa
Villatuerta	Villatuerta	villatuertar		Iguzkitzaibar	Valle de la Solana	Nafarroa
Villaverde Turtzioz	Valle de Villaverde			Enkarterri	Encartaciones	Kantabria
Xabier	Javier	xabiertar		Zangozerria	Comarca de Sangüesa	Nafarroa
Zabaltza	Zabalza	zabaltzar		Etxauribar	Valle de Etxauri	Nafarroa
Zaldibar	Zaldibar	zaldibartar		Durangaldea	Durangaldea = Duranguesado	Bizkaia
Zaldibia	Zaldibia	zaldibiar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Zalduondo	Zalduondo	zalduondar		Agurain	Salvatierra	Araba
Zalgize	Zalgize	zalgiztar		Arbaila Handia	Arbaila Handia	Zuberoa
Zalla	Zalla	zallar		Enkarterri	Encartaciones	Bizkaia
Zamudio	Zamudio	zamudiotar = zamudioztar		Txorierri	Txorierri	Bizkaia
Zanbrana	Zambrana	zanbrantar		Añana	Añana	Araba
Zangoza	Sangüesa	zangozar		Zangozerria	Comarca de Sangüesa	Nafarroa
Zaratamo	Zaratamo	zaratamar = zaratamoztar		Hego Uribe	Hego Uribe	Bizkaia
Zarautz	Zarautz	zarauztar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Zare	Sada	zarear		Oibar harana	Valle de Aibar	Nafarroa
Zaro	Zaro	zaroar		Garazi	Garazi	Nafarroa Beherea
Zarrakaztelu	Carcastillo	zarrakazteluar		Tutera merindadea	Merindad de Tudela	Nafarroa
Zeanuri	Zeanuri	zeanuritar = zeanuriztar		Arratia	Arratia	Bizkaia
Zeberio	Zeberio	zeberioar = zeberioztar		Arratia	Arratia	Bizkaia
Zegama	Zegama	zegamar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa

Udalerria - Municipio		Herritarra - Gentilicio		Kokapena - Localización		
Euskarazko hedabideetan²	Medios en castellano	Euskara	Castellano ³	Eskualdea	Comarca	Herrialdea
Zerain	Zerain	zeraindar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Zestoa	Zestoa	zestoar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Zibitze	Zibitze	zibiztar		Oztibarre	Oztibarre	Nafarroa Beherea
Ziboze	Ziboze	ziboztar		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Ziburu	Ziburu	ziburutar		Lapurdi Itsasegia	Lapurdi Itsasegia	Lapurdi
Zierbena	Zierbena	zierbenar		Ezkerraldea	Margen Izquierda	Bizkaia
Zigoitia	Zigoitia	zigoitiar		Zuia	Zuia	Araba
Zihiga	Zihiga	zihigar		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Zilhekoa	Zilhekoa	zilhekoar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Ziordia	Ziordia	ziordiar		Burunda	Burunda	Nafarroa
Ziortza-Bolibar	Ziortza-Bolibar	ziortzar = bolibartar		Lea-Artibai	Lea-Artibai	Bizkaia
Zirauki	Cirauqui	ziraukiar		Mañeruibar	Valle de Mañeru	Nafarroa
Ziritza	Ciriza	ziritzar		Etxauribar	Valle de Etxauri	Nafarroa
Zizur	Cizur	zizurtar		Zizur zendea	Cendea de Zizur	Nafarroa
Zizur Nagusia	Zizur Mayor	zizurtar = zizurnagusitar		Zizur zendea	Cendea de Zizur	Nafarroa
Zizurkil	Zizurkil	zizurkildar		Tolosaldea	Tolosaldea	Gipuzkoa
Zohazti	Zohazti	zohaztiar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Zohota	Zohota	zohotar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Zokotze	Zokotze	zokoztar		Amikuze	Amikuze	Nafarroa Beherea
Zornotza	Amorebieta-Etxano	zornotzar		Durangaldea	Durangaldea = Duranguesado	Bizkaia
Zubieta	Zubieta	zubietar		Malerreka	Malerreka	Nafarroa
Zugarramurdi	Zugarramurdi	zugarramurdiar		Baztanaldea	Comarca de Baztan	Nafarroa
Zühara	Zühara	züharrar		Arbaila Handia	Arbaila Handia	Zuberoa
Zuia	Zuia	zuiar		Zuia	Zuia	Araba
Zumaia	Zumaia	zumaiaar		Urola Kosta	Urola Kosta	Gipuzkoa
Zumarraga	Zumarraga	zumarragar		Goierri	Goierri	Gipuzkoa
Zunharre	Zunharre	zunharrar		Ibarrezker	Ibarrezker	Zuberoa
Zunharreta	Zunharreta	zunharretar		Ibarresküin	Ibarresküin	Zuberoa
Zuñiga	Zuñiga	zuñigar		Berrotza	La Berrueza	Nafarroa
Zuraide	Zuraide	zuraidar		Lapurdi Garaia	Lapurdi Garaia	Lapurdi

Erreferentzia orokorrak

- Agencia EFE (2011): **Libro del estilo urgente**. Madrid. Galaxia Gutenberg.
- Alberdi, X. (2001): **Euskal estilo libururantz: gramatika, estiloa eta hiztegia**. Bilbo. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Alcoba, S. (coord.) (2009): **Lengua, comunicación y libros de estilo**. Barcelona. Premisas.
- Antena 3 TV (1995): **Telenoticias. Libro de estilo**. Madrid. Antena 3 TV.
- Arrasate, M. (1992): **Euskarazko albistegietarako esku-liburua**. EITB.
- Asociación Ayuda y Orientación a los Afectados por Accidentes de Tráfico: **Código deontológico para los medios de comunicación**.
- Asociación de Periodistas del País Vasco: **Código deontológico de la profesión periodística (FAPE)**.
- Asociación de Periodistas del País Vasco: **Inmigración y Medios de comunicación. Manual recopilatorio de buenas prácticas (Egilea: "Harresiak Apurtuz")**.
- Asociación española de profesionales del autismo: **Recomendaciones profesionales a los medios en el tratamiento del autismo**.
- Bengoechea, Mercedes (2002). "Orientaciones para una representación femenina no discriminatoria en la textualización de la noticia", en J.G. Antuñano (ed.), **Mujeres, Hombres y Medios de Comunicación**. Valladolid: Lex Nova y Junta de Castilla-León.
- Berria (2006): **Estilo liburua**. Donostia. Euskal Editorea.
- British Broadcasting Corporation (BBC) (2007): **Directrices editoriales. Valores y criterios de la BBC**. Madrid. Asociación de la Prensa de Madrid.
- British Broadcasting Corporation (BBC): **The BBC News Styleguide**.
- CNN en Español (2002): **Manual de estilo y referencia. CNN en español**. CNN.
- **Código de autorregulación sobre contenidos televisivos e infancia**.
- Comisión de Imagen Social de la Discapacidad y Medios de Comunicación: **Decálogo para un uso apropiado de la imagen social de las personas con discapacidad**.
- Consell de l'Audiovisual de Catalunya: **Medios de comunicación y pluralismo religioso**.
- Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals (CCMA) (2010): **Llibre d'estil**.
- Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals (CCMA) (2011): **Manual d'us**.
- Corporació Catalana de Mitjans Audiovisuals (CCMA): **Estatut del Defensor o Defensora de l'Audiència**.
- Corporación de Radio y Televisión Española (2010): **Libro de Estilo de RTVE. Directrices para los profesionales**.
- Egunkaria (2001): **Estilo liburua**. Donostia. Egunkaria.
- El Mundo (1996): **Libro de Estilo**. Madrid. Temas de Hoy.
- El País (2014). **Libro de estilo**. Madrid. Ediciones El País.
- Euskal Irrati Telebista (2009): **EITBko Jarraibide Editorialak eta Tratamendu Informatiboa Giza Eskubideei, Biktimen Arretari eta Bakeari dagokien gaian**.
- Euskal Irrati Telebista (EITB): **EITBren Gizarte Erantzukizuna (2013-14ko memoria)**.
- Fundación del Español Urgente (Fundéu) (2011): **Estilo: Manual para nuevos medios**.

- Grijelmo, A. (1997): **El estilo del Periodista**. Madrid. Taurus.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP) (2005): **IVAPeko etilo-liburua**. Donostia. IVAP.
- Instituto de Cultura Gitana (2011): **Manual para medios de comunicación**. Madrid. Instituto de Cultura Gitana.
- International Federation of Televisión Archives/Federación Internacional de Archivos de Televisión (FIAT/IFTA): **Directrices para el uso correcto del material de archivo en film o vídeo**.
- Larrinaga, A. (2012): **Albiste testu bikainak. Irrati eta telebistarako eskuliburua**. EITB.
- Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo (PNUD): **Manual de género para periodistas**.
- Public Broadcasting Service (PBS): **Editorial Standars and Policies**.
- Radio y Televisión de Andalucía (2004): **Canal Sur Televisión y Canal 2 Andalucía. Libro de Estilo**. Sevilla. RTVA.
- Rede Galega contra a Pobreza (EAPN Galicia). Asociación Galega de Reporteiros Solidarios: **¿Cómo informar de colectivos en riesgo de exclusión? Guía de estilo para periodistas**.
- Servimedia (2003): Libro de Estilo. Periodismo social. **El compromiso de la información**. Madrid. Servimedia.
- Telemadrid (1993): **Libro de estilo de Telemadrid**. Madrid. Ediciones Telemadrid.
- Twitter (2011): **Twitter for Newsrooms**.
- UNESCO Etxea (2011): **Comunicar la sostenibilidad. Guía para periodistas**. Bilbao. UNESCO Etxea.
- Unión de profesionales de la imagen y la fotografía de Catalunya (UPIFC) (2011): **Derechos y límites del periodismo gráfico**.
- Zubimendi, J. R.; Esnal, P. (1993): **Idazkera-liburua**. Gasteiz. EJKo Kultura Saila.

EITBren estilo liburuak banan-banan heltzen die Euskal Herriko erredakzioetan maiz zalantzak eta debateak eragiten dituzten aktualitateko gai ei eta arazo deontologikoei. Gai eta arazook aztertu, eta horien gainean jarrera finkatzeko saio bat egiten du, hedabide publikoa den aldetik dagokion erantzukizuna aintzat hartuta: zertarako ari garen, eta zelan ari garen.

UPV/EHUK eta EITBk elkarlanean eraman duten asmo honetan, diziplinar teko talde profesional batek finkatu ditu tratamendu informatiboaren eta jardunbide profesionalaren jarraibideak, kalitatezko kazetaritza bultzatzeko helburuz.

Obra hau komunikazioaren profesional ei zuzenduta dago, bai eta komunikatzaileak prestatzen dituen irakaskuntzako eta unibertsitateko munduari ere; halaber, informazioaren kalitateaz kezkatuta dauden herritarrei.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

